

Silvain Pouvreau

**IESUSEN
IMITAZIONEA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Jesusen imitacionea*, Silvain Pouvreau.
Hordago, 1979

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00706.htm>

IESUSEN IMITAZIONEA

SILVAIN POUVREAU APEZAK
ESKARAZ EMANA

PARISEN MDCLXIX

**LEHEN LIBURUA:
IESUSEN IMITAZIONEAZ**

LEHEN KAPITULUA

Munduko banaloria guzien mesprezioaz.

1. *Nor ere baitarrait eztabilla ilhunbean, aitzitik izanen du biziaren argia* (Io. 8, 12), dio gure iaunak. Hauk dira gure Salbatzaieearen hitzak eta hetaz gonbidatzen gaitu bere biziaren eta bizitzeko antzearen iarraikitza nahi badugu egiazko argiaz gozatu, eta bihotzeko ilhuntasun guzietarik libratu ibilli.

Biz bada gure artharik handiena Iesus-en bizitzea hemendik hara gogoan erabiltea.

2. Gure Salbatzailearen dotrina garaitzen zaie bertze Saindu guzien nahiz diren dotrinei, eta nork ere bailuke haren endellegua hartan barrena kausi lezake, zeruko iakia gorderik.

Bainan hala gertatzen da non hainitzek, Ebanjelioa maiz enzunagatik hari iarraikitzekeo desir guti eta hala ere hotzik sentitzen baitute, zeren eztuten Iesus-en espiritua ardietsi.

Bada nork ere nahi baititu haren hitzak osoki eta gozoki iakin, behar du bere bizitza guzia haren bizitzearen gainean ahal bezanbat moldatu.

3. Zer probetxu duzu gauza handirik ebastia Trinitate sainduaren gainean humiltasuna ezpazu zeinagabe higoinduko baitzaizko Trinitate sainduari?

Gertuz gauza gorez mintzatzeak eztu nihor egiten saindu eta iustu, baina bai bizitze bertutesuak hura egiten du lainkoaren gogorako.

Nahiago dut urrikimendua ene baitan sentitu, ezen ez iakin zer den urrikimendua.

Bazeneaki ere Eskiritura saindu guzia gogoz eta endelleguz, bai eta filosofen erran zuhur guziak bazeneakizki, zer probetxu zenduke handik, karitatea eta grazia gabe?

Banalarien banalaria, eta guziak banalaria (Eccl. 1), lekat Jainkoa maite izaitea, eta hari xoilki serbitzu egitea baizen.

Guzien gaineko zuhurzia eta iakintasuna da zeruko erresumara gogoz eta obraz xedatzea, mundua mesprezaturik.

4. Beraz banaloria da galkor diren aberatstasun galkorren ondoan ibiltzea, eta hetan esperanza emaita.

Banaloria da ohoreen ondoan kexatzea, eta gradu edo kargu handietara alxatzea.

Banaloria da haragizko guthiziei iarraitzea, eta, zeren ene gatik garratzki pensatu behar baita nihor, haren desiratzea.

Banaloria da bizitze luzearen desiratzea eta prestuki bizitzeaz axola guti izaitea.

Hainitz dira zeinen iakite hutsak probetxu guti baitakarkeo arimari edo ez bat ere eta erho handia da nork ere buruan baitarabilla bere arimaren salbamenduko gauzez bertzerik. Hainitz hitzgileak eztu arima satiatzen, baina bizitze prestuak bozten du gogoia, eta konszientzia garbiak emaiten du lainkoa baitako fidanza handia.

3. Zenbatenaz areago eta hobeki baitakizu hanbatenaz garratzkiago iujeaturen zare, saindukiago bizi ezpazara.

Etzaitezila beraz urguillu ikasi duzun ofizioa edo ardietsi duzun iakintasuna gatik; aitzitik zarela beldur eman izan zaitzun ezagutza gatik.

Iduri badagotzu hainitz gauza dakizula, eta ongi aski, halarik ere iakin ezazu geiago dela eztakizunik.

Ez egin zure burua iakin handi, aitzitik zinetan aitor ezazu zure iakingabea.

Zergatik nahi duzu abantaila hartu bertzeen gainean ikusirik hainitz bertzerik edireiten dela zu baino iakinsunagorik? eta legeetan frogatua-gorik?

Nahi baduzu zerbait ikasi eta iakin zure probetxutan duzun atsegin zeren munduak etzaituen ezagutzen eta ez deus zadutzan.

4. Beregaineko eta probetxu guziz handitako Lekziona eta iakintasuna da, bere burua ongi ezagutzea eta mesprezatzea.

Bere burua ezdeus idukitzea eta bertzeez bethiere iujeamendu on eta kontu handi egitea zuhurzia eta perfekzione handia da.

Nihor ikus bazeneza ere ageriz bekatutan erorten, edo zerbait gaizki handi egiten, etzen-

duke hargatik zure burua hobe estimatu behar, zeren ezpaitakizu noiz artean prestutasunean ahal zaudezken.

Banalaria da oraiko bizitzeari xoilki gogoia ematea, eta etorkizunari aitzinetik ez behatzea.

Banalaria da lasterka iragaiten diren gauzei amudio ekartzea eta sekulako bozkario dagoen lekura ez lehiatzea.

5. Orhoit zaitzemaiz ohiko erranaz: *eztela begia asetzen ikusteaz, ez eta beharria enzuteaz*. Eccls. 1

Duzun bada artha, zure bihotzaren atheratzeaz ikusten diren gauzetarik, eta haren eramaiteaz ikusten eztirenetara. Ezen nor ere baitarraio bere gutizien oldeari hark bere konszientzia lizuntzen du, eta lainkoaren grazia galtzen.

BIGARREN KAPITULUA

*Behar duela nor nahik bere buruaz
sentimendu humil eduki.*

1. Badute guziek bere sorkuraz iakiteko gut-hizia, ordea iakiteak zer dakarke lainkoaren bel-durtasunik ezpada? Segur lainkoa serbitzatzen duen langille humilla hobea da, zeruen itzul-inguruan bere burua largaturik miratzen hari den Filosofo urguillua baino.

Nora ere ongi ezagutzen baitu, berehala bere burua xipi daduka, eta eztu atseginik hartzen munduko laudorioez.

Baneakizki ere munduan diren gauza guziak eta ediren banendi karitatez eta graziaz billusirik zer probetxu nuke ene obrak gatik iujeatu behar nauen lainkoaren aitzinean?

2. Larga zazu iakiteko guthizia soberaniazko hura, ezen hartan hainitz errebelamendu da eta enganamendu hainitz. Iakinsunek nahi ohi dute

munduak ikus detzan, eta erran dezan hainitz iakinak direla.

Guziak erorkor, hautskor eta flako gare, bainan eztadukazula zu baino erorkoragorik eta flakoagorik badela.

HIRURGARREN KAPITULUA

Egiaren Dotrinaz.

1. Doatsua da, nor ere egiak dotrinatzen baitu, berak ordea, ez figurez ez eta iragaiten diren hitzez, baina bera den bezala.

Gure iduritzeak eta usteak maiz enganatzen gaitu eta guti dakusa.

Zer probetxu dakarke gauza estalirik eta gorderik nabarmenki iakin nahiz erabilteak, ezpaignara akometaturen azken iujeamenduan zeren halakorik eztugun iakin.

Gure erhokeriaren handia! Gauza premiaskoak eta probetxusak utzirik gure gogo guzia etxatzen dugu kuriosetara eta galgarrietara: begiak itugula eztugu ikusten.

2. Zer ansia dugu filosofek bere artean gauza jeneralen eta berezien gainean darabiltzaten solhasez? Nori ere baitzaio minzo lainkoaren hitza eta zuhurzia, hainitz opinionetarik libratua da.

Gauza guziak heldu dira hitz batetarik, eta bat hura aiphatzen dute guziek, eta hura da gauza guzien ithurburua, guri ere mintzo zaikuna.

Hura gabe eztu nihork endellegatzen, ez eta ongi iujeatzen.

Nork ere gauza guziak baitadutza bat, eta guziak batetara baitakaske, eta guziak batetan baitakuski, hura ahal daite bihotzaz finko eta Jainkoa baitan bake iar diteke.

O lainko egia, egin nazazu zurekin bat bethiereko karitatean.

Hainitzetan unhatzen naiz hainitz irakurtzeaz eta enzuteaz: zure baitan da nahi eta desiratzen dutan guzia.

Beudez ixilik iakinsun handiak, beudez kreature guziak hitzik gabe zure aitzinean, zu xoilki, othoi minza zakizkit.

3. Zenbatenaz bilduago, iuntatuago eta iarriago baita nihor bere buruarekin, bertzetara barriatu gabe, hanbatenaz guza geiago eta goragoak aditzen tu traburik gabe, zeren argia izaiten baitu gainetik hekin endellegatzeko.

Espiritu garbia, sinplea eta fermua, lan hainitz izanagatik ezta kexatzen, ez barraiatzen, zeren gauza guziak egiten baititu lainkoaren ohoretan, eta enseiatzen baita geldi egoitera beren baitan, deusik beretzat bilha ibilli gabe.

Zerk trabatzen eta tarritatzenago zaitu bihotzean dadukazun pasione bildumatu gabeak baino?

Gizon prestuak eta debotak lehen bere baitan ordenatzen tu kanpoan egin behar dituen lanak, eta egitekoek hura eztaramate inklinazio-ne gaiztoaren guthizietara, aitzitik hark erakaritzen tu arrazoinaren neurrira eta xedera.

Nork du gudu gaitzagorik bere buruari garaitzera lotzen denak baino?

Bizkitartean hura behar lizate gure lan handiena izan, gure buruari garaitzea, egun oroz gure burua baino sendoago eta bortitzago iartzea, eta bethi onean geiago aitzinatzea.

4. Zein ere nahi den perfekzioneri zerbait eskas datxeka bizitze hunetan, eta gure behatze guzietan lanbrotzen zaizkigu begiak eta ilhuntzen.

Zure buruaren ezagutze humilla bide segurago da lainkoa gana heltzeko, ezen ez iakintasun guzietan barrena sartzea.

Badarik iakintasuna edo nahiz diren gauzen ezagutza sinplea ezta gaizki erraiteko, bera den bezala konsideraturik ona baita, eta lainkoak ordenatua, bainan bethiere abantailla eman behar zaio konszientzia onari eta lainkoaren araberako bizitzeari.

Zeren ordea hainitzak enseiatzenago baitira iakitera, ezen prestuki bizitzera, hargatik maiz enganutzen dira eta probetxurik bat ere edo guti baizen ezta karkete.

5. O! Baldin galde kuriosik egitera eta erabiltera ekartzen duten bezanbat neke eta ernetasun har balezate ere bekatuen atheratzeko eta bertuteen landatzeko, elizate hanbat gaixtakeria eta eskandalisa jendartean, ez eta horrenbat largotasun konbentuetan.

Segur azken iujeamendu eguna datorrenean, etzaiku galdeginen zer irakurri dugun, baina bai zer egin dugun, ez eta zein ederki minzatu garen, baina bai zein bertutezki bizi izan garen.

Erradazu, othoi, non dire orai zuk oraino bizi-rik eta kollejoetan nausi iarririk ezagutu ditzun laun eta Dotor hek guziak?

Bertzeek orai dadutzate hekin lekuak, eta eztakit hetaz orhoit direnz ere.

Bizi zireino baziruditen zerbait zirela, eta oraikoan ezta nihor hetaz minzaten.

6. O *zein* laster iragaiten den munduko loria! Ailitzaio hekin bizitzea ardietsi zuten iakintasunari, orduan erran liteke ongi estudiatu eta irakurri zuketela.

Zenbat galtzen diren munduan banaloriazko iakintasuna gatik, lainkoaren serbitzuaz axola guti izanez.

Eta zeren nahiago duten handi izan, ezen ez humil, hargatik airatzen zaie burua ber gogoetetan.

Egiaz handi da nork ere karitate handia baitu.

Egiaz handi da nork ere baitan xipi baita, eta ohore mukuru guziak ez deus baitadutza.

Egiaz zuhurra da lurreko gauza guziak ongari estimatzen dituen Jesus-en irabastea gatik.

Egiaz xoil iakinsuna da lainkoaren borondatea egiten duena, berea utzirik.

LAUGARREN KAPITULUA

Egitekoei aitzinetik behatzeaz eta hetan behar den zuhurzia.

1. Hitz guziak eztira zinetsteko, ez eta gogoratzen diren guziak, baina dena den bezala pisatu behar da begiratzuz, eta astiroki lainkoaren arauera.

Ha dolorea! hainitzetan errazkiago gure lagunaz gaizkia zinetsten dugu ongia baino, hain flako baigara ezen.

Ordea gizon zuhurrek eztituzte berehala berri ekarleak zinetsten: baitakite gizonaren flakotasuna gaizkira eroria, minzakorra eta hitzetan erorkorra dela.

2. Zuhurzia handia da egitekoetan ez lehiatzea, eta bere burua ustetan ez thematzea.

Zuhurziari ere dagoka elhe berri guziak ez zinetstea, eta adituak edo zinetsiak berehala, bertzeren beharrietara ez eramaitea.

Har ezazu gizon zuhur eta konszienzia onetako baten konseillua, eta duzun artha geiago zu baino hobeagorik bilhatzeaz haren ganik ikaste-ko, ezen ez zure buruko asmatzen ondoan ibil-teaz.

Bizitze prestuak egiten du gizona zuhur lainkoaren aitzinean, eta hainitz gauzatan iakinduri.

Zenbatenaz humillago baita gizona, eta lainkoagana obedientago, hanbatenaz izanen da zuhurrago eta bakeago ibil-bide guzietan.

BORTZGARREN KAPITULUA

Eskiritura sainduaren irakurtzeaz.

1. Egia bilhatu behar da Eskiritura sainduan, ez aharantza ederra.

Eskiritura sainduan datzan guzia irakurri behar da egin izan den bezalako espirituarekin.

Eskiriturretan lehen bilhatu behar dugu gure arimaren probetxua, ezen ez hitzen zotillezia.

Debozinezko liburu apalak irakurri behar ditugu gauza gorez eta barrenez minzo direnak bezain gogotik.

Ez beha ea liburua egin duenak hainitz edo guti dakienz, bainan egia hutsaren amudioak gonbida zaitzala haren irakurtzera.

Eztuzula ansiarik nor minzo den baina beha zazu zer den errana.

2. Badoaz gizonak, bainan lainkoaren Egia sekulakotz dago.

lainkoa hainitz moldez minzo zaiku nihoren begitartera behatu gabe.

Gure iakin nahi egiak maiz paxelatzen gaitu eskiritura sailduen irakurtzean, noiz ere nahi baitugu hetan barrenegi sartu eta sinpleki iragan behar lizatekeiena sondatu.

Nahi baduzu probetxurik ardietsi, irakur ezazu humilki, sinpleki eta fidelki, eta eztakizula sekulan burura ethor iakinsun zarelako aiphame-naren nahia.

Egitzu zure galdeak emeki eta zaude ixil zuhurren hitzen enzuten.

Eztakizkitzula higoin zaharren erranak eta konparazioneak, zeren eztira alferrik eta arrazoi-nik gabe atheratzen.

SEIGARREN KAPITULUA

Afekzione desordenatuez.

1. Noiz ere zebaitez guthiziatzen baita gizona behar ezten legez, berehala bere baitan asaldatzen da.

Superbioak eta abariziosak eztute nihoiz ere pausurik: bainan gogoz eta bihotzez pobre eta humil direnak gozaten dire.

Bere baitan osoki mortifikatua oraino ezten gizona laster tentatzen da eta benzutzen gauza aphurretan eta ezdeusetan.

Espiritu flako duena eta haragizko eta munduko gauzetara nolazpait oraino etzina dena, nekez osoki aparta diteke lurreko guthizietarik eta hargatik maiz tristetzen da hetarik apartatzeaz eta errazki haserretzen da nihor iartzen bazaio kontra.

2. Ordea behin ardietsten badu desiratzen duena, berehala konszienziaren ausikiak hura kexatzen du, eta eranzuten egiten dio, zeren

iarraiki zaion bere guthiziadurari, ikusirik etzaio-
la deusetan heltzen bilha zebillan bakearen
ardietsten.

Bada guthizien kontra iarriz aurkitzen da
bihotzeko bake egiazkoa eta ez hei iarraikiz.

Beraz ezta bakerik haragiara, edo kanpoko
gauzetara emana den gizonaren bihotzean,
baina bai gizon espirituala eta lainkoa gana pits-
tua baitan.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

*Esperanza falsoari eta
superbiotasunari ihes egiteaz.*

1. Banaloriazkoa da bere esperanza gizonetan edo kreaturetan ezarten duena.

Etzarela ahalke bertzeen serbitzatzera Iesus-en amorea gatik, eta mundu hunetan pobre iduritzera.

Etzaitzila fida zure buruaz, baina ezar ezazu zure esperanza lainkoa baitan xoilki.

Egizu egin ahala zure aldetik eta lainkoa helduko zaio zure borondate onari.

Etzaitzila fida zure iakinaz edo nihoren arteziaz, bai ordea lainkoaren grazia baitan: hark abantailatzen baititu humillak eta bere burua handi dadukatenak behekitzen.

2. Etzaitzila loria aberatstasunetan, balin baduzu, ez eta adiskidetan zeren handi diren, baina lainkoa baitan, zeinak den guzia emaiten

baitu eta desiratzen ere bere buruaren emaitera gauza guzien gainerik.

Etzaitezila urguillu zure gorputzeko handitasuna edo edertasuna gatik, zeren aphur bat erituz galtzen da eta itsusten.

Etzaitezila loria zure fetxotasunaz edo espiritu ederraz, beldurrez higoian zakizkon lainkoari, zeinarena baita zer ere onik baituzu zure izaitez.

3. Eztadukazula bertzeak baino hobeare zarelara, beldurrez gaixtoago ediren zaitez in lainkoaren aitzinean, zeinak baitaki zer den gizona baitan.

Eztuzula burupenik zure obra onak gatik zeren bertzela iujeatzen du lainkoak, eta munduak bertzela, eta hainitzetan lainkoari itsusi zaio munduari eder zaiona.

Zerbait onik baduzu, zinets zazu bertzeek hobeagorik dutela, humiltasuna begira dezazun gatik.

Eztukezu kalterik guzien azpian iartzeaz, baina bidegabe handi egiten diozu zure buruari bat baino gorago altxatzeaz.

Humilla gozaten da ardurako bakeaz, eta superbioaren bihotzean ostantatzen dira inbidia eta bekaitsteria.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

*Begiratu behar dela sobera familier
izaitetik.*

1. Eztiezezula zure bihotza guziei ager: bairan egitzu zure egitekoak gizon zuhur eta lainkoaren beldur batekin.

Gazteekin eta kanpokoekin etzaitezila maiz ibil.

Aberatsak ez lausenga, eta handien aitzinera ez ager gogotik.

Laket bekizu humillekin eta sinpleki, debotekin eta aztura onetakoekin, eta hekin artean minza zaite gauza sailduz.

Etzaitezila treba familier noiz den emakumeekin, bairan emazte prestu guziak orobat gomenda diotzotzu lainkoari.

Duzun desira lainkoarekin xoilki eta haren Angeruekin familier izaiteko, eta ihes egizu gizonen ezagutzatik.

2. Karitate behar da guzien aldera, bainan guziekin trebe izaitea ezta on.

Batzutan gertatzen da norbait ezagutua ezte-
nean ongi aiphatzen dela bere omen ona gatik,
eta berak jendartean sarturik lanbotzen dituela
ikusten dutenen begiak.

Zenbait aldiz iduri dagoku bertzeei egiten
deraeugula atsegin hekin artean sartzeaz, eta
orduan hasten gare hei higoitzen gure aztura
gaixtoak konsideratuz.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

Obedienziak eta azpiko iartzeak.

1. Guztiz gauza handia da obediencian egoitea, Superior baten azpian bizitzea, eta bere burua ez izaitea bere eskuko.

Hagitz segurago da azpiko izaitea, Nausi eta Kargudun baino.

Hainitzak obedienciaren azpian daude borxazago karitatez baino, eta halakoek pena dute, arinki darasate, eta bihotzeko libertatea ez tute ardietsiko iartzen ezpadira gogo guziaz norbaiten meneko lainkoa gatik.

Laster egizu huna edo horra, zoaz nora nahi, eztuzu pausurik edirenen Superior baten manua-ren azpian humilki iarririk baizen.

Iduritzeak eta lekutik lekura aldatzeak hainitz enganatu dute.

2. Egia da batbedera gogotik hari dela iduri dagokanaren arauera, eta lixturtzenago dela

berak bezalako sentimendu dutenen aldera; baina lainkoa gure artean badago, premia da batzutan utz dezagun gure sentimendua bake izaitea gatik.

Nor da hain zuhur non diren guziak ahal dakizkiyen?

Beraz etzaitezila sobera perma zure sentimenduaren gainean, baina bertzerena ere enzun ezazu gogotik; ezen zure sentimendua ona bada eta hura lainkoa gatik largatzen baduzu bertzearenari iarraikitzeke, probetxu geiago handik atherako duzu.

3. Hainitzetan aditu dut segura dela enzutea eta konseillu hartzea, emaita baino.

Gerta diteke ere bataren eta bertzearen konseillua on izanen dela; baina bere ez utzte berzteari amor egitea gatik, arrazoinak hala nahi direnean, superbioaren eta nabarmenaren seinalea da.

HAMARGARREN KAPITULUA

*Begiratu behar dela soberazko
hitzketetarik.*

1. Ihes egizu munduko abarrotsetik ahal bezanbat: zeren lurreko gauzen tratuak, intenzione onez egiten bada ere, hagitx paxelatzen gaitu: zeren laster atzemaiten baigaitu banalorriak eta eramaiten.

Nahi nuke hainitz aldiz ixil egon baninz, eta konpainietan sartu ezpaninz.

Zergatik ordea hain gogotik solhastatzen dugu elkar, ikusirik gutitan bihurtzen garela ixil egoitera, non eztugun konszienza zerbaitez zaurtu?

Hargatik hain gogo idekiz iartzen gare hitz giten, zeren elkarrekiko solhasez baigabiltza elkar ganik konsolazione bilha, eta nahi baigenduke gure bihotz nahasia eta hainitz gogoeta suertez kapatua bide hartaz arindu.

Eta atsegin handi dugu orhoitzeaz eta minzatzaz hagitz maite edo desiratzen ditugun gauzez bai eta gure desgogorakoez arrankuratzeaz.

2. Ha dolorea ordea! Hainitzetan hutsik eta alferrik hari gare zeren kanpoko konsolazione hark eztio kalte guti ekartzen barreneko eta lainkoa gainikako konsolazionean.

Hargatik erne egon behar da eta othoitz egin arren denbora eztoan alferrik.

Sori bada minzatea eta behar bada, minzazite gauza onez eta arimari ukiten zaizkonez.

Gure usanza gaixtoak eta aitzinamendu espiritualaz dugun ansia aphurrak hala partez egiten derauku ahoa largo eta mihia libro.

Badarik ere gauza espiritualez elkarren artean solhas egiteak eztu arimaren probetxua guti aitzinatzen, noiz ere behintzat borondatez eta gogoz kide direnak elkarganatzen baitira lainkoaren ohoretan.

HAMEKAGARREN KAPITULUA

Bakearen ardietsian, eta aitzinamendu espiritualaren desiraz.

1. Bake handi batez goza ahal gindeske nahi ezpagendu sartu bertzeren erranetan, eta egitekoetan zeinek ezpaigaituste ukitzen.

Nolatan luzeki dagoke bake bertzeren egitekoetan balsatzen dena? kanpoan okasione bilha dabillana? Guti edo gutitan bere baitara biltzen dena bere buruaren ezagutzeko?

Doatsu dira sinpleak zeren bake handia izanen dute.

2. Nondik saindu batzuk hain bertze perfezione ardietsi dute, eta hain izan dire argituak zeruko gauzetan? Zeren hekin lan guzia izan baita lurreko guthiziak osoki hiltzea bere bihotzetik, eta hargatik arimako indar guzietz itxeki ahal diote lainkoari, eta egon ahal dira traburik gabe bere barrenaren errekaizatzen.

Gu sobera gatxeste gure pasionei eta ioaiten diren gauzez sobera ansiatzen gara.

Gutitan osoki garaitzen bagaisko bizio bati, gutitan pitsten gare egunorozko aitzinamendura espiritualara, halatan gelditzen gara hotz eta epel.

3. Gure baitan osoki hillak bagine eta barreanean koropillatuak ezpagine, orduan lainkoare gauzak dasta ahal genetzake, eta zerbait froga giniroke zeruko eztitasunen kontenplazionetik.

Trabu guzia eta den handiena da, zeren ezgaren pasionetarik eta guthizietarik libratuak eta zeren ezgaren enseiatzen Sainduen bidean sartzera.

Ondikorik gutiena gertatzen zaikunean lasteregiri erorten gare, eta munduko konsolazionetara itzultzen.

4. Baldin gizon sendoak bezala enseia bagindez gure ahalaz guduan fermu eta finko egoitera segur ikus genezake lainkoa zerutik heldu dela guri laguntzera.

Hura prestik baitago guduan hari direnei eta haren baitan esperanza dutenei heltzera, nola berak bilhatzen baiterauzkigu gudukatzeko okasioneak garai gakizten gatik.

Iainkotiartasunaren aitzinamendua emaiten badugu xoilki kanpoko zerimonietan, sarri fin hartuko du gure debozioriek.

Bainan aizkora eman dezagun errora arren pasionetarik garbiturik bakezko bihotzaz goza gaitazin.

5. Urthetik urthera xoilki bizio huts bat athera bageneza errotik, laster gizon perfet egin gindezke.

Bainan orai kontra da, eta hainitzetan sentitzen dugu hobeago eta garbiago ginela lainkoaren serbitzura lehenbizi itzuli ginenean, ezenez hainitz urthez geroztiko botuaren ondoan.

Egun oroz behar genduke berokiago deboziornean aitzinatu, bainan orai badirudi gauza handia dela nihork guti bat iduki ahal baleza bere lehenbiziko bero hartarik.

Aphur bat borxa bageneza gure burua, nahiz den guzia gero bageneidike errazki eta alegera-ki.

6. Gaitz da leheneko ohitzaren utztea, baina gaitzago da bere borondatearen kontra iartzea.

Ordea garaitzen ezpazaizte gauza aphurrei eta arinei, noiz garaituko zaizte gaitzenei?

Iar zaite hastetik zure inklinazionearen kontra, eta ahants bekizu zure aztura gaixtoa, bel-durrez aphurka zaramatzen gauza gaitzagoetara.

O ikus bazeneza zein bake handi ardiets zenezaken, eta nola bozkario eman ziniezeken lagunei zure prestuki bizitzeaz, uste dut ansia-tsuago zinatekeiela zure probetsu espiritualaz.

HAMABIGARREN KAPITULUA

Aflikzionetarikako probetxuaz.

1. On da guretzat zerbait gaitz batzutan gerta dakigun, eta norbait iar dadin gure kontra, zeren bide hartaz gizona maiz bihurtzen da bere gana ezagutzeko desterruan dela eta eztuela esperanzarik ezarri behar munduko gauzetan.

On da guretzat zenbait aldiz kontra errailleak ditugun eta paira detzagun, bai eta gutaz iujeamendu gaixtorik eta makurrik eman dezaten, ongi egiten dugularik, eta intenzione onarekin.

Horrelakoak heltzen zaizkigu humiltasunaren ardietsten, eta begiratzen gaituzte banaloriatik.

Ezen orduan lainkoa hobeki hartzen dugu gure barrenaren lekuko, munduak kanpotik deus gutiztat garabiltzanean, et zinetsterik etzaikunean emaiten.

2. Halakotz behar luke gizonak lainkoa baitan osoki permatu, mengoarik ez izaitea gatik hainitz munduko konsolazioneren bilha ibilteko.

Noiz ere borondate onezko gizona tribulatzen baita, edo tentatzen, edo gogoramendu gaiztoz penatzen, orduan ezagutzen du lainkoaren beharago dela, eta ikusten du hura gabe ezin daidikeiela deus ere onik.

Orduan ere tristetzen da, hatsbeherapenez, nigarrez eta othoitzez iartzen da pairatzen dituen miseriak gatik.

Orduan unhatzen da bizitze luzeaz eta desiratzen du herioa datorren haren libratzera eta leesus-gana eramaitera.

Orduan oraino ongi dakusa munduan ezin ditekeiela seguranza betherik eta bake osorik.

HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

Tentamenduen kontra iartzeaz.

1. Munduan bizi gareino ezin garatezke tribulamendurik eta tentamendurik gabe.

Halatan eskiribatua datza loben liburuan gerla eta tentazionea da gizonaren bizitza lurraren gainean.

Horren gatik behar luke batbederak ansiatsu iarri tentamenduen gainean, eta ernerik egon othoitzetan, beldurrez etsaiak aurki dezan lekurik haren enganatzeko; nola ezpaita nihoiz ere loakartzen, bainan inguruz inguru baitabilla nor irets dezan bilha.

Ezta nihor ere hain konplirik eta hain saindurik, non eztuen noizait zenbait tentazione, eta ezin gaudezke osoki gabe.

2. Guziarekin ere batzutan tentazioneak hagitz onak dira gizonarentzat gaitzak direlarik

eta fastikagarriak, zeren hek direla bide humiltzen baita, garbitzen eta zuhurtzen.

Saindu guziak iragan dira tentazioneen bide pelkarretik, eta probetxu athera dute hetarik.

Tentazioneak ezin iasan dituztenak lainkoaren umeen kontutik erori dira eta galdu.

Ezta hain ordena saindurik ez eta hain leku gorderik non ezten han tentagarririk eta pairatzekorik.

3. Ezta gizona osoki seguratua tentazionetarik bizi deino ezen gure baitan barrena datza nondik tenta gaiezin guthiziaduraren jehetiarekin sortu garenetik.

Tentazione edo tribulazione bat ioaiten denean, berehala heldu da bertzea eta bethi izanen dugu zer paira, zeren gure doatsutasunaren abantailla galdu baitugu.

Hainitz bilha dabilta nondik ihes egin tentazionetarik, eta gaitzagoetan barrena erortzen dire.

Ihesi ioan hutsez ezin garai gaitezke baina pazienziatz eta egiazko humiltasunaz bortitzago egiten gare etsai guziak baino.

4. Kanpoko okasioei xoilki itzultzen zaienak, eta barreneko erroak atheratzen eztituenak probetxu guti egingen du: aitzitik lasterago bihurtuko zaizko tentazionea, eta gaizkiago izanen da.

Baratxeka pazienziatz eta irautez (lainkoarekin batean) hobeki garaitu, zaizte buru gogorka iarriz baino.

Har ezazu maiz konseillu axur baten ganik tentatua zarenean, eta nihor tentatua denean etzaitezila harekin hari gogorki, bainan hura konsola zazu emeki, nahi zendukeien bezala nihork egin zinitzan.

5. Tentazione gaixto guzien hasia da bihoztaren fermugabetasuna, eta lainkoa baitako fidanza aphurra.

Ezen nola uhinek lema gabeko untzia hortik eta hemendik baitarabillate, hala gizon epela, eta bere lehen gogo ona largatzen duena hainitz maneraz tentaturik dabilla.

Suak frogatzen du burdina, eta tentazioneak gizon iustua.

Hainitzetan eztakigu zer daidigun bainan tentazioneak erakusten du zer garen.

Badarik ere erne egon behar da beregainki tentamendua alxatzen denean, zeren orduan etsaiari garaitzen zaio nihor errazkienik utzten ezpadu nihola ere bihotzeko athetik sartzera, bainan athalasetik kanpora ilkitzen bazaio athea bulkatzen diren bezain laster.

Halakotz erran du norbaitek: *Hastetik egizu guardia, berandurik heldu da erremedioa, zahartu denean zauria.*

Hala ere lehenbizirik heldu zaio gogoari pensamendu arin bat, gero tinkatzen da haren gainean, handik pitzten da atsegina, eta higidura gaixtoa, eta finean gogoak emaiten du konsentimendu osoa.

Hala etsai gaixtoa baratxe sartzen da barrena hastetik egiten etzaionean kontrarik, eta zenbatenaz nagitzenago baita nihor haren kentzera, hanbatenaz bere baitan egun oroz flakatzenago da, eta etsaia borthitztenago haren kontra.

6. Batzuk tentazioe gaitzagoak pairatzen tuzte lainkoaren serbitzura lehenbizi itzuli direnean, bertzeek azkenean.

Batzuk bere mende guzian kasik gaizki erabilten dira: bertzeak emeki aski tentatzen dire, edo ez bat ere.

Hori guzia egiten da lainkoaren zuhurziak ordenatzen diren arauera, zeinak pisatzen baititu batbederaren estatua eta merezimenduak, eta den guzia aitzinetik ordenatzen baitu bere hautatuen salbamendura.

7. Hargatik eztugu etsitu behar tentatzen garenean: aitzitik hanbatenaz berokiago othoitz egin behar diogu lainkoari arren hel dakigula gure tribulazioe guzietan, eta egin dezala londe Paulok dioen bezala, *probetxu athera dezagun tentazionetik*.

Humil detzagun bada gure arimak lainkoaren esku botheretsuaren azpian tentazioe suerte guzietan, zeren hark bihotz humillak salbatuko ita eta goitituko.

8. Tentazionetan eta tribulazionetan frogatzen da gizona, zenbat probetxu egin duen, eta hetan merezimendu geiago du, eta haren bertutea hobeki da ageri.

Ezta gauza handirik gizona debozitonean beroizaitez fastikorik eztuenean, ordea denbora gaitzean pazientzia badu hainitz probetxuren esperanza da.

Batzuk begiratzen dira tentazione handietarik eta maiz erorten dira egunorozkoetan, mendreak direlarik arren horrela humildurik fida ezitezilla bere indarretan, tentazione handirik gerta dakienean, hain aphurretan flakutzen direnaz geroztik.

HAMALAU GARREN KAPITULUA

Iujeamendu arinetik begiratzeaz.

1. Itzul etzatzu begiak zure gana eta begira zaite bertzeen eginez iujeamendu emaitetik.

Bertzerik iujeatzen duena alferrik travaillatzen da, maiz enganatzen da, eta errazki egiten du bekatu: baina bere burua iujeatzen duena eta sondatzen duena bethi probetxurekin hari da.

Nahiz den gauzaz hainitzetan iujeatzen dugu gure iduriaren arauera: zeren egiazko errazki galtzen dugu gure buruari diadukogun amudioa gatik.

Iainkoa baliz bethiere gure desiren xede hutsa, ez gindezke horrein errazki asalda eta trubla gure guthiziak gure kontra iarriak gatik.

2. Maiz ordea zerbait dugu barrenean gorde-rik, bai eta kanpotik heldu denik, berekin garamatzanik.

Hainitzek bere egitartetan bere oldea eta abantailla ixilik bilhatzen dute, eta berak eztakite.

Badirudite bake onean daudezila egitekoak egiten direnean bere nahiaren arauera: bainan egiten badira desira eztuten bezala laster aldaratzen dira eta tristetzen.

Bataren eta bertzearen usteak eta iujeamen-duak ez izanez guziak bat, maiz asko sortzen dira guduak eta ihardukitzak adiskideen eta burjesen, fraideen eta deboten artean.

3. Usanza zaharra nekez utzten da, eta nihor ezta errazki gidatzen ikusten duen baino urrunago.

Permatzenago bazare zure arrazoinaren eta antzearen gainean Iesu Kristori zor diozun obedienciazko bertutearen gainean baino, gutitan eta hala ere berant izanen zare argitua.

Zeren lainkoak nahi du osoki iar gaitezin haren azpian, eta amudio irazeki batez iragan gaitezin arrazoin suerte guzien gainetik.

HAMABORTZGARREN KAPITULUA

Obra karitatez eginez.

1. Munduan den gauza gauza gatik eta niho-
ren amudioa gatik ezta egin behar gaizkirik bat
ere: bainan norbaiten beharra gatik obra on bat
batzutan zilhegiki utz diteke edo, hobeago bate-
tara ganbia daite.

Zeren horrela eginik, obra on ezta galtzen,
bainan hobeagora ganbiatzen.

Karitatea gabe obra onak eztakarke probe-
txurik: baina zer ere egiten baita karitatez, zen-
bat ere aphurra eta ezdeusa baita, guzia egiten
da probtetxugarri.

Zeren lainkoak behatzenago du zer gogoz
hari den nihor, ezenez zenbat egiten duen. Hai-
nitz egiten du hagitz maite duenak.

2. Hainitz egiten du, obra ongi egiten duenak.
Ongi egiten du komuna serbitzatzenago duenak
bere borondatea baino.

Hainitzetan badirudi karitatez hari garella, eta aitzitik sensuen oldez hari gare, zeren sorkuraren inklinazioeak, bere buruko borondateak, ordainaren esperanzak eta beretzat nahizko desirak gutitzen nahi dute elkar ganik apartatu.

3. Nork ere egiazko karitatea baitu, eztabilla deusetan ere beretakorik bilha; baina desiratzan du xoilki lainkoaren loria gauza guzietan konpli dadin.

Eztio nihori ekartzen inbidiarik ezpaitu alegrian berezirik beretzat maite: ezta ere nahi bere baitan bozkariotu, baina duen desira da guzien gaintetik lainkoa baitan doatsu izaitea loriatzea.

Eztio nihori ongiatz eta on denaz loria emaiten, baina bai lainkoari, zeina ganik ithurburutik bezala, on den guzia heldu baita, eta zeina baitan saildu guziek bere azken xedean bezala, gozoki pausatzen baitute.

O nihork balu egiazko karitatearen inhar bat! Segur ezagut lezake lurreko gauza guziak banaloriar bezala direla.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

Bertzeren eskasak pairatzeaz.

1. Zer ere gizonak ezin xuxen baitezake bera edo laguna baitan, hura behar du pazienziarekin utzi, lainkoak bertzela ordena dezan artean.

Pensa zazu hori horrela naski hobe dela nor zaren ezagutzeko, eta, zure pazienziaren frogatzeko, zeina gabe gure obra onak ezpaitire hagitz prezatzekoak.

Alabainan othoiz egin bear diozu lainkoari halako trabuak gatik, arren hel dakizula, eta emeki pairatzeko indarrak dizkitzula.

2. Baldin zenbaiti behin edo bietan bere hutsak eskasak makurrak erakusiz geroztik, hark enzuten ezpazaitu, zuk ez iharduki harekin, baina den guzia utzazu lainkoaren eskuetan, arren bere borondatea konpli, eta bere ohorea erakus dezala bere serbitzari guzietan: zeren hark badaki gaitzaren onera itzulten.

Ikasazu pazienziatsu egoiten lagunaren huts eginak eta nahiz diren eskas-makurrak pairatu behar direnean: berdin zuk-ere hainitz duzu bertzeak pairatu behar dutenik.

Zure burua ezin egin badezakezu nahi zendukeien bezalako, nolatan bertzea eginen ahal duzu zure googaren arauerako.

Plazer dugu bertzeak diren eskasik gabe, eta bitartean geurok eztitugu gure makurrak xuxentzen.

3. Nahi dugu bertzeak hersiki xuxen eta sensa ditezin, eta geurok eztugu nahi deusik erran dakigun erantzuterik egin dakigun.

Bertzeen eskudanzia handia etzaiku eder, eta halarik ere nahi dugu eskatzen garen guzia eman dakigun.

Nahi dugu lege hersiak eman dakizten berzei, eta geurok eztugu nahi nihola ere lehen baino hersikiago ibilli.

Handik bada ageri da zein gutitan egiten dugun kontu gure lagunaz kontu gure buruaz bezala.

Guziak eskasgabeak balire, zer genduke gero bertzeen ganik pairatzeko?

4. Orai bada lainkoak hala ordenatu du ikas dezaguntzat batak bertzearen kargaren iasaiten:

Berdin ezta nihor eskasik gabe, nihor kargarik gabe, nihor bere buruarentzat askidun, nihor beretzat aski zuhur.

Behar da bada elkar iasan dezagun, eta konsola dezagun, elkarri hel gakizkon, elkarri irakats diozogun, eta batak bertzeari abisu eta konseillu demogun.

Zori gaitzean ageri da gizonaren bertutea hobekienik: zeren okasioneak ezpaitu gizona egiten hautskor edo flako, baina nor eta nolako den erakusten du.

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

Monasterioetako bizitzeaz.

1. Behar duzu ikasi zure borondatearen hautsten hainitz gauzatan nahi baduzu zurekin eta bertzeekin bakea iduki.

Ezta guti monasterioan edo kongragazionean egoitea, eta han arrenkurarik gabe bizitzea, eta fidel irautea heriotzeraino.

Doatsu da nor ere han prestuki bizi izan eta ongi hil baita.

Nahi baduzu zure eginbidean egon eta probe-txurik egin, kontu egizu desterratua eta Saindu-ralea bezala zabiltzala lurraren gainean.

Behar duzu zure burua egin eztiio Iesusen amorea gatik, nahi baduzu bizitze saindu bat eraman.

2. Habituak eta koroak guti heltzen dute probe-txu egitera, baina azture ganbiamenduak eta

guthizien pasioeen mortifikazione osoak egiten dute egiazko fraidea.

lainkoaz eta bere salbamenduaz bertzerik, bilha dabillanak eztu aurkituko tribulamendurik eta dolorerik baizen.

Eta denbora luzez ezin dagoke bakean nor ere ezpaita enseiatzen xipien izaitera, eta guzien azpiko iartzera.

3. Etorri zare serbitzatzera eta ez manatzera.

lakin ezazu deitua zarela paraitzera eta tra-
baillatzera, ez ordea alferrik egoitera edo elhe
eta solhas egitera.

Hemen bada frogatzen dire gizonak, urrea
labe gorrian bezala.

Ezin dagoke nihor hemen, nahi ezpadu bere
burua bihotz guziaz lainkoa gatik humildu.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

Aitzineko Sainduen exenpluez.

1. Mira tzatzu Sainduen exenplu biziak, zeinak baitan egiazko baitute, eta ikusiko duzu zein guti eta ezdeus hurren den guk egiten dugun guzia.

Helaz! zer da gure bizitzea hekinarekin konparatzen bada?

Sainduak eta Iesus-en maitariko lainkoa serbitzatu dute gosez eta egarriz, hotzez eta billusiz, ibilliz bijilietan eta baruretan, othoitzetan eta meditazioe sainduetan egonez, munduak hainitzetan gaizki eta laidozki zerabiltzala.

2. O zenbat tribulazioe eta zein garratz pairatu tuzten, Apostoluek, Martirek, Konfesorek, Birjinek eta gure Salbatzaillaren urratsei iarraiki nahi izan zaizte gainerako guziek.

Ezen bere arimak gaitzetsi tuzte mundu hunetan, gero hekin jabe, izaiteko sekulako bizitzean.

O zein bizitze hersi pobre desertuan eraman dute lehenagoko Sainduak.

Zein tentazione luze eta garratz pairatu dituzte.

Zein gaizki hainitzetan erabilli dituen etsaiak.

Zein othoitz uzu eta bero egin dioten lainkoari.

Zein gogorki barurtu diren.

Zein beroki hari izan diren bere probetxu espiritualaren aitzinatzen.

Zein gerla bortitz egin duten bere guthizia gaixtoen hezteko eta garaitzeko.

Zein bihotz garbi eta xuxen iduki duten lainkoa gana.

Egunaz hari ziren traillaian, eta gauaz othoitzetan zeudezin: eta lanean ere gogoz egiten zuten orazione.

3. Denbora guzia zeramaten gauza beharretan: lainkoari eman behar zioten orena iduritzen zitizaien labor eta kontenplazionaren ezintasuna

zela kausa gorputzeko othurunza premiazkoa ere ahanstzen zitzairen.

Uko egiten zerauzaten aberatstasun, ohore, gradu, adiskide eta ahaide guzietan, etzuten munduko gauzarik iduki nahi; nekez bizitzeko hartzen zuten, damu zuten gorputzaren serbitzuetaz beharrez ere.

Bada lurreko gauzez pobre zeudezin, baina karitatez eta bertutez betheak ziren.

Kanpotik beharrak ziren, baina barrenean lainkoaren graziaz eta konsolazionez gozatzen ziren.

4. Mundutik apartatuak zeudezin, baina lainkoaren hurrenak eta adiskide mamiak ziren.

Berek uste zuten ezdeusak eta munduko arbuiua zirela, baina lainkoaren begietan prestatzekoak ziren eta onetsiak.

Egiazko humiltasunean zeudezin, obediencia bethean bizi ziren; bazebiltzan karitaterekin eta pazienziarekin, eta halakotz egun oroz bere probetxu espiritualak aitzinatzen zuten eta grazia handiago ardiesten lainkoaren aitzinean.

Mirailtzat eman zaizte fraide guziei eta gei-
go atzartu behar gaituzte onean aitzinatzer-
ezen ez epelen ozteak gibelatzera.

5. O zein bero eta irazekiak ziren fraide
guziak bere ordena sainduen lehenbiziko has-
tean!

Nolako debozione othoitzetan!

Nolako pitztura bertutetan!

Nolako dotrinamendua bizi zen!

Nolako erreberentzia eta obediencia ekartzen
zioten nausiari erregelamenduari gauza guzie-
tan!

Azkendu diren seinaleak eta ondarrak orai
ere lekuko dire, hek gizon konpliak eta sainduak
zirela, hain agudoki gudukatuz mundua azpira
dutenaz gero.

Oraikoan handi estimatzen da nihor, bere
erreglen hautste ezpada, besarkatu duen orde-
nanza pazienziarekin begira ahal badeza.

6. O gure estatuko epeltasuna eta ansigabe-
tasuna! hain laster itzulten baigare gure lehene-

ko berotasunetik, eta unhatzen ere bizitzeaz, hain nekatu eta epeldu baigara ezen.

Iainkoak aillioitsa bertuteen aitzinamendua elizen osoki loakartu zure baitan, hain bertze gizon deboten exenpluak ikusiz geroztik.

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

Fraide prestuaren eserzizez.

1. Fraide prestuaren bizitzeaz behar du bertute guzietz argitu, arren nolakoa munduak ikusten baitu kanpotik, halakoa ere den barrenean bere baitan barrena.

Eta egiaz zuzenak nahi du geiago hagitzen den barrenean, kanpotik ageri den baino: Ezen lainkoa begira dagoku, eta beregaineko erreberentzia ekarri behar diegu non ere baigara, eta garbirik ibilli behar dugu haren begien aitzinean angeruak bezala.

Egun guzietz berritu behar dugu gure deliberramendu gogo ona eta geurok atzartu behar gare berokiago haritzera, egun lehenik lainkoaren serbitzura itzuli bagine bezala bihotzez erraiten diogula: hel zakizkit lainko iauna ene gogonean eta zure serbitzu sainduan; orai indazu egun behar bezalako perfekzionerekin hasteko

grazia eta indarra berdin huneraino egin dudana ezta deus ere.

2. Nolakoa baita gure gogo hartua, halakoa ere da gure aitzinamenduaren korsua, eta nork ere nahi baitu hainitz probetxu egin erreki eta agudoki hari behar du.

Baldin zinetan deliberatzen duen ongi egitera maiz flakutzen bada eta erortzen zer izanen da gutitan eta ez asko tinketz deliberatzen duenaz?

Bada hainitz moldez gertatzen gare gure gogo onaren largatzen, eta zenbat ere arinki utz-ten baititugu gure eserzizak, mirakuillu da handik heldu ezpazaiku kalterik.

Iustuen deliberamendua permatzenago da lainkoaren graziaren gainean, berek ahal duketen zuhurziaren gainean baino: eta zer ere egite-kori lotzen baitzaizko bethi haren baitan lehenik fidaturik hari dire.

Ezen deliberatzen du gizonak eta lainkoak ordenatzen, eta gizona ezta here bidearen nausi.

3. Baldin karitatezko obra gatik edo laguna-ren probetxua gatik batzutan largatzen badugu

gure eserziza kostumatua, hartara gero errazki bihurtuko ahal gare.

Ordea ansigabez edo unhatuz utzten badugu, gure falta izanen da eta sarri sentituko dugu kaltea.

Dagigun egin ahala, oraino hainitz gauzatan errazki eginen dugu huts.

Badarik ere bethi dugu zerbait deliberatu eta beregainki geien trabatzen gaituten eskasen eta makurren kontra.

Gure kanpoko eta barrenaldia miratu, sonda-tu eta ordenatu behar dira, zeren bata eta bertzea orobat heltzen zaizkigu gure probetxu espiritualaren egiten.

Ezin bazaudezke bethi gure buruaren miratzen.

4. Bethi zure baitara ezin bil bazaitezke, batzutan bedere egin zaite, eta gutienez behin egunean goizean edo arratsean.

Goizean har ezazu gogo egin nahi duzunaren egiteko, eta arratsean mira zazu nola ibilli zaren, egun hartan nolakoa izan zaren zure hitzetan,

obretan eta pensamenduetan, zeren maiz naski hetan ofensatu duzu lainkoa eta laguna.

Iar zaite gizon gisa deabruaren gaixtakerien kontra: brida zazu gormandiza, emozu neurri zure ian-edan nahiari, eta orduan haragiaren mugidak errazkiago heziko tutzu.

Etzaudezila nihoiz ere alferrik, bainan hari zaite irakurtzen edo eskiribatzen, othoitz edo meditazioe edo zerbait onik komunarentzat egiten.

Badarik gorputzeko trabailluak neurritz, eta zuhurziarekin egin behar dire, eta guziek eztituzte berdin hartu behar.

5. Guzientzat on eztiren lanak eztira kanpoan erakusi behar, zeren partikularak peril gutiagorekin egiten dira ixilik.

Guziarekin ere begirauzu nagitzetik komunari ukitzen zaizkon gauzetan, eta partikularetan iarriago izaitetik: bainan egin beharrak eta manatuak osoki eta fidelki egin ondoan, denbora sobera baduzu, hari zaite zuretzat zure debozio-neak agintzen duen arauera.

Lan her bat ezin dukete guziek; baina bata hobe da hunentzat, bertzea horrentzat.

Denborak dakarkeien bezala bertze eta bertze eserzizak ederetsten tugu, batzu bestetan eta bertzeak astelegunetan maiteago ditugu.

Batzuen beharra dugu tentazionearen denboran, eta bertzeak hobe zaizkigu bakean eta soseguan gaudenean.

Batzuetan laket dugu triste gaudenean, eta bertzetan lainkoa baitan alegera garenean.

6. Besta buruak heldu direnean berritu behar dira eserziza onak, eta berokiago gomendatu behar gaizko sailduen arartekotasunari.

Bestatik bestara deliberatu behar dugu, orduan mundutik ilki, eta sekulako bestaren egi-tera ioan behar bagine bezala.

Halakotz debozinezko egunetan behar dugu gure konszientzia arthatsukiago preparatu, zuhurkiago ibilli, eta ordenanzak hersikiago begiratu, sarri gure traillauren saria lainkoa gatik ardietsi behar bagendu bezala.

7. Eta gibelatua bada, dagigun kontu ez garelari ongi aski preparatuak, eta eztugula oraino merezi loria handi haren ardietsten, zeina erakusi baitzaiku bere muga iakinean: bizkitartean enseia gaitezin ahalik hobekiena preparatzera hemendik ilki behar orduko.

Doatsua da, dio san Luc Ebanjelistak, Nau-siak, datorrenean, ernerik aurkituko duen serbitzaria. Egiaz diotsuet hura ezarriko du ordenez bere ontasun guzien gainean.

HOGOIGARREN KAPITULUA

*Bakarrik eta ixilik egoiteko
amudioaz.*

1. Bilha zazu denbora onik zure buruaren astiroki estudiatzeko, eta lainkoaren ongi eginak erabil tzatzu maiz gogoan.

Utzkitzu urrikimendura erakar zaitzaten liburuak, ezenez denboraren iragaitekoak.

Apartatzen bazare solhas eta ioan ethorri alferretarik eta elheberrietarik denborarik aski kausituko duzu meditazione onik egiteko.

Saindu handienek ihes egiten zuten gizonen konpainietarik ahal bezanbat, eta hautatzen zuten lainkoarekin bizitzea gorderik.

2. Norbaitek erran du: *Noiz ere gertatu bainaz gizonekin, gutiago gizon bihurtu naiz.*

Hori frogatzen dugu maizenik, denbora luzezko solhaskerietan.

Errazago da, ixilik egoitea, hitz sobera ez egitea baino.

Errazago da etxean gorderik egoitea, kanpoan bere buruaren aski begiratzea baino.

Nork ere bada gogorik baitu barreneko eta espiritualezko gauzetara heltzeko behar du lesusekin batean munduko ozpetik eta abarrotsetik apartatu.

Ezta nihar seguranzarekin kanpora atheratzen gogotik gorde dagoena baizen.

Ezta nihar seguragorik minzatzen, gogotik ixilik dagoena baino.

Eztu nihork perillik gabe manatzen, ongi obeditzen ikasi duenak baizen.

3. Ezta nihar seguranzarekin bozten, konszientzia ona ezpadu lekuko: guziarekin ere Sainduen seguranza bethi izan da lainkoaren beldurtasunaz bethea; eta eztira gutiago arthatsu eta humil izan hainitz bertute eta grazia bere baitan izana gatik.

Ordea gaixtoen seguranza sortzen da urguitutasunetik, eta azkenean enganatzen tu.

Eztiozozula zure buruari seguranzarik prometa bititze hunetan, iduri dagotzularik fraide pres-tu edo Ermitau debozionetsu zarella.

4. Hainitzetan munduaren ustez hobe zirenak peril handiagotan sartu dire sobera bere baitan fidatuz.

Halakotz hainitzentzat hobe da eztaudezin bethi ere tentazione gabe, baina maiz akometa ditezin, beldurrez sobera fida ditezin, urguilluke-riak hart detzan, eta largeki ibil ditezin kanpoko konsolazioneen ondoan.

O nihor balego ibilli gabe iragaiten den alegrianzarik bilha, munduko egitekoetan balsatu gabe, zein konszienza on eta garbi iduki lezake.

O nihork ebaki baletza banaloriazko ansia guziak, salbagarrizko eta lainkozko gauzarik bai-zen gogoan ezpalerabilla, eta bere esperanza osoa lainkoa baitan ezar baleza, zein bake eta sosegu handiz goza liteke.

5. Eztu nihork zeruko konsolazionea merezi, zinetan iarten ezpada urrikimendu sainduaren eserzizan.

Nahi baduzu urrikimendua bihotzean frogatu, sar zaite zure gelan eta egoitzkitzu munduko

abarrotsak, eskiribatua den bezala: *zuen ohetan iar zaitezte urrikitzen.*

Gelan aurkituko duzu kanpoan maiz galduko duzuna.

Gela eztatzen da hartan arduraki egonez, ez egonez unhagarri.

Zure oneramenduaren hastetik hartan finkatzen bazara, eta haren begira bazaude, izanen da gero zure adiskide maitea, eta konsolazione gozoena.

6. Ixilik eta geldirik egoitean aitzinatzen du arima debotoak eta eskirituretako gauza gordeak ikasten du.

Han aurkitzen tu nigar xirripak bere buruaren gau guzietz xukatzeke eta garbitzeke, bere krea-tzaillearen hanbatenaz hurbillago egoitea gatik, zenbatenaz urruntzenago baita munduko abarrotsetarik.

Nor ere bada apartaturen baita ezagunetarik eta ahaidetarik, hari hurbilduko zaio lainkoa bere aingeru sainduekin.

Hobe da gorderik egoitea, eta bere buruaz artha idukitzea, ezen ez hura largaturik mirakui-lluak egitea.

Gauza laudatzekoa da gizon debozionetsu batentzat gutitan ilkiteko kanpora, gizonen begietarik ihes egitea, eta egoitea gizonak ikusi ere nahi gabe.

7. Zergatik nahi duzu ikusi, izaitera zilhegi etzarena?

Iragaiten da mundua, eta haren guthizia. Sensuen desirak bazaramatzate huna horra ibiltera, baina muga edo orena ioan denean, zer bihurtzen duzu etxera zure ioan ethorrietarik konszienziaren pisutatasunaz eta bihotzeko barraiamenduaz bertzerik?

Ilkite alegerak hainitzetan bihurtze tristea dakarke: eta arratseko bezpea arraiak biharamuneko goiza ilhun egitea du.

Halaber haragizko plazer guzia eztiki sartzen da, baina azkenean ausikitzen du eta herioa emaiten.

Zer ikus dezakezu bertzeetan, hemen ezta-kusanik? Huna lurra, zerua eta elementak; hetaz gauza guziak eginak dire.

8. Zer dakuskezu nihor ere, denbora luzez ahal dagokeienik iguzkiaren azpian?

Agian uste duzu ase zaitezkeiela, bainan zein eginen zare.

Munduan den guzia begien aitzinean bezendu ere, zer lizate ikuste alferrik eta banaloriazko-rik baizen?

Alxa gora begiak lainkoagana eta othoiz egizu zure banaloriak banalorisaleentzat; zure beha zazu lainkoak manatuetara.

Zerra zazu athea zure gainean eta deitzazu zure gana zure lesus maitea.

Zaude harekin zure gelan, zeren eztuzu nihon ere halako bakerik edirenen.

Ilki ezpazine eta enzun ezpazendu munduko elheberririk, hobeki egonen zinen bake onean.

Ordea atsegin duzunaz gero noizpait berriak enzuteaz, hek gatik behar duzu bihotzeko asaldua pairatu.

HOGOI ETA BATGARREN KAPITULUA

Bihotzeko urrikimenduaz.

1. Nahi baduzu bertutearen bidean aitzinatu, zaude lainkoaren beldurtasunean, eta etzarella largoegi; bainan iduki tzatzu zure sensu guziak gobernuaren azpian, eta etzaitezila ergelki alegera.

Bilha zazu bihotzeko urrikimendua, eta debozionea edirenen duzu.

Urrikimenduak hainitz ontasun agertzen tu ohi baititu bihotzeko largotasunak.

Miretstekoa da, nolatan gizona bizitze hune-tan behin ere osoki boz ahal daiten bere desterrua eta arimako peril uzuak konsideratzen eta kondatzen dituenean.

2. Gure bihotzeko arintasuna dela kausa eta gure eskasiez axolarik ez izanez, eztitugu gure arimaren doloreak sentitzen; baina maiz banalo-

riazko irri egiten dugu zinetan nigar egin behar gendukeienean.

Ezta egiazko libertaterik, ez eta alegrianza onik lainkoaren beldurtasunean eta konszienza onean baizen.

Doatsua da nork ere barraiamenduko paxelu guziak iraits baitetzake, eta bere arimako indar bil baitatzake urrikimendu saindu batetara.

Doatsua, nork ere bere ganik kentzen baitu konszienza lizun eta karga dezaken guzia.

Guduka zazu gizon giza, ohitza ohitzari garaitzen zaio.

Baldin badakizu gizonen largatzen, hek ere utziko zaituzte zure egitekoen egitera.

3. Ez sar bertzeen egitekoetan, eta etzaitezin korapilla zu baino handiagoen gauzetan.

Duzun bethi begia erne zure gainean lehenik, eta abisazu bereziki zure burua, zure adiskide maiteak egin detzatzun baino lehen.

Gizonak ezpaditutzu zure alde, ez trista hartatik; bainan duzun damu zeren etzabiltzan ongi eta begiratuki aski, lainkoaren serbitzari debotionetsu batek ibilli behar lukeien bezala.

Hainitzetan gizonarentzat hobe da eta segurago bizitze hunetan hainitz konsolazione ez izaita, haragizkorik behintzat.

Ordea lainkoaren konsolazionez gozaten ezpagara, edo bakanago sentitzen baditugu, gurea da falta, zeren eztugun bihotzeko urriki-mendua bilhatzen, eta kanpoko konsolazione banaloriazkoaz eztitugun osoki egoitsten.

4. Ezagut ezazu eztuzula lainkoaren konsolazionerik merezi, aitzitik hainitz tribulazione merezi duzula.

Gizon perfeki urrikituari mundu guzia pisu zaio eta kiratz.

Gizon prestuak bethiere kausitzen du aski zergatik damu har eta nigar egin.

Ezen konsideratzen badu bere burua edo laguna, badaki eztela nihor hemen bizi tribulazione gabe: eta zenbatenaz ernekiago iarten baita bere buruaren miratzen, hanbatenaz tristetzen eta doloratzenago da.

Zuzenazko dolorea eta barreneko damu haren erroak dira gure bekatuak, zeinez hala

baigauntza amarraturik, non gutitan begiak goiti baitetzakegu zeruko gauzen ikusteko.

5. Maizago zure heriotzea gogoan bazenera-billa bizitzearen luzetasuna baino, duda gaberik berokiago onera zindezke.

Pisa bazenetza ere Ifernuko edo Purgatorioko penak zure bihotzean, badut zinetste gogotik paira zenezakeiela trailla eta dolorea, eta etzinatekeiela beldur nahiz den gaitza gatik.

Ordea nola ezpaitzaiku halakorik sartzen bihotzean, eta balakuak maite baititugu oraino, hargatik gelditzen gare hotz eta nagi gure eginbidetan.

6. Hainitzetan adimendu eskasez gorputz ondikoakoa hain arinki arrankuratzen da.

Egiozu bada humilki othoitz lainkoari arren dizula urrikimenduzko espiritua, eta errozu Profetarekin batean: Bazka nazazu, *launa, nigarrezko ogiz, eta neurriz indazu nigar edatera.*

HOGOI ETA BIGARREN KAPITULUA

*Gizonaren miserien
konsiderazioneaz.*

1. Miseriazko zare, non ere baitzaude, eta nora ere itzultzen baitzare lainkoa gana bihurtzen ezpazara.

Zergatik asaldatzen zara zeren eztoatzun nahi eta desira duzun bezala?

Nor da gauza guziak dituenik bere borondatearen arauera?

Ez ni, ez zu, ez nihor ere lurraren gainean.

Ezta nihor munduan zenbait tribulazione edo herstura gabe, Errege edo Aita saindu bada ere.

Nor dago hobekienik? Segur lainkoa gatik zenbait paira dezakeiena.

2. Badiote hainitz flakok: Horra zein bizitze doatsu daraman gizon hark, zein aberatz, zein handi den; nolako bothere diren, nolako gradu dadukan.

Ordea beha zazu zeruko ontasunetara, eta ikusiko duzu oraiko handiresunak eztirela deus ere, baina xoil direla segurgabeak, karga eta unhagarriak, zeren ezpaita nihor hetaz gozo grina eta beldurtasun gabe.

Gizonaren doatsutasuna ezta munduko ontasunak izaitea gaindiraino, bainan aski du doia.

Gertuz miseriarik baizen ezta lurraren gainean bizitzea.

Zenbatenaz espiritualago eginen baita gizona, hanbatenaz presenteko bizitzea kausituko da kiratzago, zeren ikusten eta frogatzenago baititu gizonaren naturaleza gaixtatuaren eskasak.

Ezen iatea, edatea, iratzarri ibiltea, lo etzatea, pausatzea, traillaatzea, eta naturalezaren bertze gainerako beharren azpian egoitea, segur miseria eta aflikzione handian gizon debotarentzat; nahi bailuke hetarik eta bekatu guzietarik libratua baliz.

3. Zeren barreneko gizona hagitz zapatzen da eta unhatzen gorputzeko beharkiez mundu hunetan.

Hargatik profetak debozione handirekin othoitzez dagoka lainkoari hura hetarik libra dezala, erraiten dioela: *launa, athera nazazu ene beharretarik.*

Baina zori gaitza bere miseria ezagutzen eztutenentzat, eta are gaitzago bizitze ondikozko eta erorkor hau maite dutenentzat.

Zeren batzuek hain tinketz hura besarkatzen dute, non hemen bethi bizi ahal balitez ezpaillukete lainkoaren erresumaz axolarik, nekez bere bizitzekoa dutelarik travaillatuz edo eske ibilliz.

4. O erhoak eta bihotzez fedegabeak hain barrena lurrean sartu direnak, non gosturik eztuten haragizko gauzetan baizen.

Bainan ondikozkoak oraino zeren azkenean ezagutuko eta frogatuko baitute, ezin guti eta ez deus zen maite izan duten guzia.

Kontrara lainkoaren serbitzariak eta Iesus-en adiskide maiteak eztute behatu haragiari eder eta lore zaizkonetara, baina bere esperanza eta gogoia zuten sekulako ontasunetara eramana.

Hekin desir guzia goiti zen eramana bethi dirauten eta ezin ikus ditezkeien gauzetara, bel-

durrez ikusten direnen amarez erakar zitezin beherekoetara.

Beraz, anaia, eztezazula gal espiritualetan aitzinatzeko esperanza, baduzu oraino denbora eta ordu.

5. Zergatik nahi duzu hartu duzun gogo ona bihar arteraino luzatu?

laiki zaite, eta has orai berean. Errazu: orai da ordua egiteko, orai da denbora gudukatzeko, orai da muga fetxoan oneratzeko.

Gaitzki kausitzen eta penatan zarenean, orduan denbora da merezimenduen biltzeko.

Iragan behar zare sutik eta uretik freska eta pausa lekura hel zaitezkin baino lehen.

Borxa egiten ezpadiozu zure buruari etzaizko garaituko bizioari. Gorputz hautskor hori darabilagino, ezin gaudezke bekatu gabe, eta ezin bizi gaitezke grina eta dolore gabe.

Gogotik nahi genduke libratuak bagine, miseria guzietarik: baina zeren hobengabetasuna galdu baitugu bekatuaz, egiazko doatsutasuna ere galdu dugu.

Halakotz pazienza behar dugu, eta lainkoaren miserikordiari iguriki behar gaizko, bekatutasun hau iragan dadin eta biziak hilkizuntasuna iretsi dezan artean.

6. O gizonaren erorkortasunaren handia! bethi bekatutara lixturtua eta makurtua baita.

Egun konfesatzen tutzu zure bekatuak, eta bihar berriz egiten tutzu konfesatuak.

Orai deliberatzen duzu hetarik konfesatzen eta oren baten buruan egiten duzu deusik deliberatu ezpazendu bezala.

Merezi onez bada humil gaitezke, sekulan gure burua handi iduki gabe, hain flako, arin eta mudakor garenaz geroztik.

Laster ere bekatuaz gal dezakegu bekatuaz hainitz travailluz nekez finean noizpait ardietsi duguna grazia lagundurik.

7. Zer izanen da gutaz azkenean horrein goiz eta laster epeltzen garenaz gero?

Zori gaitza gureztat, ibilli nahi badugu sosegu bilha, iadanik bakea eta seguranza bagendu

bezala, ikusirik ezta gure ioan etorrietan egiazko saindutasunaren urratsik ageri.

Behar handia lizate norbaitek oraino berriz bertutearen bidea eta prestuki bizitzeko antzea irakats liazagun haurrei eta ikastun berriei bezala, ikusteko ea balizatekeienz gero ere onera gindezkelako eta probetxu espiritual geiago geneidikelako esperanzarik.

HOGOI ETA HIRURGARREN KAPITULUA

Herioaren meditazioez.

1. Hemengoaz laster eginen duzu, mira zazu bada nola zaudezin: Egun da gizona eta bihar ezta ageri.

Eta munduaren begietarik ioan denean, laster ere ioaiten da haren orhoitzapena gogotik.

O gizonaren bihotz tontoa eta gogorra, oraiko gauzak xoilki baitarabiltza gogoan eta ethorkizunekoei ezpaiteraue geiago aitzinetik behatzen.

Zure obra eta gogoeta guzian behar zinatezke gobernatu, egun edo berehala hil-behar bazine bezala.

Konszientzia ona bazendu etzinateke herioaren hainitz beldur.

Hobe lizate bekatuetarik begiratzea herioari ihes egitea baino.

Egun preparatu ezpazare, nolatan izanen zare bihar?

Biharko eguna ezta segura, eta nondik daki-zu ea biharamunik izanen duzun?

2. Zer probetxu luzeki bizitzeaz hain guti ontzen garenaz gero?

Ah! bizitze luzeak ezgaitu bethi ontzen, aitzitik gure faltak hainitzetan emendatzen tu.

Aigine mundu hunetan egun batez bedere prestuki ibilli.

Hainitzek kondatzen tuzte lainkoa gana itzuli diren geroztiko urtheak, hainitzetan ordea hekin oneramenduaren probetxua aphurra da.

Izigarria bada hiltzea, naski perillosago izanen da luzeki bizitzea.

Doatsu da bere heriotzeko orena bethi begien aitzinean dadukana, eta egun oroz preparamatzen dena adelatzen dena hiltzera.

Noizpait ikusi baduzu nihor hiltzen, orhoitzaite bide beretik iraganen zarela.

3. Goiza denean, pensa zazu eztuzula arratsa ardietsiko; eta arratsa denean eztiozozula biharamuna zure buruari prometa.

Zaude bada bethi prestik, eta hala bizi zaite non herioak etzaitzan ediren preparatu gaberik.

Hainitz hiltzen diren berehala eta ustegabea; zeren *nihork uste eztuen orenean ethorriko da lainkoaren semea*.

Azken oren hura datorrenean hasia zare guziz bertze sentimendu izaiten zure bizitze iragan guziaz, eta xoil damu izanen duzu zeren hain nagi eta alfer izan zaren.

4. Zein doatsu eta zuhur den nor ere orai enseiatzen baita bizitze hunetan halakoa izaite-ra, nolakoa desiratzen baitu kausi dadin heriotzean.

Zeren ongi hiltzeko esperanza handi emanen du munduaren pesprezio osoak, bertutetan aitzinatzekeo desir beroak, bizitze espiritualaren amudioak, penitenziaren traillaak, obedienziaren agudotasunak, bere burua ezdeus idukitzeak, eta nahiz den atsekaberen Iesus gatik pairatzeak.

Hainitz obra on daidikezu osasuna duzuinto, bainan erituz gero, eztakit zer egingen ahal duzun.

Guti oneratzan eta hobetzen dira erituz, hala ere errumerian maiz dabiltzanak gutitan sailduz dire.

5. Ez fida adiskideen eta urkoen gainean, eta ez luza salbamendua ethorkizunera, zeren lasterago ahantsiko zaizte gizonei uste duzun baino.

Hobe da orai muga denean bere egitekoei behatzea, eta zerbait onik aitzinetik igortzea, ezen ez bertzean helzakitzaren gainean esperanza emaita.

Geronek orai zutaz artharik ezpaduzu, nork izanen du gero zure orde?

Orai denbora handiro prezatzekoa da: orai dira Salbamenduko egunak: orai da ongi ethorria izaiteko ordua.

Ah dolorea ordea! Eztuzu konsideratzen zer den hoberenik, zertan merezimendu geiago dukezun, ez eta nondik sekulako bizia ardiets dezakezun.

Etorriko da denbora non egonen baitzare egun baten edo naski oren baten eske oneratzeko eta eztakit hura ardietsiko duzun.

6. Ea maiteena, mira zazu zein peril handitik, zein beldurtasun harrigarritik atherako eta libratuko ahal zaren, orai bizi bazara bethi beldur, eta egiten badiozu herioari guardia.

Orai enseia zaite halako moldez bizitzera, non heriotzeko orenean bozkario geiago duzun beldurtasun baino.

Ikasazu orai hiltzen mundukotz, orduan has zaitezintzat lesusekin bizitzen.

Ikas orai gauza guzien mesprezitzen, orduan lesus gana libroki ahal zoazkintzat.

Sensa zazu orai zure gorputza penitenziaz orduan Fidanza segurik ahal dukezuntzat.

7. Ah erhoa! Zergatik uste duzu biziko zarela luzeki, ikusirik eztuzula hemen egun segurik?

Zenbat enganatu dira eta gorputzetik athera dire gutien uste zutenean?

Zenbatetan enzun duzu erraiten: hura hil da ezpataz, hura itho da, hari lepoa hautsi zaio gai-netik eroriz: Bat hil da iaten zegoela, bertzea iokotan hari zela; bata suz, bertzea burdinaz; bata izurritez, bertzea ohoinek kolpaturik pikaturik.

Manera hortan guzien azken fina da herioa, eta bizia laster iragaiten da itzala bezala.

8. Nor orhoituko zutaz, zu hillez gero? nork egingen du zuretzat othoitzik?

Egizu orai, egizu maitea, ahal dagizun guzia, zeren eztakizu noiz hillen zarenez eta zer iarrai-kiko zaitzun hil ondoan.

Denbora duzunean bil tzatzu ezin hillezko aberatstasunak.

Ez erabil gogoan zure Salbamenduaz bertzerik, idukazu artha lainkoari ukitzen zaizkon gauzez xoilki.

Egitzu orai lainkoaren Sainduak adiskide, ohora tzatzu, eta zarraiste hekin obrei: arren bizitze hunetarik ilki zaitezinean sekulako egoitzetan har zaitzarentzat.

9. Egizu kontu Saindurable eta arrotz bezala zarela lurraren gainean, eta eztela munduko egitekoetan dagotzun gauzarik.

Idukazu bihotza libro eta lainkoa gana goititurik, berdin eztuzu hemen dirauen hiririk.

Igor tzatzu hara egun oroz zure othoitzak,
hats-beherapenak, eta nigarrak zure arima ioa-
nez gero, lainkoa gana doatsuki iragan dadin-
tzat.

HOGOI ETA LAUGARREN KAPITULUA

Iujeamenduaz eta bekatuen penez.

1. Gauza guzietan beha zazu azken finera, eta nola egonen ahal zaren iuje heresi eta bortitzez haren aitzinean.

Etzaio deus estaltzen, ezta emaitzez amuntzen, ematen, eztu eskusarik hartzen; baina, nola baita zuzena, hala iujeatuko du.

O bekatu ondikozkoa eta erhoa! Zer iharde-tsiko diozu zure gaixtakeria guziak dakizkien lainkoari, batzutan gizon haserre baten bekokiaren beldur zarenaz geroztik?

Zergatik eztiozu zure egitekoari atzinetik behatzen azken iujeamendu eguna datorrenekotz, non batek bertzea ezin eskusatuko edo defendatuko baitu, baina batbederak beretzat aski izanen baitu zer egin?

Orai zure trailla fruitu dakarke, zure nigarrak ongi ethorriak dire, zure hats beherapenak

ezutekoak dira, zure dolore eta urrikimendua da satifa eta purgarria.

2. Purgatorio handi eta sendagarri bat du gizon pazienziatsuak, zeinak bidegabeztatua denean damu geiago baitu bertzeren maliziaz bere atsekabeaz baino: gogotik othoitz egiten baitu bere gaizki egilleak gatik, eta bihotz onez barkatzen baitiotza bertzeari bere faltak.

Noiz ere ezpaitu berantzen bertzeri barkazino eskatzera, eta errazkiago egiten baitu miserikordia, haserretzen den baino.

Noiz ere bere buruari maiz egiten baitio borxa eta egin ahala egiten baitu haragiaren osoki ezartera espirituaren azpian.

Hobe da orai bekatuak garbitzea, eta bizia ebakitzea, ezen ez hek utzteka gerokotz purgatzera. Egiazki geurok enganatzen tugu gure buruak gure haragiari ekartzen diogun amudio desordenatuaz.

3. Zer iretsiko du su hark zure bekatuez bertzerik?

Zenbatenaz gupidago baituzu zure burua, eta iarraikitzenago baitzaizko zure haragiari, hanbatenaz sensaturenago zare gero eta erretzekorik geiago biltzen duzu.

Zertan bekatu egin baitu gizonak, hartan punituren da garratzkienik.

Han nagiei eraginen zaie esten zorrotzez eta gormantak egarsu eta gose handiz irrituko dira.

Han haragizko plazer likitzen ondoan zebiltzanak bike irakinaz eta sufre urrin gaixtoz gantzuturen dira, eta bekaitstiak, ozar errabiatuak bezala, orroz eta saingaz egonen dire bere doloreak ezin iasanez.

4. Ezta bekaturik bere penagarri berezia izanzen eztuenik.

Han superbioak eta hantzurrak ahalke suerte guziez kargatuko dira, eta abariziosak guziz pobrezia ondikoizkoan hondatuko.

Han gaitzago izanen da oren batetako penentan egoitea, ezenez ehun urthetako penitentzia garratzik hemen egiea.

Han ezta sosegurik ez konsolazionerik damnatuentzat.

Hemen bedere badute batzutan doloreek bere aldia, eta leku eginik, adiskideen konsolazioneaz gozaten da nihor.

Duzun beraz orai artha eta damu zure bekatuez, egun handi hartan doatsuekin batean segur izaitea gatik.

Zeren orduan justuak egonen dire xutik ferutasun handi batekin, hek mundu hunetan hertstu eta beheiti egoitzi dituztenen kontra.

Orduan iaikiko da iujeatzera, orai gizonen iujeamenduen azpian humilki iarten dena.

Orduan fidanza handi izanen du pobre humillak, eta superbioa ikaratuko da alde guzietarik.

5. Orduan ageriko da mundu hunetan zuhur izan dela, nork ere ikasi baitu lesus gatik erho eta mesprezaturia izaiten.

Orduan bozkario emanen du tribulazione emeki pairatuak; eta nahiz den gaixtakeriak tapatuko du bere ahoa.

Orduan alegeratuko da debozionetsua, eta debozionegabea minduko.

Orduan arraiturenago da gorputz senaturia bethi plazeretan hazi izan baliz baino.

Orduan piltzarra eta aldagarri ihetzeak distiatuko du, eta tresna preziosak ilhunduko dire.

Orduan laudaturenago da deus gutiko xola, iauregi edo palazio urreztatua baino.

Orduan indar geiago izanen du pazienza finkoak, munduko bothere guziak baino.

Orduan prezatzenago da obediencia hutsa, munduko artezia guziak baino.

6. Orduan konsziencia onak eta garbiak bozkarioturenago du, Filosofia iakinak baino.

Orduan geiago balioko du aberatstasunen mesprezioak, lursaleen tresor guziak baino.

Orduan konsolaturenago zare orazione debotaz othurunza gozoaz baino.

Orduan heuregiago izanen zare zure ixil egonaz, solhas luzerik eginaz baino.

Orduan geiago balioko dute obra sainduak, hainitz hitz ederrek baino.

Orduan atsegin geiago emanen du bizitze hersiak eta penitentzia gogorak, lurreko atsegin-tasun guziak baino.

Ikazazu orai zerbait aphur pairatzen, orduan gaitzagoetarik libra ahal zaitezintzat.

Froga zazu hemen lehenik, zer ahal daidikezun gero.

Orai hain guti para badezakezu, nolatan sekulako penak pairatuko ahal tutzu?

Orai deus gutizko min batek hanbat despanziatzen bazaitu, zer egingen du orduan Ifernuko suak?

Horra, Egiaz ezin dituzketzu bi bozkario, Ezin boz zaitezke hemen mundu hunetan, eta gero lesusekin errege iarri.

7. Egun hunetaraino bizi izan bazine bethi ohoretan eta plazeretan, zer probetxu athera zendukeien orai berehala hil behar bazine?

Beraz guziak banaloria dire, lekat lainkoa maite izaitea eta serbitzatzea, bertzeak utzirik.

Zeren nork ere lainkoa maite baitu bihotz guziaz, ezta herioaren, ez iujeamenduaren, ez eta Ifernuaren beldur, zeren amudio konpliak emaiten baitu lainkoa ganako sartze segura.

Ordea nori ere laketzen baitzaio oraino bekatu egitea, ezta miretsterik hura herioaren eta iujeamenduaren beldur bada.

Badarik ere on da zuretzat, lainkoaren amudioak gibelatzen ezpazaitu oraino gaizki egitetik, Ifernuko penen beldurrak bedere athera zaitzaten bekatuetarik.

Baina nork ere lainkoaren beldurtasunari uko egiten baitio, hura ezin dagoke luzeki bertutearen bidean; aitzitik eroriko da sarri deabruaren sareetan.

HOGOI ETA BORTZGARREN KAPITULUA

*Gure bizitze guziaren zinetan
oneratzeaz.*

1. Zaren erne eta agudo lainkoaren serbitzuan, eta orhoit zarete maiz zertara ethorri zaren, eta zergatik mundua utzi duzun.

Ez othe lainkoaren arauera bizitzea eta gizon espiritual izaitea gatik?

Hari zaite bada beroki zure probetxuaren egi-ten, zeren zure nekeen saria sarri hartuko duzu eta orduan ezta izanen beldurtzerik, ez dolortzerik zure azken epheetan.

Orai guti bat travaillaturen zare, eta gero sosegu handia bai eta bethiereko alegrianza edirenen duzu.

Zure obra onetan fidel eta bero bazaude, lainkoa duda gabe izanen da fidel eta aberatz zure saristatzeko.

Esperanza behar duzu garaita ardietsiko duzula, bainan eztuzu seguranzarik hartu behar, beldurrez nagi edo urguillu zaitezin.

2. Norbaitek, maiz gogoetatsu gertaturik bel-durraren eta esperanzaren artean, eta behin tristeziaz betherik, aldare baten aitzinean belhauniko iarririk othoitzetan zegoela, hunela minzo zen bere buruarekin.

O baneaki ea obra onetan oraino iraunen dudanz! eta berehala bere baitan enzun zuen lainkozko errepuesta, ziotsala:

Zer? hori bazeneaki, zer nahi zenduke egin? Orai egizu orduan egin nahi zendukeiena, eta segur izanen zare.

Orduan berean konsulaturik eta baliostaturik indarstaturik, iarri zen lainkoaren borondatearen azpian eta gogoeta dudatsua ixildu zen.

Etzuen ere sondatu eta iakin nahi izan zer gertatuko zeikan handi hara: bainan agudoki bilha ibilli zen zer zen lainkoaren gogarenik eta konplienik, zerbait obra onik hasteko eta konplitzeko.

3. *Duzun esperanza lainkoa baitan, dio Profetak, zaude lurrean eta gozaturen zare haren aberatstasunez.*

Gauza bat da hainitz gibelatzen dituen bertutean aitzinatetik eta beroki oneratzetik, zein baita paxeluen beldurkundera, eta hekin kontra gudukatzeko trailla.

Hala baina bertze guziek baino bertutetan hagitz aitzinatzenago dute, zeinak gizon gizago enseiatzen baitira garaitzera zer ere gaitzenik eta kontrakoanik suertatzen baitzaie.

Ezen zertan ere gizonak bere burua benutzten eta espirituan mortifikatzenago baitu, hartan probetxu geiago egiten du, eta grazia handiago merezi du.

4. Bainan eztute bata bezanbat bertzeak lan eta okasione bere baitan hiltzeko.

Badarik ere agudoki nor hobeki hari dena sendokiago aitzinaturen da, hainitz eskas-makurduelarik, bertze ongi kostumatua baina bertute-tara epelagoa baino.

Bi gauza beregainki heltzen zaizkigu handiro oneratzeko; bata eta gure buruari borxa eginik,

naturalezak geienik bilhatzen dituen gauza gaixtoetarik apartatzea, bertzea eta geien eskas dugun bertuteari beroki iarraitzea.

Duzun halaber artha zinezago begiratzeaz bertzeak baitan maizenik higointzen zaizkitzun gauzetarik, eta hekin ithotzeaz zure baitan.

5. Egizu zure probetxua alde guzietarik, erran nahi da, ikusten edo aditzen baduzu exenplu onezko gauzarik, pitz zaite haren imitatzerara.

Gaizki erraitekorik ezagutzen baduzu, begira zaite halakorik egitetik, edo noizpait egin baduzu, duzun artha ahalik lasterrena hobeki egiteaz.

Zure begiek bertzeak konsideratzen duten bezala, bertzeek ere ordainez behatzen derautzute.

Zein gauza eder eta alegerari den ikusteaz anaia debotak eta beruak bere eginbidetan ongi daudezila, bere ordenanzen dotrinamenduaren begiratzen.

Zein damu eta unhagarri den ikusteaz desordenatuki dabilzala, eta zertara deituak diren eztutelaegiten.

Zein kaltegarri den lainkoak eman zerauen gogo onaz ez ansiatzean, eta manatuak eztirenetara itzultzeaz.

6. Orhoit zaite hartu duzun borondate onaz eta gurutzefikaren imajina idukazu begien aitzinean.

Merezi onez ahalka zaituzte Iesus-en bizitza miraturik, zeren etzaren oraino enseiatu zurearen moldatzera harenean gainetan, hainitz duelarik lainkoaren bidean zaudela.

Iarten den Gristinoak gure Salbatzailearen bizitze sailduaren eta pasione sakratuaren erneki eta zinezko debozionerekin kontsideratzen, han edirenen du franko on eta premia duen guzia, eta ezta mengoarik zerbait hobeagorik bilha dezan Iesus-ganik kanpoan.

O balethor Iesus gurutzatua gure bihotzetara, zein laster eta aseki ginatzekete dotrinatuak.

7. Zinezko guristinoak ongi hartzen eta ekartzten tu iasaiten eta hartzen tu manatzen zaizkon guziak.

Nagiak eta epelak izaiten du tribuzione tribulazioneren gainean eta alde guzietarik pairatzen du herstura: zeren ezpaitu konsolazionerik, eta ezpaita zilhegi kanpokorik bilhatzera.

Giristino legez bizi eztena gaizki erorteko peril agerian da.

Nork ere bilhatzen baitu bide zabalagorik eta bizitze largoagorik, hura bethi hersturetan egonen da, zeren bethiere gauza bat edo bertzea higoinduko baitzaio.

8. Nola egiten dute hain bertze Fraidek, zeinak baitaude hersiki zerraturik kalaustretako gobernuaren azpian?

Gutitan jekiten dire, bizi dira bertzetarik apartaturik, xoil pobreaki iaten dute, lodiz beztituak dire, hainitz lan eta travaillu daramate, guti minzo dira, beilla luzeak egiten tuzte, eta bere burua ordenanza guzien azpian dadukate.

Mira tzatzu Ehartrusak, Ziteauzkoak eta bertze ordenetako Fraideak eta Serorak, nola gau guziez iaikiten diren lainkoaren laudorien kantazera.

Hargatik laidoa lizate zu hain obra Saindu batean nagitza, horrein bertze fraide hasten direnean lainkoaren kopletan bozkariotzen.

9. O ezpagendu bertze egitekorik gure lainko launaren bihotz guziaz eta aho bethez laudatze baizen.

O ezpazendu sekulan mengoarik iateko, edateko edo lo egiteko eta bethi lainkoa lauda ahal bazeneza, eta arimako probetxuari xoilki itxeki ahal baziniozo! orduan doatsuago zinatezke orai zaren baino, non gorputza hain bertze beharkitan serbitzatzen baituzu.

Ailu lainkoak nahi halako beharrik ezpaliz, bainan arimako othuruntzatzerik xoilki baliz nolakorik, belas! gutitan aski dastatzen baitugu.

10. Noiz ere gizona ethorri baita halako puntura, non ezpaitabilla bere konsolazionearen bilha kreaturetan, orduan hasten da lainkoaren gozoki dastatzen: orduan kontentik dago gertatzen zaion guziaz.

Ezta alegeratzen frankiaz, ez eta tristetzen eskasiaz, baina pernatzen da osoki eta fidanza-

rekin lainkoaren ganean, eta lainkoa du bere guzia gauza guzietan, dakiela lainkoak eztuela deus ere utzten galtzera ez hiltzera, gauza guziei bizia emaiten derauela, eta guziak lehenbiziko keinura prestik daudela laster haren serbitzatzera.

11. Orhoit zaite bethi azken finaz eta denbora galdua eztela bihurtzen.

Sekulan eztitutzu bertuteak ardietsiko arthatsu, erne eta agudo ezpazare.

Hasten bazara epeltzen, hasiko zare gaizki kausitzen, baina beroki hari bazara, bake handi bat aurkituko duzu, eta sentituko duzu travaillua arinago dela lainkoaren grazia gatik eta bertuteari ekarriko diozun amorioa gatik.

Gizon beroa eta agudoa gauza guzietara da prepartua eta adelatua.

Travaillu handiago da bizioei eta guthizia gaixtoei buru egitea gorputzeko nekaduretan izertzea baino.

Eskas xipietarik begiratzen eztena, baratxe erortzen da handienetan.

Bethi alegera izanen zare arratsean eguna iragaiten baduzu obra onetan.

Zaude erne zure gainean, iratzar zaite zerori, zaren zerori zure abisu eta konseillu emaille, eta zer ere baita bertzeez, etzaudezila zure buruaz artha iduki gabe.

Hanbatenez aitzinaturen zare bertutetan, zenbatenez eginen bailieozu zure buruari bortxa. Biz hala!

BIGARREN LIBURUA

LEHEN KAPITULUA

Barreneko.

1. *lainkoaren erresuma zuen baita da*, dio gure launak. Itzul zaite bihotz guziaz lainkoa gana, eta larga zazu mundu ondikozko hori, eta zure arimak edirenen du sosegua.

Ikazazu kanpoko gauzen mesprezitzen, eta barrenekoetan gogoia emaiten, eta ikusiko duzu lainkoaren erresuma zure ganako dela.

Ezen lainkoaren erresuma da Espiritu Saindua baitako bakea eta bozkarioa, gaixtoei emaiten etzaiena.

Iesus etorriko da zure gana eta erakusiko derautzu bere konsolazionea, behar bezalako egoitza preparatzen badiozu zure baitan.

Haren loria eta edergaillu edertasun guzia barrenetik da, eta han laketzen zaio.

Maiz dabilko barreneko gizonari solhas amol-su egiten, hura maiz arraitzen du bere konsolazioneaz, bake handi batez berretzen du, eta miragarrizko begitarteak egiten diotza.

2. Ea bada, arima fidela, prepara diozozu espos hari zure bihotza, zure gana etortzeko, eta zure baitan egoiteko grazia egin diazazun gatik.

Ezen hunela dio: nihork maite banau, begiratu tuko du ene hitza, eta etorriko gare haren gana, eta gure egoitza eginen dugu haren baithan.

Emozu beraz Iesus-i leku, eta herts diezezu bertze guziei athea.

Baldin Iesus baduzu, aberatz zare eta aski duzu.

Hura izanen da zure beharren bilhatzaille eta ekarle fidela gauza guzietan, hala non ezpaituzu esperanzarik eman behar gizonetan.

Zeren gizonak sarri ganbiatzen dira, eta laster huts egiten dute: baina Iesus bethi ere fidel dago, eta tinketz laguntzen hari da azken fineraino.

3. Ezta fidanza handirik ezarri behar gizon erorkorra eta hilkorra baitan, haren beharra zarelarik eta hura maite duzularik: eztuzu ere hainitz tristezia hartu behar, batzutan iartzen bada zure kontra.

Egun zure alde direnak bihar egin diazakezute kontra; eta egun zure kontra direnak bihar iar ditezke zure alde, zeren maiz itzultzen baitira dire haizea bezala.

Ezar ezazu zure fidanza osoa lainkoa baitan, eta biz hura zure beldurtasuna eta amudioa.

Berak ihardetsiko du zuretzat, eta egingen du hobekien den bezala.

Eztuzu hemen bethi dirauen hiririk edo egoitza segurik, eta non ere baitzaude kanpoko zare eta arrotz, eta eztuzu nihoiz ere pausurik izanen non etzaren Iesus-ekin osoki bat egina zure barrenean.

4. Zeri zagotza hemen horra huna beha, ikusirik eztela hau zure pausalekua?

Zure egoitza behar da izan zeruan gora, eta iragaitzaz bezala lurreko gauza guziak behatze-koak dire.

Guziak iragaiten dira, eta zu ere orobat.

Begira hei lotzetik eta itxekitzetik, beldurrez atzeman eta gal zaitezin.

Biz zure gogoeta guzia gorena baitan, eta othoitzagelditu gbe bioa xuxen Iesus-gana.

Ezin hari bazaitezke gaineko eta zeruko gauzen konideratzen miratzen, pausa zaite Iesusen Pasionean, eta egon zaite gogotik haren zauri sakratuetan.

Zeren debozionerekin egiten baduzu laster Iesusen zauri eta seinale preziosetara, konsolazio handi bat sentituko duzu tribulazionetan, eta eztuzu hainitz axola izanen munduko mesprezioak gatik, baina errazki pairatuko tutzu gaizki errailleen hitzak.

5. Iesus bera mesprezatu izan da mundu hunetan zebillanean, eta hura bera behar handian ezagunek eta adiskideek utzi dute laidoztaturik.

Iesus-ek nahi izan du pairatu, eta mesprezturik ibilli, eta zu atrebitzen zare deusez ere arrankuratzera?

Iesus-ek izan tu kontrakoak eginez eta erranez; eta zuk guziak nahi tutzu adiskide eta ongi-egille?

Nondik koroaturen da zure pazienza gerta ezpadakizu kontrakorik?

Nahi ezpaduzu atsekaberik pairatu, nolatan izanen zare Iesus-en adiskide?

Paira zazu Iesusekin eta Iesus gatik, nahi baduzu Iesusekin errege iarri.

6. Behin zinetan sartu bazine Iesusen bihotzean barrena, eta guti bat dastatu bazendu haren amudiotik, etzenduke gero ansiarik zure ongi edo gaizki izanaz: aitzitik boz zindezke laidoez eta atsekabeez, zeren Iesus-en amudioak mespreza arazten baitio gizonari bere burua.

Nork ere Iesus eta egia maite baitu, eta bere baitan egiazki bildurik baitago afekzione desordenatuetarik libratu, hura errazki itzul diteke lainkoa gana, bihotzez altxa daite bera baino gorago, eta gozoki pausa diteke dezake.

7. Nork ere ezagutzen baititu gauzak diren bezala, ez ordea aiphatzen edo diruditen arauerara, hura da egiazki zutaz eta lainkoak irakasiago gizonak baino.

Nork ere baitaki bere baitan barrena ibiltzen, eta kanpoko gauzez kontu guti egiten, hura ezta-

billa leku bilha, eta eztago denboraren begira debozionezko eginbidetan iartzeko.

Barreneko gizona laster biltzen da bere baitara, zeren ezpaita sekulan guzia barraiatzen kanpokoetara.

Kanpoko traillaak edo denbora batetako lan premiazkoak ez tute hura paxetatzen, baina iarraitzen zaie gertatzen diren eredura.

Nor ere baitago bere baitan ongi ordenaturik, hark ez tu axolarik gizonen erremangu gaixtoez eta miretstekoez.

Hanbatenez gizona trabatzen da eta barraiatzen, zenbatenez egitekoak bereganatzen baititu.

8. Ongi bazinunde, eta egiazki garbitua bazine, gauza guziak ongi eta probetxurekin gertha lekidizketzu.

Hargatik hainitz gauza higointzen zaizkitzu eta maiz aldaratzen zaituzte, zeren ezpaitzare oraino zeroni zure baitan billa, eta lurreko gauzetarik apartatua.

Eztu deusik ere gizonaren bihotza hala nothutzen eta korapillatzen, nola kreatur amudio lizunak.

Kanpoko konsolazioneak arbuiatzen badituztu, zeruko gauzak miratuko ahal tutzu, eta maiz boztuko ahal zare zure baitan.

BIGARREN KAPITULUA

Azpiko humil iartzeaz.

1. Eztagizula kontu handirik nor den zure alde edo zure kontra; baina duzun artha lainkoa zurekin den zure obra guzietan.

Duzun konszientzia ona eta lainkoa ongi begiratuko zaitu.

Zeren nori ere lainkoa lagundu nahiko baitzaio, hari nihoren gaixtakeriak ezin egingen dio kalterik.

Baldin badakizu ixil egoiten eta pairatzen, duda gabe ikusiko duzu lainkoa lagunduko zaitzula.

Hark badaki noiz eta nola libratuko zaituen, eta hargatik apal iarri behar zare haren zuhurziaren eskuko eta meneko.

Jainkoari dagoka laguntzea, eta ahalketasun guzietarik libratzea.

Hainitzetan on da xoil guretzat humiltasun handiago izaitea gatik, bertzeak iakin dezaten gure hutsak eta eskasak eta erran diatzaguten.

2. Noiz ere humiltzen baita nihor, orduan errazki ematen tu bertzeak, eta haserretzen zaizkonak arinki satifutzen tu.

Jainkoak humill begirutzen du eta libratzen, humilla maite du eta konsolatzen, humilla gana makurtzen da, humillari emaiten dio grazia handia, eta behebitu denean hura goititzea du loria-ra.

Humillari bere sekeretuak agertzen diotza, eta hura eztiki gonbidatzen du eta erakartzen bere gana.

Humilla bake handi batean dago, nihork laidorik egin badio ere, zeren Jainkoa baitan baitago eta ez munduan.

Eztadukazula probetxurik egin duzula zinets-ten ezpaduzu guziak baino gutiago zarella.

HIRURGAREN KAPITULUA

Gizon prestuaz eta baketiarraz.

1. Iar zaite zerori bakean lehenik, eta orduan baketuko ahal tutzu bertzeak.

Gizon baketzailleak probetxu geiago egiten du iakinsunak baino.

Gizon pasionatuak on dena ere gaitzera itzultzen du, eta gaizkia errazki zinetsten.

Gizon prestuak eta bakezaleak gauza guziak onera hartzen tu.

Bake onean dagoenak eztu nihortaz ere suspitxarik hartzen.

Ordea bere gogora eztagoenak eta aldaratua denak hainitz suspitxa darabilla buruan: berak eztu sosegurik, eta bertzeak eztitu utzten sosegatzera.

Hainitzetan eraiten du erran behar ezlukeiena, eta utzten du hobe litzaikeona egin gabe.

Konsideratzen du zer egin behar duten bertzeek, eta ezaduka konturik berak egin beharrez.

Zaude beraz erne zure gainean lehenik, eta gero begia idukiko ahal duzu zure lagunaren gainean.

2. Badakizu zuk eginak eskusutzen eta bernizatzen, eta bertzeen eskusak eztutzu hartu nahi.

Zuzenago lizate zure burua akusa, ta zure anaia eskusa bazeneza.

Nahi baduzu bertzeak iasan zaitzan, zuk ere iasan ezazu bertzea.

Mira zazu zein urrun zaren oraino egiazko karitatetik eta humiltasunetik, zeinak ezpaitaki nihori haserretzen ez gogortzen bere buruaren kontra baizen.

Ezta gauza handirik prestuekin eta mansuekin ibiltzea, zeren hori naturalezatik on eta eder zaie guziei, eta batbedera gogotik bizi ohi da bakean, eta berak bezalako sentimendu dutenak maiteago itu.

Bainan indarririk aski izaitea gogorrekin eta gaixtoekin, desordenatuekin eta gure kontra direnekin bakean bizitzetzeko, grazia handia da, obra guziz laudatzekoa eta gizon gizakoa.

3. Bada bakean dagoenik, eta bertzeekin ere bakea dadukanik.

Bada bakerik eztuenik, eta bertzei bakerik emaiten ezterauenik: bertzeen unhagarriak dire, baina bere buruen ere unhagarriak.

Bada halaber bere burua bakean dadukanik, eta bertzeen baketzera enseiatzen denik.

Halarik ere gure bake guzia bizitze ondikozko hunetan geiago datza, kontrakorik ez sentitzean baino.

Hobeki dakienak pairatzen bake handiago izanen du.

Hura da bere buruaren iabe eta nausi, munduko iaun, Iesus-en adiskide, eta zeruko primu.

LAUGARREN KAPITULUA

*Gogo garbiaz eta intenzione
sinpleaz.*

1. Bi hegalez alxatzen da gizona lurreko gauzetarik; sinplezia eta garbitasunaz.

Sinplezia behar da intenzionean, eta garbitasuna afekzionatean.

Sinplezia behar dago Jainkoa gana, eta garbitasunak Jainkoa ardietsten du eta gozatzen.

Ezta obra onik trabatuko zaituenik, zure baitan libro bazare afekziona desordenatuetarik.

Jainkoaren borondateaz eta lagunaren probetxuz bertzerik bilhatzen ezpaduzu, gozatuko zare barreneko libertateaz.

Zure bihotza xuxena baliz, kreatura guziak zuretzat liritezke bizitzearen miraila eta dotrina sailduaren liburua.

Ezta hain kreatura xipirik eta ezdeusik non eztuen Jainkoaren ontasuna errepresentatzen.

2. Ona eta garbia bazine zure baitan, gauza guziak ikus zenetzake traburik gabe, eta diren bezala ezagut zenetzake.

Bihotz garbiak iragaiten du zerua eta ifernua. Nolako baita nihor bera baitan, hala iujeatzen du kanpotik.

Munduan alegrianzarik bada, hartaz gozaten da bihotz garbia duen gizonak: eta nihon ere tribulazionerik edo hersturarik bada, hura sentitzen du konszientzia gaixtoak hobekienik.

Nola burdinak, suan emanik, galtzen baitu herdoilla eta guzia gorritzen eta suztatzen baita, halaber Jainkoa gana osoki itzultzen den gizona bere toldetasunetik libratzen da, eta gizon berri batetara ganbiatzen da.

3. Noiz ere gizona hasten baita epeltzen, orduan travaillu pahurraren ere beldur da, eta gogotik hartzen du kanpoko konsolazionea.

Baina zinetan hasten denean bere buruari garaitzen, eta gizon gisa Jainkoaren bidean ibiltzen, orduan kasu guti egiten du, lehen zurth eta pisu zitzaizkon guziez.

BORTZGARREN KAPITULUA

Bere buruaren konsiderazioneaz.

1. Zinetste sobera ezin demokeogu gure buruari, zeren grazia eta adimendua hainitzetan eskasten baitzaiku.

Argi guti da gure baitan, eta den aphurra ere laster galtzen dugu gure ansikabez.

Bai eta hainitzetan eztugu sentitzen horrein itsu garela zeren.

Hainitz aldiz gaizki egiten dugu, eta gure gaizki eginak gaizkiago eskusatzen tugu.

Batzutan pasioneak garamatza, eta uste dugu borondate ona dela.

Bertzeen falta aphurrak hitzez alxatzen tugu, eta gure handiagoak iragaiten tugu ixilik.

Laster sentitzen eta pisatzen dugu zer pairatzen dugun bertzeak ganik: baina zenbat pairatzen duten gure ganik eztugu gogoatzen.

Nihork ongi eta xuxenki mira eta pisa baletza bere obrak eluke zer iujeamendu gaiztorik eman bertzeak gatik.

2. Barreneko gizonak lehen bere buruaz artha daduka, bertzeez baino, eta bere gainean begia zinetan erne dadukana, bertzeez errazki dago ixilik.

Sekulan etzara gizon barreneko eta debot izanen, ixilik ezpazaude bertzeen egitekoez, eta beregainki zure buruari behatzen ezpadiozu.

Zure barrenaldia eta Jainkoa gogoan tinketz badadukazu, kanpotik heldu zaitzun guziak guti ukituko zaitu.

Non zare zurekin zeronekin etzarenean? eta diren guziak miratu ditutzunean, zure buruaz ahantzirik, zer probetxu egin duzu?

Behar baduzu bakean eta egiazko batasunaz gozatu, bertze guziak behar tutzu largatu, eta zure burua xoilki begien aitzinean iduki.

3. Halakotz hagitz aitzinatuko duzu begiratzten bazare libro munduko artha guzietarik.

Laster eskas gertatuko zare munduan den gauzarik prezatzen baduzu.

Eztadukazula deus ere handirik, gorarik, ederririk, gogarakorik badela zuretzat Jainkoa bera eta lainkoa ganik heldu dena baizen.

Egizu kontu banaloria dela zenbait kreaturarik heldu den konsolagarri guzia.

lainkoa maite duen arimak mesprezitzen du lainkoa baino beherago den guzia.

lainko eternala, ezin neurt ditekeiena, gauza guziak bethetzen dituena xoilki da arimaren konsolazionea eta bihotzaren egiazko bozkarioa.

SEIGARREN KAPITULUA

Konszienza onaren bozkarioaz.

1. Gizon prestuaren loriamentua da konszienza ona beretzat lekuko izaitea.

Duzun konszienza ona eta bethi izanen duzu alegrianza.

Konszienza onak hainitz paira dezake eta miragarri da alegera atsekabeen artean.

Konszienza gaixtoa bethi da beldurti, eta ekurugaitz, eta eztu behin ere pausurik.

Gozoki pausatuko duzu, zure bihotzak egiten ezpaderautzu eranzuterik.

Etzaitezila alegera zerbait onik egin duzunean baizen.

Gaixtoek eztute nihoiz ere egiazko alegrianzarik, eta barreneko bakerik eztute sentitzen, zeren *ezpaita bakerik gaixtoentzat* dio gure launak.

Erraiten badute, bakean gaude, ezta gaitzik etorriko gure gainera, nor ausartuko da guri bidegaberik egitera?

Eztetzatzula zinets, zeren berehala iaikiko da lainkoaren kolera, eta hekin hek eginak ezdeus-tuko dira, eta gogoan zerabillaten guzia haizatu-ko da eta galduko.

2. Tribulazionetan loriatzea etzaio gaitz lain-koa maite duen arimari: zeren horrela loriatzea da gure Salbatzaillearen gurutzea loriatzea.

Laburra da gizonek emaiten eta hartzen duten loria.

Munduko loriak bethi du tristezia lagun.

Prestuen loria hekin konszienzietan dago eta ez gizonen ahotan.

Iustuen alegrianza laikoaganik da eta lainkoa baitan, eta hekin bozkarioa egiatik sortzen da.

Nork ere egiazko eta sekulako loria desira-tzen baitu, eztu mundukoaz ansiarik.

Eta nor ere baitabilla denbora batetako loria-ren bilha, eta hura ezpaitu bihotzez mespreza-tzen, erakusten du zerukoa gutiago duela maite.

Sosegu handia du bihotzean nork ere ezpaitu axolarik ez laudorioez ez akusuez.

3. Errazki kumentatuko du eta bakean iarriko konszienza garbia duena.

Etzara sainduago, laudatua izana gatik, ez eta gaixtoago, gaizki aiphatua izana gatik.

Zarena zare, eta ezin zaratezke lainkoaren aitzinean zaren baino geiago.

Miratzen baduzu zer zaren zure baitan, ez-tu zu ansiarik izanen zer gizonek zutaz erraiten duten kanpoan.

Munduak ikusten du bekokian, eta lainkoak bihotzean.

Munduak konsideratzen tu obrak, eta lainkoak sondatzen du intenzionea.

Bethi ongi egitea eta bere burua xipi idukitzea da arima humillaren egitekoa.

Kreatura konsolazioneak arbuizatzea da garbitasun handiaren eta barreneko fidanzaren seinalea.

4. Nork ere kanpotik ezpaitu beretzat bilhartzten lekukorik, erakusten du osoki iarri dela lainkoaren eskuetan.

Zeren londone Paulok dioen bezala: *bere burua laudatzen duena ezta bethi laudatzekoa, baina bai lainkoak laudatzen duena.*

lainkoarekin ibiltea bere baitan barrena, eta kanpoan libro izaitea afekziona guzietarik da gizon barrenekoaren estatua.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

Jesus-ganako amudioak gauza guzien gaisetik.

1. Doatsu da nork ere baitaki zer den Jesus maite izaitea maite, eta bere burua mesprezaztea Jesus gatik.

Maite bat utzi behar da bertze maitea gatik, zeren Jesus-ek nahi du hura xoilki dugun maite gauza guzien gaisetik.

Kreaturaren amudioa enganiosa da eta bertzetarakorra, Jesusen amudioa fidel da finko eta fermu.

Nor ere baitaxeko kreaturari eroriko da erorkorarekin: baina Jesus besartzen duena doatsuki firmatuko da sekulakotz.

Duzun hura maite eta idukazu adiskide; guziek utz zaitzatenean, hark etzaitu utziko, eta eztu pairatuko azkenean gal zaitezin.

Berdin nahi baduzu, nahi ezpaduzu ere, egun batez apartatu behar zare bertze guzietarik.

2. Zaude Iesusen aldean bizi eta hillean, eta iara zaite fidantzarekin haren gomendioan, hura xoilki hel daidikezu bertzeak falta dakizkitzunean.

Zure maitea halakoa da non ezpaitu arrotzik pairatu nahi berekin; baina zure bihotza osoki nahi du bere, eta hartan nahi du errege iara bere tronuan bezala.

Bazeneaki kreatura guzien kentzen zure ganik, Iesus gogotik lagoke zurekin.

Zer ere emanen baituzu gizonen eskuetan, Iesus-i gomendatu gabe, guzia edirenen duzu hurren galdurik.

Ez fida eta ez perma kanabera haizetsuaren gainean, zeren haragi guzia abre belharra da, eta haren loria guzia belhar lorea bezala eroriko da.

3. Laster enganatuko zare gizonen kanpoko iduriari xoilki behatzen badiozu.

Ezen zure konsolazionea eta probetxua nihon bertzetan bilhatzen baduzu, kalte sentituko duzu maizenik.

Jesus bilhatzen baduzu gauzietan, Jesus aurkituko duzu: baina zure burua bilhatzen baduzu, zure burua ere aurkituko duzu, ordea zure kalte-tan.

Zeren bere buruari kalte geiago egiten du gizonak, Jesus bilhatzen ezpadu, mundu osoak eta kontrako dituen guziek egin diozoketen baino.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

lesusekiko.

1. Iesus lekuan denean, guzia on da eta ezta deus ere iduritzen gaitz dela: baina Iesus kanpoan denean den guzia gogorra da.

Iesus gure baitan minzo ezteanean konsolazio-ne guti dugu: baina Iesus-ek hitz huts bat emaiten badu konsolazio handia sentitzen dugu.

Ez othe da egia Maria Magdalena berehala iaiki zela nigarrez zegoen lekutik, Marthak errantzioenean, Nausia hemen da eta zure galdea du?

O ordu doatsua, noiz ere Iesus-ek deitzen baigaitu nigarretarik bihotzeko bozkaria.

Zein idor eta gogor zaren Iesus gabe.

Zein erho eta banaloriatsu zaren, desiratzen baduzu Iesus-ez bertzerik.

Ez othe da hori kalte handiagoa, mundu guzia gal bazeneza baino?

2. Zer eman daizakezu munduak Iesus gabe?

Jesus gabe izaitea Ifernu garratza da, eta lesusekin egoitea parabisu eztea.

Jesus aurkitzen duena, tresor ona aurkitzen du, bai eta ontasun guzien gaineko ontasuna.

Jesus zurekin bada, etsaiak ezin eginen derautzu kalterik.

Jesus galtzen duenak sobera eta sobera galtzen du, eta mundu guzia gal baleza baino geiago.

Guziz pobrea da Jesus gabe bizi dena eta guziz aberatz da Jesusekin ongi dagoena.

2. Iakintasan handia da iakitea lesusekin ibiltzen, eta iakitea Jesusen idukitzen, zuhurzia handia.

Zaren debot eta pausatua, eta Jesus egonen da zurekin.

Kasa dezakezu Jesus zure ganik, eta haren grazia gal dirozu nahi bazare kanpoko gauzetara itzuli?

Eta hura kasatzen eta galtzen baduzu, noren gana ihes eginen duzu? eta orduan nor bilhatuko duzu adiskide?

Adiskiderik gabe ezin ongi bizi zaitezke eta Jesus ezpaduzu guzien gaineko adiskide guziz triste eta deskonsolatua izanen zare.

Erhoki beraz hari zara nihoren baitan fidatzen edo bozten bazare, hura utzirik.

Lehen hautatu behar duzu mundu guzia alxa dadin zure kontra, Jesus haserra dakizun baino.

Biz bada Jesus zure maiteena eta adiskide minena maite dituzun guzien gainetik.

4. Onets bitez guziak Jesus gatik, eta Jesus onets bedi bakoitzki bera gatik.

Jesus onetsi behar duzu bera beregain, zeren hura xoilki edireiten baita on eta fidel adiskide guzien gainetik.

Behar dituzu guziak maite izan haren gatik eta haren baitan, bai adiskideak, bai etsaiak, eta othoitz egin behar diozu guziak gatik, arren hura guziek ezagut eta onets dezaten.

Eztezazula behin ere desira bertzeek lauda eta maita zaitzaten beregainki, zeren hori zor zaio lainkoari xoilki, zeinak ezpaitu bera bezalakorik.

Eztezazula halaber desira nihor sobera lot dakizun bihotzez, eta zeroni ere etzaitzila amarra nihoren ganako amudioaz; baina bego Iesus zure baitan eta arima prestu guzietan.

5. Zarela garbi eta barrenean libro kreaturen kurapillamenduetarik.

Behar duzu billusia, izan eta bihotz garbia lainkoa gana ekarri, nahi baduzu astirik izan eta ikusi zein ezti eta gozo den gure launa.

Ordea hori eztuzu egiazki ardietsiko, haren grazia aitzintzen ezpazaitzu eta erakartzen ezpazaitu, xoilla xoillarekin bat egin zaitezintzat, bertze gauza guziak largaturik eta kanporarik.

Zeren lainkoaren grazia heldu zaionean gizonari, indarsu eta ahaldu egiten da gauza guzietara: baiian ioaiten zaionean behar eta flako gelditzen da, eta azotetara xoilki utzia bezala.

Orduan eztuzu bihotz flakatu ez eta etsitu behar, baina pazienziatz itxekei behar diozu Jainkoaren borondateari, eta gertatuko zaitzun guzia pairatu behar duzu Iesusen laudoriotan.

Zeren neguari darraio uda, gauari eguna, eta tormentari denbora ederra.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

Konsolazione guziez gabetzeaz.

1. Ezta gaitz munduko konsolazionearen mesprezatzea lainkoarena dugunean.

Gauza handia eta guziz handia da indar aski izaita bai munduko bai lainkozko konsolazione gaberik izaiteko, eta borondate onez bihotzeko desterruaren pairatzea lainkoaren ohoretan, bere burua deusetan ere bilhatu, eta bere merezimenduei behatu gabe.

Zer da handirik alegera eta debozionetsu bazare, grazia heldu zaitzunean?

Badute guziek oren haren desira.

Plazerki aski dabilla lainkoaren graziak ekartzeko duena.

Eta zer mirakuillu sentitzen ezpadu kargarik, nor ere guziz botheretsuak baitarama, eta guzien gaineko gidariak gidatzen baitu?

2. Atsegin dugu zenbait konsolazioe izaitiaz, eta nekez billuzten da nihor bere buruaz.

Londonen Laurendi bere Apezpiku Sainduarekin garaitu zaio munduari, eder eta gozo zirudien guzia mesprezatur.

Emeki pairatzen zuen Iesusen amorearen gatik San Sixto Aita Saindua eraman lekion, hura beregainki maite zuelarik.

Kreatzaillearen amudioz bada gizon baten ganako amudioari garaitu zaio, eta maiteago izan du lainkoaren borondatea munduko konsolazioa baino.

Hala zuk ere ikazazu zerbait behar duzunik eta zenbait adiskide minduri utzten lainkoa gatik.

Eztakizula ere gaitzi zure adiskideak utzi zaituenean berdin badakizu guziok finean behar gara elkar ganik apartatu.

3. Hagitz eta luzez behar du gizonak bere buruarekin iharduki eta gudukatu ikas dezan baino lehen garaia osorik ardietsten, eta bere gogo guzia lainkoa gana ekartzen.

Bere gainean permatzen den gizona, errazki erorten da munduko konsolazionetara.

Ordea Iesus-en egiazko maitaria, eta zinezko bertute zalea eztarraie konsolazionei, eta eztabilla halako gozotasunen ondoan, aitzitik nahiago du borthizki erabili izan eta trabailu gogorrak pairatu Iesus gatik.

4. Noiz ere bada Jainkoak emaiten baiterautzu bihotzeko konsolazionerik, hura har ezazu esker diozula; eta iakin ezazu Jainkoaren dohaina dela eta ez zuk merezirik.

Etzaitezila alxa burupe handiz ez sobera alegera, ez fida banoki geroaren gainean; aitzitik zarela humillago eman zaitzuna gatik, zarela ere begiratuago eta beldurriago zure obra guzietan, zeren oren hura iraganen da, eta etorriko da tentazionea.

Konsolazionea eraman dakizunean, ezteza zula berehala esperanza gal, baina zaude humilki eta pazienziarekin zeruko bisitaren begira: zeren Jainkoak eman diezakezu berriz ere konsolazione geiago.

Etzaie hori gauza berria eta bakarra Jainkoaren bidea frogatu dutenei, zeren aldizkatzeko manera hura maiz gertatu zaie saildu handiei eta profeta zaharrei.

5. Halakotz hetarik batek, grazia berekin zue-nean, erraiten zuen: *nik erran dut neure frankian, enaiz sekulan aldaratuko.*

Ordea grazia ioanez gero, erakustea gatik zer frogatu zuen, hunela minzo da: itzuli duzu zure begitartea ene ganik eta tribulatua egin naiz.

Bizkitartean eztu esperanza galtzen, baina usuago dagoka Jainkoari othoiez, erraiten duela: *Zure gana, Jauna, egingen dut oiu, eta ene Jainkoari egingen diot othoitz.*

Azkenean bere othoitzaren fruitua ardietsten du, eta erakusten du enzun izan dela: *Enzun nau Jaunak, dio, eta urrikaldu natzaio, iauna iarri zait alde eta egin zait lagun.*

Zertan ordea? *Ganbiatu tutzu ene nigarrak bozkariotara, eta alde guzietarik inguratu nauzu alegrianzaz.*

Horrela egin bada saildu handiekin, guk pobre eta flako horiok eztugu etsitu behar,

batzutan bero batzutan hotz gertatzen bagare: zeren Espiritu saindua heldu da eta badoa berak plazer eta borondate duen arauera.

Hargatik ziotzan Job sainduak: *Bisitatzen duzu gizona argiaren begian, et hura berehala frogatzen duzu.*

6. Zertan beraz esperanza ahal duket, eta zertan fidatu behar dut lainkoaren miseriak handian eta zeruko graziaren esperanzan baiden?

Ezen heldu bazaizkit ere gizon prestuak, fraide debotik, adiskide fidelik, edo ekartzen bazait ere liburu saindurik, eskiribu ederrik, edo kanta eta koplak arraik, gauza hek guziek probetxu eta gozo guti emaiten derautate grazia ez tudanean, eta ene pobrezia hutsean utzia nagoenean.

Orduan eztut erremedio hobeagorik pazientzia hartzea, eta neure burua lainkoaren borondatearen azpian ezartzea baino.

7. Eztut egundaino aurkitu hain debozione-tsuri, non etzaion batzutan grazia edeki izan,

edo non eztuen sentitu zenbait aldiz bere debozionea gutitzen zela.

Ezta saindurik hain gora lainkoa gana eraman, eta hain argitu izan denik, non lehen edo gero ezten tentatu izan.

Zeren zenbait tribulazione lainkoa gatik pairatu eztuenak eztu merezi altxatua izan lainkozko kontenplazionera.

Aitzineko tentazionea geroko konsolazionearen seinale ohi da; eta tentazionetan frogatu direnei agintzen zaie zeruko konsolazionea: garaituko denari, dio, emanen diot biziaren arbolako fruitutik iatera.

8. Ordu lainkozko konsolazionea emaiten zaio gizonari bortitzago izaitea gatik gauza gaitzen eta kontrakoen pairatzeko.

Gero ondoan heldu da tentazionea, beldurrez sobera eraman dadin duen ontasuna gatik.

Deabrua ezatza lo, eta haragia ezta oraino hil; hargatik etzaudezila preparatu gabe gudukatzera, zeren eskuin eta esker dabilzkitzu behin ere pausatzen eztuten etsaiak.

HAMARGARREN KAPITULUA

*Eskerrak emaitiaz lainkoaren
graziak gatik.*

1. Zergatik zabilta pausuren bilha, travailluko sortu zarenaz geroztik?

Lehen prepara zaite pairatzera, ezen ez konsolazione hartzera; eta soinean gurutzearen erabiltera, ez alegeratzera.

Ezen nork mundukoetarik elezake gogotik har konsolazione eta alegrianza espirituala, hura bethi ahal balu? zeren konsolazione espiritualek garaia daramate munduko plazer, eta atsegintasun guzien gainean.

Munduko plazer guziak edo banaloriazkoak dira edo lizunak: baina plazer espiritualak arraiak dira eta ohorezkoak, bertutetarik sortuak, eta lainkoak bihotz garbietara isuriak?

Baina nihor ezin goza diteke bethi konsolazione lainkozko hetaz nahi lukeien bezala, zeren tentazionearen aldia laster bihurtzen da; denborak eztu hainitz luzatzen.

2. Bada arimako libertate falsoa, eta bere baitako fidanza handia hagitz dire lainkoaren bisitarren kontra iarriak.

Ongi egiten du lainkoak konsolazionezko graziaren emateaz: baina gaizki egiten du gizonak lainkoari aitortik ez egiteaz eta eskerrik ez bihurtzeaz.

Hargatik graziaren dohainak ezin isur ditezke gure gainera, zeren esker gabe garen emaillea gana, eta den guzia eztugun bihurtzen bere ithur burura.

Ezen noiz ere behar bezalako eskerrik emaiten baitu lehenbiziko dohaina gatik, hari zor zaio grazia berri bat, eta humillari emaiten ohi zaiona edekiko zaio superbioari.

3. Eztut nahi urrikimendua eramaiten derautan konsolazionea, eta enaiz guthiziatzen hantureriara naraman kontenplazionez.

Ezen handi eta gora den guzia ezta saindu, ezti den guzia ezta on, desir guziak eztira garbi, eta maite den guzia ezta bethi lainkoaren gogarra.

Gogo onez hartzen dut grazia, zeinaren bidez egiten bainaiz humillago, beldursuago eta preparatuago neure borondateari uko egitera.

Nor ere graziaren dohainaz dotrinatua baita eta irakasia zer den graziaz gabetzea, ezta ausartuko buruperik hartzera, zerbait onik bere buruz duelako, baina librokiko aitortuko du pobre beharra eta billusia dela.

Emozu lainkoari berea, eta har ezazu zurea, erran nahi da, emoitzu lainkoari eskerrak emaiten derautzun grazia gatik, eta ezagut ezazu zurea xoilki dela bekatua eta bekatuari dagokan bezalako pena.

4. lar zaite bethi lekuri beherenean, eta gorena emanen zaitzu: zeren gorena ezin dagoke beherenaren gainean permaturik baizen.

lainkoaren aitzinean handien dire sainduak, guzietarik xipienak dire bere baitan; eta zenbatenez loriosago, hanbatenez humillago.

Egiaz eta zeruko loriaz bethe direnek eztute guthiziarik banaloriaz.

lainkoa baitan firmaturik eta zimendaturik daudenak ezin alxa ditezke nihola ere berak baino gorago.

Aitortzen dutenek bere duten ontasun guzia lainkoa ganik dutela, eztabiltza bata bertzea ganikako loriaren bilha; baina lainkoa ganik xoilki heldu den loria nahi dute, eta hekin desir guzia da Jainkoa laudatzea bere baitan eta saildu guzietan gauza guzien gainetik laudatzea, eta hortara bethi dadukate gogoia etxaturik.

5. Zarela beraz eskerdun dohain xipiena gatik, eta mereziko duzu handiagorik hartu.

Den emaitzarik mendreena estima zazu handi eta mesprezatzekoena idukazu beregainekotzat.

Behatzen baduzu nor den emaillea ikusiko duzu eztela dohain xipirik edo deus gutiegirik.

Ezen guzien gaineko launak emaiten duena ezta gauza xipia.

Penak eta azoteak igortzen baderauzkigu ere plazerki hartu behar tugu: zeren bethiere gure salbamenduagatik egiten du, zer ere utzten baitu guri gertatzera.

Nork ere baitu desira lainkoaren graziaren begiratzeko, lema esker lehen eman zaiona gatik, eta har beza pazienza edeki zaiona ere gatik.

Bego othoitzez grazia bihur dakion begira eta humil bedi, beldurrez hura berriz gal dezan.

HAMEKAGARREN KAPITULUA

Zein gutik maite duten Iesus-en gurutzea.

1. Orain Iesus-ek hainitz ditu zeruko erresuma maite dutenak, baina guti dira haren gurutzea jasaiten dutenak.

Hainitz du konsolazionea desiratzen duenik, eta guti, tribulazionea nahi duenik.

Hainitz kaustitzen du lagun mahaineko, baina guti barurtzeko.

Badute guziek harekin bozteko desira, baina gutik nahi dute haren gatik edo harekin deusik pairatu.

Hainitz darrarizko Iesus-i ogia hautsteraino, baina guti Pasionearen kalitza edateraino.

Hainitzek ohoratzen tuzte haren mirakui-luak; eta guti darrarizko haren gurutzearen laidori.

Hainitzek dute Iesus maite gaitzik gertatzen etzaien bizkitartean, hura laudatzen eta ohorez-

ki aiphatzen dute zenbait konsolazione haren ganik izaiten duteino.

2. Ordea Iesus maite dutenak Iesus gatik eta ez bere konsolazionea gatik, hura benedikatzen dute hala tribulazionetan eta bihotzeko hersturetan nola konsolazione handietan.

Eta nahi ezpalerarekin sekulan konsolazionerik eman, oro bat lauda lezakete eta bethi nahi lioztokete eskerrak bihurtu.

3. O zenbat daidiken Iesus ganako amudio garbiak, nahasia eztenean bere buruaren alderako amudioaz edo probetxu partikularaz.

Ez othe dira lukurari izendatu behar, bethi konsolazionean ondoan dabiltzanak?

Ez othe da segurtzat iduki behar bere irabaziaz eta probetxua bethi gogoan darabillatenak bere burua maiteago dutela Iesus baino?

Non edirenen da lainkoa dohainik eta ururik serbitzatu nahi duenik?

4. Nihor guti kausitzen da hain espiritual non gauza guzietan dagoen billusirik.

Ezen nork aurkituko du egiazki bihotzez pobre eta kreatura guzietz billusia denik?

Urrun bilhatu behar da halakoa, eta haren prezioa munduko azken kantoinetarik ekarri behar da.

Gizonak bere duen guzia pobrei eman badieze ere, oraino deus guti da ezta deusik.

Penitentzia garratz egin baleza balu ere oraino deus guti da.

lakin ditezkeien guziak baleakizki ere, oraino urrun da perfekzionetik.

Bertute handi eta debozione guzietz irazeki bat balu ere oraino hainitz du eskas, eta hainitz hura da gauza bat zeinaren xoil behar handia baitu.

Zer da hainitz hura? Gauza guziak utzirik bere buruari uko dagoela, bera bere ganik ilki dadilla, bere burua ganako amudiorik iduki eztezala; eta ikus dezanean egin duela egin behar zuen guzia zinetz dezala eztezala deusik egin.

5. Eztagiela kontu handirik, handiro estima ditezkeienaz: baina egia den bezala erran beza zerbitzari ezdeusetako dela, Egiak berak dioenez

gero: *egin ditutzuenean manatuak zareten guziak, errazue serbitzari ezdeusetakoak gare.*

Orduan egiazki izanen ahal da gogoz pobre eta billusia, eta erranen ahal du profetarekin, *bakoitza naiz ni eta pobre.*

Badarik ere ezta nihor aberatzago, nihor handiago, nihor zilhegiago, bere buruaren eta gauza guzien utzten, eta lekurik beherenean iartzen dakiena baino.

HAMABIGARREN KAPITULUA

Gurutze sainduaren bide zabalaz.

1. Hainitzi gogor zaie hitz hau: uko egiozu zure buruari, har ezazu zure gurutzea, eta zarraizko Iesus-i.

Ordea hagitz gogorrako izanen da azken hitz hunen enzutea: *zoazkideate maradikatuak sekulako sutara.*

Zeren orai bihotz onez gurutzearen hitza enzuten dutenak eta hari gogotik darraizkonak eztire orduan beldur izanen enzun dezaten damnazioneko hitza.

Gurutzearen seinale eta bandera hura zeruan ageriko da gure launa datorrenean munduaren iujeatzera.

Orduan gurutzefikaren gainean bere bizia moldatu duten gurutzearen serbitzari guziak fidantza handirekin hurbilduko zaizko Iesus bere jujeari.

2. Zergatik bada beldur zare erresumara daraman gurutzearen hartzeaz?

Gurutzean da salbamendua, gurutzean da bizia, gurutzean da etsaietarik begiralekoa, gurutzean da zeruko eztitasunen ithurria, gurutzean da arimaren indarra; bihotzaren bozkarioa gurutzean da, bertutearen punturik gorena gurutzean da, saindutasunaren konplimendua da gurutzean.

Hitz batez ezta arimako salbamendurik ez eta sekulako biziaren esperantzarik zeruetan baizen.

Har ezazu beraz zure gurutzea soinean, eta zarraizko Iesus-i eta sekulako bizia ardietsiko duzu.

Hura ioan da zure aitzinean bere gurutzea zeramala, eta hil da gurutzean zure gatik, zuk ere gurutzea erabil dezazun eta gurutzean hiltzeko desira har dezazun gatik.

Zeren harekin batean hiltzen bazare horrekin ere biziko zare; eta haren lagun eta partale bazare penetan, izanen zara lorian ere.

3. Horra non guzia gurutzean eta hiltzean datzan, eta nola ezten bertze biderik biziaren eta barrenako bakearen ardietsteko gurutze sainduaren eta egunorozko mortifikazionearen bidean baizen.

Zabiltza non nahi, bilha zer ere nahi, eztuzu gainean bide goragorik, ez beherean seguragorik kausituko gurutze sainduaren bidea den baino.

Prepara eta ordena tzatzu gauza guziak nahi duzun eta hobeki zaitzun bezala, ikusiko duzu bethi zerbait pairatu behar duzula nahi baduzu, nahi ezpaduzu ere eta horrela bethi gurutzea aurkituko duzu.

Zeren edo gorputzean izanen duzu min eta oinhaze, edo gogoan herstura eta atsekabe.

4. Batzutan lainkoa urrunduko da zure ganik, batzutan zureki dabiltzanek emanen derautzute zer egin, eta zein baita geiago maiz izanen zare zeroni zure unhagarri, eta guziarekin ere ezin libratuko eta ezin arinduko zare niholatako erre-medioz, baina pairatu beharko duzu lainkoak plazer duen artean.

Ezen lainkoak nahi du ikas dezazun tribulazionearen pairatzen konsolazionerik bat ere gabe eta humillago egin zaitezin tribulazioneaz.

Ezta nihor bihotzean hala ukitzen lainkoaren pasione sailduaz, nola ukitzen baita gertatu dena hark bezalakorik pairatzera.

Gurutzea bada bethi preparatua da, eta leku guzietan zure begira dago.

Laster egizu nora nahi, ezin itzul zakidizkeo, zeren non ere baitzabilta, bethi zure burua darabilazu, eta bethi zure burua kausituko duzu.

Itzul zaite goiti, itzul beheiti, itzul kanpora, itzul barrenera, non nahi edirenen duzu gurutzea eta non nahi pazienziaren beharra duzu, nahi baduzu barreneko bakea ardietsi eta sekulako koroa irabazi.

5. Gurutzea iasaiten baduzu gogotik, hark iasanen zaitu eta eramanen desira duzun lekura, non ezpaita pairatzekorik izanen, ezta ordea hemen halako tokirik.

Hura iasaiten baduzu bortxaz, hartaz egiten duzu zuretzat karga, eta zure burua geiago gal-

katzen duzu, eta halarik ere hura pairatu behar duzu.

Gurutze bat etxatzen baduzu duda gaberik edirenen duzu bertze bat eta naski pisuago.

6. Uste duzu itzuliko zaizkola nihor egundaino ezin itzuli zaion gauzari?

Nork sainduetarik izan da munduan gurutze-rik eta tribulazionerik gabe?

Iesus gure Jauna bera ezta oren bat egon dolore gaberik bizi izan deino.

Behar zen, dio eskiriturak, kristok paira lezan gurutzean, eta hilletarik bihur ledin bizirik eta horrela sar ledin bere lorian.

Eta zu nolatan zabilta gurutze sainduaren errege bide hunetaz bertzerik bilha?

7. Iesus-en bizitze guzia izan da gurutze eta martirio ardurako bat, eta zuk errepausua eta alegrianza bilhatzen duzu?

Enganutzen zara, bai enganatzen, bilhatzen baduzu tribulazioneen pairatzeaz bertzerik: zeren munduko bizitze hau guzia miseriez bethea da eta gurutzea inguratua.

Eta zenbatenaz barrenago sartu baita nihor bizitze espiritualean, hanbatenaz gurutze pisua-goak maiz aurkitzen tu, zeren bere desterruak emaiten dioen pena handitzenago baitan amudioaren podorez.

8. Guzia gatik ere horrela hainitz moldez penatzen dena eztago zenbait konsolazione eta sosegu gabe; zeren frogatzen baitu hainitz probetxu heldu zaiola bere gurutzearen pairatzeaz.

Ezen haren azpian gogotik iartzen denean, tribulazionearen karga guzia ganbiatzen da lainkozko konsolazionea baithako fidanzara.

Eta zenbatenaz haragia senatzenago baita aflikzioneaz, hanbatenaz espiritua bortitenago da barreneko graziaz.

Eta batzutan hanbat bortitzten da tribulazioneari eta kontrako fortunari ekartzen dioen amudioaz Iesus-en arauerako izaitea gatik, non ezpailuke egon nahi herstura eta dolore gaberik.

Zinetsten baitu hanbatenaz Jainkoaren gogorago dela, zenbatenaz geiagorik eta gaitzagorik pairatuko ahal baitu haren amorioa gatik.

Ezta hori gizonaren indarraren egitekoa, baina Iesus-en graziaren obra, zein hain gauza handirik egin baitezake eta egiten baitu haragi hautskorrean, non espirituan beroz besarka eta onets dezan zer ere naturalezaz higointzen baitzaio eta zeri ere baitoako ihesi.

9. Ezta gizonaren oldea gurutzearen iasaitea, gurutzearen oneritstea, bere gorputzaren sentitzea gastigatzea eta serbitzuaren azpian emaitza, ohorei ihes egitea, afruntuak gogotik pairatzea, bere burua mesprezatzea, zer ere baita kalterik eta kontrakoanik onera hartzea, eta munduko ontasunik bat ere ez desiratzea.

Hari bazare kontsideratzen nor eta zer zaren, zure buruz eztaidikezu horrelakorik: baina fidatzen bazare lainkoa baitan, indarra emanen zaitzu zerutik, eta mundua eta hara izanen tutzu azpiko eta zure meneko.

Etzara ere ifernuko etsaiaren beldur izanen fedez armatua, eta Iesus-en gurutzeaz seinalatu bazare.

10. Iar zaite beraz Iesus-en serbitzari agudo eta fidel bat bezala, eta lotzakizko gizon gisa zure gatik gurutzean amudio hutsez iosi izan denaz gero.

Prepara zaite hainitz bidegabe eta kalte pairatzera bizitze ondiozko hunetan, zeren horrela eginik, hura zurekin izanen da zaren leku guzietan, eta non ere gordeko baitzara hura edirenen duzu alde.

Hala bear da, eta ezta biderik gaitzetarik eta doloretarik ihes egiteko pairatzea baizen:

Edan ezazu gogotik Jainkoaren kalitza, desirik baduzu haren adiskide izaiteko, eta harekin partetik ardietsteko.

Utskitzu konsolazioneak lainkoaren eskuetan, egin beza hetaz plazerago duen bezala.

Ordea zu iar zaite tribulamenduen pairatzen, eta estima zazu konsolazione handi direla zuretzat.

Ezen denbora mende hunetako penak eztira baso eta ez aski etorkizuneko loriaren merezitzeko, guziak zeronek paira ahal bazenetza ere.

11. Halako puntura zaitezinean non tribulazioea ezti eta gozo ediren dezazun Iesus gatik, orduan estima zazu ongi doatzula, zeren parabisua aurkitu duzu lurrean.

Noizeraino pisu baitzaitzu pairatzea eta nahi baituzu ioan ihesi, han arteraino gaizki izanen zara eta tribulazioaren beldurtasuna non nahi iarraikiko zaitzu.

12. Iarten bazara egiten behar duzunaren egiten, erran nahi da, pairatzen eta zure buruari hiltzen, sarri hobeki izanen zara eta bakea edirenen duzu.

Eraman izan bazina ere hirugarren zeruraino londone Paulorekin, etzinateke halakotz segur eztuzula deusik pairatuko.

Nik, dio gure Salbatzailleak, erakusi diot, zenbat pairatu behar duen ene izena gatik.

Beraz zuri dagotzu pairatzea plazer baduzu Iesus onetsi eta bethiere serbitzatu.

13. Aitzendu merezi zerbaiten pairatzea Iesus-en izenagatik! Zein loria handi lizate zuretzat! zer bozkario eman ziniezeke saindu guziei!

zein exenplu on eta eder har lezake lagunak zure ganik.

Ezen guziek gomendatzen dute pazientzia, nihork gutik pairatu nahi duelarik.

Merezi onez zerbait aphur behar zenduke Iesus gatik pairatu, ikusirik hainitzek handiagorik pairatzen dutela mundua gatik.

Idukazu segurtzat, bizi behar duzula ardura hiltzen den biaz; zeren zenbatenaz hiltzenago baita nihor bere baitan, hanbatenaz hastenago da lainkoa baitan bizitzen.

Ezta nihor gai zeruko gauzen iakiteko iartzen ezpada nahiz diren gaitzen pairatzen Iesus gatik.

Ezta deus ere lainkoaren gogarago, eta zuretzat mundu hunetan hobeago, bihotz onez Iesus gatik pairatzea baino.

Eta hautatu behar bazendu, lehen desiratu behar zenduke gaitz guzien pairatzea Iesus gatik, ezen ez hainitz konsolazionez gozatzea; zeren horrela hobeki zenduke Iesus-en iduria, eta saildu guziak bezalakoago zinateke.

Gure merezimendua eta aitzinamendua ezta hainitz konsolazione eta ez-titasun izaitea, baina bai gaitz eta herstura hainitz pairatzea.

15. Berdin izan baliz bide hobeagorik eta seguragorik gizonen salbamenduko pairatzea den baino, hura gure Salbatzailleak erakusiko zeraukun hitzez eta obrez erranez eta eginez.

Zeren hari berari zerraizkon diszipuluak, eta iarraiki nahi zaizkon guziak agerriz deitzen tu zein bere gurutzearen ekartzera dioztela: *nihork nahi badu ene ondoan etorri, uko egin biozo bere buruari, berabilla bere gurutzea, eta berrait.*

Beraz gauza guziak irakurririk eta sondaturik, biz hau azken puntua: *hainitz tribulazionetik iraganez behar garela-dugula lainkoaren erresuman sartu.* Biz hala.

HIRURGAREN LIBURUA

LEHEN KAPITULUA

Jesus-en barreneko solhasaz arima fidelarekin.

1. *Enzunen dut zer ene lainko launa minzoden ene baitan.*

Doatsu da arima launaren hitzak bere enzuten dituena, eta bere konsolazionea hartzen haren ahotik.

Doatsu dire beharriak lainkoaren inspirazioneko aire emea hartzen dutenak emero idekitzen direnak, eta munduko lausengurik bat ere aditzen edo hartzen ez tutenak.

Doatsu xoil dire beharriak, ez kanpotik ioiten duen soinuari, baina barrenean irabazten duen egiari zabaltzen zaizkonak.

Doatsu dire begiak kanpoko gauzetara serratuturik eta barrenkoetara idekirik daudezinak.

Doatsu dira barreneko gauzetan sartzen direnak, eta egunorozko egin bidez zeruko sekere-tuen geiago eta geiago endelegatzera eta hartzera preparatzen direnak, gaitzen.

Doatsu dira lainkoari gogotik lotzen zaizkonak, eta munduko trabu guziak urrun bere ganik iraitsten tuztenak.

2. Zagozte horiei beha, ene arima, eta hezikitzu zure sensuetarasunaren atheak enzun dezaungatik zure lainko launa zer minzo den zure baitan.

Huna zer dioen zure maiteak: Ni naiz zure salbamendua, zure bakea eta zure bizia, zaude ene baitan eta bakea aurkituko duzu, utzkitzu iragaiten diren gauzak, bilha tzatzu bethierekoak.

Zer dire munduko gauzak enganamenduak baizen? Zer probetxu dukezu kreaturetarik, zure kreatzailleak utzten bazaitu.

Beraz bertze guziak largaturik, egin zaite zure kreatzaillearen gogarako eta fidel haren aldera, egiazko doatsutasuna ardiets dezakezun gatik.

BIGARREN KAPITULUA

*Egia minzo zaikula bihotzean hitz
soinurik gabe.*

1. *Minza zaite, Jauna, zeren zure serbitzaria dago enzun nahiz.*

Zure serbitzaria naiz, indazu adimendua zure manuen ikasteko: Erakarzu ene bihotza zure ahoko hitzetara: isur ditezila zure hitzak ene gana ihintza bezala.

Israeleko umeez erraiten ohi zioten Moisi: zu minza zakizkigu, eta enzunen zaitugu; eztagigula lainkoa minza beldurrez hil gaitezin.

Emagotzu, launa, emagotzu horrela othoitzez.

Ezterautzut, launa, ezterautzut horrelako othoitzik egiten: aitzitik Samuel profeta bezala humilki eta desir handiz nagotzu; minza zaite, Jauna, zeren enzuten du zure serbitzariak.

Eztakidala minza Moisek ez eta bertze profetarik bat ere;

zu ene lainko launa profeta guzien inspiratzaillea eta argitzaillea zarena minza zakizkit; zeren zuk xoilki behar den bezanbat irakats diazakedazu, hek ordea zu gabe eztute probetxurik eginen.

2. Hitzak athera detzake ta, bainan endelegua eztute emaiten.

Zotilki xoil minzo dire, ordea zu zaudenean ixilik, eztute bihotza irazekitzen.

Irakasten dute letreiatzen baina zuk erakusten duzu barreneko sensua.

Misterioak aiphatzen tuzte, baina zuk agertzten derauzkigutzu hetan dauntzan sekeretuak.

Manamenduak emaiten derauzkigute, baina zu heltzen zaizkigu hekin konplitzen.

Bidea erakusten deraukute, baina zuk emaiten deraukuzu bidean ibilteko indarra.

Kanpoan xoilki hari dira, baina zuk bihotzak dotrinatzen tutzu eta argitzen.

Ureztatzen dute kanpotik, baina zuk fruitutzea emaiten duzu.

Oiu egiten dute bere hitzez, baina zuk emaiten duraukuzu aditzera zer erraiten duten.

3. Eztakidala beraz Moisez minza, baina zu ene Jainko Jauna bethiereko egia zarena, minza zakizkit beldurrez hil nadin eta fruiturik ezteza-dan ekar, kanpotik xoilki abisaturik eta barre-nean piztu gaberik banago; beldurrez hitz adi-tzeak eta ez obratuak, ezagutuak eta ez maita-tuak, zinetsiak eta ez begiratuak gerta ditezin ene kondemnazionetan.

Minza zaite bada, jauna, zeren enzuten du zure serbitzariak, berdin baditutzu sekulako biziaren hitzak.

Minza zakizkit ene arimaren konsolazionetan, ene bizitze guziaren oneramendutan, eta zure sekulako laudoriotan, loriatan eta ohoretan.

HIRURGARREN KAPITULUA

*Iainkoaren hitzak humilki enzun
behar direla, eta hainitzek
eztituztela behar bezala pisatzen.*

1. Ene semea, enzun etzatzu ene hitzak, hitz guziz gozoak, munduko filosofo eta zuhur guzien iakintasunari garaitzen zaizkonak.

Ene hitzak dira espiritua eta bizia, eta eztira pisatu behar munduko iujeamenduaren pisan.

Eztira banaloriazko edergaillura hartu behar baina behar dire ixilik enzun, humilki eta bihotz onez hartu.

Eta erran dut nik ere horren gainean: *Doatsu da, jauna, nor ere dotrinatzen baituzu, eta nori ere irakasten baitiozu zure legea, zuk hura egun gaitzetan konsola dezazun eta bera bakarrik lurrean utzirik eztagoen gatik.*

Nik irakasiak dire Profetak hastean danik, dio Jaunak, eta hunerainokoan enaiz ixiltzen guziei mintzatzetik, bainan ene hitzetara hainitz dira gor eta gogor.

2. Hainitzek gogotikago mundua enzuten dute, Jainkoa baino: eta errazkiago darraizko bere haragienne aphetituari, Jainkoaren plazer onari baino.

Munduak munduko gauzak eta deus gutitakoak agintzen tu, eta guziek hura serbitzatzen dute gogo handiz: nik prometatzen tut gauza handiak eta bethierekoak, eta gizonen bihotzak loakartzen dira eta toldetzen.

Nork serbitzatzen eta obeditzen nau gauza guzietan, mundua eta munduko jaunak serbitzatzten dituen bezalako artharekin?

Ahalka zaite, Sidon, dio itsasoak, eta galdeztzen baduzu zergatik, adi zazu zergatik.

Irabazia apherura gatik hainitz bide lasterka egiten dute, eta sekulako bizia gatik nekez behin altxatzen dute oina lurretik.

Fitzezko prezio baten ondoan dabilta, batzutan soz bat gatik laidozki doaz hauzitara: eztira beldur ezdeusetako gauza eta agintza xipia gatik gauaz eta egunaz nekatzera.

3. Bainan, ah dolorea! ezin ganbiatuzko ontasuna gatik, ezin aski prezatuzko golardoa gatik, guzien gaineko ohorea, eta fin gabeko loria gatik nagitzen dira, eta herabe dute guti bat travaillatzaera.

Ahalka zaite bada serbitzari nagia eta arrankuratia, zeren hek prestago diren beren buruaren galtzaera, zu zaren baino sekulako biziaren ardiestera.

Hek bozkariotzenago dira banaloria gatik, zu egia gatik egiten zaren baino.

Guziarekin ere maiz galtzen dute bere esperanza, bainan ene promesak eztu nihor engantzen, eta ene baitan fidatzen dena ezta hutsik igortzen.

Agindu dudana emanen dut, erran dudana konplituko dut, nihor ordea egoiten bada ene ganako amudioan fidel eta finko azken fineraino.

Ni naiz prestu guzien saristatzaillea, eta debot guzien frogatzaille bortitza.

4. Eskiriba tzatzu ene hitzak zure bihotzean eta maiz erabil gogoan, zeren hekin behar handia izanen duzu tentazioneko denboran.

Endelegatzen eztuzuna irakurtzen duzunean, hura endelegatuko duzu bisita zaitzadanean.

Ene hautatuak bisitatzen ohi tut bi manieraz, tentazioneaz eta konsolazioneaz; eta egun guzietan bi lekziona irakurtzen deraustet, bata, erantzuten derauedala bere hutsak gatik, eta bertzea, gonbidatzen ditudala bertutetan aitzinatzeraz.

Nork ere aditzen baititu ene hitzak eta ezpaitu hetaz konturik egiten, badu nork hura iujeatuko duen azken egunean.

Othoitza Debozionarioko graziaren eskatzeko.

1. Ene lainko launa, zu zare ene ontasun guziak: eta ni nor naiz ausartzeko zuri minzatzera?

Ni naiz zure serbitzarietarik gaizoena, eta xixari ezdeusa, errumesago eta mesprezatzeko dakidan eta derrakedan baino.

Badarik ere orhoit zaite, Jauna, ez naizela deus ere, eztudala deus ere, eta eztaidikedala deus ere.

Zu xoilki zare on, iustu eta saindu: den guzia daidikezu, den guzia emaiten duzu, den guzia bethetzen duzu, bekatorea xoilki utzten duzu hutsik.

Orhoit zaite, launa, zure miserikordiez eta bethe zazu ene bihotza zure graziaz nahi eztuzunaz gero zure obrak hutsik daudezin.

2. Nolatan ekar dirot neure burua ondikozko bizitze hunetan zure miserikordiak eta graziak emaiten ezpaderaut indar.

Eztezazula zure begitartea itzul ene ganik: eztezazula berant ene bisitatzera; eztiadazula eraman zure konsolazionea, beldurrez ene arima egin dadin zure aldera urik gabeko urgaberiko lurra bezala.

launa, irakas diazadazu zure borondatearen egitea, irakas diazadazu zure aitzinean humilki eta bakar bezala ibilten.

Zeren ere zuhurzia zu zare, egiazki ezagutzen eta ezagutu nauzuna mundua egin zedin eta mundura sortu nintzen baino lehen.

LAUGARREN KAPITULUA

Iainkoaren aitzinean ibilli behar dela egiarekin eta humiltasunarekin.

1. Semea, zabilitza ene aitzinean egiarekin, eta bilha nazazu bethiere zure bihotzaren sinpletasunarekin.

Ene aitzinean egiarekin dabillana, begiraturaren da inkontru gaitzetarik, eta egiak hura libratuko du enganarietarik eta gaixtoen gaizki erranetarik.

Egiak libratzen bazaitu, egiazki libro izanen zare, eta eztuzu konturik eginen munduko elhe alferrez.

Iauna, egia da; othoi, diozun bezala egin bekit.

Zure egiak irakas biazat, hark begira nazala eta salbamenduko xederaino gida nazala.

Libra nazala afekzione gaixto eta amudio desordenatu guzietarik, eta zurekin ibilliko naiz bihotzeko libertate handirekin.

2. Nik irakasiko derauzkitzut, dio egiak, xuxen eta ene gogara diren guziak.

Orhoit zaite zure bekatu damu eta urriki handirekin, eta eztakizula sekulan iduri zerbait zarella zure obra onak gatik.

Egiaz bekatore zara eta hainitz pasionetara eramana eta korapillatua.

Zure buruz bethi ezdeusera makurtzen zara, laster erortzen, laster benzutzen, laster asaldatzen, laster flakutzen.

Eztuzu zertaz loria zaitezken, bainan hainitz duzu zeren gatik behar baituzu zure burua xipi iduki; ezen hagitz flakoago zare zinets dezakezun baino.

3. Eztakizula beraz iduri egin behar dela kontu handirik egiten ditutzun gauzez.

Eztadukazula deusik ere handi, prezatzeko, miretstekoko, estimatzeko, laudatzeko edo desiratzeko dela, sekulako ontasun baizen.

Guzien gainetik laket bekizu sekulako egia baitan, eta bethi higoian bekizu zure ezdeustasun handia.

Etzarella deusen ere gatik hala beldur, nola zure faltak eta bekatuak gatik: hetaz xoilki arrankura zaite, ihes egin hetarik zeren damu geiago egin behar derautzute munduko gauzen zein ere nahi den kaltekin baino.

Batzu eztabiltza garbiki ene aitzinean baina zenbait superbioitasunek eta kuriostasunek eramanik, nahi dituzte ene sekeretuak iakin eta lainkoaren gauza gorenetan sartu, bere buruaz eta salbamenduaz ansigabeturik.

Horrelakoak maiz erorten dire tentazioak eta bekatu handietan bere urguillukeria eta kuriostasuna gatik, zeren ni hekin kontra iarten baino.

4. Zarela beldur lainkoaren iujeamenduez, ikara zaite guziz botheretsuaren koleraz.

Etzaitezila sar Gorenaren Gainekoaren obretan hekin sondatzeko: aitzitik mira zazu zenbat gaixtokeria egin duzun eta zenbait obra on alferrez eta ansigabez utsi duzun egin gabe.

Batzuek emaiten dute bere deboziona liburuetan, bertzeek imajinetan, kanpoko seinaletan eta figuretan.

Batzuek maiz ahoan nadukate, gutitan ordea bihotzean.

Batzuek finean adimenduaz argituak eta afekzionetarik garbituak izanez gogoia bethi dadukate sekulako gauzetara goititurik, nardatzen dira lurrekoez minzatzan aditzeaz, damu dute gorputzaren serbitzatzaz bere beharkietan; hek sentitzen dute zer minzo den egiaren espiritua hekin baitan.

Ezen hark irakasten deraue lurrekoei mesprezatzan zerukoan oneritsten, munduaz kasurik ez egiten, eta egunaz bai gauaz zeruaren desiratzan.

BORTZGARREN KAPITULUA

*lainkozko amudioaren obra
miragarriaz.*

1. Benedikatzen zaitut Aita zerukoa, ene Iesus launaren aita, zeren nahi izan zaren orhoitu ni pobre beharrez.

O miserikordiazko Aita eta konsolazione guzien Iainkoa, eskerrak derauzkitzut, zeren batzutan zure konsolazioneaz arintzen bainauzu bertzenaz konsolazionerik bat ere merezi eztdalarik.

Benedikatzen eta lorifikatzen zaitut orai eta bethiere zure seme bakoitzarekin eta Espiritu konsolatzaille sailduarekin sekula sekuloronekotz.

Ah! Iainko launa, ene maitatzaille saildua, ene bihotzera zatozinean, ene barrenaldi guziak iausika hariko dire bozkarioz.

Zu zare ene loria eta ene bihotzaren alegrianza: zu zare ene esperanza eta ihes lekua ene herstura eta tribulazioneko egunean.

2. Baina zeren oraino flako bainaiz amudioan eta eskas bertutean: hargatik beharra dut bortitz eta konsola nazazu.

Bisita nazazu bada maiz eta dotrina nazazu zure dotrina sainduz.

Libra nazazu pasione gaixtoetarik eta senda zazu ene bihotza afekziona desordenatu guzietarik, arren barrenean sendaturik eta ongi garbiturik egin nadin gai eta baso maitatzeko, bortitz pairatzeko, finko eta fermu irauteko.

3. Gauza handia da amudioa, ontasun guztiz handia: hark bera dela egiten du arin, pizu den guzia, eta berdin ezten guzia berdin ekartzen du.

Zeren karga darama kargarik gabe, eta kiratz den guzia ezitzen du eta gozo egiten.

Jesus-en amudio nobleak ertxatzen gaitu zerbait handirik egitera, eta iratzartzen gaitu behiere den gauzarik konplienaren desiratzen.

Amudioa goiti nahia da, eta eztagoke beherekoetan loturik bat ere.

Amudioak nahi du libro eta munduko afekziona guzietarik urrun izan, beldurrez barreneko

begia traba dakion, eta bera zerbait on denez korapill adin, edo zerbait kaltegarritz flaka eta eror dadin.

Ezta amudioa baino deus eztiagorik, bortitzagorik, goragorik, zabalagorik, arraiagorik, betheagorik eta hobeagorik zeruan eta lurrean: zeren amudioa lainkoa ganik sortu da, eta ezin pausa dezake lainkoa baitan baizen munduko gauza guzien gaineretik.

4. Amudioduna hegaldaka, lasterka eta alegeraki dabilla: libro da, eta deusek ere eztu hura gelditzen.

Den guzia emaiten du guzia gatik eta den guziaren jabe da gauza guzietan, zeren guzien gainekoan pausatzen baitu guzien gaineretik, dakiela Guzia hartarik sortzen eta heldu dela on den guzia.

Eztu behatzen emaitzetara, bainan emaillea gana itzultzen da ontasun guzien gaineretik.

Amudioak hainitzetan eztaki neurririk; baina badiraki neurri guzien gaineretik.

Amudioak eztu karga sentitzen, eztu axolarik traillauez, lan geiago hartzen du egin deza-

keien baino: ezta arrankuratzan ezinaz, zeren uste baitu den guzia daidikeiela eta zilhegi dela nahiz denaren egitera.

Ona eta gaia da beraz gauza guzietara, eta hainitz gauza konplitzen du eta obratzen non flakutzen eta erortzen baita amudiogabea.

5. Amudioa erne dago, eta lo datzalarik ezta loakartzen: nekatua gatik ezta unhatzen: hertua gatik eztago hertsturik, izitua gatik ezta aldaratzen, baina kar bizia eta zuzi irazekia bezala goiti eramaiten da; eta seguraturik iragaiten da.

Nihork maite banau, zeri dagokan oiu hau lainkoaren beharrietan oiu handia da, arimaren oldarmendu bero hau, erraiten duenean: Ene lainkoa, ene amudioa; zu guzia ene, eta ni guzia zure.

6. Heda nazazu zure amudioan ene bethean ikas dezadantzat bihotzean barrena dastatze zein gauza ezti den maitatzea, eta amudioa urtzea eta igerikatzea.

Itxeki biazat amudioak, neure buruaren gainera noanean beroegiz eramana.

Kanta dezadala zure amoriozko kanta iarraiki nakizula goiti, o ene maitea, flaka bedi ene arima zure laudoriotan, amorioz bozkarioturik.

Maita zaitzadala neure burua baino geiago eta eztezadala neure burua maita zure gatik bai-zen.

Zure baitan onets detzadala, egiazki onets-ten zaituztenak, manatzen duen amudioaren legeak, zeinak baitu bere argia zure ganik.

7. Amudioa da agudoa, lasterra, garbia, bihotzbera, arraia, alegera, bortitza, pazienta, fidela zuhurra, arduratua, eta sekulan beretzat deusik bilha eztabillana.

Zeren noiz ere baitabila nihor beretakori, bilha, hura berehala erorten da amudiotik.

Amudioa da alde guzietarik begiratua, humilla eta xuxena: ezta umua, ez arina, ez banaloriazalea; sobrea da, garbia, finkoa, pausatua eta begiratu bere sensu guzietan.

Amudioa superioren azpiko dago obediencia humillarekin, bere aldera xipi eta putruzturik.

lainkoa gana guzia emana eta eskerduna da, bethiere fidanza eta esperanza du lainkoa baitan, lainkoa baitako gusturik eztuenean ere; zeren baitaki eztela nihor amudioan bizi zenbait tristezia eta dolore gabe.

8. Nor ere ezpaitago preparatua gauza guzien pairatzera bere maitea gatik, eta haren borondatearen azpiko iartzera, hark eztu merezi erran dadin maitaria dela.

Maite duenak behar ditu gauza gogor eta kiratz guzia gogotik besarkatu bere maitea gatik, eta harenganik eztu apartatu behar kontrakozko gertanzak gatik.

SEIGARREN KAPITULUA

Egiazko maitariaren frogaduraz.

1. Semea, etzara oraino maitari bortitza eta zuhurra.

Zergatik ez, launa?

Zeren zerbait estorbu aphur gatik egiten hasi zarena utzten baituzu, eta kexaegi baitabiltza konsolazione nahiz.

Finketzko maitaria zutik dago tentazionen kontra eta eztu zinetsterik emaiten etsaiaren lausengetan eta erran artezetan.

On eta eder natzaio hala zorigaitzean nola zorionean.

2. Maitari zuhurrak eztio hala behatzen maitaren emaitzari, nola emaillearen amudioari.

Gogoia prezatzenago du, gauzaren balioa baino, eta kontu geiago daduka bere maitez hark eman guziez baino.

Maitari noblea ez pausatzen dohainaren gainean, baina bai ene baitan gauza guzien gainetik.

Batzutan izaiten ezpaduzu nitaz edo ene sainduz nahi zendukeien bezain sentimendu onik, eztuzula hargatik uste guzia galdu dela.

Noizpait sentitzen duzun afekzione on eta amolsu hura presenteko graziaren obra da eta zeruratzeko gustu aitzindari bat guziarekin ere ezta sobera permatu behar haren gainean, zeren ioaiten eta heldu baita.

Ordea bihotzeko eragintza eta guthizia gaixtoen kontra ihardukitzea, eta deabruak gogora igortzen dituen pensamenduen mesprezatzea, bertute eta merezimendu handiaren seinalea da.

3. Etzaitzila beraz asalda kanpoko fantasiak gatik, nondik ere sartzen baitzaizkitzu.

Itxeko zu finko hartu duzun gogo onari eta lainkoa ganako intenzione xuxenari.

Eztuzula uste enganiorik badela batzutan ustegabez debozitoneak berehala bazaramatza goiti, eta handik laster zure bihotza bihurtzen bada leheneko ergelkerietara.

Ezen halakoak bortxazago pairatzen tutzu, eta ez egiten zure oldez, eta zenbat ere denboraz higointzen baitzaizkitzu eta hekin kontra iartzen baitzare merezimendua da, eta ezta kalterik zuretzat.

4. Iakin nezazu etsai zaharrak egin ahala egiten duela zure itzul arazteko desir on eta debotziorako eginbide guzietarik.

Trabatu nahi zaitu Sainduei zor zaien ohore ekartzetik, ene Pasionearen gogoan erabiltetik, zure bekatuez bide bezala orhoitzetik, zure bihotzaren begiratzetik, eta bertutean aitzinatzeke borondate fermutik.

Hainitz gogoeta gaixto ekartzen derautzu zure unhatzeko eta izitzeko zure gibelatzeko orazione egitetik eta liburu saindurik irakurtzetik.

Gaitzetsten du konfesione humilla, eta, ahal balegi, utz araz liazakezu komunione saindua.

Eztezazula hura zinets eta eztuzula hartaz axolarik hainitzetan sareak hedatzen derauzkitzularik zure enganatzeko.

Gauza gaixtorik eta lizunik gogora ekartzen derautzunean, egiozu liskar eta errozu:

Oha espiritua satsua, ahalkadi dohakabea, hi hagitz likitza aiz, halakorik niri beharrietara ekar-tzeaz.

Aparta akit enganatzaille gaixtoa eztuk izanen ene baitan parterik: baina Jesus izanen dik enekin kapitain bortitz bat bezala eta hi geldituko aiz ahalkaturik.

Nahiago diat hil, eta pena suerte guzietan sartu hire gogara deusik egin baino.

Ago ixilik eta mutualdi, ez aut geiago enzu-nen, nahi duan bezanbat tarritatzen banauk ere.

Ene lainkoa da ene argia eta ene salbamen-dua noren beldur izanen naiz?

Ene kontra alxatzen badira ere armadak ene bihotza ezta beldur izanen. launa dut lagun eta libratzaille.

5. Hari zaite guduan soldadu azkar eta sendo bezala, ta batzutan erorten bazare flakoz, har ezazu lehen baino indar geiago, fidaturik grazia handiago izanen duzula ene ganik.

Guzien gaineratik begira zaite banaloriatik eta urguillutzetik: zeren hargatik hainitz enganatzen

dira eta batzutan erortzen ezin kasik sendatuzko
itsutasunean.

Burupe erho eta sobera hartzen duten super-
bio hekin erortzeak iduki zaitzala zure buruaren
guardian eta bethiereko humiltasunean.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

*Grazia estali behar dela
humiltasunaren guardiaren azpian.*

1. Semea, hobe eta segurago da zuretzat debozioneko grazia estaltzea, haren gatik ez gora alxatzea, hartaz maiz ez minzatzea, eta hainitz prezatzea; baina zeronek zure burua mesprezatzea eta beldur izaitea, orhoiturik hura eztuzula merezi.

Etzaizko afekzione gozo hari tinketzegi lotu behar, iakinik sarri ganbia ditekeiela kontrako batetara.

Graziaz gozaten zarenean orhoit zaite zein gaizo eta errumes zaren graziarik eztuzunean.

Ordea begira zaite zinetstetik bizitze espiritualearen probetxu egin duzula graziaren konso-lazionea duzunean.

Aitzitik erakusiko duzu debozionetsu zarela iarten bazare humil eta apal, hura edekiten zaitzunean: hala non nagi etzaitezin orazioneari eta

bertze kostumatu ohi tutzun obra onei iarraikite-
ra.

Beraz orduan zure ahala eginen duzu eta dakikezun manera hoberenarekin, guzien gaine-
tik begiratuko zare zure buruaren osoki flakatzera utztetik gogoan sentituko duzun idortsuna eta herstura gatik.

2. Zeren hainitzak despazienziatzen eta nagit-
zen dire, gauzak heldu eztirenean hekin gogara.

Gizonaren bideak eztira bethi haren eskuko,
baina lainkoari dagoka emaita eta noiz nahi,
nahi bezanbat, eta nor nahi konsolatzea plazer
duen bezala eta ez geiago.

Batzuek zuhur gabez debozionario grazia zela
kausa, berek galdu dute bere burua.

Geiago egin nahi izan dute ahal zeidiketen
baino, eta bere indarren aphurtasuna neurtu
gabe bihotzeko afekzionari desirari, lehen
iarraiki zaizko ezen ez arrazoinaren iujeamen-
duari.

Eta zeren thematu baitira obra handiagorik
egitera lainkoak plazer zuen baino, hargatik las-
ter galdu dute grazia.

Bere habia edo ohatzea zeruan eman zutenak pobretu dira eta ohoregaberik gelditu, arren humildurik eta billusirik ikas dezaten ez hegaldatzen bere hegalez, baina bai ene hegalen azpian esperanza ezarten.

Oraino berri direnak eta lainkoaren bidean frogatugabeak gobernatzen ezpadire zuhurren konseilluz errazki engana eta gal ditezke.

3. Nahiago bazaiote bere sentimeduari iarraiki frogatu ohi direnei zinetste ekarri baino, ilkitze perillosa izanen dute, nahi ezpadute bere buruko iduripena largatu.

Bere ustez zuhur direnek gutitan eta nekez pairatuko dute nihork bertzerik goberna detzan.

Hobe da guti iakitea humiltasunarekin eta endelegu gutirekin, ezen iakintasunen tresor handirik izaitea burupeko banaloriarekin.

Hobe da guti duzun hainitz baino, zeren handik urguillu baitzindezke.

Eztu zuhurki asko egiten nork ere bere burua osoki largatzen baitu alegrianzara bere pobrezia iraganaz ahantsirik eta orhoitu gabe lainkoaren

beldurtasun garbia bethi beldur dela eman zaion graziaren galtzeaz.

Eztu halaber bertuterik aski nork ere inkontru gaitzik edo atsekaberik heldu zaionean esperanza guzia galtzen baitu eta ene baitan gutiegi fidaturik hartzen baitu nitaz behar ez bezalako sentimendurik.

4. Nork ere bakearen denboran nahi baitu seguregi egon, hainitzetan gerla denboran edirenen da sobera flakaturik eta beldurturik.

Bazeneaki bethi zura baitan humil eta xipi egoiten, eta zure espirituaren neurritz gobernatzan, etzindezke horrein laster perrilletan eta bekatutan eror.

Konseillu ona da, espiritua bero duzunean, gogoetan jartzea zer gertatuko zaitzun argia ioanez gero.

Eta hala gerta dakizunean, pensa zazu argia berriz bihur daitekeiela, zeren hura edekiten baiterautzut noizpaiterainokotz ene loriatan eta zure begiramendutan.

5. Hobe da hainitzetan horrela froga zaitezin

bethi zori ona zure gogara bazendu baino.

Zeren merezimenduez iujeatzekotzat ezta behatu behar ea lainkoa hainitz gauza agerriz erakusten dioen norbaiti eta hainitz konsolazio-ne emaiten dioenz, ea hainitz iakina den eskiritura sailduan, edo gradu handitan iarria.

Bainan ikusi behar da, ea egiazko humiltasunean zimendatua den, eta lainkozko karitatez bethea den, ea bethi garbiki eta zinetan lainkoaren ohorearen bilha dabillan, ea beren burua ezdeus dadukan eta egiazki mesprezatzen duen, eta ea nahiago duen bertzeek hura mespreza eta mendre ets dezaten ezen ez ohora dezaten.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

*Bere burua guti etsteaz lainkoaren
aitzinean.*

1. Ni hauts eta erhauts naizen hori mintzatu-ko othe natzaio ene launari?

Uste badut erhauts baino geiago naizela, huna ene kontra iarria zare launa, eta ene gaix-takeria egia hunen lekuko dire, eta ezin derraket kontra deus ere.

Ordea neure burua egiten badut xipi, ezdeus, eta den bezala, erhauts, estima on guzia kentzen badut ene ganik, orduan zure grazia ene alde izanen da, zure argia hurbilduko zaio ene bihotzari, eta nitaz ahal dukedan estimarik aphurrena ene ezdeustasunean barrena hondatuko da eta galduko sekulakotz.

Hortan erakusten derautazu neure burua zer naizen, zer izan naizen, eta nora etorri naizen; ezen enaizela deus ere, eta hori eneakien.

Neroni utzten banaiz neure buruarekin horra ezdeus huts bat eta guzia miseria naiz.

Ordea behatzen baderautazu berehala azkartzen naiz eta bozkario berri batez bethetzen.

Gauza guziz mirestekoa da zuk ni horrein laster goititzea eta horrein maiteki besarkatzea, ikusirik ni neure pisuz bethi beheiti eramaiten naizela.

2. Hori egiten du zure amudioak: aitzintzen baitzait dohainik, heltzen baitzait hanbat beharretan, begiratzen ere bainau peril handietarik, eta, egia erraitera, ezin kondatuzko gaitzetarik atheratzen bainau.

Zere neure burua gaizki maitatuz neroni galdu naiz eta hutsik zure bilha ibilli naizenean, eta zu xoilki maite izan zaitudanean, kausitu zaitut eta neure burua ere eta amorioaren bertutez neroni barrenago ez deustu naiz.

Zeren zuk, o laun ezia, egiten duzu enekin merezi dudan, esperanza dukedan eta eska naiteken baino geiago.

3. Benedikatua zarela, ene lainko launa, zeren ontasunik bat ere merezi ez tudalarik, zure bihotz noblea eta neurrigabeko ontasuna ezten

nihoiz ere gelditzen ongi egitetik bai eskergabei, bai zure ganik urrun apartatu direnei.

Itzul gaitzatu zure gana arren eskerdun, humil eta debozionetsu gerta gaitezin zure alde-
ra: zeren zu zare gure salbamendua, gure bertu-
tea eta indarra.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

*Gauza guziak bihurtu behar ditugula
lainkoa gana bere azken finera
xedera bezala.*

1. Semea, ni behar naiz zure azken fina eta guzien gaineko xedea izan, egiazki doatsu izaiteko desirik baduzu.

Intenzione hunen bidez garbituko da zure gogoia, zeina maizenik zerorren gana eta kreatur-
retara gaizki itzulua eta makurtua baita.

Zeren zure olde hutsa zerbaitetan bilhatzen baduzu berehala zure baitan eskasten zare eta ihartzen.

Bihurtskitzu beraz gauza guziak ene gana, zeren ni naiz guziak eman ditudana.

Konsidera tzatzu guziak bat banaka eta xehe-
ro, eta ikusiko duzu guzien gaineko ontasunaren
ithurritik ilkiak direla, eta hala guziak ni gana
bere ithurburura bezala behar direla bihurtu.

2. Ene ganik xipiak eta handiak, pobreak eta aberatzak, ithur bizitik bezala ur bizia erautsten dute, eta bere oldez gogotik serbitzatzen naute- nek grazia graziaren gainean izanen dute.

Baina nork ere nahiko baitu ene gatik kanpo- an loriatu eta zenbait duen ontasun partikula- rean atsegin hartu, hark eztu egiazko bozkario- rik, ez eta bihotzeko libertaterik izanen; aitzitik hainitz manieraz izanen da trabatua eta hertstua.

Ezterrazula beraz deus onik duzula eta ez nihor lauda bertutea duelakotz: baina den guzia emozu lainkoari, zeina gabe ezpaitu gizonak ezpaitu deusik.

Nik eman dut guzia, nik guzia berriz nahi dut: eta nahi ere eskerrak hersiki bihur dakizkidan eman ditudan guziak gatik.

3. Hau da egia banaloria kasatzen duena.

Eta zeruko grazia sartzen bada ariman egiaz- ko karitatekin, ezta izanen inbidiarik, ez biho- tzeko hersturarik, ez eta bere burua ganako amudiorik hura darabillanik.

Zeren grazia garaitzen zaie gauza guziei eta arimakoindar guziak zabaltzen tu.

Zuhur bazare, ene baitan xoilki bozkariotuko
zare, eta ene baitan xoilki esperanza hartuko:
zeren ezta nihor onik lainkoaz lekora, zeina baita
guzien gaineretik laudatzekoa eta guzietan bene-
dikatzekoa.

HAMARGARREN KAPITULUA

*Ezti dela lainkoa serbitzatzea
mundua mesprezaturik.*

1. Orai berriz minzaturen naiz, launa.

Ene lainkoaren gainean dagoen, ene lainkoaren, ene launaren, eta ene erregeren beharrietan erranen dut.

O launa, zein handi, zein larri den zure beldur direnentzat gorde dadukazun eztitasunen mulzua.

Zer zare bada maite zaituztenen aldera? zer zare bihotz osoz serbitzatzen zaitzutenentzat.

Gertuz ezin erranezkoa da maiten zaitzutenei emaiten derauezun zure kontenplazioneko eztitasuna.

Hunetan beragainki erakusi derautazu zure karitatearen gozotasuna, zeren enintzela egin bainauzu, zure ganik urrun errebelaturik nenbilla erakarri bainauzu zure serbitzatzen eta manatu ere bai nik maita zaitzadan.

2. O bethiereko amorioaren ithurria, zer erranen dut zutaz? Nolatan ahal zaizkit ahantsiko, ikusirik nitaz orhoitu nahi izan zarela, guzia busteldua eta galdua nintzelarik?

Esperanza guziaren gaineko miserikordia egin diozu zure serbitzariari, eta guziz mereziga-beari zure grazia eta amudioa eskaini diozu eta eman.

Zer bihurtuko derautzut grazia hunen ordain?

Zeren etzaie guziei gogoia eman, munduari uko egiteko eta konbentutan sartzeko bertze guziak largaturik.

Gauza handirik othe da nik zu serbitzatzea kreatura guziak obligatuak direnaz gero zure serbitzatzera?

Etzait iduritu behar hainitz dela nik zuri serbitzu egitea: aitzitik handiro miretsteko dut, nola zuk ni hain pobre eta mereziguabe hori serbitzari-tzat hartu eta zure serbitzari maiteen artean iar arazi nahi nauzun.

3. Horra, zer ere baitut onik, eta zertaz ere serbitzitzen baitzaitut, zure da guzia.

Bainan aitzitik zuk ni serbitzatzenago nauzu nik egiten zaitudan baino.

Huna gizonaren serbitzuko kreatu ditzun zerua eta lurra prestik daude, eta zer ere manatu baituzu egun oroz egiten dute.

Eta oraino hori guti da, zeren Angeruak berak ordenatu gizonaren serbitzuko.

Ordea horiok guziak baino geiago da zuk zeronek nahi izan baituzu gizona serbitzatu, eta prometatutako baitiozu zure burua bera emanen diozula.

4. Zer emanen derautzut nik milla ontasun horiok guziak gatik?

Aitzinitzat serbitza ahal bizi naizen egun guzietan! Ainuz baso zuri egun bateko bedere serbitzurik zuri egiteko dagotzun bezala.

Gertuz den serbitzu, den ohore guzia eta sekulako laudorioa merezi duzu.

Gertuz zu zare ene launa, eta ni naiz zure serbitzari gaizoa, obligatua indar guzietan zure serbitzatzera obligatua, eta sekulan zure laudoriotan unhatu behar eznaizena.

Hala dut nahia, hala dut desira, zer ere eskas baitut, zuk othoi zure ontasunaz konpli zazu.

5. Ohore handia, eta loria handia da zure serbitzatzea, eta zure gatik gauza guziak mespreztzea.

Ezen grazia handia izanen dute borondatez zure serbitzu sainduan iarriko direnek.

Kausituko dute Espiritu sainduaren konsolazionerik gozoena bere ganik haragizko atseginak zure amorez iraitsiko dituztenek.

Bihotzeko libertate handia ardietsiko dute bide hersian zure izena gatik sartzen direnek munduko artha guziak egoitsirik.

6. O lainkoaren serbitzutasunaren ederra eta arraia, hartaz egiten baita gizona egiazki libro eta saindu.

O fraideen estatu sakratua! hark egiten baitu gizona Angeruen pare, lainkoarn gogarako, deabruen izigarri eta fidel guzien maite.

O serbitzu bethi desiratzekoa eta besarkatzekoa, zeina dela bide guzien gaineko ontasuna

meretzitzen baitugu, eta sekulakotz iraunen duen
bozkarioa ardietsten.

HAMEKAGARREN KAPITULUA

Bihotzeko desirak sondatu behar direla eta neurritz gobernatu.

1. Semea, oraino hainitz ikasi behar duzu behinere ongi ikasi eztuzunik.

Zer da, launa?

Ikasi behar duzu zure desir guzien ene plazer onaren azpian osoki emaiten, eta zure buruari amudiorik ez ekartzen, baina ene borondateari gogo bero batez iarraikitzen.

Desirek maiz irazekitzen zaituzte eta bortitzki ertxatzen: baina konsidera zazu ea ene ohorea gatik zaramatzaten, ala zure munduko abantailla gatik.

Ene gatik hari bazare, atsegin hartuko duzu ordenatuko dudan guziaz, baina azpitik bazabil-tza zerbait zuretzat bilha, hori da bihotza nahas-tekatzan eta kargatzen derautzuna.

2. Begira zaite beraz lehenbizi heldu zaitzun desiraren gainean, sobera permatzetik, niri kon-

seillu eskatu gabe, beldurrez urriki dakizun eta lehen on eta eder etsi duzuna hoberena bezala higoïn dakizun.

Zeren etzaio berehala iarraiki behar on iduri duen afekzione guziari, ez eta berehala ihesi ioan behar zare zure gogoaren kontrako guziari.

On da batzutan geldirik egoitea desirik obeditu gabe, onak direlarik.

Beldurrez hek zuri sobera iarraiki gerta dakizun bihotzeko barraiamendurik, lagunari eskandalik eman diozozun iakin eta begiratu behar direnak egin faltaz, edo aldara eta faltetan eror zaitezin nihor bertzerik zure kontra iar dadinean.

3. Batzutan ere bortxa behar da eta sensuetarasunaren kontra bortitzki iarri, behatu gabe zer nahi duen haragiak edo zer eztuen nahi aitzitik artha handirekin hura erakarri behar da espirituaren azpira, nahi ezpadu ere.

Sensatu behar da eta bortxatu serbitzatzera ikas dezan artean gauza guzietan prestik egoiten, gutiz kontentatzen, gauza sinpletan lake-tzen, eta kontrakorik kontrakozkorik hel dakio-nean ez erasten.

HAMABIGARREN KAPITULUA

Pazienziaren ikasteaz eta guthizien kontrako borrokaz.

1. Ene lainko launa, dakusadan bezala pazienziaren behar handia dut, zeren hainitz gauza gaitz heldu zait kontra, eta nola ere ordenatze baitut ene bakeaz, ene bizia ezin dirauke gerla, gudu eta dolore gabe.

Hala da semea, eztu ordea nahi bilha dezazun tentamendu edo gudugaberiko bakeri aitzitik egizu kontu bakea kausitu duzula hainitz kontrakok bilhakatu, eta hainitz tribulamenduk frogatu zaituztenean.

2. Erraiten baduzu ezin hainitz paira dirozula nolatan pairatuko ahal duzu Purgatorioko sua?

Bethi bi gaitzetarik arinena bethi hautatu behar da.

Beraz ethorkizuneko pena sekulakoetarik itzul ahal zaitez kentzat ikazazu oraiko gaitzen lainkoa gatik gogo onez pairatzenç.

Uste othe duzu mende hunetako gizonak ez zuten deus ere pairatzen edo guti baizen?

Eztuzu hori kausituko gurienen eta aberatzenen artean sartzen bazara ere.

Ordea, diozu, atsegin hainitz dute, eta plazer dutena egiten dute; hargatik bere tribulazionez kontu guti dadukate.

Biz hala, bute nahi duten guzia; baina, zure ustez, noiz arteraino hek guziak?

3. Horizu, kea bezala ioanen dire munduko aberatzak, eta alegrianza iraganez ezta orhoitzapenik ere izanen.

Bai eta oraino bizi direnean eztute hetan pausurik hartzen, samindura, tristedura eta beldurtasun gabe.

Ezen nondik ere hartzen baitute atsegin, hainitzetan handik izaiten dute min eta dolore.

Merezi onez hala gertatzen zaie, non ezin bere plazerez ezin goza baititezke kiratsturaz erdainatu gabe eta hala ere ahalkaturik zergatik desordenatuki dabilta hekin bilha eta hei soberra darraizten.

4. O zein labur, zein gezurrezko, zein desordenatu eta itsusi diren munduko plazer guziak.

Ala baina gizonak hetaz horditurik eta itsuturik, eztute hori ezagutzen; aitzitik abre mutuak bezala guthizien arauera doaz eta hemengo biziaren atsegin aphurra gatik erorten dire ari-mako herioan.

Zu bada, semea, etzabiltzala zure guthizien ondoan, eta itzul tzaite zure leheneko borondatetik.

Laket bekizu lainkoa baitan, eta hark emanen derautzu zer ere zure bihotza eske baitago.

5. Ezen nahi baduzu egiazko atseginik hartu eta konsolazione geiagorik ene ganik ardietsi: horra, zure benedizionea izanen da munduko gauza guziak mesprezatzea, behere hunetako plazer guziak enakitzea horrela eginez emanen etorriko zaitzu konsolazione franko.

Eta zenbatenaz itzulirenago baitzare munduko konsolazionetarik, hanbatenaz ene baitan edirenen duzu eztiagorik eta handiagorik.

Ordea lehenbizian eztitutzu ardietsiko zenbait tristadura eta gudukatasun gabe.

Aztura ohituak eginen derautzu kontra bainan hari garaituko zaizko usanza hobeago batez.

Haragiak erasiko du, baina bridatuko espi-
tuaren berotasunaz.

Suge zaharrak ertxatuko zaitu eta tarritatuko
bainan othoitzez hura igorriko duzu ihesi, eta lan
on bati lotuz zure bihotzeko athea hersiko diozu
geien aldetarik.

HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

*Azpiko humillaren obedieneziaz Iesus-
en exenpluaren gainean.*

1. Semea, nor ere enseiatzen baita obedi-
ziatik ilkitera, hura bera ilkiten da graziatik.

Nork ere nahi baitu gauza berezirik izan bere
galtzen tu guzienak diren ontasunak.

Nor ere ezpaita gogo eta borondate onez
superioaren azpiko jartzen, seinale da hura bere
haragiak eztuela oraino osoki obeditzen; baina
maiz hari zaiola ostikoka, eta haren kontra dara-
sala.

Ikazazu bada zure superioaren azpian laster
iartzen, nahi baduzu zure haragia azpiratu.

Zeren kanpoko etsaia lasterago benzutzen
da barreneko gizona galdua ezteanean.

Zure arimak eztu etsai gaixtoagorik, zure
haragia den baino espirituarekin ongi heldu ezte-
nean.

Guziz behar duzu mesprezio handi bat egin zure buruaz, nahi baduzu garaia eramán haragiaren eta odolaren kontra gaineán.

2. Zeren zure burua oraino sobera desordenatuki maite baituzu, hargatik ikara zare bertzeren borondatearen azpian iartzeaz.

Ordea zer da handirik, baldin zu, erhauts eta ezdeus baizen etzaren hori, gizon baten azpiko iarten bazare lainkoa gatik, ikusirik ni guziz botheretsua eta guzien gaineakoa naizena, diren guziak ezdeusetarik athera ditudana humilki egin naizela gizonaren azpiko zure gatik?

Egin naiz guzietako beherena eta humillena, zuk zure urguillukeria ene humiltasunaz ken zenezan gatik.

Ikazazu obeditzen, erhautsa. Ikazazu humiltzen, lurra eta istilla, eta guzien oinen azpian makurtzea.

Ikas zure borondatearen hautsten eta bertzerenaren egiten gauza guzietan.

3. Haserra zaite zeronen kontra, eta ezteza zula paira hantureria zure baitan bizi dadin: bai-

nan egin zaite hain behera eta xipi non guziak iragan ahal ditezin zure gainetik eta aurizki zaitzaten karriketako istilla bezala.

Zer duzu arrankuratzeko, gizon ezdeusa?

Bekatore itsusia, zer derrakezu urgoik egiten derautzutenen kontra; zuk hanbatetan lainkoa ofensatu eta millatan Ifernua merezi izan duzun horrek.

Bainan ene begiak barkatu derautzu zeren zure arima preziosa baita ene aitzinean; zuk ekartzen derautzudan amudioa, ezagut dezazun egin derauzkitzudan ontasunaz eskerrak bihur diatzadatzun, zinezko azpikotasunean eta humiltasunean bethi iar zaitezin eta nihork putruzta-tzen zaituenean gogotik paira dezazun gatik.

HAMALAU GARREN KAPITULUA

*Iainkoaren jujeamendu estalian
konsideratzeaz beldurrez urguillu
gaitezin gure obra onak gatik.*

1. Iaina, zur jujeamenduek, ihurziriak bezala darauntsate ene gainean, ikaratzen tutzu ene hezurak beldurrez eta izialduraz, eta arima harriturik dago.

Banago espantaturik konsideratzeaz zeruak eztirela xahu zure aitzinean.

Baldin kausitu baduzu gaixtakeriarik Angeruetan, eta ezpaiterauezu barkatu, zer eginen da nitaz?

Izarrak erori dire zerutik et nik erhauts horrek zertaz dut burupe?

Zeinen ere obrek baitziruditen laudatzeko zirela, hek erori dire beheiti, eta Angeruen ogitik iaten zutenak ikusi tut urdeen magintxetan atsegin hartzen.

2. Beraz, launa, ezta Saindutasunik zure eskua hersten baduzu.

Ezta zertako den zuhurziarik, gelditzen bazare gobernatzetik.

Ezta balio duen indarrik, hari heltzen ezpaizaiko.

Ezta kastitate seguraturik, hura begiratzen ezpaduzu.

Geurok gure buruz ahal dagigun guardiak eztu deus balio lagun ezpazaitugu eta gure gainean erne ezpazaude.

Ezen zuk otsirik hondatzen gara eta galtzen, baina bisititzen gaitutzunean iakiten eta bizitzen gara.

Berdin geurok ezin gaudezke zutik; baina zuk permatzen gaitutzu: epel gare, baina zuk irazekitzen gaitutzu.

3. O zein sentimendu humil eta xipi behar dudan neure buruaz! zein ezdeus estimatu behar dudan, neure iduriz ene baitan den ontasuna ongia eta bertutea.

O zein barrena sartu behar naizen, launa, zure ezin sondatuzko iujeamenduen azpian, non

edireiten baitut enaizela bertzerik ezdeus eta ezdeus baizen.

O ezin iasanezko karga! o ezin iraganezko karga, non ezpaitut nitaz deus ere aurkitzen ezdeus hutsa baizen.

Non gorde diteke beraz ene urguillukeria?

Non da ene bertutean ezarri nuen fidanza?

Banaloriatze guzia sunsitu da eta hondatu zuk ene gainean eman ditutzun iujeamenduetan barrena.

4. Zer da haragi guzia zure aitzinean?

Lur tupina urguilluturen othe da bere egillearen kontra?

Nolatan hantuko ahal da hitz ergelez zeinaren bihotza egiazki baita lainkoaren eskuko eta meneko?

Mundu guziak eztu superbio araziko egiak bere azpiko egin duena; eta pensa detzakeien laudorio guziek eztute higituko bere esperanza lainkoa baitan ezarri duena.

Zeren gutaz minzo direnak berak ere, horra, guziak ezdeus: ioanen dire bere hitz azanzare-

kin, baina lainkoaren egiak sekulakotz irauenen du.

HAMABORTZGARREN KAPITULUA

*Nola egon eta minzatu behar den
desiratzeko diren gauzetan.*

1. Semea, gauza guzietan errazu hunela: launa, zure plazera bada, egin bedi hori horrela.

launa, zure ohorea bada, hori egin bedi zure izenean.

launa, ikusten baduzu hori on dela enetzat, eta ezagutzen baduzu probetxurik ekar daiazakedala, orduan indazu grazia hartaz serbitzatze-ko zure ohoretan.

Ordea ezagut badezazu kalterik ekarriko derautala, eta eztiola emanen ene arimaren salbamenduari aitzinamendurik edeki diazadazu horrelako guthizia.

Ezen desir guzia ezta bethi Espiritu saindua ganik heldu, gizonarik iduri dagokalarik zuzena eta ona dela.

Gaitz da egiazki iujeatzea ea Espiritu onak ala gaixtoak gonbidatzen zaituen gauza hunen

edo haren desiratzera, edo zure espirituak berak eramaiten zaituen.

Hainitz gertatu dire azkenean enganaturik, uste baitzuten lehenbizian ezen espiritu onak gidatzen zituela.

2. Beraz bethi lainkoaren beldurrarekin eta bihotzeko humiltasunarekin desiratu behar duzu eta eskatu zer ere gogoak ekartzen baiterautzu desiratzekorik; eta guzien gainetik gauza desiratzekoa eta zure gogoa ere bera ene eskuetan utzi behar duzu, eta erran.

Iauna, zuk dakizu nola den hobekienik, egizu hau edo hori plazer duzun bezala.

Indazu nahi duzuna, nahi duzun bezanbat, eta nahi duzunean.

Egizu enekin dakizun bezala, hobe zaitzun bezala, eta zure ohoretan geiago den bezala.

Eman nazazu non nahi, eta libreki hari zaiten enekin gauza guzietan.

Zure eskuetan naiz, erabil nazazu eta itzul inguruz inguru.

Huna ni zure serbitzari guzietara prestik berdin eztut bizi nahi enetzat, baina zuretzat nahi

dut: ainadilla bada bizi egin merezi eta behar bezala.

OTHOITZA

Iainkoaren plazer onaren konplitzeko

1. Ene lesu guziz maitea, indazu zure grazia: egizu enekin dagoen, enekin trabailla hari dadin, eta eneki iraun dezan azken fineraino.

Indazu grazia bethi desira dezadan eta nahi dudan nahi izaiteko zer ere baita zure gogarenik eta plazerenik.

Zure borondatea biz enea, eta ene borondatea berraikio zureari, eta harekin ongi hel bedi bethiere.

Dudan nahi eta eznahi bat zurekin, hala non ezin dukedan nahirik edo eznahirik zuk nahi duzunaren nahi izaiteko eta nahi eztuzunaren ez nahi izaiteko baizen.

2. Indazu grazia hil nakien munduan diren gauza guziei, eta zure amorioa gatik atsegin har

dezadan ene mesprezatu eta munduan hunetan ez ezagutu izanaz.

Indazu grazia zure baitan pausatzeko gauza desiratzeko guzien gainerik, eta ene bihotzaren zure baitan baketzeko.

Zu zure bihotzaren egiazko bakea, zu sosegu bakoitza zare; zure ganik kanpoan gogor dira guziak, eta pausurik ezta nihon ere.

Bake hunetan orobat, erran nahi zu guzien gaineko eta sekulako ontasuna zarena baitan pausatuko dut eta lo egingen. Biz hala.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

*Egiazko konsolazionea behar dela
lainkoa baitan xoilki bilhatu.*

1. Zer ere desira edo pensa baitezaket ene konsolamenduko, eznago haren begira bizitze hunetan, biana gerokoan.

Neronek banitu munduko konsolazione guziak, eta plazer guziez goza ahal banendi, gauza segura da ezin iraun lezaketela denbora luzez.

Halatan ene arima ezin betheki konsolatuko, ezin osoki bozkariotuko zare lainkoa baitan bai-zen, zeina baita pobreen konsolatzaillea eta humillen besarkatzaillea.

Igurikazu aphur bat ene arima, zaude lainko-arn promezaren begira eta zeruan izanen duzu ontasun guzieren frankia eta mukurua.

Sobera desordenatuki guthiziatzen bazare presentekoez, sekulakoak eta zerukoak galduko tutzu.

Balia zaite mundukoez, eta guthizia zakizkote sekulakoei.

Ezin ase zaitezke denbora batetako ontasun zeren ezpaitzara egina hetaz gozatzeko.

2. Onhasun kreatu guziak bazinitu ere, ezin zinatezke doatsu: baina hek kreatu dituen baitan dago zure doatsutasuna.

Ez ordea munduzale erhoek uste eta bantatzen duten bezalakoa, baina bai nolakoaren begira baitaude Iesus gana fidel direnak, eta nolakoa batzutan bizitze hau danik aitzinetik dastatzen eta saporatzen baitute arima debotek, bihotz garbiek, eta zeruan gogoz dabilzanek.

Hemengo konsolazione guzia banoa da eta laburra: baina zerutik bihotzera heldu zaitzun konsolazionea, hura da doatsua eta egiazkoa.

Gizon debotak leku guzietan berekin darabilla bere Iesus konsolatzaille maitea, eta erraiten dio:

Hel zakizkit ene Iesus launa, leku eta ordu guzietan. Biz ere konsolazionerik handiena gogo onez munduko konsolazione guziez gabeturik egoitea.

Eta zure konsolazionea faltatzen bazait, biz bego zure borondatea eta nitaz egiten duzun froganza ene konsolazionetarik maiteena:

Berdin etzara bethi haserre izanen, eta, ezgaitutzu bethi ere mehatxaturen.

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

*Gure artha guzia lainkoa baithan
eman behar dela.*

1. Semea, utz nazazu zurekin nahi dudanaren egitera: badakit zeren beharra duzun.

Zure gogoetak gizonaren gogoetak dire: hainitz gauzaren ganean iujeamendu emaiten duzu munduko afekzionaek gogora ekartzen derautzun arauera.

launa, egia da zuk diozuna, eta handiago da nitaz duzun artha, neronek har dezakedan guzia baino.

launa, erorteko perillean hurbillegi dago, bere buruzko artha guzia zure baitara etxatzen eztuena.

Ezen borondatea xuxen eta tinkaturik bada-go zure baitan, egizu nitaz plazer duzun guzia.

Ezen zer ere nitaz eginen baituzu eztaiteke onik baizen.

2. Nahi baduzu ilhunbetan nagoen, zarela benedikatua: eta nahi baduzu argitan nabillan, zarela berriz benedikatua.

Semea, horrela behar duzu erran eta egin, nahi baduzu enekin ibilli.

Hain prestik egon behar duzu pairatzera, nola boztera: hain gogotik behar duzu bizi pobre eta behar nola aberatz eta onez betherik.

3. launa, gogo handiz pairatuko dut zure gatik zer ere nahi baituzu dathorren ene gainera.

Orobat berezimendurik gabe hartu nahi dut ona eta gaitza, eztia eta kiratza, alegrianza eta tristezia, eta nahi derauzkitzut eskerrak bihurtu gertatuko zaizkidan guzia gatik.

Begira nazazu bekatu guzietarik, eta enaiz beldur izanen ez herioaren ez ifernuaren.

Zure ganik iraitsten ezpanauzu sekulakotz eta hiltzen ezpanauzu bizitzearen liburutik, ene gainera etor ditezkeien tribulamendu eta herstura guziek ezterautate kalterik eginen.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

*Denborak dakazken miseriak, Iesus-
en exenpluz, gogo berdinez jasan
behar direla.*

1. Semea, zure salbatzea gatik iausti naiz zerutik, ez beharturik, baina karitateak erakarri-rik, zuk pazientzia ikas dezazun eta haran hune-tako miseriak kontrako gogorik iabe jasan detza-tzun gatik.

Ezen ene iaio ordutik gurutzean hil arteraino doloreak eta atsekabeak etzaizkit faltatu.

Eskasi handia izan dut munduko ontasunez.

Hainitz arrankura maiz enzun dut ene kontra.

Egin zaizkidan laidoak eta ahalkesunak man-soki hartu itut: ene onginak gatik, eskergabeta-sunak; ene mirakuilluak gatik, blasfemiak, eta ene dotrina gatik gaizki erranak eta falsokeriak izan ditut ordain.

2. launa, zeren pazienziatsu izan baitzare zure bizitzean, hortan beregainki konplitzen zenuela zure aitaren manamendua; arrazoin da ni bekatore ondikozko hori pazienziaz bizi nadin zure borondatearen arauera, eta nahi duzun arteino bizitze galkor hunen karga darabilladan ene salbamendua gatik salbamenduko.

Zeren oraiko bizia penagarri zaitalarik, bada-rik ere zure graziaz merezimendu handitakoa da, eta flakoentzat errazagoa eta arraiagoa zure exenpluaz eta zure sainduen urratzez.

Hagitz ere konsolagarriagoa da lege zahar-reen zen baino, zeruko athea serraturik zegoe-
nean, eta zeruratzeko bidea ilhunago zirudien,
hain gutiri gogoratzen zitzaionaz gero zeruetako
eresumaren bilhatzea.

Bai eta orduko iustuak eta salbatu beharrak ezin sar zitezkeien zeruko erresuman, zuk zure pasionea konpli, eta heriotze sakratuaren zorra paga artean.

3. O zenbat esker behar derautzudan eman zeren plazer izan deraukuzun niri eta fidel guziei

zure sekulako erresumarako bide ona eta zuzena erakusi.

Zeren zure bizia da gure bidea eta zure pazientzia sainduan gaindi abiatzen gara zure gana: o gure koroa zarena.

Ibilli ezpazinizkigu aitzinetik, eta bidea irakasi ezpazenerauku, norik izanen zuen axolarik zuri iarraitzeaz?

Helaz! zenbat leudezke urrun eta gibeletik, beha ezpalezate zure exenplu ederretara.

Huna, epel gaude oraino, hanbat dotrinamendu eta mirakuillu zure ganik enzunik, ikasirik eta ikusirik; zer lizate bada halako argirik ezpagendu zuri iarraitzeko?

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

*Bidegabeak pairatzeaz eta zein den
egiazko pazienziadun frogatzeaz.*

1. Semea, zer minzo zare? Ixil tzatzu arrankurak ene pasionea eta saindu guzien penak kon sideraturik.

Eztuzu oraino iharduki eta gudukatu odol isurteraino.

Guti da pairatzen duzuna, konparatzen bazare hain bertze pairatu dutenekin, hain bortitzki tentatu, hain garratzki tribulatu, hanbat moldez frogatu eta erabil izan direnekin.

Beraz behar ditutzu bertzeen gaitz handienak gogora erakarri, zure mendreenak arinkiago paira detzatzun gatik, pairatzea gatik.

Eta iduri badagotzu zure gaitzak eztirela xipienak, begirauzu horrela gerta eztakizun zure pazienzia gabez.

Badarik ere direla xipiak, direla handiak, zuk egizu zure ahala guzien iasaiteaz pazienziarekin.

2. Zenbatenaz agudotzenago baitzare pairatzaera, hanbatenaz zuhurkiago egiten duzu, eta merezi geiago duzu: errazkiago ere pairatuko duzu, hartara gogoz eta usanzaz erneki preparamiz.

Ezterrazula, hori ezin paira dezaket horrelako gizona ganik, eta eztut halakorik pairatu behar: hark bidegabe handi bat egin deraut, eta nitaz erraiten du egundaino gogora etorri etzaitan gaizkia: baina bertze baten ganik pairatuko dut eta ikusiko dudan bezala pairatu beharko dudala.

Halako gogoeta erhoa da, ezpaitu konsideratzen zer den pazienziatzko bertutea, ez eta nork hura beharko duen koroatu, baina beha dagote bidegabei eta bidegabegillei.

3. Ezta egiazko pazienta, pairatu nahi eztuena nahi duen bezanbat eta nahi duena ganik baizen.

Egiazko pazienta eztago beha nork hura darabillan, ea superiorak, ala kideak, ala azpikoak: ea gizon prestuak, ala gaixtoak: baina zer

ere heldu baitzaio gaitzik nor nahiren ganik, nahiz bezanbat, noiz nahi guzia orobat onera hartzen du lainkoaren eskutik bezala eta irabazia handitan daduka.

Zeren baitaki eztela lainkoaren aitzinean hain gauza xipirik non eztuen bere saria ardietsiko, behintzat lainkoa gatik pairatzen bada.

4. Zaude bada prestik gudukatzera nahi baduzu garaia eraman.

Gudurik gabe ezin ardiets dezakezu pazienciaren koroa.

Nahi ezpaduzu pairatu etzara nahi koroatu: baina guthiziarik baduzu koroatu izaiteko, hari zaite gizon gisa, eta tinka zaite pazienciaz.

Nekatu gabe eztukezu pausurik, eta gudukatu gabe eztirozu garairik ardiets.

Othoi, launa, zure graziaz egin bekit ahalezkoa, niri naturalezaz ezinezkoa iduritzen zaitana.

Badakizu deus guti paira dezakedala, eta errazki flakatzen naizela atsekabe arin bat egiten zaitanean.

Arren egin bekit tribulamendu suerte guzia egin bekit zure izenaren amarioa gatik meditatzekoa eta desiratzekoa.

Zeren zure gatik pairatzea eta gaizki bilhakatutuz itaitea ene arimaren probetxu handia da.

HOGOIGARREN KAPITULUA

*Gure flakotasunaren aitortzeaz, eta
bizitze hunetako lazerien
ezagutzeaz.*

1. Aitortuko dut neure buruaren kontra ene iustugabetasuna, aitortuko derautzut, launa, ene flakotasuna.

Haintzetan aphurra da lurreratzen eta tristatzen nauena.

Deliberatzen dut zin zinez hariko naizela; baina tentazione arin bat heldu zaitanean hestura handi bat eginen zait.

Batzutan gauza ezdeus batek tentazione garratz bat ekarten deraut: eta uste dudanean aphur bat seguraturik nagoela, ohartu gabe. Zenbait aldi ni ohartu gabe aurkitzen naiz haizen arin batez hurren etxaturik.

2. Ikuzazu bada, Jauna, ene aphurkeria eta erorkortasuna, zuk alde guzietarik ezagutzen duzuna.

Urrikal nakizula, eta athera nazazu istilletik beldurrez honda nadin eta osoki plaundurik nagoen.

Dakusadanean hain erorkor naizela eta hain flako pasionei buru egiteko, hori da maiz penatzen eta zure aitzinean ahalkatzen nauena.

Eta osoki eramaiten ez nautelarik konsentitzeraino badarik ere hekin ertxamenduak nekatzten nau, eta xoil unhatzen naiz horrela bethi guduan bizitzeaz.

Handik ezagutzen dut ene flakotasuna zeren gogoramendu hastiogarri hek errazkiago hagitz sartzen baitira ioaiten diren baino.

3. O Israieleko lainko guziz bortitza eta arima fidelen maitatzaille jelozkorra, beha diozozu zure serbitzariaren nekeari eta doloreari, eta lagun zakizko bere ioan etorri guzietan.

Bortitz nazazu zeruko indarraz, beldurrez nausi dakidan gizon zaharra, eta oraino espiutuaren osoki azpiko ezten miseriazko haragia, zeinaren kontra beharko baitut guduka hari guduka bizitze ondikozko hunetan hatzik dudaino.

Helaz! nolakoa da hemengo bizia, non ezpaitu lazeri eta miseri eskasik non gauza guziak sarek eta etsaiz betheak baitira.

Ezen tribulazione eta tentazione bat ioaiten denean, heldu da bertzea bai eta leheneko guduak dirauela ere, hainitz bertzerik heldu da gainera eta ustegabeen.

4. Nolatan maita diteken bizia hain kiratstasun handiz bethea, halako ondikoetara eta lazerietara eroria?

Nolatan deitzen da bizia, ikusirik hain bertze heriotze eta isurrite ekartzen duela?

Badarik maitatzen da eta hainitzak bere ahalaz enseiatzen dire hartan laketzera.

Hainitzetan erraiten da mundua falso eta enganatzaillea dela, halarik ere nekez largatzen da, zeren haragiaren guthiziak sobera nausitzen baitzaizkigu.

Gauza batzuek hura maita arazten deraukute, eta bertze batzuek mespreza arazitzen.

Haragiaren guthiziak, begien desirak, eta biziaren superbiasunak munduaren amoriora garamatzate; baina hei umerei onez derraisten

penak eta lazeriak gatik hartaz unhatzen gara eta gaitzeristez gogozka nardaturik.

5. Helaz ordea! atsegin gaixtoa eramaiten du arima mundura etzina, eta bitartean uste du badela plazer handirik sensuen azpian bizitzea.

Gaizoak ezpaitu ikusi eta ez frogatu lainkoa baitako eztimasuna eta bertutearen barreneko edertasuna.

Baina mundua osoki putruztatzen dutenek eta lainkoaren arauera lege saildu baten azpian bizitzera enseiatzen direnek ongi dakite zer den lainkoaren eztimasuna munduari uko egiten diotenei agindua, eta klarkiago ikusten dute zein erhoki eta zenbat moldez errebelatzen den eta enganatzen.

HOGOI ETA BATGARREN KAPITULUA

*Pausatu behar dela lainkoa baitan
ontasun eta dohain guzien gaintetik.*

1. Pausatuko duzu, ene arima, lainkoa baitan guzien gaintetik eta guzietan, ezen hura da sainduen sekulako pausua.

Ene Iesus guziz eztea eta guziz maitea indazu grazia zure baitan pausatzeko kreatureta guzien gaintetik, osasun eta edertasun guzien gaintetik, ohore eta loria guzien gaintetik, bothere eta gradu guzien gaintetik, iakintasun eta sotillezia guzien gaintetik, aberatstasun eta ofizio guzien gaintetik, fama eta laudorio guzien gaintetik, ezintasun eta konsolazio guzien gaintetik, esperanza eta agintza guzien gaintetik, merita eta desir guzien gaintetik, eman eta isur detzaketzun dohain eta present guzien gaintetik, gizonaren bihotzak har eta froga detzaketen alegrianza eta bozkariomendu guzien gaintetik: hitz batez Angeru, Arkanjelu eta zeruko soldadutze guzien gai-

netik, ikusten diren eta eztiren, eta zu, ene lainkoa, etzaren guzien gaisetik.

2. Zeren zu, ene lainkoa launa, zu guziz onazare guzien gaisetik, zu xoilki gorena, zu xoilki botheretsua, zu xoilki askidunena, zu xoilki eztena eta konsolagarriena, zu xoilki ederrena eta maitatzekoena, zu xoilki nobleena eta loriosena guzien gaisetik.

Zure baitan ontasun guziak batetan eta mukuruki dira, bethi izan eta izanen.

Hargatik gutiegi da eta ez aski nihola ere zutaz lekora emaiten, zure izaiteaz erakusten, zure ontasunaz prometetzen derautazun guzia gutiegi da eta ez aski nihola ere, zu zeroni ikusten eta ene betherik gozatzen ezpazaitut.

Zeren ene bihotzak ezin egiazki pausa deza-ke, eta ezin ase diteke pausatzen ezpadu zure baitan eta iragaiten ezpada dohain eta kreatura guzien gainera.

3. Ene Iesus, ene espos guziz amolsua, maitatzaille guziz garbia, kreatura guzien launa, nork emanen derauzkit egiazko libertatearen

hegalak zure gana hegaldatzeko, eta zure baitan pausatzeko?

O noiz osoki libraturik emanen zait leku eta esku neure buruarekin iarteko eta ikusteko zein gozo eta ezti zaren ene lainkoa launa?

Noiz, o noiz, naizen guzia bilduko naiz zure baitara hala non eznaidin orhoit neure buruaz zure ganako amorioz bertutez podorez: baina zu xoilki buruan zadutzadan guziek ezagutzen ezuten sentimendu eta manera batez?

Orai uzu nago hatz beherapenez eta ene dohakabetasuna dolorez daramat.

Zeren hainitz lazeria eta ondiko gertatzen dira nigarrezko haran hunetan, eta hainitzetan bihotza nahasten, tristatzen eta ilhuntzen derautate, maiz trabatzen naute eta errebelatzen, bereganatzen eta korapillatzen; hala non ezpaitut bide idekirik zure gana hurbiltzeko eta sainduei emaiten deraustetzun besarka estiez gozatzeko.

Uki zaitzatela ene hats beherapenek eta lurrean den hainitz manerazko desterramenduak.

4. O Iesus sekulako loriaren argia, arima sainduaren sosegua, zure aitzinean ahoa dagot hitzik gabe, eta ene ixil egona minzo zaitzu.

Noiz arteraino berantzen du ene launak etortzera, etorri gabe?

Datorla bere serbitzari gaiz horren gana eta alegera nazala.

Heda bezala eskua eta athera nazala ni ondiko hori herstura guzietarik.

Zato, zato: zeren zu gabe eztut izanen ez egun ez oren alegerarik, zu zare ene alegrianza, eta zu gabe hutsik dago ene bihotzeko mahaina.

Ondikozkoa naiz eta nolazpait presondegian amarratua burdinez kargaturik, zuk zure presentziaren argiaz pitz nazazun, libertatean ezar nazazun, eta zure begitarte amolsua erakus diazadazun artean.

5. Bertzeak bilha bezate zutaz bertzerik nahi duten bezanbat: niri bizkitartean etzait deus ere on edo eder, eta ez izanen ere, zu baizen, o ene lainkoa, ene esperanza ene sekulako salbamendua.

Enaiz ixilduko, enaiz geldituko zure othoitzetik, zure grazia bihur dakidan eta berrenean minza zakizkidan artean, eta erran diazadazun:

Huna ni hemen, huna ni zure gana, zuren deitu bainauzu: zure nigarrek, zure arimaren desirek zure humiltasunak eta bihotzeko urriki-menduak beheiti ekarri naute zure gana.

Orduan erranen dut: launa, deitu zaitut, eta desideratu dut zutaz gozatze prestik nagoela zure gatik gauza guzien arbuiatzera; zeren zuk lehenik atzartu bainauzu zure bilhatzera.

Zarela bada benedikatua, launa, halako ontasuna erakusi eta egin baitiozu zure serbitzariari zure beregaineko miserikordiaren arauera.

6. Zer geiago derrake zure serbitzariak zer daidike zure aitzinean handiro humiltzeaz bertzerik, bethi orhoitzen dela bere gaixtarasunaz eta deus guti izanaz.

Ezen ezta zure parerik kiderik zeruko eta lurreko miragarri guzietan.

Zure obrak xoil dire onak eta konpliak, egiak dire zure iujeamenduak, eta zure zuhurziaz gobernatzen dire gauza guziak.

Zuri beraz laudorio eta loria, o aitaren zuhur-
zia: ene ahoak, ene arimak eta gauza kreatu
guziak lauda eta benedikta zaitzatela sekulakotz.
Biz-hala.

HOGOI ETA BIGARREN KAPITULUA

*Iainkoaren ezin kondatuzko ongi
eginez orhoitzeaz.*

1. Idekazu, launa, ene bihotza zure legean, eta irakas diazadazu zure manamenduetan ibilten.

Indazu grazia zure borondatearen ezagutze-ko eta erreberenzia handi eta konsiderazione finko batekin zure ongi eginez, bai jeneralaz, bai partikularez orhoitzeko; hekin gatik bide bezalako eskerrik bihur ahal diazakezudan gatik.

Badakit ordea eta aithortzen dut den punturik xipiena gatik ezin demakezudala zor zaitzun laudariozko eskerrik.

Eskasegi naiz egin derauzkidatzun ontasunen guzien alde eta iarten naizenean zure nobleziaren konsideratzen ene espiritua flakutzen eta hondatzen da zure handitasunetan.

2. Guk ariman eta gorputzean, kanpoan edo barrenean, naturalezatik edo naturaleza gainetik ditugun guziak zure ongi eginak dire, eta erraiten deraukute zu zarela ongi egille handia, begitartetsua, urrikalmendutsua, eta zure ganik ontasun guziak heldu zaizkigula.

Eta batak geiago, bertzeak gutiago izan badu zureak dire guziak, eta nihork eztuke den gauzarik xipiena zureganik baizen.

Ontasun handiagorik izan duena ezin loria diteke bere mereziaz, ezin alxa dezake burua, bertzeak baino gorago, ezin trufa diteke bere baino mendreagoez.

Zeren nork ere bere burua prezatzen baitu gutienik, nork ere debozione eta humiltasun geiagorekin eskerrak emaiten baititu, hura da handiena eta hoberena.

Nork ere bere burua deus gutiago baitaduka eta iujeatzen baitu gutiago merezi duela bertzeek baino, hura da gaiago grazia geiagorik ardietsteko.

3. Gutiago izan duenak eztu tristeziarik ez damurik hartu behar, etzaio bera baino abera-

tzagorik bekaitztu behar, aitzitik behar du zure gana behatu eta zure ontasuna handiro laudatu, zeren zure dohainak hain bizarki, hain merke, hain gogotik partitzen tutzun, nihoren ere begitartera behatu gabe.

Gauza guziak heldu dire zure ganik, eta hargatik guzietan laudatzekoa zare.

Badakizu zer behar zaion batbederari eman, eta zergatik hunek gutiago horrek geiago duen, eztagoen jujeatzea baina bai zuri dagotzu, nola batbederaren mereziak zure baitan neurtuak eta ordenatuak baitira.

4. Halakotz, ene lainkoa launa, ontasun handitan dadukat ez hainitz izaitea kanpoko laudorio eta loria gizonen begietan dakarketen gauzatarik.

Eta nork ere erneki konsideratuko baitu bere pobrezia, nekezia eta deus gutitasuna, ez xoilki ezta hargatik tristatuko, unhatuko edo flakatuko; aitzitik handik hartuko du konsolamendu eta alegrianza handi bat, zeren zuk, ene lainkoa, zure adiskide familiertzat eta etxekotzat hautatu bai-

tutzu pobreak, humilduak, beherenak eta munduaz mespreszatuak.

Lekuko dira zure Apostoluak, zuk munduko kantoin guzietan Prinze ordenatu ditutzunak.

Badarik ere ibilli dira jendartean arrankura gabe, hain humil eta sinple, maleziarik eta engañorik gabe, non atsegin baitzuten zure izena gatik laidoak eta bidegabeak pairatzeaz: eta gogo handiz besarkatzen baitzituzten munduari higoitzen zaizkon gauzak.

5. Eztu beraz deusek ere hala alegerratu behar maite zaituena eta zure ongi eginak eza gutzen dituen, nola ikusteak zure borondatea haren baitan konplitzen dela, eta zure egundainoko plazer onaren ordenanzari darraiola.

Zure borondate saindu hartaz hala behar da konsolatu eta kontentatu non bertze batek handien izaiteko desira duen bezain gogotik berak desira dezan guzietako xipienik egoitera; eta hain bakez eta kontentik dagoen azken lekuan nola lehenean, eta bertzeek munduan ohoratuenak eta handienak izaitiaz hartzen duten bezan-

bat atsegin har dezan mesprezaturik, arbuiaturik, izenik eta famarik gabe egoitez.

Zeren zure borondatea eta ohorea ganako amorioa garaitu behar zaie gauza guzietan hark hura geiago behar du konsolatu, plazer geiago eman behar dio, izan dituen eta ahal dituzkeen ontasun guzietan baino.

HOGOI ETA HIRURGARREN KAPITULUA

Bake handia dakarketen lau gauzez.

1. Semea, orai irakasiko derautzut bakearen eta egiazko libertatearen bidea.

Jauna, egizu zuk diozuna, zeren hori enzunen dut gogotik.

Maitea, duzun artha lehen bertzeren ezen ez zure borondatearen egiteaz.

Lehen hauta zazu gutiago izaitea, ezen ez geiago.

Bilha zazu bethi azken lekua eta guzien azpiko.

Desira zazu bethi eta othoitz egizu lainkoaren borondatea zure baitan osoki konpli dadin.

Huna, nor ere halakoa baita bakearen eta sosegua mugarrietan eta tartetan sartzen da.

2. launa, zure erran labor horrek perfekzione handi bat daduka.

Hitz guti du, baina sensuz bethea da, eta hainitz fruitu eta probetxu dakarke.

Zeren hura fidelki begira ahal baneza eliteke horrein errazki ene baitan asaldurik gertatu behar.

Zeren noiz ere sentitzen baitut aldaratua eta kargatua naizela, ezagutzen dut zure dotrina hunetarik apartatua naizela.

Baina zuk, nola nahi den guzia baitaindikezu, eta arimaren probetxua bethi maite baituzu, indazu grazia geiago, arren zure hitza konpli eta ene salbamendua ardiets dezakedan gatik.

OTHOITZA

Gogoramendu gaixtoen kontra

3. Ene lainko launa, etzaitezila urrun ene ganik. Ene lainkoa hel zakizkit.

Zeren hainitz gogoramendu alxatu dira ene baitan, eta beldur handiek bilhakatzen dute ene arima. Bilhakatzen derautate arima.

Nolatan itzuliko natzaie zaurtu gaberik? nola garaituko natzaie?

Ni, dio launak, ibilliko naiz zure aitzin eta lurreko urguilluak sapatuko itut.

Idekiko tut presondegiaren atheak, eta erakusiko derautzut gauza estalien sekeretua.

Egizu, launa, diozun bezala, eta gogoramentu gaixto guziak bioaz ihesi zure begietarik.

Hau da ene esperanza eta konsolazione bakoitza, zure gana laster egitea ene herstura guzietan, zure baitan fidatzea zuri bihotz barrenetik oiu egitea eta pazienziarekin zure konsolazionearen begira egoitea.

OTHOITZA

Arimako argiaren eskatzeko

4. Argi nazazu, o Iesus ona, barreneko argiaz, eta ken etzazu ilhunbe guziak ene bihotzetik.

Esteka tzazu ene arimako errebelamenduak eta porroka tzazu bortxa egiten derautaten tentazioneak.

Iar zaite bortitzki ene alde, eta kasa tzazu bestia gaixto hek, erran nahi dut, bere balakuez bereganatzen nauten guthiziak: arren bakea

egin dadin zure bertutez, eta zure laudarioen frankia adi dadin palazio sainduan, erran nahida, konsziencia garbian.

Mana tzatzu haizeak eta tormentak; errozu itsasoari geldi dadilla, eta ipharrari eztagiela haize, eta orduan izanen da kalma handia.

5. Igorzu zure argia eta egia lurraren gainean argitzera: zeren ni naiz lur hutsa eta alferra, argi nazazun artean.

Isurre zazu zure grazia gainetik: busti zazu ene bihotza zeruko ihinzaz: egitzu debozinezko urak uriteak ene bihotzeko larraren pelatzeko fruitu onik eta guziz onik ekar dezantzat.

Alxa zazu ene arima bekatuen kargaz pizuz sapatua, eta ene desir guzia eratxeki diezezu zeruko gauzei; arren gaineko doatsutasunaren ezintasuna dastaturik higoïn dakidan lurreko gauzez orhoitzea.

6. Eraman eta athera nazazu kreaturen ezin iraunezko konsolazione guzietarik: berdin ezta kreaturarik ene desira osoki sosega eta konsola dezakeienik.

Iratxeki nazazu zurekin amorioaren ezin urratuzko amarrak: zeren zu xoilki aski zare maite, zaituen arimarentzat, eta zu gabe fitzak dire ber-tze guziak.

HOGOI ETA LAUGARREN KAPITULUA

*Begiratu behar dela bertzeren
bizitzeaz kurioski galdegitetik.*

1. Semea, etzarella kurios, eztarabillazula artha alferrik: zer doatzu zuri hunez edo horrez? zarraizkit.

Zer axola duzu hau hunelako ezpa horrelako izaiteaz, edo hura hunela ezpa horrela haritzeaz edo minzatzeaz?

Eztuzu mengoarik bertzeentzat ihardetsteko, baina zure buruaz emaitako duzu kontu.

Zertako beraz nahasten eta korapillatzen? zara hekin egitekoetan?

Huna, nik ezagutzen tut guziak: Iguzkiaren azpian den guzia ikusten dut, eta badakit nor nola dabillan, zer darabillan bihotzean, zer nahi duen, eta zertara hedatzen duen bere gogoan.

Guziak beraz utzi behar dira ene eskuetan, zuk zure burua idukazu bake onean, eta utzazu, nahastaria nahastera nahi duen bezanbat.

Zer ere eginen edo erranen baitu, guzia bihurtuko da haren gainera, zeren ezin engana nazake.

2. Eztuzula ansiarik izen edo fama handiaren itzalpeaz, hainitzekiko familiertasunez, edo gizonen adiskidetasun partikularez.

Zeren gauza hek errebelamenduak dakazkete, eta ilhuntasun handiak emaiten tuzte bihotzean.

Gogotik minza nenkidikezu guardia arthatsuki egin bazeneza, noiz heldu naizen zure gana, eta zure bihotzeko athea ideki baziniazat.

Begira aitzinetik, eta zaude ernerik othoitze-tan, eta humil zaite gauza guzietan.

HOGOI ETA BORTZGARREN KAPITULUA

*Zertan datzan bihotzeko bakea eta
egiazko probetxua.*

1. Semea, nik erran dut: bakea utzten derautzu; ene bakea emaiten derautzu; ezterautzu hura emaiten munduak erraiten duen bezala.

Bakea desiratzen dute guziek baina guziek ez tute axola egiazko bakeari ukitzen zaizkon gauzez.

Ene bakea humillekin eta bihotzez eme direnekin dago.

Hainitz pazientzia baduzu, bakea izanen duzu.

Enzuten banauzu eta ene hitzari bazarraizko, bake handi batez gozaturen ahal zare, zaratezke.

Zer eginen dut bada?

Gauza guzietan beha zazu zer hari eta zer minzo zaren, eta zure gogo guzia heda zazu niri

xoilki plazer egitera, nitaz bertzerik ez desiratze-
ra edo bilhatzera.

Eztemazula jujeamendu arinik bertzeren
erranez edo eginez, eta etzaitezila sar zure kar-
guan eztiren egitekoetan; eta hala gertatuko
ahal da, non ezpaitzare nahasiko guti edo guti-
tan baizen.

2. Ordea nahasmendurik behin ere ez senti-
tzea, bihotzean edo gorputzean penarik ez paira-
tzea, hori eztagoka mende hunetako bizitzeari,
baina sekulako pausua errepausua dagoen
lekuari.

Eztezazula bada pensa egiazko bakea ediren
duzula grinatzen zaituen gauzarik eta gauza
guzietan ongi doatzula kontrakorik eztuzunean;
ez eta perfekzioanean zaudela guziak zure nahia-
ren arauera egiten direnean.

Eztadukazula nor zerbait handi zarela, eta
lainkoak bereziki zaituela maite, baldin debozio-
ne et eztitasun handi batzuez gozatzen bazare.

Ezen ezta handik ezagutzen egiazko bertute-
zalea ezta handik ezagutzen, eta horrelakoetan

eztatza gizonaren aitzinamendua eta perfekzio-nea.

3. Zertan bada, launa?

Zure bihotz guziaz ofrenda zakizkola lainkoaren borondateari, deus ere zuretzat bilhatu gabe ez gauza xipietan, ez handietan, ez orai, ez nihoiz ere, hala non begitarte ber batez bethi eskerrak eman diotzatzun lainkoari, hala zorigaitzean, nola onean, gauza guziak pisu berdinez pisatzen tutzula.

Esperanza bazaude hain fermu eta finko iarria, non barreneko konsolazioneaz gabetua gatik, zure bihotza prepara dezazun geiagorik ere pairatzera, zure burua iustu egiten eztuzula halakorik eta hain gaitzik pairatu behar ezpazendu bezala, baina laudatzen banauzu erraiten duzula ni naizela iustu eta saildu ene ordenanza guzietan, orduan bakearen egiazko bidean xuxen zabilta, eta duda gabeko esperanza ahal dukezu berriz ere ene begitartea ikusiko duzula bozkarioturik.

Baldin hil bazaitezke zure buruaren osoki mesprezatzeko puntura, iakin ezazu bakearen

frankiaz gozaturen zarela zure mundu hunetako
egoiteak egin dezakeien bezanbat.

HOGOI ETA SEIGARREN KAPITULUA

*Bihotzeko libertatearen ekzellenziaz
eta lehen ardietsten dela orazione
humillaz ezen ez liburuak irakurriz.*

1. launa, hori gizon konpliaren obra, sekulan gogoia ez largatzea zeruko konsiderazionetarik, eta buruko hainitz egitekoren artean iragaitea egitekorik ezpalu bezala, ez tonto edo torpe baten gisa, bainan arima libro eta ideki baten abantailaz munduan den gauzari itxeki gabe legezko ezten afekzionaiaz.

2. Othoi, ene lainko guziz pietatetsua, begira nazazu bizitze hunetako gogoetetarik, sobera korapilla eznadin: gorputzeko behar hainitzetarik, beldurrez plazerek eraman nezaten arimako trabu guzietarik, beldurrez sobera penatuz eta unhatuegiz flaka eta eror nadin.

Eztut erraiten begira nazazula munduko banaloria gogo guziaz inguruz inguru bilha dabi-

Ilan gauzetarik; baina bai zure serbitzariaren arima hiltzeko lege jeneralaz penagarrizki kargatzen duten miserietarik; hala bihotza gibelatzen baitute eta zapatzen non ezin sar baititeke barreneko libertatean nahi duen bezanbat orduz.

3. O ene lainkoa, ezin erranezko eztitasun itzul diazadazu kiratstasunera sekula gauzetarik errebelatzen nauen eta presenteko atsegingarri baten ikuste laburraz gaizki bereganatzen nauen haragizko konsolazione guzia.

Eztakidala garai, ene lainkoa, eztakidala garai haragia eta odola: enazala munduak eta haren loria laburrak engana: enazala deabruak eta haren arteziak bere azpira egoitz.

Indazu indarra kontra egiteko, pazientzia pairatzeko, fermutasuna bethi onean iartzeko eta irauteko.

Indazu zure espirituaren oliadura guziz ezitia munduko konsolazione guzien orde, eta zure izen sainduaren amorioa isur ezazu ene baitara haragizko amorioaren orde.

4. Huna, iateak, edateak, bestitzeak, eta gorputzaren mantenuko behar handiek karga lodi eta pisu emaiten diote beroki maite zaituen ari-mari. Bihotzari.

Egidazu grazia premiazkoetz neurritz serbitzatzeko, eta hetan ed amarretzeko desir infiniaz.

Ezta sori guziak etxatzea, zeren mantentatu behar da gorputza; baina lege sainduak debekatzen du gauza soberazko gauzak eta plazergarrienen ondoan ibiltetik bilhatzetik: zeren bertze-la altxa liteke haragia espirituaren kontra.

Othoi, launa, zure eskuak irakas eta gida nazala halako gauzen artean, deus soberarik egin dezadan beldurrez.

HOGOI ETA ZAZPIGARREN KAPITULUA

*Gure burua ganako amorioak
gibelatzen gaituela guzien gaineko
ontasunetik.*

1. Semea, guzia eman behar duzu guzia gatik, eta eztuzu deus ere iduki behar zurerik.

lakin ezazu zure buruari ekartzen, diozun amudioak kalte geiago egiten derautzula munduko gauzetarik batek ere baino.

Gauza bat gutiago edo geiago datxetzu zuk hura maite duzun eta ederetsten duzun eredura.

Zure amorioa garbia bada, sinplea eta ongi ordenatua, etzaitu deusek ere gathibatuko.

Etzaitezila guthizia izaitera zilhegi etzaren gauzaz.

Eztadukazula traba zaitzaken eta barreneko libertatea eraman diazakezun gauzarik.

Miretsteko da nolatan zeroni bihotz barrenetik etzaren osoki iartzen eta desiraz edo obraz

ahal dituzketzun guziak eztitutzun utzten ene gomendioan.

2. Zergatik tristezia alferrak iaten zaitu? Zergatik nekhatzen zare grina eta ansia soberaz?

Zaude ere plazer onaren azpian, eta eztuzu kalterik bat ere pairatuko.

Hau edo ala, hori bilhatzen baduzu, eta hemen ezpa hor egon nahi baduzu, xoilki zure probetxua eta aisia gatik, eta plazer zaitzunaren hobeki egitea gatik, sekulan eztukezu sosegurik eta etzare libratuko ansietarik eta grinetarik.

Zeren gauza guzietan aurkituko duzu zerbait eskas, eta leku guzietan izanen da kontra egin diazazunik.

3. Eztuzu bada probetxurik hainitz onhasun irabasteaz eta kanpotik mulzuka biltzeaz, baina bai guziak mesprezatzeaz eta errotik atheratzeaz zure bihotzetik.

Eztuzula uste hori aditzen dela xoilki diruzko errentez eta aberatstasunez, aditzen da era oho-reen ondoan inguruz inguru ibiltzeaz, eta bana-

loriozko laudoriomendurik desiratzeaz, zeren hek guziak iragaiten dira bere munduarekin.

Guti segurutzen zaitu lekuak espirituko berotasuna faltatzen bazaitzu, eta kanpotik bilhatu duzun bake hark guti iraunen du zure bihotzeko estatua permatua ezpada egiazko zimenduaren gainean, erran nahi da, ene baitan egoiten eta finkatzen ezpazaude.

Lekuz alda dezakezu, ezin ordea hobe zaitezke hargatik: zeren okasionea gertaturik eta hura zu harturik aurkituko duzu ihesi zindoazkon guzia eta geiago.

Quiero dezir que si non estuvieres en mi bien te puedes mudar mas no mejorar por que venida la ocasion hallaras lo que huyas y mas adelante.

OTHOITZA

Bihotzeko garbitasunaren eta zeruko zuhurziaren ardietsteko

4. Bortitz nazazu, ene lainkoa, zure espiritu sainduaren graziaz: indazu indarra finka nadin

barreneko gizona baitan, eta ene bihotzetik athera dezadan artha alfer eta grina guzia, eta zein ere nahi den gauza edo apurraren edo balio-saren desira enazaten eraman, baina beha diezedan gauza guziei beha diezedan iragaiten direnei bezala, eta neure burua ere mira dezadan, guziekin iraganen den gauza bezala.

Berdin ezta Iguzkiaren azpian dirauen gauzarik: aitzitik guziak dira banaloria eta espirituko nekadura. O zein zuhur den nork ere baitu horrelako konsiderazionerik.

5. Indazu, launa, zeruko zuhurzia, arren ikas dezadan zure bilha ibiltzen eta aurkitzen, zure dastatzen eta onetsten gauza guzien gaineretik, eta bertze gainerakoen ezagutzen, bere baitan diren eta zure zuhurziak ordenatu dituen arare-ra.

Indazu grazia zuhurki itzul nakion lausenguz dagotanari, eta emeki paira dezadan kontrarik egiten derautana: zeren hau da zuhurziarik handiena, hitz haize guziak gatik ez higitzea, eta gaizki lausengatzen hari zirenari beharra ez

zabaltzea. Zeren horrela eginik abiatu garen bidean seguraturik gabiltza.

HOGOI ETA ZORTZIGARREN KAPITULUA

Gaizki errailleen mihien kontra.

1. Semea, eztakizula gaitsi, baldin batzuek zutaz iduripen gaixtorik badute, eta erraiten badute gogotik aditzen eztuzun gauzarik.

Zeronek sentimendu gaixtoago behar duzu zure buruaz, eta zinetsteko duzu eztela bat ere zu baino flakoagorik.

Baldin bazabiltza zure barrenaldien miratzen, eztuzu kontu handirik eginen airean dabiltzan hitzez.

Ezta zuhurzia xipia ixilik egoitea ordu gaitzetan, eta bihotz barrenetik ene gana itzultzea, eta munduko iujeamendua gatik ez aldaratzea.

2. Eztemazula zure bakea gizonen ahotan: zeren ongi edo gaizki hartzen badituzte zure eginak edo erranak, etzare hargatik zarena baizen.

Non dago egiazko bakea eta egiazko loria? Ez othe ene baitan?

Nork ere ezpaitu guthiziarik munduari plazer egiteko, eta ezpaita beldur haren desgogarako gauzarik egina gatik, hura bake handiaz gozatu-ko da.

Behar ezlegezko amoriotik eta beldurtasun alferretik heldu da bihotzaren aldaramendu eta sensuen barraiamendu guzia.

HOGOI ETA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

*Nola gomendatu behar gaizkon
lainkoari eta nola hura benedikatu
behar dugun tribulazioneak
akometatzen gaituenean.*

1. launa, sekulakotz benedikatua dela zure izena, zeren nahi izan duzun tentazione eta tribulazione hau ethor zekidan.

Ezin noakeo ihesi baina badut beharra zure gana laster egiteko, arren hel zakizkidan eta hura onera itzul diazadazun gatik.

launa, orai tribulazionean nago, eta ene bihota eztago ongi, baina presenteko pasioneak hagitz travaillatzen nau.

Aita maitea, zer erranen dut orai? Hersturetan atzemana naiz: salba nazazu orai berean.

Bainan hargatik etorri naiz oren hunetara zuri loria eman dakizun gatik ni hagitz humildua eta zure ontasunaz libratua izanez.

Plazer nauzula, launa, libratu zeren nik pobre horrek zer daidiken, eta zu gabe norako naiz?

Indazu, launa, orai ene pazienza. Hel zakizkit ene lainkoa, eta enaiz beldur izanen, zenbat ere kargatua izanen bainaiz.

2. Orai bitartean zer erranen dut? launa egin bedi zure borondatea. Egiaz merezi dut tribulatu eta zapatua izaitea.

Berdin pairatu behar dut, eta aidezadan emeki paira, ekaitza eta tenpesta ioan dadin eta hobeki gerta dakidan artean.

Zure esku guziz botheretsuak tentazione hau ere eraman dezake ene ganik, eta ema dezake haren oldarzarrea osoki eror enadintzat.

Zeren zuk, o ene lainkoa, ene miserikordia, lehen hainitzetan horrela egin duzu enekin ene aldera.

Eta zenbatenaz hori gaitzago baita enetzat hanbatenaz errazago da zuretzat guziz gainekoren eskuko obra izanez.

HOGOI ETA HAMARGARREN KAPITULUA

*Iainkoari bere laguntzaren eskatzeaz
eta haren grazia bihurturen
zaikulako fidanza.*

1. Semea, ni naiz jauna, tribulazioneko tribula egunean indar emaiten dudana. Zato nigana gaizki zarenean.

Zeren berantegi bihurtzen zaren orazione egitera, hori da zeruko konsolazionea geienik tratatzen duena.

Ezen finki eta gogotik iar zaitezin baino lehen niri othoitz egiten iar zakizkidan baino lehen othoitz egiten, bazabiltza bitartean hainitz konsolazioneren bilha, eta kanpoko gauzetan atsegin hartzen.

Handik heldu da probetxu guti atheratzen duzula nahiz diren gauzetarik ezagut dezazun artean ni naizela ene baitako esperanza dutenak libratzen ditudana, eta ene ganik kanpoan ezte-la balio duen laguntzarik, ez probetxurik dakar-

keien konseillurik, ez eta diraukeien erremedio-rik.

Ordea tormentaren ondoan hats berria harturik, har ezazu ere indar berria ene miserikordietako argian.

Zeren hurbil nago, dio launak, gauza guzien ez xoilki osoki, baina bai frankoki, neurri mukurruz eta gaindi berriz konplitzeko.

2. Othe da nekez daidikedan gauzarik? Edo izanen othe naiz erraiten duena eta egiten eztuena bezalakoa?

Non da zure fedea zinetstea? Zaude fermu, fermuki eta tinkaturik ene serbitzuan.

Zarela bihotzdun eta bortitz konsolazionea etorriko zaitzu bere ephean.

Iguriki diazadazu, igurik, etorriko naiz eta sendatuko zaitut.

Tentazionea da penatzen zaituena, eta bel-durtasun alferra izitzen zaituena.

Naskiz etorriko diren gauzez ansiatzeak zer diakarkezu tristura tristuraren gainean baizen? Aski du egunak bere eguneko gaitza.

Gauza alferra da eta probetxugabea, etorkizuneko ez atsekabe edo atsegin hartzea, ezpaitira naski sekulan gertatuko.

3. Baina gizonaren naturalezari datxekon kutsua da halako iduripenez enganaturik ibiltzea, eta bihotz oraino xumearen seinalea da, nihor arinki eramaiten denean etsaiak gogora ekartzen diotzan itxurez.

Zeren gaixto hark ez du axolarik zertaz lillura eta engana zaitzan, ea egiak ala gezurrak diren gauzez, ez eta zertaz eror araziko zaituen, ea presentekoen amorioaz ala etorkizuneko beldurraz.

Eztadilla bada zure bihotza nahas, eta eztuela beldurrik. Zine tzazu ene baitan eta fida ene miserikordiaren gainean.

Uste duzunean urrun zaudela ene ganik, hainitzetan hurbillago nauzu: eta iduri zaitzunean gauza guziak hurren galduak direla, hainitzetan geiagorik irausteko eta merezitzeko ordua da.

Ezta ez guzia galdu zerbait nahi eztuzun bezalakorik gertatzen zaitzunean.

Eztuzu iujeamendu eman behar, zure oraiko sentimenduaren arauaz.

Atsekaberik heldu bazaitzu nondik ere heldu baita, hura eztuzu hartu behar eta buruan sartu, hartarik ilkitzeko esperanza guzia ioan balitzaitzu bezala.

4. Eztuzula uste alde guziz utzia zarela, batzutan igorten baderautzut zenbait tribulazio-ne edo desiratzen duzun konsolazionea edekiten baderautzut, zeren handik da zeruko erresumara bidea.

Eta dudagaberik hobe da zuretzat eta ene bertze serbitzarientzat, munduko gaitzek horrela erabil zaitzaten, ezen ez gauza guzietz goza zaitzeten zuen gogoaren arauera.

Badazaguzkit gogo eta gordeak, eta badakit hagitz on dela zure salbamenduko batzutan egon zaitezin barreneko gozorik gabe, beldurrez sobera alxa zaitezin gauzak heldu direnen zure nahiaren eredura, eta zure buruarekin ifini zaitezin etzaren bezalakoa bazine bezala.

Eman dudana eraman dezaket eta bihur ere dirot plazer dudanean.

5. Nik emaiten derautzudana, enea da; eta hura edekiten derautzudanean eztut zurerik eramaiten: ezen zer ere emaiten baitan onik, eta zein ere dohain konplirik baita, guzia ene ganik da.

Igorten baderautzut atsekaberik edo kontrarakorik, etzaitezila asalda, eta eztakizula bihotza flaka: zeren laster alxa zaitzaket eta zure tristura alegrianzara itzul dirot.

Badarik ere iustua naiz, eta hagitz laudatze-koa hala egiten dudanean gauza guzietan.

6. Zuhur aski bazare, eta direnak diren bezala badakuskitzu, etzare nihoiz ere hain tontoki tristatu behar munduko atsekabeak gatik.

Aitzitik alegeratu behar zare, eta eskerrak eman behar derauzkidatzu, bai eta kontutan iduki zure bozkario bakoitza dela, zeren dolorez kargatzen zaitudan, eta etzaitudan guphida.

Erran derauet ene diszipulu maitei, Ene aitak maite izan nauen bezala, nik maite zaituztet.

Bada hek igorri tut ez segur munduko alegrianzetara, baina gudu handietara: ez ohoretara.

ra, baina mesprezioetara; ez alferrik egoitera, baina traillaatzera: ez pausatzera, baina fruitu hainitz ekartzera bere pazienziaz.

Semea orhoit zaite hitz horietaz. Hautaz.

HOGOI ETA HAMEKAGARREN KAPITULUA

*Mesprezatu behar direla kreatura
guziak Kreatzaillea aurki ahal
dadintzat.*

1. Ene jauna, gertuz badut oraino grazia handiago baten premia, behar badut ardietsi nihork eta deusek ere ezin traba nazakeien lekura.

Ezen zerbaitek nadukaino, ezin hegalda naite zure gana neure gogara.

Libraturik hegaldatzeko desira zuen erraiten ohi zuenak: nork emanen derauzkit uso tortoillaren hegalak bezalakoak eta hegaldatuko naiz, eta pausatuko dut?

Zer da emeagorik begi sinplea baino? eta zer da zilhegiagorik deus ere lurrean desiratzen eztuen bihotza baino.

Behar dugu beraz iragan kreatura guzien gainetik, eta gure burua osoki utzi, bai eta egon gogoz gainera eramanik, eta ikusi zuk guzien

kreatzaille horrek eztuzula kreaturak bezalako den gauzarik.

Eta nor ere ezpaitago kreaturatarik libratu-rik, ezin iarriko da trebeki lainkozko gauzetan.

Hargatik nihor guti edireiten da jarria denik zeruko gauzen konsideratzen, zeren gutik baita- kite bere gogoia osoki apartatzen kreatura galko- rretarik.

2. Halakotz grazia handia behar da arimaren goititzeko eta bera baino gorago eramaiteko.

Eta baldin gizonak ezpadaduka espiritua goi- titurik, libratua ezpada kreaturatarik, lainkoari ezpadatxeko harekin bat eginik, zer ere baitaki, eta zer ere baitu ezta kontu handitako.

Nork ere estimatzen baitu badela gauza han- dirik, neurri eta fingabeko ontasunaz bakoitzaz landan, hura denbora luzez egonen da xume, eta lurrean behera etzana.

Ezen zer ere ezpaita lainko, ezdeus da, eta ezdeustzat iduki behar da.

Gizon argituaren eta debotaren zuhurziak, eta letratu edo estudiatu baten iakintasunak diferentzia handia dute bere artean.

Hagitiz nobleago da gagnetik lainko gana gure baitara isurtzen den dotrina, gizonaren espiritua-
ren neke traillauz ardietsten dena baino.

3. Hainitz edireiten da zeruko gauzen konsi-
deratzeko desira duenik, bainan eztira enseia-
tzen hartarakotz behar direna egitera.

Trabu handia da seinaletan eta sentitzen
diren gauzetan trikatzea, eta bere buruari osoki
ez garaitzea.

Eztakit zer den, eta zer espirituk garamatzan,
ez eta zeren ondoan gabiltzan, gu espiritualak
garelako iduria dugunok; ikusirik hain traillu
handirik, eta are artha geiago hartzen dugula
gauza iragaiten direnak eta ezdeusak gatik, eta
gure barreneko egitekoez nekez edo gutitan egi-
ten dugula gogoeta gure buruko sensuak zinki
eta osoki gure baitara bildurik.

4. Ah! dolorea! Gure baitara aphur bat bihur-
tu garenean, berehala ilkiten gare kanporat, eta
gure obrak eztitugu pisu zuzenaz pisatzen.

Eztugu behatzen zeri datxezkon gure afekzio-neak, eta eztugu nigarrik egiten, zeren gure akzione guziak hain diren nothatuak.

Ezen haragiz ziren guziek lizundu eta galdu zuten bere bidea, eta hargatik uholde handia hekin ondoan etorri zen.

Bada gure barreneko afekzioea hain lizundua denaz gero, behar da hartarik heldu den akzioea, zein baita barreneko indarraren eskasaren seinalea, orobat den lizundua.

Bihotz garbitik sortzen da bizitze onaren fruitua.

5. Galdez gaude zenbat egiteko erabilli duen nihork, bainan eztugu hain hersiki pisatzen nolako bertutez hari den.

Bilha gabilitza ea sendo, aberatz, eder, agudo den, ea fetxo den eskiribuetan, kantetan, lanean; geienak ordea ixilik daude galdegin gabe zein pobre den bihotzez, zein pazienziatsu eta manso den, zein debozionetsu eta barreneko.

Naturaleza beha dago gizonaren kanpoko gauzetara, baina grazia barrenekoetara hedatzen da.

Hainitzetan naturaleza enganatzen da, baina grazia Jainkoa baitan esperantzatzen da engana ezadintzat.

HOGOI ETA HAMABIGARREN KAPITULUA

Bere buruari uko egiteaz, eta guthiziadura guzien arbuijatzeaz.

1. Semea, ezin goza zaitezke libertate konpliaz, zeronek uko oso bat egiten ezpadiozu zure buruari.

Gathibu estekatuak ohi dira deusik beretzat beregan dadukatenak, bere burua maite dutenak, guthiziosak, kuriosak, hainitz egitekotan sartu nahiak, bethi gauza guriak eta malguak bilhatzen dituztenak Iesu Kristorenak utzirik: finean hari direnak iraunen eztuen gauzarik pensatzen, ametsten eta deliberatzen; zeren galduko da lainkoa ganik heldu ezten guzia.

Itxexozu hitz labur eta handi huni: utzazu nahiz den guzia, eta den guzia aurkituko duzu: larga zazu guthiziadura eta edirenen duzu sosegua.

Hori maiz erabil ezazu gogoan, eta obrez konpli dezazunean, iakinen duzu zer erran nahi duen eta gauza guziak ezagutuko tutzu.

2. launa, ezta hori egun baten lana, ez eta haurren iokoa; aitzitik hitz labur hunetan serratzen da Giristinoaren perfekzione guzia.

Semea, etzara bertzea aldera itzuli behar, bihotza etzaitzu berehala erori behar, gizon perfetek dadukaten darraizkon bidea aditurik: kontrara atzartu behar zare gauza goragoetara, edo ezpere ardurako desirez hatsbeherapenak aurtiki behar tutzu hek bezala sainduki bizi nahiz.

Aitzine halakoa, aitzine etorri zeronek zure buruaren ez maitatzeko, bainan ere keinura xoilki behatzeko, eta ordenatu derautzudan aita espiritualaren borondatearen egiteko puntura, orduan zinatezke ene gogarakoa, orduan zure bizitze guzia bozkarioz eta bakez iragan zenezake.

Hainitz gauza duzu oraino utzi beharrik, eta guziak osoki emaiten ezpaditutzu ene eskuetan, eskatzen zarena eztuzu ardietsiko.

Konseillu emaiten derautzut urre suztaturik erosteaz ene ganik, laster aberatz zaitezintzat.

Urre hura da zeruko zuhurzia hemen behereko gauza guziak oinen azpian aurizkitzen eta ostikatzen dituen.

Arbuia zazu lurreko zuhurzia bai eta mundua eta zure burua ganako gogalgintasun guzia.

3. Erran derautzut munduaren begietan deus guti diren gauzak erosi behar ditutzula hark handiro prezatzen dituenak eman.

Ezen badirudi zeruko egiazko zuhurzia xoil aphurra eta hurren ahantzia dela; hark ezpaitu bere buruaz kontu handirik egiten ez eta lurreko handiresunik bilhatzen: hura hainitzek ahoz laudoriotzen baitute, baina bere ganik urrun igortzen bere bizitze tailluaz. Badarik ere hura da harri preziatua hainitzentzat estalia.

HOGOI ETA HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

*Gure bihotzaren nihon ezin egonaz,
eta gure intenzioea Jainkoa gana
bere azken xedera bezala xuxen
idukitea.*

1. Semea, eztezazula zure gogoaz zinetz: orai duzuna laster ganbiatuko da bertze batetara.

Bizi zaitezkeino mudakorra zare nahi eztuzularik: hala non ikusiko baituzu batean alegera, bertzean triste, batean sosegatua, bertzean asaldatua, batean debozionetsu, bertzean debizionegabeko, batzutan ikastera iarria, bertzetan nagia, batzutan pausatua, eta bertze batzutan arina zarela.

Ordea gizon zuhurra eta gauza espiritualetan ongi ikasia mudanza hekin ganean nausi dago behatu gabe zer sentitzen duen bere baitan, eta nondik heldu den mudakortasunaren haizea;

baina kontu daduka bere arimako intenzione guzia xuxen doan behar den xede hoberenera.

Zeren horrela eginez bethi egonen ahal da bat eta bera, eta inharrosigabea, bere intenzionearen begi sinplea ni gana xuxendurik dadukala, bat ere aldaratu gabe hain bertze kasuren artean.

2. Ezen zenbatenaz garbiago izanen baita norbaiten intenzionearen begia, hanbatenaz segurago iraganen da aldizkatzen duten tenpestetarik.

Ordea hainitz gauzatan lilluratzen da intenzione garbiaren begia, zeren laketgarri bat presentatzen denean laster sartzen da haren miratzen, eta gutitan aurkitzen da nihor osoki libratu-rik bere munduko probetxuaren ondoan ibilteko kutsutik.

Hala Juduak etorri ohi ziren Bethaniara Martha eta Maria ganik ez xoilki Iesus gatik, baina eta Lazaro ere ikustea gatik.

Beraz intenzionearen begia garbitu behar da, arren sinple eta xuxen dagoela, hain bertze suer-

tetako inkontruen artean niri xoilki beha dieza-
danzat.

HOGOI ETA HAMALAU GARREN KAPITULUA

*Maite duenari gozo zaiola Jainkoa
gauza guzietan eta guzien gainetik.*

1. Huna ene Jainko eta gauza guziak. Zer nahi dut geiago, eta zer desira dezaket dotsuagorik?

O hitzaren ezia eta gozoa! Bai ordea maite duenarentzat horrelako hitza, ez mundua ez eta munduan den bertze gauzarik. Ene Jainkoa da ene gauza guziak.

Endellegatzen duenarentzat aski errana da, eta haren maiz erraitea gozo zaiola maite duenari.

Eta egiaz zu, ene Jainkoa gurekin zaudenean, aitzinean zaitugunean alegerak dire guziak, kanpoan zarenean unha eta nardagarriak dira guziak.

Zuk bihotza sosegatzen, zuk bake handia emaiten, zuk bestako alegrianza egiten duzu.

Zure graziaz gizonak sentimendu ona du guzietan eta laudatzen zaitu gauza guzietan.

Zu gabe eztaiteke iraupe handizko plazerik deusetan ere, eta zerbait izaitekotzat gogorakorik eta saporosorik behar du zure grazia lagun, eta premia da zure zuhurziaren errekaitsu gozoaz aphain dadin.

2. Nori ere zu gozo baitzaizko, zer etzaio gozo izanen? Eta nork ere ezpaitu zure baitan sapororik edireiten, zertan aurkituko ahal du atsegirik?

Ordea zure zuhurzian eskasten dira munduko zuhurrak, eta haragizaleak, zeren batean hainitz banaloria da, eta bertzean heriotzea kausitzen da.

Baina nor ere baitarraitzu munduko gauzak mesprezaturik eta haragia hildumaturik, ezagun da egiazki zuhurra dela, zeren iragaiten baita banaloriatik egiara, eta haragitik espiritura.

Horrelakoei gozo zaie Jainkoa, eta zer ere onik aurkitzen baita kreatoretan hura bihurtzen dute bere kreatzaillearen laudoriora.

Badarik ere diferentzia handia eta xoil handia dute bere artean Kreatzaillearen gozotasunak eta kreaturarenak, eternitatearen saporreak eta

denborarenak kreatu gaberiko argiaren arraitasunak eta argi kreaturarenak.

3. O egundainoko argi kreatu guzia iragaiten tutzuna, aurtiki zazu gainerik ene bihotzeko barren aldi guziak iragan detzan zizmintat bat.

Garbi, alegera, argi eta pitzazu ene arima bera indar guziekin, arren neurrigabeko bozkariorimenduz itxeki diazazun arren.

O noiz etorriko da oren doatsu eta ordu desiratzeko hura, non satiatuko bainauzu zure begitartez, eta izanen baitzara ene guzia gauza guzietan.

Hori eman diazadazun artean, ene bozkariora ezta bethea izanen.

Ah dolorea! bizi da oraino gizon zaharra ene baitan, ezta gurutzean osoki iratxekia, ezta osoki hilla.

Orai ene haragia hagitz guthiziatzen da espirituen kontra, barreanean pitzten tu gerlak, eta bakerik eztiotzen arimaren erresumari.

4. Baina zu itsasoaren bothereari bortitzturali jauntzen zaizkona, uhinen higizatea eta muthiritasuna, hel zakizkit.

Barraia tzatzu gerla nahi duten jendeak, eta porroka tzatzu zure eskuaren indarraz.

Erakuskitzu, othoi, zure eskuineko eskuari:

Berdin ezta enetzat esperanzarik, ez eta nora ihes egin lekurik zure baitan baizen, o ene Jainko jauna.

HOGOI ETA HAMABOTZGARREN KAPITULUA

*Eztela bizitza hunetan seguranzarik
Tentamenduen kontra.*

1. Semea, sekulan eztukezu seguranzarik bizitze hunetan, baina bizi zareino bethi ere arma espiritualen beharra duzu.

Etsaien artean zabilitza, eta eskuin esper akometatua zare.

Bada alde guzietarik baliatzen ezpazare pazienziako arrondelaz etzara luzeki egonen zaurtu gaberik.

Are geiago, zure bihotza tinkatzen ezpaduzu ene baitan gauza guzien ene gatik pairatzeko borondate hutsez, ezin eginen diozu hain gudu beroari buru, eta ezin ardietsiko duzu doatsuen golardoa.

Behar duzu beraz gizon gisa iragan kontrako guzien gainetik, eta guzien kontra beso sendo batez gudukatu eta peleatu.

Ezen garaia duenari emaiten zaio mana erran nahi da zeruko eztitasuna eta nagitze denari hainitz miseria gelditzen zaio.

2. Bilhatzen baduzu sosegurik bizitze hune-tan, nolatan orduan ardietsiko duzu sekulako sosegua?

Etzaitezila prepara hainitz deskansuz gozatzera, baina bai pazientzia handiaren ardietsiera.

Bilha zazu egiazko bakea, ez lurrean, baina zeruan, ez gizonen artean edo bertze kreaturetan, baina Jainkoa baitan xoilki.

Jainkoaren amorioa gatik behar ditutzu nahiz diren guziak gogotik pairatu, nolakoak baitira nekeak, traillaak, doloreak, tentazioneak, bidegabeak, atsekabeak, hersturak, beharrak, erbaltasunak, eritasunak, hitz gaixtoak, aitzin gibe-leko gaizki erranak, urgoiak, eranzuteak, liskarrak, beheramenduak, ahalkeak, sensamenduak eta mesprezioak.

Horrelako gauzak heltzen zaizko gizonari bertutearen ardietsien, frogatzen dute Iesus-en soldadu berria, zeruko koroa egiten dute eta arri-matzen.

Nik sekulako saria emanen dut neke labor baten gatik, eta fingabeko loria laster iragaiten den ahalke baten orde.

3. Uste othe duzu izanen ditutzula konsolazio-ne espiritualak zure nahiaren arauera?

Ene sainduak ezte izan zuk nahi duzun bezalakorik; aitzitik hainitz atsekabe, tarritamendu eta deskonsolamendu handi iasan dute.

Ordea guziak hartu ituzte pazienziaz, eta geiago fidatu dira Jainkoa baitan, berak baitan baino; zeakitela ezte mundu hunetan pairamendurik etorkizuneko loriaren ardiesteko aski denik.

Nahi othe duzu berehala eman dakizun, hainitzek hain nigar isuriz eta hainitz trabailu iraganenez gero nekez ardiesti dutena?

Iguriki diozozu Jainkoari, hari zaite gizon gisa egizu buru, eztezazula esperanza gal, etzoazila, baina gorputza eta arima para tzatzu fermuki Jainkoaren loria gatik.

Nik hagitz geiago bihurtuko derautzut; ni zurekin izanen naiz zure herstura eta tribulamendu guzietan.

HOGOI ETA HAMASEIGARREN KAPITULUA

Gizonen iujeamendu alferren kontra.

1. Semea, tinka zazu zure bihotza Jainkoa baitan eta etzarella nihoren iujeamenduen beldur, konszientzia lekuko duzunean eztuzula hobenik borondate onik baizen.

Gauza ona eta doatsua horrela pairatzea, eta hori etzaio gaitz izanen bihotzez humil denari, eta Jainkoa baitan fidatzenago denari, bere baitan baino.

Hainitzek hainitz darasate, eta hargatik zinetste guti eman behar zaie, berdin ezin bat da guzien gogara egitea.

Jondone Paulok egin ahala egin duelarik Jainkoaren arauera guziei amor egiteko, eta guzientzat bere burua gauza guzietara itzuli duelarik, halarik ere kontu guti egin du hartaz munduak emaiten ohi zuen iujeamenduaz.

2. Aski den bezanbatnekatu da guziei salbamenduko bidearen erakusteko ber ahalaren eredura; bainan ezin egin du hala non hura batzutan eztuten iujeatu edo mesprezatu.

Halakotz guzia gomendatzen zioen guziak dakizkien Jainkoari, eta bera defendatzen zen pazienziatz eta humiltasunaz mihi gaixtoen kontra gezurrezko gauzarik pensatzen ziotenean, eta hartaz nahi zuten guzia bere gogoaren arauera zerabillaten eta barraiatzen zutenean.

Guziarekin ere noizpat ihardetsi du, beldurrez haren ixil egoitez eskandalik gerta lekien arima flakoei.

3. Nor zare zu gizon hilkor baten beldur izaiteko? Egun bizi da, eta bihar ezta ageriko.

Zarela Jainkoaren beldur, eta etzara izituren gizonen izigarridurez.

Zer egin diazakezu nihork bere hitzez eta gaizki erranez? Kalte geiago egiten dio bere buruari, zuri baino; eta nor ere baita ezin itzuliko zaio Jainkoaren iujeamenduri.

Duzun Jainkoa begien aitzinean, eta ezteza-zula iharduki liskar hitzez.

Iduri badagotzu azpiratzen zarela, eta merezi eztuzun ahalkerik edo laidorik pairatzen duzula, etzaitezila hargatik tarrita, bedurrez zure koroa guti xipi dezazun zure pazienza gabez.

Aitzitik beha diazadazu zerura: badut nik ahala eta indarra zure libratzeko ahalkesun eta erran gaixto guzietarik, eta batbederari bihurtzeko bere obren eredura.

HOGOI ETA HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

*Behar dela garbiki eta osoki
Jainkoaren eskuetan iarri bihotzeko
libertatearen ardietsteke.*

1. Semea, utzazu zure burua, eta edirenen nauzu.

Zaude deusere zuretzat hautatu, nahi eta iduki gabe, eta bethiere irabaziko duzu.

Zeren zure burua utzi bezain laster hura berriz hartzen eztuzula, grazia geiago eta handiago emanen zaitzu.

Jauna, zenbatetan utziko dut neure burua, eta zertaz hutstuko naiz?

Bethiere eta oren guziez, gauza aphurrez bezala handiez ere. Eztut deus ere lekatzen, baina nahi zaitut kausitu gauza guziez billusirik.

Bertzela nolatan izanen ahal gara zu ene, eta ni zure billusia ezpazare zure borondateaz hala barrenean nola kanpoan?

Zenbatenaz hori lasterago eginen baituzu, hanbatenaz hobeki kausituren zare, eta zenbatenaz osokiago eta garbikiago horrela iarriko baitzare, hanbatenaz izanenago zara ene gogorakoa, eta geiago irabaziko duzu.

2. Batzuek utzten dute bere burua, baina zer-bait lekaturik; eta zeren ezpaitira osoki Jainkoa baitan fidatzen, hargatik beer buruaz oraino kargua dadukate.

Batzuek ere lehenbizian bere burua osoki ofrendatzen dute, ordea gero zenbait tentazio-
nek bulkatzen dituenean, beretara bihurtzen dire, hargatik eztute bertutean aitzinamendurik egiten.

Halakoek eztute ardietsiko bihotz garbiaren libertatea, ez eta ene familiertasun arraiaren grazia, bere burua lehen osoki utzirik eta eguneroko sakrifiziotan emanik baizen. Hori egin gabe batasun gozogarria eztago, eta eztagoke.

3. Maiz erran derautzut eta berriz ere erraiten: utzazu zure burua, eta barreneko bake handi batez gozaturen zara.

Guzia emazu guzia gatik, eztezazula deus bilha, ez berriz har deus ere; zaude garbiki ene baitan, dudatan iarri gabe, eta izanen nauzu. Libro egonen zara zure bihotzean eta ilhunbeek etzaituzte estaliko.

Zure ahalaz, othoitzez, desirez enseia zaite zure ditutzun gauza guziez billustera, eta Iesus billusiarri billusirik iarraikitera, zure buruarentzat hillez gero sekulakotz ene baitan bizi enetzat bizi zaitezintzat.

Orduan joanen dira gogoeta alferrak, izialdura muthiriak, eta soberazko artha eta grina guziak.

Orduan ene neurrigabeko beldurrak utziko zaitu, eta behar ez legezko amorioa hillen da.

HOGOI ETA HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

*Kanpoko gauzetan ongi
gobernatzeaz, eta perilletan lainkoa
gana laster egiteaz.*

1. Semea, hau da zeintara xedatu behar duzun xuria. Behar duzu leku, obra eta kanpoko egiteko guzietan zure barrenaldian libro egon, zure burua zure eskuko izan, gauza guziak zure azpian iduki, eta hekin azpian ez iarri.

Behar zare zure obra guzien nausi eta xuxentzaille, ez gathibu, ez mutil erosia, bainan egiazko Israeltar bezala, iragaiten zarela Jainkoaren umeen estatura eta libertatera.

Hek baitaude presenteko gauzen gainean iarririk daudezila sekulakoen miratzen eta miretsten.

Ioaiten diren gauzak ikusten tuzte eskerreko begiaz, eta zerukoak eskuinekoaz.

Eztira eramaiten munduko gauzetara, hei lotzeko aitzitik erakartzen tuzte serbitzu onik egitera. Iainko guzien gaineko egilleak ordenatu dituen arauera, zeinek ezpaitu deus ere eskasik edo makurrik utzi bere obretan.

2. Geiago, gertatzen diren guzietan behatzen ezpaduzu kanpoko idurira, eta ikusten edo aditzen duzuna kontsideratzen ezpaduzu haragizko begiaz, baina berehala, zer ere okasionetan nahi den, sartzen bazare Moisez bezala leku sainduan sartzen bazare hari konseillu eske, noizbait enzunen duzu Jainkoaren ihardetspena, eta bihurtuko zare presenteko eta etorkineko gauza hainitzik ikasirik.

Ezen Moisek bethiere laster egin du Jainkoaren leku saindura ikastea gatik nola ihardets egiten zeizkon duden eta galdeen gainean, eta bethi orazioneaz baliatu da bere perillen eta gizonen gaixtakerien kontrako erremediorik aurkitzeko.

Hala zuk ere lasterka sartu behar zare zure bihotzeko gela gordean Jainkoaren helzakitzaren ahalik berokiena eskatzeko.

Ezen hargatik irakurtzen dugu Gabaonitek enganatu zituztela Josue profeta eta Israeleko umeak, zeren Jainkoari konseillu ezpaitzaizkon lehen eskatu, baina bere etsaien hitz ezteie zinetste sobera eman ez pietate falsoz lilluratu baitziren.

HOGOI ETA HEMERETZIGARREN KAPITULUA

*Eztuela gizonak eztuela sobera
kexatu behar ekitekoetan.*

1. Semea, emazu bethi ere zure egitekoa ene eskuetan, nik ongi errekaitatuko dut bere denboran.

Igurikozu ene ordenanzari, eta handik sentituko duzu probetxu.

Jauna, bihotz onez utzten derauzkitzut ene ekiteko guziak, zeren gogoan dudan antzeak eta arthak guti aitzina dezake.

Ailiotsa zure ontasunak nahi sobera hagitz kexa enendin etorkizuneko kasuak gatik, aitzitik bethi prestik egon nendin zure borondate sainduaren egiteko.

2. Semea, hainitzetan artha handiz kexu dabilla gizona desiratzen duen gauzaren ondo-

an, bainan hura ardietsi duenean, hasten da bertze sentimendurik hartzen.

Ezen gauza ber batetarako afekzionaek ezute iraupe luzerik, aitzitik bihotza darabillate batetik bertzera.

Ezta beraz guti, gauza gutienetan era bere buruari uko egitea.

Gizonaren egiazko probetxua da bere buruari uko egitea, eta puntu hartara etorri denean hagitz da libro eta seguratu.

Ordea etsai zaharra, nola prestu guzien kontra iarria baita, ezta nihoiz ere gelditzen tentatzetik baina gauaz eta egunaz erorgarrizko arteak asmatzen eta hedatzen tu ea suertez bere sareetara iraitz dezakeienz bere buruari guardia emaiten eztioena.

Zaudete erne eta othoitzetan, dio gure Salbantzailleak, tentamendutan eror zaitezten beldurrez.

LAU HOGOIGARREN KAPITULUA

Gizonak bere buruz eztuela deus onik eta ezin loria ditekeiela deusez ere.

1. Jauna, zer da gizona, zu hartaz orhoitzekotz? edo zer da gizonaren semea, zuk hura bisitatzekotz? Zer merezi izan du gizonak, zuk hari zure grazia emaitzekotz?

Jauna, zertaz arrankura naiteke utzten banauzu? Zer arrazoin dut zure kontra ihardukitzeko, ni eskatzen naizena egiten ezpaduzu?

Segurki hau pensa dezaket eta egiaz erran: Jauna, ez naiz deus ere, deusik ezin daidit, eztut neure buruz deusere onik; baina guzietan eskasten naiz, eta bethi ezdeusera eramaiten naiz.

Heltzen ezpazaizkit, eta ene barrenean irakasten ezpaderautazu, naizen guzia epeltzen naiz eta flakutzen.

2. Ordea zu, Jauna, bethiere orobat zare, sekulakotz zarena zaude, bethi on, iustu eta saindu: bethi ongi, iustuki eta sainduki gauza guziak egiten tutzu, eta zure zuhurziaz ordenatzen.

Baina ni, nola erorkorago bainaiz errazago bainaiz huts egiten, aitzinatzen baino, ez nago bethi estante batean, zeren zazpi denbora aldatzen dira ene gainean.

Badarik ere plazer duzunean, eta zure esku maitea hedatzen derautazun bezain sarri, hobeki kausitzen naiz.

Berdin zu xoilki hel zakidizket gizonen arartekotasunik gabe, eta halako indar eman diazakedazu, non ene bekokia ezpaita geiago hainitz aldetarako, eta non ene bihotza zu gana itzuliko baita eta zure baitan, pausatuko baitu. Deskan-satuko baita.

3. Halakotz ongi baneaki munduko konsolazione guzien arbuiatzen, dela debozionearen ardietsteko dela zure bilhatzeko mengoaz eta beharrez, dakidala eztela nihor konsola naza-keienik, orduan arrazoinez ahal nuke esperanza

zure graziaren ardiesteko, eta konsolazio berri baten dohainaz bozteko esperanza.

4. Eskerrak zuri, Jauna, nola zure ganik heldu baita ongi heldu zaitan guzia.

Nitaz bezanbategan banitatea naiz eta ezdeusa zure aitzinean, gizon flakoa eta ezin nagokeiena naiz.

Nondik bada loria naiteke, eta zergatik guthizia dut estimatua izaiteko? Ene ezdeusagatik othe? bainan hau da gauzarik erhoena.

Gerthuz loria alferra da, izurri gaixtoa, xori burutasunik handiena apartatzen baigaitu egiazko loriatik eta zeruko loriaz billusten.

Ezen gizonari bere baitan laket zaionean, higoitzen zaitzu, hura higoin duzu: eta noiz ere ahoa zabaldurik munduko laudorioen ondoan baitabilla, egiazko bertuteez gabetzen da.

5. Bada egiazko loria eta bozkariotasun saindua da zure baitan bozte, ez bere burua baitan; zure izenean atsegin hartzea, ez bere bertutean, eta kreaturetan plazerik ez hartzea zure gatik baizen.

Lauda bedi zure izena, ez enea: laudoriozki
alpha bedi zure obra, ez enea: benedika bedi
zure izen saindua, eta eztaqidala niri eman mun-
duko laudoriorik bat ere.

Zu zare ene loria, zu ene bihotzeko bozkario-
mendua: zure baitan loriatuko eta bozkariotuko
naiz egunak diraueino; nitaz bezanbatean eztut
atseginik bilhatuko ene flakotasunetan baizen.

6. Iduiek bilha bezate elkarganikako loria,
nik Jainkoa ganik heldu dena xoilki bilhatuko dut.

Gizonaren loria guzia, mende hunetako ohore
guziak, munduko gradu eta estatu handiak zure
sekulako loriarekin komunztaturik eztira banalo-
ria eta erhokeria baizen.

O ene egia eta ene miserikordia. Ene Jainkoa,
Trinitate saindua, zuri xoilki laudorio, ohore, bot-
here eta loria sekula sekuloronekotz.

BERROGOI ETA BATGARREN KAPITULUA

*Denborazko ohore guzien
mesprezioaz.*

1. Semea, eztakizula gaitzi ikusten badituztu bertzeak ohoraturik eta goititurik, zu ordea mesprezaturik eta beheititurik.

Goiti zazu bihotza ni gana zerura, eta gizonek lurrian egiten duten mesprezioak etzaitu damutuko.

Jauna itsuturik gaude, eta banitateak laster enganatzen gaitu.

Ongi miratzen badut neure burua, ezta kreaturarik egundaino bidegaberik egin derautanik eta halatan eztut zertaz zure kontra arrankura-tzerik.

2. Ordea nola maiz eta handiro ofensatu baitzaitu zuzenez kreatura guziak armatzen dira ene kontra.

Hargatik arrazoinez emaiten zait ahalkea eta mesprezioa *egiten*, eta zuri *dagotzun* laudorioa, ohorea, eta loria.

Eta ni hartara iarten ezpanaiz, non gogo onez nahi dudan guziek utz nazaten mesprezaturik, eta ez deustzat iduki nazaten, ezin duket barre-neko bakerik eta dagokeien bihotzeko finkamen-durik, ez eta espirituzko argimendurik ez eta zurekiko batasun osorik.

BERROGOI ETA BIGARREN KAPITULUA

Eztela bakea ezarri behar gizonetan.

1. Semea, zure bakea ezarten duzu nihor baitan, zeren zure gogorakoa den, edo zeren elkarrekin zabiltzaten, nahasiko zare, eta eztuzu sosegurik izanen.

Baldin ordea ihesi bazoaz bethi bizi den eta bethi dirauen egia gana, etzare damutuko zure adiskidea zure ganik apartatua edo hillagatik.

Zure adiskideari diadukozun amorioa ene baitan finkatu behar da, eta nor ere prestu baitadukazu bizitze hunetan prestu eta hagitz maitatzeko baitadukazu, hura onetsi behar duzu ene gatik.

Adiskidetasunak eztu deus balio eta eztu iraunen ni gabe: ezta egiazko ameriorik ez garbirik, nik hura egiten ezpadut.

Hala behar duzu hilla egon maite ditzuzunen afekzionetan, non (zutaz den bezanbatean) pres-

tik zaudezin eta desira dezazun munduko konpainiarik gabe bizitzera.

Hanbatenaz gizona hurbiltzenago zaio Jainkoari, zenbatenaz urruntzenago baita lurreko konsozationetarik.

Hanbatenaz ere gorago ikaiten da Jainkoa gana, zenbatenaz barrenago iausten baita bere baitara, eta bere burua xipiago baitaduka.

2. Baina nork ere biatio zerbait onik baduela bere burutarik, trabatzen du Jainkoaren grazia haren gana etortzetik, zeren Espiritu sainduaren grazia bethi baitabilla bihotz humillaren bilha.

Baldin bazeneaki zure buruaren osoki ezdeus egitea, eta amudio kreatu guziez hutsten, orduan behar nuke zure baitan hainitz graziarekin sartu.

Kreaturetan behatzen duzunean Kreatzaillearen lista eramaiten zaitzu.

Ikazazu gauza guzietan zure buruari garaitzen Kreatzaillearen amorioa gatik, eta orduan helduko ahal zare Jainkoaren ezagutzara.

Zenbat ere xipi baita gauza bat, behar ez bezala onetsten eta begizatzen bada, gibela-

tzen du gizona guzien gaineko ontasunetik eta arima pozoatzen du.

BERROGOI ETA HIRURGARREN KAPITULUA

*Banaloriazko eta munduko
iakintasunaren kontra.*

1. Semea, etzaitezila uki gizonen hitz ederrez eta sotillez, zeren Jainkoaren erresuma eztago hitzetan, baina bertutean.

Beha zazu ene hitzetara: irazekitzen dute bihotza eta arima argitzen, erakartzen dute urri-kimendua eta hainitz konsolazione emaiten.

Eztezazula sekulan hitzik irakur iakinsunago edo zuhurrago iduritzea gatik: bainan ikazazu bizioen bildumatzen, zeren handik probetxu geiago atherako duzu, bazeneaki baino hainitz puntu eta galde gaitzi ihardetsten.

2. Hainitz gauza irakurri eta ikasi dukezunean bethi behar da ithurburu batetara bihurtu.

Ni naiz gizonari iakintasuna irakasten diodana, eta ezagutza klarago humillei emaiten

derauedana, nihork bertzek irakas dezaken baino.

Nori ere mintzo bainatzaio, hura laster izanen da zuhur eta hainitz probetxu egingen du espiritu.

Zori gaitza gizonetara dabiltzanentzat hainitz sotilleziaren ikasten, eta niri serbitzu egiteko bidez axola guti dutenentzat.

Etorriko da denbora non agertuko baita Iesus nausien nausia, Angeruen jauna, guziei bere lekzoneak erran arazitzeke, erran nahi da, batbedearen konszienziaren miratzeko.

Orduan Jerusalemeko soko-moko guziak miratuko dira argiak pitzturik; orduan zer ere estalirik eta gorderik baitzegoen ilhunbetan, agertuko da eta hitzen arrazoinak ixilduko dira.

3. Ni naiz begi keinu batez adimendu humilla alxaxen dudana, eta sekulako egiaren gainean arrazoin geiago emaiten diot aditzera, nihork hamar urthez eskoletan ibilliz iakin dezakeien baino.

Nik irakasten dut hitz azanzik gabe batari eta bertzeari zer iduri zaion behatu gabe, ohorezko

buruperik gabe, eta arrazoinamenduzko ihardu-
kimendurik gabe.

Nik bai nik irakasten dut lurreko gauzen mes-
prezatzan, presentekoez nardatzan, bethiereko-
en bilhatzan eta saporatzan, ohoretarik ihes egi-
tan, eskandaluen pairatzan, ene baitan esperan-
za guziaren ezartzan, nitaz kanpoan deusez ere
ez guthiziatzan, eta guzien gainetik niri beroki
amorioz itxekitzan.

4. Urliak niri amorioz lotuz barrenalde guziez
Jainkoaren gauza gordeak ikasi zituen, eta hetaz
miragarrizki minzo zen.

Probetxu geiago egin zuen gauza guzien utz-
teaz sutillen estudiatzeaz baino.

Ordea batzuei mintzo natzaie gauza arrunte-
nez eta bertzei bereziez.

Emeki agertzen natzaie batzuei seinaletan
eta figuretan, eta bertzei misterioak klaratzen
derauztet argidura handi batez.

Libururen hitzkuntza orobat da guzientzat;
eztitu ordea guziak berdinzki dotrinatzen.

Zeren ni naiz barrenean egia irakasten duda-
na, bihotzak sondatzen, gogoak ezagutzen,

obrak aitzinatzen ditudana, eta diren guzietan partitzen derauedana gaiak iujeatzen ditudan arauera.

HOGOI ETA HAMALAU GARREN KAPITULUA

Kanpoko gauzak ez bereganatzeaz.

1. Semea hainitz gauzatan behar duzu iakin gabea egon, eta kontu egin hilla bezala zaudela lurraren gainean, eta mundu guzia zuretzat gurutzatua dela dagoela.

Behar duzu halaber hainitz gauza iragan beharriak gorturik, eta lehenik gogoeta egin zure bihotzeko bakeari dagozkanez.

Hobe da begiak itzultzea desgogarazko gauzetarik, eta batbedera utzte bere sentimenduarekin, ezen ez ihardukitzeko hitzetan iartzea.

Ongi bazaude Jainkoarekin, eta behatzen baduzu haren iujeamendura, errazkiago pairatuko duzu garaitua izaitea.

2. O Jauna, nora gare? Huna denborazko kalte baten gatik nigarrez iartzen gara, nekatzen gara irabazia aphurra gatik nekatzen gara, eta laster gabiltza haren ondoan; bizkitartean kalte espiri-

tuala ahansten zaiku, eta nekez, beranduan ere, bihurtzen gare gure gana.

Gogoa dadukagu probetxu guti baizen, edo bat ere eztazketen gauzen gainean, eta den premiazoena ansiagabez iragaiten dugu.

Zeren gizona bihotz guziaz largatzen da kanpokoetara, eta laster bihurtzen ezpada bere gana, hetan gogotik etzaten da gathibaturik.

BERROGOI ETA BORTZGARREN KAPITULUA

*Etzaiela guziei zinetste eman behar,
eta maiz huts egiten dela hitzetan.*

1. Jauna hel zakizkit ene tribulazionetan, zeren alferrik beha nago nork libratuko nauen.

Zenbatetan eztut federik ediren federik uste nuen lekuan? eta zenbatetan ediren du fedea gutien uste nuenean?

Alferrik bada esperanza emaiten da gizonetan, baina iustuen salbamendua zure baitan da, o ene Jainkoa.

Zarela benedikatua, ene Jainko Jauna, gertatzen zaizkigun guzietan.

Flako gara eta ezin gaudezke, laster engantzen gara eta ganbiatzen.

2. Nor da bere burua halako artharekin eta zuhurziarekin begira dezakeienik, non ezta din batzutan eror zenbait enganamendutan eta garritan?

Ordea zure baitan fidatzen dena, eta bihotz sinpleaz zure bilha dabillana, ezta hain errazki behaztopatzen.

Zenbait tribulamendutan erortzen bada, nola ere izanen baita korapillatua, zuk hura laster bai laster atherako duzu eta konsolatuko, berdin zure baitan esperanzatua eztuzu bethikotz utziko.

Adiskide guti da, leialik, bere adiskidearen herstura guzietan bethi leial eta finko dagoenik.

Zu, Jauna, zu xoilki zare guziz leiala inkontru guzietan, eta zutaz lekora ezta zu bezalakorik.

3. O zein zuhur zen arima saindu hura, erraiten zuenean: Ene bihotza, ene gogoia finkatua eta zimendatua dago Iesus baitan.

Hura bezalako baninz, munduko beldurrak enezake hain errazki asalda, ez eta hitzen tragazez hala uki. Enezakete hala uki.

Nork dakuskike guziak hel baino lehen? nor begira daite etorkizuneko gaitzetarik?

Baldin aitzin-ikusiez maiz ere zaurtzen badute, zer egingen dute ustegabekoek garratzki iasartziaz bertzerik?

Ordea zergatik nik miseriatsu horrek eztiot hobeki neure buruari aitzinetik behatu?

Zergatik ere horrein errazki zinetsi tut ber-tzeak?

Baina gizon gare, eta gizon erorkorrak, ber-tzerik ez, hainitzek uste dutelarik Angeru garela, eta Angeru deitzen gaituztelarik.

Nor zinetsiko dut, Jauna? nor, zu baizen? Zu zare nihor enganatzen eztuzun, eta ezin engana ditekeien egia.

Bertze alde, nahiz den gizona gezurtia da, flakoa, nihon ezin egona, leun eta erorkorra hitzetan behintzat geienik; hala non nekez berehala zinetsi behar baitira egia diruditen gauzak.

4. Zein zuhurki aitzinetik abisatu gaituzun begiratu behar dela gizonetarik! gizonaren etsaiak direla haren etxekoak, eta eztela zinetsi behar nihork erraiten badu; huna hemen da, edo horra non den.

Ene kalteak egin nau iakinsun, eta Jainkoak ailiotsa zure ontasunak nahi hala gertatu lizen nik neure buruari hobeki guardia, eta erhokeriarik ez geiago egitea gatik.

Begirauzu, dio urliak, begirauzu, idukazu, zure baitan nik erran hitza. Eta ni ixil nagoenean, eta zinetsten dudanean haren errana gorderik dagoela, berak ezin estal dezake nahi zuen nik estal nezan gauza; aitzitik berehala salhatu nau saldu nau eta bere burua ere salhatu, eta ioan da.

Begira nazazu, Jauna, halako elhetarik, eta zuhurgabeko gizonetarik, beldurrez hekin eskue-tan eror nadin, eta hek bezalako hutsik dagidan.

Emadazu ahoan egiazko eta zinezko hitza, eta eztiadzadula utz bi aldetako mihirik. Eta lekora zazu ene ganik mihi.

Bada eta ezpada begiratu behar naiz pairatu nahi eztudanetik.

5. O zein gauza ona eta bakegarria den bertzeez ixil egoitea, guziak orobat ez zinetstea, eta enzunak arinki ez kanporatzea, gutiri bere burua agertzea, zu bihotz jakile bethi bilhatzea, eta huna horrako hitz haize guziez ez itzultea; baina bai desiratzea barreneko eta kanpoko guziak egin ditezila zure borondate onaren arauera.

Zein gauza gerthua eta segura den zeruko graziaren idukitzekotzat munduko itxurapenari ihes egitea, ez guthiziatzea kanpotik miragarri diruditen gauzez, baina deboziona berotzen, eta bizitzea onerutzen dutenei artha handiz iarraitzea.

Zenbaiti kalte egin deraue bere bertute iakinak eta lasteregi laudatuak! Zenbaiti probetxu ekarri deraue bere grazia gorderik idukiak bizitze hautskor hunetan, zeintaz erraiten baita, guzia dela tentazione eta gerla! dela.

LAUR HOGOI ETA SEIGARREN KAPITULUA

*Jainkoa baitako fidanzaz hitzen
tragaza aurtikien kontra.*

1. Semea, zaude gizon gisa finko, eta duzun esperanza ene baitan.

Ezen hitzak zer dira hitzak baizen? Airean dabilta, baina ez tute harririk zaurtzen eztiote harriari kalterik egiten.

Hobenduri bazare, orhoit zaite oneratzeko borondate hartzeaz.

Hobenik ezagutzen ezpaduzu zure baitan, orhoit zaite zure kontrako hitztunkeria gogotik pairatu behar duzula Jainkoa gatik.

Guti da zuk hitzak batzutan pairatzea, azote bortizik ezin oraino paira dezakezunaz geroztik.

Zergatik hain gauza aphurrak iragaiten derautzu bihotza, zeren oraino haragizkoa zaren, eta munduaz behar den baino kontu geiago egiten duzun baizen.

Ezen nola beldur baitzare mespreza zaitezin, eztuzu nahi nihork erakus diatzatzun zure hutsak eta zure buruaren edeki atheratzeko aitzakien eta desenkusen itzalpeak bilhatzen tutzu.

2. Ordea mira zaite hobeki, eta ezagutuko duzu oraino zure baitan bizi dela mundua eta gizonen gogalgin izaiteko amudio ergela.

Ezen ihesi zoazkonean beheitimenduari, eta zure eskasak gatik merezi duzun ahalkedurari, segur ageri da etzarella oraino egiazki humilla, eta mundukotz osoki hilla, eta mundua zure bihotzean eztela gurutzatua.

Baina adi zazu, ene hitza, eta eztuzu axolarik izanen munduko erranez hamar milla balira ere.

Horra zure kontra erran balitez gaixtakeriarik handienaz asma eta pensa ditezken guziak zer kalte egin liazakezute, utz bazenetza iragaitera, eta fitzkeria bat baino geiago ezpazenedutza? Ille izpi huts bat athera othe liazakezute burutik?

3. Ala baina bere bihotzean barrena eztagoena, eta Jainkoa begien aitzinean eztadukana

errazki asaldatzen da bere hutsen kontrako hitzik erraiten zaionean.

Kontrara ene baitan fidatzen dena, eta bere buruko zuhurziaren gainean thematzeko eta nabarnentzeko guthiziarik eztuena, ezta munduaren beldur izanen.

Zeren ni naiz iujea eta sekeretu guzien iakilea ezagutlea: nik dakit nola egin den egitekoa: nik ezagutzen tut bidegabegillea eta bidegabeztatua.

Hitz hori ilki da ene ganik, nik egitera utzirik hori gertatzen da hainitz bihotzetako gogoeta ager ditezin gatik.

Nik hobendurik eta hobengabea iujeatuko itut bainan arrazoin estali batez nahi izan dut bata eta bertzea lehenik frogatu.

4. Gizonen lekukotasunak hainitzetan enganaten du, baina ene iujeamendua bethi da egia, bethi iraunen du, eta nihork eztu hura gezurtatuko.

Hainitzetan gorderik dago, eta nihork gutik hura ezagutzen du bere parte guzietan: halarik ezta nihoiz errebelatzen, eta ezin errebela dite-

ke, batzutan zuhurgabeen begiei iduri zaielarik eztela xuxena.

Ni gana beraz etorri behar da iujeatzeko diren gauza guzietan, eta ezta bere ustearen gainean permatu behar.

Ezen zer ere iustuari gertatuko baitzaio Jainkoa ganik, ezta hargatik aldaratuko, eta zuzen ezten gauzarik haren kontra errana gatik eztu ansia hainitz izanen.

Ezta ere loriatuko bertzeak haren alde iarriak gatik haren arrazoinaren balia arazitzeko: Ezen orhoitzen da nik miratzen ditudala bihotzak eta barrenaldeak sondatzen ditudala, eta eztudala iujeatzen nihoren begitartearen edo munduko iduriaren arauera.

Zeren gizonen iujeamendura laudatzeko den gauza, hainitzetan ene begietan da baiatzekoa.

5. Ene Jainko Jauna, juje iustua, bothez eta pazienziatz bethea, gizonen erorkortasuna eta gaixtarasuna ezagutzen duzuna, zarela zu ene indarra eta fidanza guzia, zeren ene konszientzia eztut etzait aski.

Zuk dakizu nik eztakidana, eta hargatik ene hutsak erakusi izan zaizkidanean behar izan dut humil iarri eta emeki pairatu.

Ene iuje emea, arren barka diazadazu humil eta manso egon enaizen ordu guziak gatik, eta indazu berriz ere grazia bertze aldi batez geiagorik pairatzeko.

Zeren zure neurrigabeko miserikordia hobe zait barkamenduaren ardietsteko, ezen ez nik neure ustez dudan iustutasuna eta hobengabetasuna ene konszientzian estalirik dauntzan hutsen defendatzeko ederki atheratzeko.

Eta hobenik sentitzen eztudalarik neure baitan, guziarekin ere ezin derraket iustu naizela; zeren zure miserikordia kanporarik, ezta bizien artean iustu aurkituko denik zure begien aitzinean.

BERROGOI ETA ZAZPIGARREN KAPITULUA

*Gaitz guziak pairatu behar direla
sekulako bizitzea gatik.*

1. Semea, ene ganik hartu ditzun trabai-
lluek etzaitzatela hauts, eta tribulazioneak etzai-
tzatela alde guziz beherera egoitz: bainan ene
promesak azkar, bortitz eta konsola zaitzala
heldu zaizkitzun guzietan.

Aski naiz zure saristatzeko neurri mukuruz
eta nahiz bezala baino geiago.

Etzare denbora handiz hemen nekatuko, ez
eta bethiere dolorez kargatuko.

Igurikazu aphur bat, eta sarri ikusiko duzu
zure gaitzen finamendua.

Etorriko da orena non travailluak eta abarro-
tsak geldituko baitira.

Aphurra eta laburra da denborarekin iragai-
ten den guzia.

2. Egizu egiten duzuna, hari zaite fidelki ene mahaztian, ni izanen zure saria.

Eskiriba zazu, irakur, kanta, zaude hatsberapenez, ixilik, othoitzez, kontrako guziak paira tzatzu gizon gisa, sekulako biziak balio itu gudu hek guziak eta handiagorik ere.

Jainkoak dakien egunean etorriko da bakea, eta egun hura ezta izanen mende hunetako ez eguna, ez gaua, baina bai bethiko eta fingabeko argia, bake fermua eta sosegu segura.

Orduan eztuzu erranen; nork libratuko nau gorputz hil beharrezko hunetarik? Eztuzu oiuz erranen: Ha zer da nitaz, ene hemen egoiteko ephea luzatu baita.

Zeren herria iraitsiko da ilhunbetara, salbamendua izanen da ezin ahituzkoa, ezta grinarik bat ere izanen, baina bai alegrianza doatsua, biltzarre arraia, konpainia amolsua.

3. O zeruan ikusi bazinitu sainduen koro ederrak, zein loria handiz orai gozaten diren lehen munduko iduriz mesprezatzekoak eta kasik bizi-tzea merezi etzuten hek berak.

Gerthuz humil eta apal zindezke lurreraino, eta lehen hauta zenezake guzien azpian iartzea, ezen ez baten ere gainean esku izaitea, etzindezke guthizia bizitze hunetako egun ederrez; aitzitik laket lekidikezu Jainkoa gatik pairatzea, eta irabazia guziz handitan har zenezake gizonen artean ezdeustzat kondatua izaitea.

4. O baldin gauza horiok zure gustura balire, eta zure bihotzean barrena iragan balitez, nolatan ausart zindezke behin ere arrankuratzen.

Nekagarri guziak ez othe dira pairatzekoak sekulako bizia gatik?

Ezta gutia Jainkoaren erresumaren galtzea edo irabaztea.

Alxa bada begiak zerura. Huna ni eta ene saindu guziak enekin: hainitz gudu eta handiak izan tuzte munduan, orai bozkariotzen dira eta konsolatzen, orai segurean eta soseguan daude, eta sekulakotz enekin egonen dira ene aitaren erresuman.

BERROGOI ETA ZORTZIGARREN KAPITULUA

*Sekulako egunaren edertasunaz eta
bizitze hunetako hersturez.*

1. O gaineko hiriko egoitzaren doatsua! O sekulako egunaren argia, gauak ilhuntzen eztuena, baina guzien gaineko egiak bethi bere argi izpiez alde guzietarik inguratzen duena.

Egun bethi arraia, bethi segura, eta nihoiz ere bertzetara aldatzen ganbiatzen eztena.

Ailitzaiku egun hura ilki! ailute hemengo kauza guziek fin hartu.

Egia da argi egiten derauela sainduei ardurako distiagarridura batez; baina lurreko saindura-leek eztute hura ikusten urrutitik eta miraillean baizen.

2. Badakite zeruko burgezek zein alegera den hango egoitza; bainan Evaren seme desterratuak hatsbeherapenez daude ikusteaz zein kiratz, samin eta unhagarri den hemengoa.

Bizitze hunetako egunak laburrak dire eta gaitzak, dolorez eta hersturez betheak: hemen hainitz bekatuk lizuntzen dute gizona, hainitz pasionek korapillatzen, hainitz beldurrek hersten, hainitz ausiak eta grinak barraiatzen, hainitz kuriostasunek erabilten, hainitz banaloriak amarratzen, hainitz enganamenduk eta falseriak inguratzen, hainitz neke-trabailuk porrokatzen, tentamenduk kargatzen, plazerek malgutzen eta flakutzen, pobreziak tristetzen eta lazeriatzen.

3. O noiz etorriko da gaitz horien finamendua? noiz libratuko naiz bizioen gathibutasun ondikozko hunetarik? Noiz, Jauna, zutaz xoilki orhoituko naiz? noiz neure bethean boztuko naiz zure baitan? Noiz izanen naiz egiazko libertatean traburik gabe, gorputzeko eta arimako garririk gabe?

Noiz izanen dut bake konpli hura, bake seguratu, eta ezin hautsizkoa, barreneko eta kanpoko bakea, bake alde guzietarik finkatua?

Jesus ona! noiz agertuko naiz zure aitzinera zure ikusteko? noiz miratuko dut zure erresuma-

ko loria? noiz izanen zaizkit gauza guziak gauza guzietan?

O noiz zurekin izanen naiz zure maitei egundainoz geroztik preparatu derauezun erresuman?

Gelditu naiz pobrerik eta desterraturik etsaien lurrean, non ezpaita egunorozko gerlarik eta inkontru gaixtorik baizen.

4. Arren konsola nazazu ene desterruan, emazazu ene dolorea, zeren ene bihotz guzia hatsberapenez dagotzu, eta zer ere konsolagarri munduak hemen eskaintzen baiteraut hura guzia karga zait.

Badut desira zutaz ene baitan barrena gozatzeko, baina ezin lot nakidikezu.

Guthizia handia dut zeruko gauzei itxekitzeko baina mundukoek eta hildugabeko pasioneek beheiti egoitzten naute.

Nahi dut gogoz eta arimaz ikan gauza guzien gainera, baina haragiak bortxaxen nau hekien azpian iartzera nahi ez tudalarik.

Hala ni ondikozko hori guduan hari nau neure buruarekin, eta neroni egin naiz neure unhaga-

rri; nahi baitu espirituak igan goiti, eta haragiak beherean egon.

5. O zer pairatzen dudan ene baitan noiz ere zeruko gauzak gogoan darabiltzadanean, haragizko gogoetak berehala tropelaka heldu baitzaizkit othoitzetan nagoela.

Ene Jainkoa, etzaitezila urrun ene ganik, etzaitezila koleraturik itzul zure serbitzaria ganik.

Aurtiki zazu zure zizmixtetarik bat ene bihotzera, eta hedoi goibel hek barraia tzatzu. Darda tzatzu zure tragazak, eta haiza bitez etsaiaren gogoramendu gogoragarri guziak.

Bil etzatzu ene sensuak gorputzeko eta arimako ahalak zure gana, ahants diatzakidatzu munduan diren guziak, indazu indarra bizioen itxurapenen orhoitzapenen egoitzteko eta mesprezatzeko.

O egundainoko egia hel zakizkit, beldurrez banitateak eraman nazan. Zatozkit, zeruko ezintasuna, eta lizunkeria guzia bihoa ihesi zure aitzinetik.

Barka diazadazu halaber zure miserikordia noiz ere orazionean zutaz bertzerik baitarabilla gogoan: egiaz aithortzen baitut hagitz ohitua naizela gogor barraiatzen eta errebelatzen.

Hainitzetan eznago ene gorputza xutik edo iarririk dagoen lekuan: aitzitik nora neure gogotek bainaramate, han naiz geienik. Non baita ene gogoa, han naiz, eta ene gogoa maiz da maite dudan gauza den lekuan. Zertan ere naturalez edo usanzaz laket baitut, hura laster heldu zait burura.

6. Hargatik zuk, o egia bera zarena, ageriki erran duzu; non ere baita zure tresora, han da zure bihotza.

Zerua maite badut, zeruko gauzak plazerki darabiltzat gogoan.

Mundua maite badut, alegeratzen naiz munduko zori onaz eta gaitzaz tristetzen.

Haragia maite badut, haragizko plazerak gogoratzen zaizkit.

Espiritua maite badut, atsegin hartzen dut gauza espiritualetan pensatzeaz.

Hitz batez, zer ere maite baitut, hartaz gogotik minzo naiz eta bozten ere minzaten aditzeaz, bai eta maite ditudan gauzen figurak eta iduriak enekin daramatzat etxera.

Alabaina, doatsua da, Jauna, zure gatik krea-tura guziak bere ganik igortzen dituen gizona, eta naturalezari borxa eginik haragiaren guthi-ziak espirituko beroduraz gurutzatzen dituena, arren konszienza kalmaturik orazione garbirik ofrenda diazazun, eta lurreko gauzak kanpotik eta barrenetik etxaturik Angeruen biltzarrean sartzeko gai gertha dadintzat gatik.

BERROGOI ETA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

Sekulako biziaren desiraz, eta zein handi diren haren gatik guduan hari direnei agindurikako ontasunak.

1. Semea, noiz ere sentitzen baituzu sekulako doatsutasunaren zure baitara gainetik isurtzen dela, eta gorputzeko herstegeitik ilkiteko guthizia baituzu ene argia eta loria aitzin ondoko itzala gabe ikus dezakezuntzat: zabal ezazu bihotza eta har ezazu inspirazione saindu hura afezione oso batez.

Emoitzu gaineko ontasunari ahalik esker handienak, zeren horrela zurekin hari den, begitartetsuki bisitatzen zaituen, beroki atzartzen, bothe-retsuki alxatzen, beldurrez zure pisuz lurreko gauzetara eror zaitezin.

Ezen inspirazione saindu hura etzaitzu heldu zure burutik, asmutik edo enseiutik, baina xoilki gaineko graziatik eta Jainkoak egiten derautzun

begitartetik, bertutetan aitzina zaitez, humiltasun handiagoan iar zaitez, etorkizuneko gduetara prepara zaitez, niri zure bihotz osoz itxeki diazadazun, eta ene serbitzatzera borondate bero batez enseia zaitezin gatik.

2. Semea, hainitzetan suak erretzen du baina karra eztoa goti kea gabe.

Halaber batzuen desirak zeruko gauzetara eramaiten dira, eta guziarekin ere eztira libratuak haragizko pasionearen tentamendutik.

Hargatik Jainkoari hain beroki eske dagozkan hura bera eztute hutsik eta garbiki egiten haren ohoretan.

Halakoa da hainitzetan zure desira, zeinagatik erran baituzu hanbat kexatuko nenduzula.

Ezen ezta garbia eta konplia, nihork bere beharrez egiten duen serbitzua.

3. Eska zaite ez zuri atsegin eta probetxu ekartzen derautzuna, baina niri plazer eta ohore egiten derautana: zeren zuzenki iujeatzen baduzu, iarraiki behar zaizko ene ordenanzari, eta

hartaz kontu geiago egin behar duzu zure desirrez eta desiratuez baino.

Ezagutzen dut zure desira, eta zure hatsbeherapen uzuak enzun tut.

Nahi zenduke iadanik Jainkoaren umeen loriako libertatean bazinunde: iadanik sekulako palazioak eta zeruko herri bozkarioz betheak alegeratzen zaitu, ordea oren hura ezta oraino etorri: bertze denbora da oraino, erran nahi da, gerla denbora, travaillatzeko, eskuei eragiteko eta frogatzeko denbora da.

Baduzu desira guzien gaineko ontasunaz betheki gozatzeko, bainan hura ezin orai ardiets dezakezu.

Ni naiz ontasun hura, dio Jaunak, iguriki diazadazu Jainkoaren erresumak datorren artean.

4. Frogatu behar zare oraino lurrean eta hainitz gauzatan erabilli.

Batzutan izanen duzu konsolazione, baina satiamendu osorik etzaitzu emanen.

Indarsta zaite beraz eta bortitz naturalezak nahi eztituen gauzen egitera eta pairatzera ere.

Jauntsi behar duzu gizon berria bat, eta bertan batetara ganbiatu aldatu behar zare.

Hainitzetan egin behar duzu nahi eztuzuna, eta nahi duzuna utzi.

Bertzeek plazer dutena aitzinatuko da, eta zuk plazer duzuna gibelatuko.

Bertzeen erranak enzunen dira, zuk erraiten duzunak ezta konturik izanen.

Eskatuko dire bertzeak, eta emanen zaie, zu eskatuko zare, eta eztuzu deus ardietsiko.

5. Bertzeak izanen dira handi gizonen ahotan, eta zutaz ezta hitzik erranen.

Bertzei hainitz enplegu eta egiteko fidatu zaie, eta zu etzare deusetara gai idurituko.

Hargatik batzutan naturaleza tristatuko da eta hainitz eginen duzu hitzik erran gabe pairatzen baduzu.

Jainkoaren serbitzari fidela frogatzen ohi da gauza hautan eta hauk bezalakoetan, ikustea gatik nola egin diozokeon bere buruari uko, eta nola bere borondatea hauts dezaken.

Nekez aurkituko da gauzarik zertan hanbat premia duzun zure buruari hiltzeko, nola baita

zure nahiaren kontrako gauzak ikustea eta pairatzea: beregainki ordea mana zaitezinean arrazoin gabeko eta probetxu gutiagoko iduritzen zaitzun gauzarik egitera.

Eta zeren bertzeren eskuaren azpian iarriz geroztik ezin ausart baitzaitezke zure Nausiari buru egitera, hargatik iduri dagotzu gogor dela bertzeren borondateari iarraitzea zure buruko sentimendua utzirik.

6. Ordea, maitea, gogoan idukazu hain bertze neke traillauren fruitua, orhoit zaite laster ioaiten direla eta hekingsaria neurrigabekoa dela, eta ezterautzute garririk emanen, aitzitik konsolazio-ne handi bat atherako duzu zure pairutik.

Ezen orai hemen gogo onez utzten duzun borondate aphur hura gatik, zeruan izanen duzu zure borondatea sekulakotz konpliturik.

Han edirenen duzu nahi duzun eta desira dezakezun guzia. Han izanen duzu eskuetan nahiz diren ontasunen frankia, galtzeko beldurrik gabe.

Han zure borondateak, enearekin bat eginik, eztu desiratuko kanpoko gauzarik ez eta deus ere beretzat berezirik.

Han ezta nihor zure kontra iarriko, nihor zutaz arrankuratuko, nihork etzaitu trabatuko, nihork ezterautzu bidea hersiko: baina desiratu-ko ditutzun guziak batetan izanen tutzu begien aitzinean eta eskuetan, eta zure gogo aaseko dute eta gaineraino betheko.

Han ohore emanen derautzut pairatu dukezun laidoa gatik, laudoriozko mantua hartu duzun tristura gatik, eta sekulako kadira ene erresuman, zeren hemen azken lekuan iarri zaren.

Han ageriko da obedienziaren fruitua, boztuko da penitenziaren trailla, eta loriozki kororatuko da azpikotasun humilla.

7. Orain beraz iar zaite humilki guzien meneko, eta eztuzula axolarik nork hori erran edo manatu duen.

Baina Nausiak, edo zu baino gazteagoak edo zure adinekoak zerbait nahi badu zure ganik edo manatzen bazaitu, duzun artha handia den guzia

onera hartzeaz, eta egizu zure ahala hark nahia-
ren borondate garbi batez konplitzeko.

Bilha beza batak gauza bat, bertzeak ber-
tzea, loria bedi bata hunetan, bertzea hortan,
lauda bedi millatan eta millatan, zuk har ezazu
atsegin ez batean, ez bertzean, baina xoilki zure
buruaren mesprezioan, ene borondatean eta
ohorean.

Desiratzeko duzun guzia da, dela bizian, dela
hillean, bethi zure baitan Jainkoari loria eman
dakion.

BERROGOI ETA HAMARGARREN KAPITULUA

*Nola gizon deskonsolatuak behar
duen bere burua Jainkoaren
eskuetara ofrendatu.*

1. Ene Jainko Jauna, Aita guziz saildua, zarella orai eta bethierekotz benedikatua, zeren enekin egin den nahi duzun bezala, eta zeren egiten duzun guzia ona den.

Alegera bedi zure serbitzaria zure baitan, ez bere baitan, ez eta nihor bertzeren baitan.

Ezen zu xoilki, Jauna, egiazko alegrianza zare, zu ene esperanza eta koroa, ene bozkarioa eta ohorea.

Zer du zure serbitzariak zure ganik hartu duenez bertzerik, hala ere merezi gaberik?

Zureak dire eman eta egin dituzun guziak.

Pobre beharra naiz eta neketan nago ene gazte danik: batzutan tristetzen da ene arima nigarretaraino, batzutan ere nahasten da bere baitan hura akometatzen duten pasioneak gatik.

2. Nik desiratzen dut bakearen alegrianza konsolazioneko argian bazkatzen ditutzun zure umeen bakearen eske nago.

Bakea emaite eta, alegrianza saildua isurtzen baderautazu zure serbitzariaren arima betheko da kanta eztiz eta zure laudoriotan iarriko da.

Ordea apartatzen bazare hainitzetan egiten zaren bezala, ezin ibilliko da lasterka zure manamenduen bidean: baina iarriko da belhauniko bere bulharrari erauntsteko, zeren eztagoen atzo eta herenegun bezala, non zure argiak argitzen baitzuen haren gainean, eta non zure hegalen itzalaren azpian begiratzen baitzen oldartzen zaizkon tentamenduetarik.

3. Aita iustua eta bethi laudatzekoa, etorri da orena zure serbitzariaren frogatzeko.

Aita maitatzekoa, arrazoin da zure serbitzariak zerbait orai paira dezan zure amorioa gatik.

Aita sekulakotz ohoratzekoa, etorri da egundainotik etorteko zela zeneakien orena, non zure serbitzaria denbora gutitako kanpotik zapatuko

baita, non ordea berrenean bethi biziko baita zure begietan.

Aphur bat mespreza bedi, humil, beheiti eta flaka bedi gizonen aitzinean, porroka bedi pairuz eta langiadurez, berriz ere zurekin argi berriaren begian pitz dadin eta zeruan loriaz goza dadin gatik.

Aita saindua hala ordenatu duzu, eta hala nahi izan duzu, eta zer ere manatu baituzu, hura egin da.

4. Ezen maite duzunari egiten diozun grazia, hau da, paira dezala mundu hunetan zure amorioa gatik, noiz ere eta noren ere ganik hura utzten baituzu pairatzera.

Ezta lurrean deus egiten zure konseillua gabe, zuk aitzinatik ikusi gabe, ez eta arrazoin gabeki.

Jauna, on da enetzat zeren humildu nauzun, arren zure legeak ikas detzadan bihotzeko alxadurak eta soberaniazko burupeak egoitz detzadan gatik.

Probetxu dut zeren ahalkeak estali derautan bekokia, arren ene konsolatzeko lehen zuhe bilha noan ezen ez gizonen.

Handik ere ikasi dut zure ezin sondatuzko iujeamenduen beldur izaiten beldurtzen, ikusirik gaixtoa bezala iustua ere penatzen duzula ez zuzen eta arrazoin gabe.

5. Eskerrak, Jauna, zeren ezterauzkidatzun ene gaixtakeria barkatu, eta sensatu nauzun azote garratzez, dolore kolpeka iasarriz, eta hersturez inguratuz kanpotik eta barrenetik.

Ezta zeruaren azpian konsola nazakeienik zu baizen, ene Jainko Jauna, arimen zeruko midikua; zuk zaurtzen baituzu eta sendatzen Ifernuetaraino eramaiten eta atheratzen.

Bego zure gastigamendua ene gainean, eta zure azoteak dotrinatuko eta zuhurtuko nau.

6. Huna, aita maitea, zure eskuetan naiz, kurtzen naiz zure zigorraren azpian, eraunts diazadazu bizkarretik eta lepotik ene makurtasuna zure borondatearen eredura xuxen dezadantzat.

Egin nazazu diszipulu humil eta debozione-
tsu, egiten ohi duzun bezala, zure keinu guzieta-
ra prestik ibil nadintzat.

Neure burua eta neure ditudan guziak utzten
derauzkitzut xuxentzera: hobe da mende hune-
tan sensa nadin, ezen ez bertzean.

Badakizkitzu diren guziak batetan eta xehe-
roki, eta gizonaren konszienzian ezta deus ere
zure begietarik estalirik.

Badakuskitzu etorkizunekoak egin ditezin
baino lehen, eta eztuzu mengoarik nihork irakas
diazazun edo orhoit zaitzan lurrean egiten dire-
nez.

Badazaguzu zer den hoberenik ene aitzina-
menduko, eta zenbat balio duen tribulazioneak
bizioen herdoilduraren garbitzeko.

Egizu ene baitan zure plazer onak desiratzen
duen guzia, eta begiak eztetzatzula itzul ene
bizitze bekatutsutik: ezpaitu nihork hura zuk
baino hobeki eta klarkiago ezagutzen.

7. Egizu, Jauna, iakin dezadan iakin behar
dena, onets dezadan onetsi behar dena, lauda

dezadan prezatzeko zaitzuna, puxta dezadan zure begien aitzinean lizun eta itsusi dena.

Enazazula utz kanpoko begien ikustearen arauera iujeatzera, ez eta sententzia emaitera gizon frogatugabeen aditzearen arauera; aitzitik indazu grazia egiazko iujeamendu batez ikusten diren gauzen ezagutzeko eta berresteko espiritualen artetik, eta guzien gainetik zur plazer onaren borondatearen gauaz eta egunaz bilhartzeko.

8. Hainitzetan enganatzen dire gizonen sensuak iujeamendu emaitan, enganatzen dire halaber munduzaleak, ikusten direnak xoilki maitatuz.

Zertaz da gizona hobe, bertzeek hura handi idukia gatik?

Enganariak enganaria, ergelak ergela, itsuak itsua, eriak eria enganatzen du batak bertzea laudatuz, eta egiaz ahalke geiago egiten dio hari merezi eztuen laudoriorik emaitiaz.

Zeren San Francez humillak dioen bezala, zure begien aitzinean garena gare, eta ez geiago.

BERROGOI ETA HAMEKAGARREN KAPITULUA

*Obra humilletan iarri behar dela,
ezinez handienetan ezinez.*

1. Semea, ezin zaudezke bethi bertutearen desir beroan, eta meditazioneko gradurik gorenean: bainan ethorkizko bekatuare kutsua gatik premia duzu batzutan beherekoetara iautsteko, eta bizitze galkor hunen kargaren iasaiteko, nahi eztuzularik eta hartaz unhatua zarelarik.

Gorputz hilkizuna darabillakuino, bihotzean izanen duzu grina eta min.

Behar duzu beraz haragian zareino haragiaren pisuaz arrankuratu, zeren arduraki ezin zaudezken zeruko gauzen estudiatzen eta miratzen.

2. On da zuretzat lot zakizten orduan obra humillei eta kanpokoei, lan onetan zure burua arin dezazun, fidanza fermu batekin begira zaudezin noiz etorriko naizen, gainetik zuri bisita egitera, pazienza har dezazun zure desterrua,

eta gogoaren idortasuna, nik berriz beha diazazudan eta grina guzietarik libra zaitzadan artean.

Zeren hala eginen dut non ahantsiko baitzaizkitzu zure penak, eta gozatuko baitzare barreneko bake soil batez gozatuko baitzare.

Zure aitzinean hedatuko itut Eskiritura sainduen errepiradi ederrak, arren bihotza zabaldurik lasterka abia zaitezin ene menamenduen bidean.

Orduan erranen duzu bizitze hunetako pairuak eztirela konparatzekoak gure baitan agertuko den ethorkizuneko loriarekin.

BERROGOI ETA HAMABIGARREN KAPITULUA

*Gizonak eztuela uste behar merezi
duela konsolazionerik gastigurik eta
azoterik baizen.*

1. Jauna, eztut zure konsolazionerik ez eta zeruko bisitarik merezi; hargatik zuzenki enekin hari zare utzten nauzunean pobrerik eta desterraturik.

Ezen itsasoak ur xort bezanbat nigar isur ahal baneza, enuke hala ere merezi konsola nezazun.

Hargatik eztut merezi azoteaz eta gastiguaz bertzerik, zeren hainitzetan ofensatu baitzaitut, eta hainitz moldez eta oldez egin baitut bekatu; beraz kontuak eginik eta egiazko arrazoinak pisaturik eztut den konsolazionerik arinena merezi.

Ordea zu, o Jainko bihotzbera eta urrikalsua, zure obretarik bat ere galtzera nahi eztuzuna, zure ontasunaren aberatstasunak erakustea gatik miseriardiaren beharra dutenen gainen,

merezirik bat ere bere buruz ez tutelarik, konso-
latu nahi nauzu ni zure serbitzari hori nihork ezin
egin nazakeien maneraz.

Ezen zure konsolazioneak eztira gizonen
elkarrekiko solhasak bezalakoak.

2. Zer egin dut, Jauna, zuk niri zeruko konso-
lazionerik emaitokoz?

Enaiz orhoit deus nik egin dudala, bainan bai
bethi gaixtakeriara lixturtua eta oneratzera nagi
izan naizela.

Egia da eta ezin uka dezaket. Bertzela erran
baneza, iar zindezke ene kontra, eta elizate ene
alde minzo litekeienik.

Zer merezi dut ene bekatuak gatik, Ifernuaz
suak eta sekulako suaz bertzerik.

Egia aitortzen dut den trufamendurik, laidorik
eta mespreziorik handiena merezi dudala eta
eztagotala zure serbitzari deboten kontutan sar-
tzea.

Eta hori damurekin enzuten dudalarik, bada-
rik ere egiaren amorioz, nahi naiz neroni akusa-
tu egin ditudan bekatuez, arren zure miserikor-
dia errazkiago ardiets dezakedan.

3. Zer erranen dut nik hobenduri eta ahalke guziez bethehorrek?

Ahorik eztut hitzik erraiteko, hunen baizen bekatu egin dut, Jauna, bekatu egin dut: urrikal nakizula, barka diazadazu. Utz nazazu aphur bat ene dolorearen plainatzera, lur ilhunera, lur herioko beltzturaz estali hartara noan baino lehen.

Zer nahi duzu geiago hobenduria eta bekato-re esteiarra ganik, lekat bere bekatuak gatik bere bihotza urrikimenduz porroka dezan eta humil dadin baizen?

Egiazko urrikimenduan, eta bihotzeko humiltasunean iaiotzen da barkazinoaren esperanza, konszientzia asaldatua sosegatzen da, grazia galdua bihurtzen da, gizona begiratzen da etorkizuneko iujearen koloraren kontra, eta elkarri ilkitzen zaizko musu saindu bat emaitera Jainkoa eta arima penitenta.

4. Jauna, bekatuez urrikitze humilla da zure gogarako sakrifizioa, zure aitzinean usain hobea-go emaiten duena inzensuaren keak baino.

Bai eta urrikimendua da unguenta on hura nahi izan duzuna isur ledin zure oin sakratueta-
ra; zeren bihotz damuz porrokatua eta humildua
eztuzu egundaino arbuiatu.

Han da ihes lekua etsaiaren begietarik: han
xuxentzen eta garbitzen da, zer ere bertzenaz
eta nondik nahi makurtu eta lizundu baitzen.

BERROGOI ETA HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

*Jainkoaren grazia eztela balsatzen
gogoia lurreko gauzetan
dadukatenekin.*

1. Semea, ene grazia preziosa da, eztu nahi balsatu kanpoko gauzetan ez eta lurreko konso-lazionetan.

Behar ditutzu beraz graziari bidea hersten dioten guziak kendu zure ganik, nahi baduzu isur dadin zure ariman barrena.

Bilha zazu leku gorde bat zuretzat; laket beki-zu zure buruarekin bakarrik egoitea:

Etzabiltzala nihorekin solas egiten; baina egiozu Jainkoari othoitz debotik, zure bihotza urrikimendutsu eta konszientzia garbi idukiteko.

Eztagizula munduaz konturik zenbat ere handia baita.

Preza zazu Jainkoari behatzen dioten gauzetan estudiantzea eta egoitea kanpoko ibilte guziak baino.

Zeren ezin bat da niri itxeki diazadazun eta bertan iragaiten diren plazerei zarraizten.

Urrundu behar zare zure ezagunetarik eta adiskidetarik, eta munduko konsolazione guziak edeki behar diotzatzu zure espirituari.

Hau da Jondone Petri Apostolu doatsuak egiten duen othoitza: Jesusen adiskide fidelak mundu hunetan egon ditezin kanpoko eta saindurale bezala munduko guthizietarik apartaturik.

2. O zein findanza handi izanen duen hiltzerakoan, nor ere mundu hunetan deusi ezpaitatxe-ko afekzionez.

Baina espiritu eriak eztaki oraino zer den bihotza horrela idukitea guzietarik apartaturik eta sensuetara emanikako gizonak eztu gizon barrenekoaren libertatea ezagutzen.

Halarik ere nahi badu egiazki espiritual izan, uko egin behar deraue hala hurbil, nola urrun diren guziei; eta nihoren ere ganik ezta geiago begiratu behar bere burua ganik baino.

Zeroni zure buruari osoki garaitzen bazaizko, bertze gainerakoak errazkiago azpirako tutzu.

Garaitirik handiena da bere buruaren jaun eta errege iartzea.

Ezen nork ere bere burua baitaduka bere azpiko eta meneko, hala nor guthiziak amor egin diozon arrazoinari eta arrazoinak Jainkoa guzietan obedi dezan, hura egiazki da bere buruaren nausi eta munduko jaun.

3. Baldin perfekzioneko gradu hunetara heltzeko desirik baduzu, bihotz handiz hasi behar zare, eta aizkora errora eman behar duzu, zure burua gana eta ontasun partikular eta materiazko guzietara ditutzun inklinazione gordeen, estalien eta desordenatuen ebakitzeko eta atheratzeko.

Zeren gizonak sobera desordenatuki bere burua maite baitu, handik sortzen da eta han dago errotik athera behar den guzia hurre eta halako gaitzari garaituz gero, berehala bake eta kalma handia egingen du.

Ordea zeren gutiak enseiatzen baitira bere buruari hiltzera eta ezpaitire bere ganik kanpora

osoki ilkiten, hargatik bere baithan korapillatuak daude, eta espirituz arimaz ezin alxa ditezke berak baino gorago.

Baina nork ere desira baitu enekin trebeki ibilteko, behar ditu bere afekzione gaixto eta desordenatu guziak bildumatu, eta nahiz den kreaturari amudio partikular batez lotzeko ahal lukeien guthizia ebaki behar du eta iraitzi.

BERROGOI ETA HAMALAU GARREN KAPITULUA

*Naturaleza bertzela eta grazia
bertzela hari direla.*

1. Semea, beha zazu erneki nola hari diren naturaleza eta grazia, zeren xoil sotilki hari dira bata hunela eta bertzea horrela, eta nekez nihork ezagut dezake bata bertzerik, guziz espiritual eta bere baitan argitua ezpada.

Egiaz badute guziek onaren desira, eta hitzetan eta obretan erakusten dute zerbait onik nahiz hari direla, hargatik on-iduriak hainitzak enganatzen dire.

Naturaleza arteza da, hainitzak bereganatzen tu, sareetan atzemaiten eta enganatzen, eta bethi beretzat azkenik hari da.

Grazia orde sinpleki dabilla, gaixto iduri guzietarik apartatzen da, eztu nihoren aitzinean enganiozkorik hedatzea, gauza guziak egiten tu Jainkoaren amorio hutsez, eta haren baitan pausatzen du bere azken xedean bezala.

2. Naturaleza nekez hil nahia da, ezin paira dezake nihork hura herts dezan, nihor garai dakion, nihork aspira eta hez dezan.

Graziak gogoia daduka mortifikazionera etxatua, iartzen da sensuetarasunaren kontra, bilha dabilla nork hura azpirako duen, desiratzen du norbait nausi dakion, ezta bere libertateaz gozatu nahi, atsegin du nausiaren gobernuaren azpian egoiteaz, ezta desirik nihoren iaun izaiteko, baina bai Jainkoaren azpiko bethi bizitzeko, ibilteko eta egoiteko, eta Jainkoa gatik prestik dago guzien meneko ahalik apalkiena iartera.

Naturaleza bere probetxua hari da, eta beha dago zer irabazia heldu zaion bertzetarik.

Graziak ezta konsideratzen zer zaion berarion, eta zeren premia duen baina behatzenago du zerk egiten derauen hainitz bertzerik probetxu.

Naturelezak gogotik hartzen du egiten zaion ohorea eta erreberenzia.

Graziak fidelki emaiten dio Jainkoari den ohore eta loria guzia.

3. Naturaleza ahalkearen eta mesprezioaren beldur da.

Grazia atsegin du Jesusen izena gatik laidoak pairatzeaz.

Naturalezari on zaio alfer egoitea, eta maite du gorputzeko pausua.

Grazia ezin dagoke zerbait egin gabe, eta lanari lotzen zaio besarka.

Naturalezak nahi tu gauza kuriosak eta ederzalea da, arunterak eta lodiak arbuiatzen tu.

Graziari laketzen zaio sinpletan eta mendretan, latzak eztitu mesprezatzen eta aldagarri ihetzerik iauntsteaz ezta nardatzean.

Naturalezak behatzen du oraiko gauzetara, bozkariotzen da lurreko irabaziez, damutzen da galtzeaz eta gaizki erran arin batez tarritatzen da.

Graziak behatzen du sekulakoetara, eztatxete mundukoei, deus galdua gatik ezta aldartzetzen, hitz gaitzez ezta haserretzen, zeren eman baitu zeruan bere tresora eta bozkarioa non ezpaita deus ere galtzen.

4. Naturaleza guthiziosa da, gogotikago hartzen du emaiten duen baino, bereziki bere dituenak maite ditu.

Grazia bihotzbera da, trebe eta largo guziekin, ihesi doako beretakotasunari beretzatasunari, gutiz kontetatzen da, eta badaduka hobeago dela emaita, ezen ez hartzea.

Naturaleza eramaiten da kreaturetara, bere haragira, banaloriara eta solhaskerietara.

Graziak erakartzen gaitu Jainkoa gana eta bertutetara, uko egiten deraue creaturei, ihes egiten dio munduari, gaitz daritste haragiko guthiziei, horra-harako ibilteak hertsten tu, ahalkatzen da jendeen artera agertzeaz.

Naturalezak desiratzen du kanpoko konsolazionea, sensuen auerako atsegirik jartzeko.

Graziak bilhatzen du Jainkoa baitako konsolazionea, xoilki eta guzien gaineko ontasunean nahi du bere plazera hartu ikusten diren gauza guziak largaturik.

5. Naturalezak egiten duen guzia egiten du irabazia eta bere probetxu partikulara-gatik, deus eztaidike dohainik, bainan esperantzatzen

da bere ongi eginak gatik hain bertze edo geiago, laudorio edo fabore ardietsiko duela, eta haren desira da handiro preza dadin egiten edo emaiten duen guzia.

Grazia ordea eztabilla munduko gauzarik bilha, eztu Jainkoaz bertzerik nahi saritzat, eta bizitzeko beharrez bezanbatean eztu geiago desiratzen sekulako ontasunen ardiesteko premia duen baino.

6. Naturaleza bozten da hainitz ahaide, adiskide eta urko izaiteaz: loriatzen da bere nobleziaz eta etorkiaz, gogalgintzen da handiekin, aberatsak lausengatzen tu, eta bera bezalakoak balakatzen.

Graziak bere etsaiak berak maite itu, ezta burupetzen hainitz adiskide izana gatik, eztaduka konturik bere iaialekuaz eta aitzineko burasoz, hetan bertute geiago edireiten ezpada bertze abantailik baino: faboratzenago du pobrea, aberatza baino, urrikariago du jende xehea, bothere dutenak baino: lakatzen zaio egiatiekin eta ez enganariekin. Prestuak bethi gonbidatzen tu hoberatzeko ieloskortasun saildu batetara, eta

bere bizitze tailluaren bertuteez moldatzera Jainkoaren Semearen gainean.

Aholkatzea gonbidatzea.

Naturaleza laster arrankuratzen da zerbait eskas duenean, edo zerbaitek hura grinatzen duenean.

Graziak bihotz sail batez iasaiten du pobrezia eta haren ondoreak.

7. Naturalezak bereganatzen tu gauza guziak, berezat gudukatzen hari da, beretzat minzo da.

Graziak bihurtzen tu guziak Jainkoa gana, zeinaganik heldu baitira bere sortzetik: eztu erraiten baduela deus onik bere buruz, eztu urguilluzko buruperik hartzen, eztiharduka, eztu bere ustea prezatzenago bertzeenak baino, baina bere uste, sentimendu eta ezagutza iakintasun guzietan iarten da egundainoko zuhurziaren eta Jainkoaren iujeamenduaren azpian.

Naturalezak nahi ditu sekeretuak iakin eta berriak enzun: nahi du kanpora zerbait handi iduritu eta bere sensuez hainitz gauza frogatu:

nahi du ezagutua izan, eztu egin nahi laudorioz-
korik eta miragarrizkorik baizen.

Graziak eztu ansiarik elheberririk eta kuriosik
enzuteaz, zeren hori guzia sortzen baita natura-
lezaren kutsu zaharretik, iakinik eztela lurrean
deus berririk eta diraukeienik. Irakasten du sen-
suen hersten, bere buruaren ez ederetsten eta
bantatzen, obra laudatzekoen eta miretstekoen
humilki estaltzen, gauza eta iakintasun guzieta-
rik arimako probetxuaren, Jainkoaren laudorioa-
ren eta ohorearen atheratzen.

Eztu nahi nihork hura edo haren den gauzarik
lauda dezan, baina haren desira da gauza
guziak bere karitate hutsez partitzen dituen Jain-
koa benedikadin bere dohainetan.

8. Grazia hau naturaleza gaineko argia da,
Jainkoaren dohain berezi bat, eta, ongi minza-
tzen hautatuen sigillua, eta sekulako salbamen-
duaren seinalea, bahia gizona lurreko gauzetarik
zerukoaren amudiora alxatzen duena, eta haragia-
ren arauera zebillana espiritual eta debozionetsu
egiten duena.

Zenbatenez bada naturaleza zapatzenago baita eta hezten, hanbatenaz grazia handiagorik isurtzen da ariman barrena, eta egunetik egunera barreneko gizona bisita berriez Jainkoaren imajinaren arauerako bihurtzen da.

BERROGOI ETA HAMABORTZGARREN KAPITULUA

*Naturalezaren gaixtaduraz eta
Jainkoaren graziaren indarraz.*

1. Ene Jainko Jauna, zure imajinara eta idurira kreatu nauzuna, indazu grazia hura, zeina erakusi baituzu hain handia eta premiazkoa dela ene salbamenduko, arren bekatutara eta galtzera naraman ene naturaleza gaixtoari garait ahal nakion.

Zeren ene haragian sentitzen dut bekatuaren legeak ene espirituaren legeari gerla egiten dioela, eta gathibu naramala hainitz gauzetan sensuen obeditzera, eta haren pasionei ezin egin diezeket buru, zure grazia guziz saildua heltzen ezpazait, eta ene bihotzean barrena beroki sartzen ezpada.

2. Zure graziaren eta are grazia handiaren beharra da, bethiere gaixtarasunera bere gazte danik isuria den naturalezari garaitzeko.

Ezen hura eroriz geroztik Adam lehen gizonaren faltaz, eta bekatuak hura lizundu zuen bezain sarri, notha eta kutsu haren pena iausti zen gizon guzien gainera.

Hala non zuk eder, on eta xuxen kreatu zenduen naturaleza hura bera orai hartzen baita naturaleza nothatuaren biziotzat eta flakadura-tzat, zeren azkendu zaion inklinazioneak hura baitarama gaizkira eta behereko gauzetara.

Ezen gelditu zaion indar aphurra hautsaren azpian estalirik datzan su inhar bat bezalakoa da.

Huna da arrazoin naturala bera hagitz ilhundu eta lanbo handiz inguratua, oraino onaren ongiaren eta gaixkiaren artean iujeamendu emaiteko bothere duena, eta ezagutzeko zein urrun diren bata bertzetik egia eta gezurra, indarrik eztuelarik on zaionaren konplitzeko, eta gozaten eztelarik argi betheaz, ez eta bere afekzioneeren osasunaz.

3. Hargatik, ene Jainkoa, neure barreneko gizonaz bezanbatean laketzen zait zure legean, dakidala zure manamendua ona, iustua eta saindua dela, eta irakasten derautala gaizkitik eta bekatutik ihes egitea.

Bainan haragiaz serbitzatzen dut bekatuaren legea, sensuak geiago obeditzen ditudala arrazoina baino.

Halakotz borondate ona datxet, bainan ez tut edireiten haren konplitzeko indarrik.

Hainitzetan deliberatzen dut hainitz ongiren egitera, baina zeren grazia eskas baitut ene flakotasunari heltzeko, kontrako aphurra gatik gibelat itzultzen naiz eta flakutzen.

Handik heldu da ezagutzen dudala perfekzio-ne bidea eta klarki asko ikusten dudala nola egin behar dudan, bainan ene gaixtaduraren pisuaz kargaturik eta zapaturik enaiz alxatzen hobere-netara.

4. O Jauna, zein premia handia dudan zure grazia hel dakidan, ongi egiten hasteko aitzinatzeko eta konplitzeko.

Zure grazia gabe deusik eztaidiket: bainan hura laguntzen bazait eta bortitzten banau, badaidiket den guzia zure baitan.

O grazia egiazki zerukoa, zeina gabe ezpaitu-kegu merezimendurik, eta ezpaita kasurik egin behar naturalezako dohain eta abantail guziez.

Ofizioek, aberatstasunek, edertasunak, indarrak, espirituak, ederki minzatzeak eztute deus balio zure aitzinean, Jauna, zure grazia gabe.

Ezen naturalezako donuak orobat dire pres-tuentzat eta gaixtoentzat, baina grazia edo kari-tatea da hautatuen abantail eta dohain berezia, estimatzen baitira sekulako bizi-az gozatzeko gai eta merezient hartaz seinalatuak direnean.

Grazia hura hain da beregainekoa, non hura gabe deus ere ezpaita prezatzen, ez profeziako donua, ez, mirakuillu egitea, ez eta zer ere kon-tenplazione handi eta gora nahi den.

Are geiago, eztira zure gogarakoak, ez fedea, ez esperanza, ez eta bertze bertute guziak kari-tatea eta grazia gabe.

5. O grazia guziz doatsua, gogoz pobre dena bertuteez aberatsten duzuna, eta hainitz untasunez aberatstua bihotzez humil egiten duzuna.

Zato, iauts zaite ni gana, bethe nazazu goizean zure konsolazioneaz, beldurrez goga unhaturik eta idorturik flaka dadin ene arima.

Othoitzez nagotzu, Jauna, ediren dezadan grazia zure aitzinean, zeren aski dut zure grazia, izaiten ezpadut ene naturalezak desiratzen duen bertze gainerako gauzarik.

Hainitz tribulazionek tentatzen eta penatzen banaute ere enaiz gaitzen beldur izanen zure grazia enekin badago.

Hura da ene indarra, hark konseillu ematen deraut, hura heltzen zait eta laguntzen.

Hura etsai guziak baino botheretsuago da eta zuhur guziak baino zuhurrago.

6. Hark egia erakusten du, dotrina irakasten, bihotza argitzen, hersturetan konsolatzen, tristezia kentzen, beldurra kanporatzen, deboziona azten eta nigar sainduak erakartzen.

Zer naiz ni hura, egun ihar, tronko, sokil ezdeusetako eta etxatzeko bat baizen?

Beraz, Jauna, aitzin bekit zure grazia, iarraiki bekit, eta bethi idukinzala obra onetan ernerik lesu khristo zure seme maitearen amorez. Biz hala.

BERROGOI ETA HAMASEIGARREN KAPITULUA

*Behar diogula gure buruari uko egin
eta gure Salbatzaileari iarraiki
gurutzeko bidetik.*

1. Semea, zenbatenaz geiago ilki ahal baitzaitezke zure ganik hanbatenaz barrenago ene baitara iraganen ahal zare.

Nola deus ere kanpotik ez desiratzeak egiten baitu barreneko bakea, hala barrenetik bere buruaz billusteak juntatzen du arima Jainkoarekin.

Nahi dut ikas dezazun zure buruaren osoki utzten ene borondatearen eskuetan, deusik kontra erran eta arrankuratu gabe.

Zarraizkit: Ni naiz bidea, egia gabe ezta eza-gutzerik, bizia gabe ezta bizitzerik.

Ni naiz iarraiki behar zaizkon bidea, zinetsi behar duzun egia, esperanzatu behar zaituen bizia.

Ni naiz ezin errebela diteken bidea, ezin engana dezaken eta ezin engana diteken egia eta mugarri gabeko bizia.

Ni naiz bide xuxenena, guzien gaineko egia, egiazko bizia, bizi doatsua hasten gabeko bizia.

Ene bidea bazaude, ezagutuko duzu egia, eta egiak libratuko zaitu, eta sekulako bizia ardietsiko duzu.

2. Nahi baduzu bizian sartu, begira tzatzu ene manamenduak.

Nahi baduzu egia ezagutu, zinets nazazu.

Nahi baduzu ene diszipulua iarri, uko egiozu zure buruari.

Nahi bazaizko bizitze doatsuari iabetu, mespreza zazu presenteko bizia.

Nahi baduzu zeruan gradu handirik, humilzaite munduan.

Nahi baduzu enekin errege iarri, iasan ezazu gurutzea enekin.

Ezen gurutzearen serbitzariak xoilki kausitzen dute doatsutasunaren eta egiazko argiaren bidea.

3. Ene Jesus Jauna, zeren zure bizia hersia baita eta munduak mesprezaturik, indazu grazia zuri iarraiki nakizun mundua mesprezaturik.

Ezen ezta serbitzaria bere Jauna baino handiago, ez eta diszipulu nausiaren gaineko.

Manaia bedi zure serbitzaria zure bizitzean, zeren han dago ene salbamendua eta egiazko saindutasuna.

Zer ere hartaz kanpoan irakurtzen edo enutzen baitut, ezteraut bihotza alxatzen ez eta plazer osorik emaiten.

4. Semea, gauza hauk guziak ezagutzen eta irakurri ditutzunaz gero, doatsu izanen zare konplitzen badituzu.

Nork er baitakizki ene manamenduak eta begiratzen baititu, hark maite nau, eta nik hura izanen dut maite, hari agertuko natzaio eta iara-raziko dut enekin ene aitaren erresuman.

Jesus Jauna erran eta prometatu duzun bezala, egin ere bedi hala, eta ainadin merezidun gertha.

Hartu dut, hartu gurutzea zure eskutik hura jasanen dut eta jasanen heriotzeraino, soinean eman derautazun bezala.

Egiazki Giristino prestuaren bizitzea da gurutzea, baina parabisura gidatzen duen gurutzea.

Hasi naiz, enaiz zilhegi gibelat itzultera, ezta gurutzeko bidea utzi behar.

5. Ea anaiak, goazen elkarrekin, Jesus izanen da gurekin: Jesusen amorioz gurutze hau hartu dugu, gaudezin gurutzean Jesusen amorioz.

Hura da gure Kapitaina eta aitzin gidaria, helduko eta lagunduko zaiku.

Horra gure erregea aitzin dabilku, hura gure alde iarriko da gure etsaien kontra.

Garraizkon gizon gisa, eztela nihor beldur izialdurak gatik: gaudezin prestik gerlan bihotz dun hiltzera, eta eztagiogula, gurutzeari ihes egiteaz.

BERROGOI ETA HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

*Eztuela gizonak bihotza galdu behar
zenbait hutsetan erortzen denean.*

1. Semea, plazerago dut nihork inkontru gaitzetan hartzen duen konsolazioneaz, ezen ez zori onean duen konsolazioneaz eta debozio-neaz.

Zergatik tristatzen zare zerbait makur egin duzulako eranzuteaz?

Handiagorik baliz ere, etzinen hargatik higitu beharko.

Bainan orai utzazu iragaitera: ezta lehena, ez berria, ez azkena ere izanen, hainitz bizi bazare.

Gizon aski zare deus kontrakorik bidera etzaitzunean ilkiten.

Emaiten duzu ere konseillu onik, eta badakizu bertzei bihotzaren alxatzen hitz ederrez: baina ustegabeko tribulazionerik hurbiltzen

denean zure athetara eskasten zara konseilluz eta indarrez.

Konsidera zazu gauza xipietan maiz frogatzen duzun zure erorkortasun handia.

Badarik ere hori guzia egiten ohi da zure salbamenduko, horrelakorik eta bertzerik gertatzen denean.

2. Athera zazu hori guzia bihotzetik ahalik hobekiena, eta ukitu bazaitu eztezazula hargatik bihotza gal, eta etzaitzala hainitz denboraz iduki nahasirik eta korapillaturik.

Ezpere paira zazu emeki ezin badezakezu alegeraki.

Halakorik ezin enzun badezakezu gogotik, eta zure baitan tarritatzen bazare, itxeko zu zure buruari eta eztezazula zure ahotik ilkitera utz flakoei eskandalurik eman diezeken hitz desordenaturik.

Buelta alxatu den hura laster kalmatuko da, eta grazia bihur dadinean barreneko dolorea eztituko da.

Bizi naiz oraino, dio Jauna, prestik zuri heltzera, eta ohi danik geiago konsolatzera, ene baitan

fidatzen bazara, eta debotki deitzen banauzu zure gana.

3. Garela bihotzdun, eta para zaite gehiagorik pairatzera.

Ezta guzia galdu, maiz sentitzen baduzu ere tribulatua eta garratzki tentatua zarela.

Gizon zara eta ez Jainko: haragiz zara, ez Angeru.

Nolatan ahal zinundezke bertuteko estatu ber-batetan, hori Angeruari zeruan eta lehen gizonari lur parabisuan faltatu zaienaz geroztik?

Ni naiz tristerik nigarrez daudenak libratzen eta sendatzen ditudana, eta bere flakotasuna ezagutzen dutenak ene Jainkotasunera goititzen ditudana.

Jauna, benedikatua dela zure hitza, hitz ezta, ene ahoan ezti ber eska eta ezta baino eztiago.

Zer neidike hain bertze tribulazionetan eta hersturetan borthitzten ezpanenduzu zure hitz sainduetz?

Baldin noizpait finean heltzen banaiz salbamenduko portura, zer ansia dut zer eta zenbat pairatu dukedan?

Jauna, indazu fin ona, indazu grazia mundu
hunetarik doatsuki ilkitzeko.

Zarela nitaz orhoit, ene Jainkoa, eta bide
xuxena gida nezazu zure erresumara. Biz hala.

BERROGOI ETA HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

*Gaineko gauzak eta Jainkoaren
iujeamendu gordeak eztirela
sondatu behar.*

1. Semea, begirauzu gaineko gauzez eta Jainkoaren iujeamendu gordeez minzatzetik eta ihardukitzetik: zergatik hau hunela utzten den, eta hura halako gradura alxatzen den?

Zergatik bata horreinbat ondikatzen den, eta bertzea hain beregain goititzen den.

Horrelakoek iragaiten dute gizonaren indar guzia, eta ezta arrazoinik, edo eskolako disputaturik Jainkoaren iujeamendua sonda dezakenik.

Abantaillatzen den.

Noiz ere bada etsaiak halakorik ekartzen bairautzu gogora, edo are iakin nahi lilibiri batzu galdez baitagozkitzun, ihardets diekezu profeta-
ren hitz hunez:

Justua zare, Jauna, eta zure iujeamendua zuzena da. Edo bertze hunez: Jaunaren iujeamenduak egiak dira eta orobat iustuak bata bertzearekin.

Ene iujeamenduen beldur behar da, eta ezti-
ra sondatu behar, ezen gizonaren adimendua
ezin sar diteke hetan barrena.

2. Ez egin ere galderik, eta ez solhasta sain-
duen abantaillez, zein den bertzea sailduago,
edo zer den handiago zeruetako erresuman.

Halako solhasak maiz pitzten tuzte liskarrak,
eta probetxu gabeko hitzmitzkeriak: superbiota-
suna ere, eta banaloria emendatzen dute.

Handik heldu dira inbidiak eta elkarren arte-
ko guduak, batak saildu bat eta bertzeak ber-
tzea superbioki abantailatu nahi duenean.

Horrelakorik iakin eta sondatu nahiak ezta-
karke probetxurik, aitzitik sailduei displazer
egiten deraue.

Zeren enaiz ni guduko Jainkoa, baina bakea-
ren Jainkoa naiz, eta ene bakea geiago datza
egiazko humiltasunean, buru handi nahitasu-
nean baino.

3. Batzu amorioaren beroz eramaiten dire saindu bat gana bertzea gana baino: ordea afekzio hura gizonaren burutikakoago da Jainkoa ganik baino.

Ni naiz saindu guziak egin ditudana, nik eman derauet grazia: nik ezarri tut lorian.

Nik ezagutzen tut bataren eta bertzearen merituak: ni aitzitu aitzindu natzaie neure dulzuraren benedizinoez.

Nik iakin dut zein diren ene maiteak, mendetik zen baino lehen, nik hek hautatu itut munduaren artetik, eta hek enaute ni lehenik hautatu.

Nik deitu itut ene graziaz, erakarri ene miserikordiaz, eta hainitz tentazione suertez erabilli.

Nik konsolazione beregaineko konsolazio-neak isuri tut hekin baitara, onean irauteko indarra eman derauet, eta hekin pazientzia koroatu dut.

4. Nik lehena eta azkena ezagutzen dut: nik besarkatzen tut guziak ezin estimatuzko amorioz.

Ni naiz laudatzekoa ene saindu guzietan, ni naiz guzien gaineratik benedikatzekoa eta ohoratzekoa hetarik batbedera baitan, zeren hain lorioski handitu eta aitzinetik hautatu ditudan, bere buruz etzutelarik aitzinetiko meriturik bat ere.

Nork ere beraz mesprezatzen baitu ene sainduetarik xipiena, eztu handiena ere ohoratzen, zeren nik xipia eta handia egin baitut.

Eta nor ere minzo baita zenbait sainduaren kontra, ene kontra ere eta zeruko erresuman diren guzien kontra minzo da.

Guziak dire bat karitatearen amarrak, guziek gogo bat, guziek nahi bat, eta guziek orobat elkar maite dute.

5. Bai eta (zein baita hainitzez geiago) maiteago naute bere burua eta bere merituak baino.

Zeren bere gainera eramanik, eta bere burua ganako amudiotik kanpora erautsirik, guziak bere indar guzietatik abiatzen dira ene amoriora, eta hartan gozoki pausatzen dute.

Ezta deus ere hek ene ganik itzul edo behera detzakeienik, zeren nola egundainoko egiaz bet-

heak baitira ezin iraungizko karitatearen suaz erretzen dire.

Beraz haragiaren eta sensuen arauerako gizonak, nola ezpaitakite bere atsegin partikularrez bertzerik onetsten, beudez ixilik ene sainduen estatuaz eta graduaz minzatu gabe.

Batari edekiten diote eta bertzeari geiago emaiten bere buruko nahiaren arauera, ez ordea sekulako egiari laket zaion bezala.

6. Hainitz baitan hori egiten du iakingabeak, beregainki ordea nihork guti argitua izanez nekez dakienean amudio osoki espiritualaz oneritsten norbaiten oneritsten.

Horrelakoak bere gogo naturalaz eta munduko maitarasunaz oraino hagitz eramaiten dira saindu baten edo bertzearen amoriora, eta beherako gauzetan iarriak diren arauera iduri dagote orobat dela zerukoez.

Bainan ezin erranezko tarteak eta diferentzia da bertute eta perfekzione aphuretako gizonak pensatzen tuzten eta argituek gaineko argiak erakusirik miratzen eta konsideratzen dituzten gauzen artean.

7. Begirauzu bada, Semea, zure iakinari garaitzen zaizkon gauzez kurioski minzatzetik: baina duzun artha eta hala egizu nor den xipiena ediren ahal zaitezin Jainkoaren erresuman.

Nihork baleaki ere zein lizen bertzeak baino sailduago eta handiago zeruetako erresuman, zer probetxu luke ezagutza hartarik, hura gatik humil ezpaledi barrenago ene aitzinean eta etzartzen ezpaliz ene izenari laudorio geiago emaiten?

Jainkoaren gogorago egiten du, nork ere bere bekatuen handitasuna eta bertuteen aphurtasuna gogoan baitaduka, eta zein urrun den sailduen perfekzionetik gogoan baitaduka, ezen ez darasanak eta dihardukanak zein den hekin artean handiena edo xipiena.

Hobe da othoitz eta nigar berroz sailduer gomendatzea eta hekin helzakitza gogo humillaz eskatzea, ezen ez hekin sekeretuak galde alferrez iakin nahiz ibiltea eta sondatzea.

8. Sailduak bereaz bere baitan kontentik eta ederki xoil kontentik daude, baldin gizonak ere

baleakite kontentik egoiten eta bere banaloriazko solhasetarik eta elhetarik ixiltzen.

Eztira loriatzen bere merituez, zeren ezta dukate deus onik dutela bere buruz; bainan aitortzen dute ontasun guzia ene ganik dela, zeren duten guzia nik eman baiterauen ene neurrigabeko karitatez.

Hain bethe dira ene Jainkotasunerako amudioz eta gairanoko bozkarioz non ezpaitute eta ezpaitukete loriaren eta doatsunaren eskasik.

Saindu guziak zenbatenaz gorago baitira lorian, hanbatenaz bere baitan humillago, enekin hurbillago eta nik onetsiago dire.

Halakotz badio eskiriturak, bere koroak erauntsten eta Jainkoaren aitzinean pausatzen zituztela, ahozpez iarri zirela bildotzaren aitzinean, eta sekula sekuloronekotz bizi dena adartu zutela.

9. Hainitzek galdegiten dute zein den Jainkoaren erresuman handiena, eta ezta kite, ea gaiak edirenen direnz xipienen artean kondatuak izaiteko.

Gauza handia da zeruan xipiena ere izaitea non guziak baitira handi, zeren guziak deitzen eta izanen ere baitira Jainkoaren ume.

Xipiena helduko da milletara, eta ehun urthetako bekatorea hillen da.

Zeren diszipuluek galdegin zutenean, zein izanen zen handiena zeruetako erresuman, hunelako ihardetspena enzun zuten.

Itzulten ezpazarete onera, eta haur xume bezalakoak egiten ezpazarete, etzarete sartuko zeruetako erresuman.

Nor ere bada bera humilduko baita haurxo hau bezala, hura da zeruetako erresuman handiena.

10. Zori gaitza bere burua xumeekin gogotik beheitu nahi ez tutenentzat, zeren zeruko erresumako athe xumeak hek ez titu utziko sartzera.

Zori gaitza halaber hemen bere konsolazio-neak dituzten aberatzentzat, zere pobreak sar ditezinean Jainkoaren erresuman, hek kanpoan egonen dira marraskaz.

Alegera zaitetze humillak, bozkario zaitetze pobreak, zeren Jainkoaren erresuma zuena da, baldin ordea egian leialki bazabiltzate.

BERROGOI ETA HEMERETZIGARREN KAPITULUA

*Jainkoa baitan xoilki finkatu behar
dela esperanza eta fidanza guzia.*

1. Jauna, zer da bizitze hunetan dudan fidanza? edo zein da ene konsolazionerik handiena zeruaren azpian ageri diren guzitarik?

Ez othe zu, ene Jainko Jauna, nola zure miserikordiak ezpaitu neurririk?

Non ongi kausitu naiz zu gabe? Non gaizki kausitu ahal naiz zu presentean zinela?

Nahiago dut zure gatik errumez egon, ezen ez aberatz zu gabe.

Lehen hautatzen dut lurrean zurekin saildura ibiltea, ezen ez zu gabe zeruko jaun eta iabe iartzea.

Non ere baitzara, han da zerua; non ere ezpaitzara, han da herioa eta ifernua.

Zu zare ene desira, eta halakotz premia eta beharra dut zure gana hatsbeherapen, nigar, oiur eta othoitz egiteko.

Finean ezin osoki fida naiteke nihor behar orduko helduko zaitala ene beharkietan, zu bai-zen ene Jainkoa.

Zu zare ene esperanza eta fidanza; zu zare ene konsolatzaillea eta fidelena gauza guzietan.

2. Guziak dabilta bere probetxuaren ondoan zuk ene salbamendua eta aitzinamendua xoilki gogoan dadukazu, eta gauza guziak itzultzen derauzkidatzu onera.

Largatzen nauzularik hainitz moldezko tenta- zionetara eta gaitzetara, hura guzia ordenatzen duzu ene probetxuko, dakidala zure maiteak milla moldez frogatzen tutzula.

Horrela frogatzen nauzunean etzaitut gutiago onetsi eta laudatu behar, zeruko konsolazionez bethe banenzazu baino.

3. Beraz zure baitan, ene Jainko Jauna, emai- ten dut ene esperanza eta ihes lekua: zure bai- ten ezartzen dut ene tribulamendu eta herstura

guzia, / Zeren nora ere begiak hedatzen baititut, eztut aurkitzen zure ganik kanpoan gauza flakorik eta eztagokeienik baizen.

Ezen hainitz adiskide izanak ezteraut probe-txurik ekarriko, defensari balentak ezin helduko zaizkit, konseillari zuhurrek ezin emanen deraut-tate balio duen ihardetsterik, Dotoren liburuek ezin konsolatuko naute, ezta gauza preziosik libra nazakeienik, ezta leku gorderik, azkarrik, eta plazersurik begira nazakeienik; zeroni hel-tzen, alde iartzen eta laguntzen ezpazaizkit, zuk bortitzten, konsolatzen, gidatzen eta begiratzen ezpanauzu.

4. Ezen zerk ere baitirudi on dela bakearen eta doatsutasunaren ardidetsteko, hura, zu kanpoan zarenean, ezta deus ere, eta egiazki ezin demake doatsutasunik bat ere.

Zu zare bada ontasun guzien xedea eta fina, zu zare biziaren punturik gorena, minzotasunen ondorik barrenera, eta zure baitan guzien gaine-tik esperanza izaitea da zure serbitzarien konso-lazionerik handiena.

Zure gana daude ene begiak alxaturik, zure baitan fidatzen naiz, ene Jainkoa, miseriakordien aita.

Benedika eta santifika zazu ene arima zeruko benedizinoaz, egin dadintzat zure egoitza saindua, zure sekulako loriaren iarlekua, eta zure handitasunaren tenpluan kausi ezta dintzat zure maiestatearen begiak ofensa detzan gauzarik.

Beha diazadazu zure ontasun handia eta neurrigabeko miseriakordia gatik, eta enzun ezazu herioko itzalaren herrian urrun desterraturik dabillan zure serbitzari gaizorren othoitza.

Begira eta salba zazu zure mutilkoaren arima hil beharrezko bizitze hunetako perillen artean, eta zure grazia lagundurik hura gida zazu bakearen bidetik bethiereko argiaren herrira. Biz hala.

LAUGARREN LIBURUA

Jesus-en Imitazioneaz Laugarren liburua.

Aldareko Sakramendu guziz adoratzekoaz, eta hartara behar bezala preparatzeko antzeaz.

Jesus-en amoriozko deia

*Zatozte ene gana nekaturik eta kargaturik zaudeten guziak, eta nik pausu eta indar berri emanen derautzuet, dio Jainkoaren Semeak. Matt. 11.28
Nik emanen dudan ogia, da ene haragia munduaren bizitzeko. Io. 6.51*

Har ezazue eta ian ezazue: hau da ene gorputza, zuen gatik eta zuentzat saldu-ren eta emanen dena. Hori egizue ene orhoitzapenetan. Matt.6. I. cor. II.

Nork ere iaten baitu ene haragia, eta ene odola edaten, hura ene baitan dago, eta ni ere haren baitan nago. Io. 6.56.

Erran eta erraiten derauzkitzuedan hitzak, espiritu eta bizia dire. Io.6.63

LEHEN KAPITULUA

Zer erreberenziarekin Iesus-en gorputz preziosa errezibitu behar den.

Arima debotaren ihardetspena

1. Hauk dire zure hitzak, o ene Iesus, egundainoko egia zarena; hek behingo aldian berean erran eztitutzularik, eta leku ber-batetan eskiribatua ezirelarik.

Zeren bada zureak, eta egiak baitire, behar ditut guziak hartu, zuri eskerrak emanik, eta zinetste ekarririk.

Zureak dire, eta zuk erranak; eta eneak ere dira, zeren hek athera batituzu ene salbameduko.

Gogo onez hartzen tut zure ahotik, arren barrenago sar ditezin ene bihotzean, eta hersikiago itxeki diozoten gatik.

Bihotzten naute horrelako bihotz beratasunezko hitz ezteik eta amoriozkoek: ordea ene

bekatuak izitzen naute, eta ene konszientzia lizunak gibelatzen nau zure sakramendu handi hortara hurbiltzetik.

Zure hitzen amolsurak erakartzen nau, ordea ene gaixtakeriek zapatzen naute bere hainitz izanez.

2. Manatzen nauzu fidanzarekin hurbil naki-zula, nahi badut zurekin izan parterik eta har dezadala hiltzearen kontrako ianharia, nahi badut sekulako bizia eta loria ardietsi.

Zatozte, diozu, ni gana nekatuak eta kargatuak zareten guziak, eta nik arinduko zaituztet.
Matt. 11.

O hitzaren ezia eta amolsua bekhatorearen beharrian! Zuk, ene Jainko Jauna, pobrea eta errumeza gonbidatzen baituzu zure gorputz guziz sailduaren mahainera eta partaletasunera!

Ordea, nor naiz ni, Jauna, zure gana ausartze-ko hurbiltzera?

(3 reg. 8.27) *Huna, zeru guziak eztire aski zure idukitzeko, eta badiozu, zatozte nigana guziak.*

3. Zer erran nahi du ohora begitartetsu, eta gonbidatze amolsu horrek?

Nolatan ausartuko naiz zure gana ethortzera; ezpaitut ene baitan deus onik ikusten halako buruperik hartzeko?

Nolatan sararaziko zaitut ene etxera, dakusadala maiz eta maiz zure begitarte begitartetsua ofensatu dudala?

Angeruak eta Arkanjeluak ikara dire, beldur dira Sainduak eta iustuak, eta zuk dioskuzu: *zatozte ene gana guziak.*

Zuk, Jauna, hori erran ezpazeneza, nork zinets liro egia lizela? zuk manatzen ezpazendu, nor lizate ausart hurbiltzera?

Huna, Noe gizon iustuak ehun urthetako trailla eman du lege zaharreko *Arka*. Arka zeritzon untzi famatu haren egiten bera buruaren salbatzeko jende gutirekin: eta ni nolatan oren batez prepara naiteke munduko kreatzaillearen ene baitara debozionerekin hartzera?

4. Moises zure serbitzari, zure adiskide handi eta berezi hark arka bat egin zuen ezin bustele-

ko zurez, hura ere urrez tatu zuen urrerik garbiena, hartan barrena Legearen taulak ekartzeko; — eta ni kreatura bustela ausartuko othe naiz zu lege egille, eta bizia emaille horren hain errazki errezibitzera?

3reg.6. Salomon Israeleko erregetarik zuhurrenak zazpi urthe eman itu tenplu miragarri baten egiten zure izenaren laudoriotan; zortzi egunez egin du haren konsekratzeko besta; milla bakezko hostia ofrendatu itu, eta lege zaharreko Untzia baketiarra tronpeta soinu, eta aleluiekin ezarri du preparatu zioen lekuan.

Eta nik munduan direnetarik ondikozkoen eta dohakabeen horrek nolatan sar araziko zaitut ene etxean; nekez baitakit oren erdi baten iragaiten debozitionean? hala ere aineza oren erditso hura bedere behar bezala iragan.

5. O ene Jainkoa, zenbat artha zedukaten aitzineko hek zuri zure gogorako serbitzurik egiteaz.

He! zein guti den nik egiten dudana! zein denbora labor emaiten dudana, preparatzen nai-

zenean zure sakramendu sailduaz othurunzatzera.

Gutitan gertatzen naiz osoki ene baitan bildurik, are gutitanago fuineko errebelamendu guzietarik libratu.

Eta egiaz zure lainkotasunaren salbagarrizko presentzian elitzaket ethorri behar eder ezten gauzarik, enenduke deusek ere trabatu behar, orduan ostatu behar dudana gero, ez Angerubatu, baina bai Angeruen Jauna.

6. Badarik ere hagitz bertze eta bertze dira Bakezko untzia bere errelikiekin eta zure gorputz guziz garbia bere ezin erranezko bertutekin.

Xoil bertze eta bertze dira Lege-zaharreko sakrifizioak, zeinak baitziren gerokoen aitzin-seinaleak, eta zure gorputz preziosaren sakrifizioa, zeina baita sakrifizio zahar guzien konplimendua.

Zergatik bada enaiz geiago irazekitzen zure ohorezko presentziaren aitzinean?

Zergatik enaiz artha handiagorekin preparamen zure sakramendu sailduaren hartzera; halaz eta Patriarka, Profeta, Errege are eta lehe-

neko Prinze saindu hek bere azpiko jende guziarekin halako debozionezko seinalerik zure Maies-tate sainduaren serbitzuan erakusi dutenaz geroztik?

Reg. 7.7. David Errege debozionez bethea bere indar guzietan dansan hari izan da Jainkoaren *Arkaren* aitzinean bere lehenagoko Burhasoei egin zitzaizten ontasunen orhoitzapenetan: hainitz moldezko organoak egin tu, Salmoak eskiribatatu itu, eta ordenatu du kanta ditezin alegrianzarekin, berak ere maiz kantatu itu gitarraren gainean, Espiritu Sainduaren graziak hura zerman arauera: irakasi dio Israeleko jendeari bihotz guziaz lainkoaren laudoriotzen, aho batez egunoroz handi etsten, benedikatzen eta ozpatzen.

Orduan halako debozionerik eta Jainkoaren laudoriozko orhoitzapenik egiten bazen lege zaharreko Aitaren prezentzian: nolako erreberentzia eta debozione orai nik, eta Gristino guziak behar dugu Sakramendu sainduaren aitzinean Iesus maitearen gorputz adoratzekoa hartzen dugunean?

8. Hainitzek laster egiten dute hainitz leku urrunetara Sainduen errelikiak bisitatzea gatik.

Espantuz iarten dira hekin mirakuilluzko obrak enzuteaz, Elizetako obradura handiak miratzen tuzte, hekin hezur sailduak muzuztatzen tuzte, sirikuz eta urrez estaliak direlarik.

Eta huna, zu hemen presentean enekin zare aldarean, o ene lainkoa, sailduen saildua, guzien kreatzaillea, eta Aingeruen launa.

Hainitzetan kuriostasunak, eta lehen ez ikusiak ikusi nahiak daramatza gizonak halakorik ikustera, eta handik probetxu eta oneramendu guti dakarkete, noiz ere behintzat horra hara baitabilta egiazko urrikimendurik gabe.

Hemen ordea Aldareko sakramenduan osorik eta bizirik zaude, ene Iesus Jauna, egiazko Jainkoa, et gizon egiazkoa: eta nor nahik sekulakotz salbatua izaiteko probetxu hainitz atheratzen du, noiz ere behar bezalako debozionerekin errezibitzen baitzaitu.

Baina zure gana ez du ni hor ekartzen edozein arintasunek, ez kuriostasunak, ez eta sensueta-rasunak; baina bai fede fermuak, esperanza debotak, eta karitate garbiak.

9. O lainkoa, munduko ezin ikusizko Kreatzaille, zein miragarriki hari zaren gurekin! zein ezteki eta graziozki ordenatan duzun zure hautatuekin! zeroni presentatzen baitzaizte sakramendu hunetan har zaitzaten gatik.

Hori segur garaitzen zaie adimendu guziei, horrek manera beregain batez arima deboten gogoak eta bihotzak bereganatzen tu eta irazekiten.

Ezen bere bizitze guzia oneramendura ordenatzen duten zure egiazko fidelek hainitzetan debozionezko grazia, eta bertuterako amudio handi bat ardietsten eta ekartzen dute Sakramendu saindu hunetarik.

10. O Sakramenduaren grazia miretstekoa, estalia eta gordea, Giristino fidelek xoilki ezagutzen dutena, fedegabekoa eta bekatuaren sehiek ezin froga dezaketena.

Sakramendu hunetan emaiten da grazia ispirituala, arimara bihurtzen da bertute galdua, eta bekatuak itsustu zuen edertasuna berritzen da eta berregintzen.

Grazia hura batzutan hain da handia, non, emaiten duen debozionea, bethe izanez, ez xoilki arimak, bainan eta gorputz flakoak sentitzen baitu indarrak emendatzen zaizkola.

11. Halakotz damugarri eta urrikalkizun gare gure epeltasuna eta ansigabetasuna gatik, zeren ezgoazen gogo handiagorekin gure Iesus-en errezebitzera, dakigula haren baitan datzala Salbatzeko diren guzien esperanza eta meritua.

Zeren hura da gure Saindugarria, libranza, eta libratze saria: hura da mundu hunetan dabil-tzanen konsolazionea, eta sainduen sekulako gozamena.

Beraz hagitz damutzeko gauza da, zeren geienek hain kontu guti dadukaten zerua arraitzen, eta mundu guzia mantenatzen duen misterio salbagarrizko hunetaz.

O gure bihotzaren itsua eta gogorra! ezpaitugu hain ezin erranezko dohaina prezatzen, eta egunorozko usanza dela kausa, erori et isuri baigare hari ez behatzeko ere kontura.

12. Zeren Sakramendu guziz saindu hau leku batetan xoilki egiten baliz, eta Apez bakoitz batek hura munduan konsekra baleza, zein desir handiz uste duzu jendeak lioaskeiela leku hartara halako Apezaren ikusteko, eta meza sainduaren enzuteko?

Bainan orai hainitz Apez egin da, eta gure Salbatzaillea hainitz lekutan ofrendatzen da, erakustea gatik lainkoaren gizona ganako amorioa eta grazia hanbatenaz dela handiagoa, zenbatenaz Sakramendu saindua leku geiagotan barraiatua baita.

Eskerrak derauzkitzut, o ene Iesus maitea, arimen egundainoko Arzaina, zeren gu pobre eta desterratu hauk nahi izan gaitutzun zure gorputz eta odol preziosaz othuruntzatu, eta zure aho bereko hitzez zure misterioen hartzera gonbidatu, erraiten deraukuzunean: *zatozte ene gana nekaturik eta kargaturik zaudeten guziak, et nik pausu eta indar berri emanen derautzuet.* Matt. 11.

BIGARREN KAPITULUA

Iainkoaren ontasun eta karitate handia erakusten zaiola gizonari Sakramendu Sainduan.

Arimaren hitzak

1. Jauna, zure ontasun eta misericordia handiaren gainean fidaturik eta permaturik, hurbiltzen natzaitzu, ni eria naizela ene sendatzailleari, gose eta egarria, biziaren ithurriari, errumeza zeruko erregeari, serbitzaria guzien launari, zure kreatura ene kreatori, deskonsolatua ene konsolatzaille urrikalsuari.

Ordea nondik heldu zait ontasun hura, zu zatozin ene gana?

Nor naiz ni, zu zerori eman zakizkidan?

Nolatan ausartzen da bekatorea zure aitzi-nean agertzera? Eta zuk nolatan nahi duzu bekatorea gana etorri?

Badazaguzu zure serbitzaria, eta badakizu eztuela bere baitan deus merezi duenik zuk ontasun hura dagiozun.

Aitortzen dut beraz neure deus gutitasuna, ezagutzen dut zure ontasuna, laudatzen dut zure bihotz beratasuna, eta eskerrak derauzkitzut zure karitate handiegia gatik.

Ezen zure loria gatik hori egiten duzu, ez ene mereziak gatik, arren zure ontasuna ezagutuko dezadan, karitate handiagoa sar dagidan, eta humiltasunari iarraitzeaz kontu geiago egin dezadan gatik.

Zeren bada halakoa baita zure borondatea, eta manatzen baituzu hala egia dadin, plazer duzuna plazer dut nik ere, eta nahi nuke ene gaixtotasunak traburik ekar ezpaleza.

2. O Iesus guziz eztia, guziz amolsua, zein erreberentzia eta esker handiak bethiereko laudorioekin zor zaizkitzun zure gorputz sakratuaren hartzekotzat! ezpaita gizonik aurkitzen haren handiresunak deklaratu dezakeienik.

Ordea zer gogorako dut komunione hunetan, ene launari hurbil nakionean: hura behar bezala

ezin ohora baitezaket eta halarik ere desira baitut haren errezebitzeko debozionerekin?

Zer pensa dezaket hoberenik ene salbagarririk, neure burua zure aitzinean osoki humildu, eta zure neurrigabeko ontasuna laudorioz ene gainera alxatu behar dudala baizen?

Laudatzen zaitut, ene lainkoa, eta gauza guzien gaineratik sekulakotz handi etsten.

Neure burua mesprezatzen dut, eta ene deus gutitasunean barrena zure azpian hondatzen.

3. Huna zu sainduen saindua eta ni ene bekatuen istilla.

Huna zu makurtzen zare ni gana, nik merezi ez tudalarik zuri behatzea.

Huna, zu heldu zara ene gana, nahi duzu enekin egon, gonbidatzen nauzu zure baraskaritara.

Ps.77. Eman nahi derautazu zeruko ianharia, eta *Aingeruen ogia* ixtera, zeina, egia erraitera, ezpaita bertzerik zu zeroni baizen; *zu baitzare ogi bizia, zerutik iausti zarena, eta munduari bizitzea emaiten diozuna.* Io. 6.

4. Huna nondik sortzen den zure amudioa, nondik ageri den zer kontu egiten duzun gutaz, zein esker eta laudorio handiak zor zaizkitzun grazia haukin ordain.

O zein salba eta probetxagarri izan den zure konseillua, Sakramendu hori ordenatu duzunean! zein othurunza gozo eta alegera, zu zero ni ianharitzat eman zaizkigunean.

launa, zein miragarri den zuk obratzen duzuna, zein botheretsu den, zure bertutea, zein ezin erranezko den zure egia.

Gen. 1., ps. 148. Ezen *hitz bat erran duzu, eta gauza guziak egin dira*, eta manatu duzuna berehala konplitu da.

5. Gauza miretstekoa, gure zinetstea merezi duena, eta gizonaren adimenduari garaitzen zaiona, zu ene lainko launa, egiazko lainkoa, eta gizon egiazkoa, ogiaren eta arnoaren iduri eta itxura mehe batzuen azpian osorik egoitea, hartzen zaituztenek ehotzen edo ahitzen etzaituzte-la!

Zuk, o guzien launa, nihoren beharrik eztuzuna, zure Sakramendua dela bide gure baitan

ostatatu nahi izan zarena, begira zazu ene bihotza eta gorputza kutsu guzietarik; arren konszientzia alegera eta garbi batez maizago zure misterioak egin, uki eta erabil ahal detzadan, eta beregainki zure ohoretan, eta zure Pasionearen bethiereko orhoitzapenetan ordenatu eta formatu duzun Sakramendua ene Sekulako Salbamendutan har dezadan gatik.

6. Bozkario zaite, ene arima, eta eskerrak emoitzu lainkoari, zuri nigarrezko haran hunetan utzi derautzun hain donu nobla eta konsolazione berezia gatik.

Zeren noiz ere misterio hura gogoan baitarabillazu, eta Iesus-en gorputz preziosa hartzen baituzu, orduan zure salbamenduko obra egiten duzu, eta partale egiten zara zure Salbatzaillearen merezimendu guzietan.

Ezen Iesus-en karitatea ezta nihoiz ere gutitzen, eta haren miseriak handia ezta sekulan ahituko.

Hargatik bethi behar zare bihotz berri batez hartara preparatu, eta zure salbamenduko mis-

terio handi hura konsiderazione erne eta finko batez pisatu behar duzu.

Noiz ere meza erraiten, edo enzuten baituzu, iduritu behar zaitzu hain gauza handi, berri eta alegeragarri maitatzekoa dela, nola bailizate lesu Khristo egun hartan berean lehenik Birjina sainduaren sabelera iaustirik gizon egin baliz, edo gurutzean iosirik paira baleza eta hil baledi munduko salbamendua gatik.

HIRURGARREN KAPITULUA

On dela maiz komuniatzea.

Arima debotaren hitzak

1. Huna ni, launa, zure gana heldu naiz; arren zure dohainetik ongi gertha dakidan, eta pobreaki zure ontasunaz, o lainkoa, aphaindu diozun baraskari sainduan alegera nadintzat.

Huna, zure baitan da desira dezakedan, eta desiratu ere behar dudan guzia, zu zare ene salbamendua, eta libranza, ene esperanza eta indarra, ene ohorea eta loria.

Alegera zazu bada egun zure serbitzarien bihotza, zeren zure gana, ene Iesus maitea, alxatu dut ene arima.

Badut desira orai zure errezibitzeko ahalik debozione eta erreberentzia handienarekin: nahi zaitut ene etxean sar arazi, ni ere Zacheo bezala benedika dezazun, eta Abrahamen umeen artean konda nadin gatik.

Ene arima guthiziatzen da zure gorputz sainduaz, eta ene bihotzak desiratzen du zurekiko bat izaitera.

2. Eman zakizkit, launa, eta aski dut, berdin zutaz kanpoan ezta balio duen konsolazionerik.

Zu gabe ezin naiteke, eta ene gana heldu ezpazare, ezin nagoke bizirik.

Halakotz behar natzaitzu maiz hurbildu, eta behar zaitut maiz errezibitu ene salbamenduko erremediatzat, beldurrez munduko bide hunetan flaka nadin, gertatzen banaiz zeruko iakiaz gabeturik.

Zeren, zeronek, o ene Iesus guziz miserikor-diosa, jendei predikatzen zenerauenean, eta hainitz moldezko eritasunak sendatzen zinituenean, hunela noizpait erran duzu: Eztitut igorri nahi bere etxetara barurik, bidean flaka ditezin beldurrez.

Hori bada egizu orai enekin, zure burua sakramendu sainduen utzi duzunaz gero fidelen konsolamenduko.

Ezen zu zare arimaren othurunza gozoa, eta nork ere behar bezala ianen baitzaitut, hura izanen da sekulako lorian partale eta primu.

Egiaz nola hunein uzu erorten bainaiz eta egi-ten baitut bekatu, nola hunein laster nagitzen eta flakutzen bainaiz, behar naiz ere maizko orazionez, konfesioenez, eta zure gorputz sakratua maiz errezibituz berriztatu, garbitu eta irazeki beldurrez, sobera banago erremedio saildu hura hartu gabe, eror nadin neure leheneko borondate saildutik.

3. Ezen gizonaren gogoia gaizkera isuria da bere gazte danik, eta lainkozko miritzina heltzen ezpazai, berehala gaixkiagotan erorten da.

Beraz komunio saildua gibelatzen du gaizkitik, eta ongian borthitzten du.

Zeren orai huneinbat nagitzen eta epeltzen banaiz komuniatzen edo meza erraiten dudanean, zer lizateke erremediorik hartzen ezpanu, eta horrelako indargarri bilha ezpaneza?

Eta enaizelarik ongi preparatua eta iarria egun oroz meza sailduaren erraiteko, badarik

ere ahal guzia eginen dut egun iakinetan lainkozko misterioen errezibitzeko.

Ezen arima fidelaren konsolazione prinzipaletarik bat hau da, gorputz hilkorrean zu ikusi gabe dabillano bere lainkoaz orhoiturik bere maitea bihotz debotaz errezibi dezala.

4. O zure gure ganako bihotz beratasunaren obra miragarria! Zuk, o lainko launa, espiritu guzien kreatzaillea eta bizitzaillea, nahi baituzu arima gaizoa gana etorri, eta haren gosea zure lainkotasun eta gizontasun osaz gizendu.

O zori onezko espiritua, o arima doatsua, zeinok ere merezi baitu zu bere lainko iauna debotionerekin errezibitzea, eta errezibitzen zaitue-nean bozkario ispiritualaz bethetzea.

O zein laun handi errezibitzen duen, zein arrotz maite etxeratzen duen, zein lagun arrai hartzen, zein adiskide fidel bereganatzen, zein espos eder, zen noble, zein guzien artean eta guzien gaineratik maitatzeko besarkatzen duen.

O ene maiterik maiteena! Zerua, lurra, eta hekin edergaillu guziak beudez ixilik zure aitzi-nean.

Ezen zer ere baitute ederrik eta laudatzeko-rik, hura dute zure ontasunaren bizartasunetik, eta sekulan eztira helduko zure izenaren edertasunera, zeinaren zuhurziak ezpaitu neurririk.

LAUGARREN KAPITULUA

*Hainitz ontasun emaiten zaiola
debozionerekin errezibitzen duenari.*

Arimaren hitza.

1. Ene lainko launa, aitzin zakizko zure serbitzariari zure eztitasuneko benedizinoez, arren gai egin nadin zure beregaineko sakramendura behar bezalako debozionerekin hurbiltzeko.

Iratzar ezazu ene bihotza zure gana, eta billus nazazu ene nagitasun toldiaz.

Bisita nazazu zure salbagarriaz, ispiritualki dasta dezadantzat sakramendu hunetan bere bethez ithurburuan bezala gorderik dadukazun eztitasuna.

Argi diatzadatzu ene begiak hain misterio handiaren ikusteko, eta indazu indarririk aski haren zinetstekoko fede-dudagabeko batez.

Zeren obra hori zure ganik da, eta ez gizonaren indarretarik: zuk sailduki ordenatua da, ez gizonek pensatua.

Eta egiaz nihor ezta gai edireiten misterio horien bere indarrez endellagatzeko, Aingeruen sutilleziari ere garaitzen baitzaizko.

Zer bada nik bekatore, lur, eta hauts baizen enaizen horrek pensa eta endellega dezaket hain sekeretu barrena eta sakratu hunetaz?

2. launa, ene bihotzeko sinplezian fide on eta finko batekin, zuk ere manaturik, hurbiltzen natzaitzu esperanzaz eta erreberenziaz betherik, eta zin zinez dadukat zu lainkoa eta gizon hemen presentean zarela Sakramendu hunetan.

Nahi duzu bada har zaitzadan, eta zurekin bat egin nadin amorioz.

Halakotz banagozu zure ontasunari othoitzez, arren indazu grazia beregain bat, ni naizen guzia zure baitara karitatez urt eta isur nadin, eta nahiz diren konsolazionez geiago axola ezna-din.

Zeren jainkozko sakramendu hau da arima-ren eta gorputzaren osasuna, gogoko langiadura guzien miritzina: hortan ene gaizkiak erremedia-tzen dire, pasioneak estekatzen, tentazioneak azpiratzen eta gutitzen: hortan grazia geiago

emaiten da, bertute sortu berria handitzen, fedea bortitzten, esperanza finkatzen, karitatea sutzen, irazekitzen, hedatzen eta zabaltzen.

3. Egiaz, ene lainkoa, ene arimaren besarkatzailea, gizona bere flakotasunetik alxatzen duzuna, barreneko konsolazione guziak emaiten ditutzuna, sakramendu sainduan hainitz ontasun eman derauezu zure maitei, eta geiago ere, eta maizago emaiten debozione on batez errezibitzen zaituztenean.

Hainitz moldezko konsolazione isurtzen duzu hekin baitara, hainitz moldezko tribulazioneen kontra;

Zure maiteak bere bihotzgabetasuneko putzutik zure gomendioko esperanzara alxatzen tutzu, grazia berri batez bethetzen eta barrenean argitzen; hala non errezibitu baino lehen gogoetatsu eta afekzione gabe zeudenak, gero zeruko ianhariaz eta edariaz aserik hagitz hobeki eta sendoago kausitzen baitira.

Horrela hargatik hari zare zure hautatuekin, arren segurki ezagut, eta klarki froga dezaten,

zein flako diren bere buruz, eta zer ontasun eta grazia izaiten duten zure ganik.

Zeren bere buruz hotz, gogor, eta debozione-gabeko dira zure ganik ordea merezi dute bero, agudo, eta debozionetsu izaitea.

Ezen nork eztitasuneko ithurrira humilki hurbildurik eztu hartarik eztitasun guti bat bederen ekartzen?

Edo nork su handi baten aldean egonik, eztu hartarik bero aphur bat hartzen?

Eta zu zare bethi betherik dagoen, eta gainez egiten duen ithurria, zu zare arduraki irazekirik dirauen eta, nihoiz ere iraungitzen ezten sua.

4. Halakotz zilhegi ezpanaiz ithurri bethetik erautstera, eta ase arteraino edatera, guziarekin ere ahoa pasatuko diot zeruko ithaizur haren zilhoari, arren handik xortaxo bat bederen har dezadan ene egarsuaren hiltzeko, guzia ihar eznadintzat.

Eta baldin guzia ezin banaitake oraino zerukoa eta suakartua, Kherubinak eta Serafinak bezala; badarik egin ahala egingen dut debozioneari itxekitzeko, eta ene bihotzaren preparatze-

ko; arren sakramendu bizigarria ahalik humilkiena hartzen dudala, lainkozko su handi hartarik inhar bat ezpere bil dezadan gatik.

Zer ere baitut eskas, ene Iesus ona, Salbatzaille guziz saildua, zuk ene orde hura konplizazu zure ohiko begitartearen ez-titasunaz, guziak zure gana deitu nahi izan dituzunaz gero, dioskuzula: zatozte ni gana nekatzen eta kargatuak zareten guziak, eta nik arinduko zaituztet.

5. Ni segur traillaitzen naiz ene kopetaren izerditan, bihotzetik minez nago, bekatuz kargatua nabilla, tentazioneek narabillate, hainitz pasione gaixtok korapillatzen eta zapatzen naute; bizkitartean ezta hel dakidanik, ezta libra eta salba nazanik zu baizen, ene lainkoa, ene launa eta Salbatzaillea.

Zure eskuetan utzten dut neure burua, neure ditudan guziekin, zuk begira eta sekulako bizitzera gida nazazun gatik.

O niri zure gorputza ianharitzat, eta odola edaritzat aphaindu derautazuna, har nazazu zure izen laudoriotan eta lorietan.

Othoi, ene Iainko jauna, eta Salbatzaillea indazu grazia emenda dakidan debozionario afekzioa, noiz ere zure misterio sakratua hartzen baitut.

BORTZGARREN KAPITULUA

*Sakramentu Sainduaren
handiresunez, eta Apezen
abantailaz.*

launaren hitzak

1. Angeruen garbitasuna eta londone loannis Batistaren saindutasuna bazendu ere, etzinateke gai sakramendu hunen hartzeko edo ukitzeko.

Zeren eztagoka nihoren merezimenduari Iesus'en Sakramendua konsekrutzea, bertzei emaita, eta Angeruen ogia iatea.

Misterioaren handia! eta zein gradu handitan iarriak diren Apezak: hei eman baitzaie Aingeruei eman etzaien ohorea.

Ezen Apezek xoilki, Elizan behar legez ordenatuak direnean, esku dute meza erraiteko, eta Iesus-en gorputzaren konsakratzeko.

Egia da Apeza dela lainkoaren ordea eta lainkidea lainko beraren hitzez serbitzatzen denean,

lainkoak berak ordenaturik eta manaturik; ala bainan hortan lainkoa da egille nausia eta ezin ikusizko obratzaillea; nahi duen guzia haren borondatearen azpian baitago, eta manatzen duen guziaz obeditzen baita.

2. Geiago beraz zinetsi behar diozu lainko guziz botheretsuari sakramendu beregaineko hunetan, ezen ez zure gustuari edo zenbait ikusten duzun seinaleri eta iduriri.

Halakotz beldurrarekin eta erreberenziaz betherik obra huni hurbildu behar zaizko.

Zagotza zure buruari beha, eta mira zazu noren obraren egiteko botherea eman zaitzun Apezpikuak zure gainean eskuak pausatu dituean.

Huna, Apez egin zare, eta konsekratua zara meza erraiteko: duzun bada orai artha fidelki eta debozionerekin behar den orduan lainkoari sakrifizio ofrezitzeaz, eta beha zazu nola jendartean ibilliko zaren nihork zuri tillerik eman gabe.

Zure karga eztuzu arindu, aitzitik amarra herziago batez loturik zaude zure eginbideari itxeki-

tzeko, eta saindutasun handiago batetara obligatua zare.

Behar da bertute guziek argi dezaten Apeza baitan, eta bertzei bizitze prestu baten moldea eta mirailla erakus diezen.

Apezak ibilli behar du ez jende komunaren erremanguetan, ez mundukoen ohiko trazan arauera, bainan edo Aingeruekin zeruan edo gizon lainkotiarrekin lurrean.

3. Apeza, tresna sakratuaz iauntsiz gero, da Iesus-en ordeia lainkoari othoitz humillak egiteko beretzat eta guzientzat.

Badu aitzinetik eta gibeletik gure Salbatzailearen gurutzearen Seinalea, haren Pasione sainduaz arduraki othoitzeagatik.

Gurutze aitzinetik darabilla kasulan, Iesus-en urratsei erneki behatzeko, eta agudoki iarraikiteko.

Gurutzeaz seinalatua da gibeletik, bertzeek egiten diotzaten gaitz guziak emero paira detzantzatzat lainkoaren amorioagatik.

Aitzinetik da gurutzea, bere bekatuez nigar egin dezantzatzat.

Finian gurutzeta darrabilla gibeletik, bertzeen ere gaixtakeriez urrikarizko damu har dezan gatik, eta iakin dezan ordenatua dela ararteko lainkoaren eta bekatorearen artean, eta eztuela nagitu behar othoitz egitera, eta sakrifizio sainduaren ofrendatzera, lainkoa ganik grazia eta miserikordia ardiets dezan artean.

Noiz ere Apezak erraiten baitu meza, lainkoari ohore, Angeruei bozkario, fidel guziei exenplu, bizi direnei indar, arima ioanei sosegu emaiten deraue, eta bera egiten da Elizako grazia eta ontasun guzian partale.

SEIGARREN KAPITULUA

*Galdea, zer den egin behar den
errezibitu baino lehen.*

Arima debotaren hitzak

1. Iarten naizenean, launa, zure handiresunean, eta neure deus gutitasunaren kontsideratzen, xoil ikaratzen naiz, eta ene baitan ahalke-tzen.

Zeren hurbiltzen ezpanaitzaitzu, ihesi noako biziari, eta iarten banaiz ure mahainean kutsaturik, huts egiten dut zure kontra.

Zer eginen dut beraz, ene lainkoa, ene laguntzaillea, eta konseillaria neure beharkietan?

2. Zuk irakas diazadazu bide zuzena, emadazu zenbait antze labur, behar bezala errezibitzeko.

Zeren on da iakitea nolako debozionerekin eta erreberenziarekin behar derautzudan ene bihotza preparatu zure sakramenduaren hartze-

ko eta hain sakrifizio handiaren eta lainkozkoaren egiteko ene arimaren salbamendutan.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

*Bere konszienziaren examinatzeaz,
eta oneratzeko deliberazioneaz.*

Jesus-en hitzak

1. Bertze guziak baino lehen, bihotzeko humiltasun eta erreberentzia handi, fede oso eta jainkoaren ohoratzeko intenzione debozionetsu batekin Iainkoaren Apeza hurbildu behar da sakramendu hunen egitera, erabiltera eta hartzera.

Mira zazu erneki zure konszientzia, eta zure ahalaren arauaz hura garbi eta argi zazu egiazko urrikimendu eta konfesione humil batez, hala non zure baitan eztadukazun, edo ezagut eztezazun ausiki zaitzan, eta zilhegiki hurbiltzetik gibela zaitzaken narrantorik.

Higoin bekizkitzu zure bekatu guziak jeneral-ki, duzun ere damu partikular bat eta urriki geiago zure egunorozko soberaniez: eta denborak

agitzen badu zure arimako miseria guziak konfesa diotzotzu lainkoari bihotzeko gorda-lekuan.

2. Iar zaite hatsbeherapenez, eta duzun dolore, zeren oraino hain zaren haragizkoa eta mundukoa, zeren pasioneak dituzun hain hildumaturgabeak, zeren zure guthiziek hala zarabiltzaten, zeren zure kanpoko sensuak hain guti begiratzun tutzun, zeren gogoeta alferrez hain maiz nahasten zaituzten.

Zeren hain zaren kanpoko gauzetara isuria, hain nagia barrenekoetara, hain arina irri egitera eta ergeltzera, hain gogorra nigarretara eta urrikimendura.

Zeren hain agudo zaren gauza largoetara eta haragiaren plazeretara; hain nagi hertskailluetan, eta beroki hari behar denean.

Hain erne berriok enzuteko, eta gauza ederrik ikusteko; hain flako gauza komun aruntarren eta humilgarrien besarkatzeko.

Hain guthizios hainitz biltzeko, hain zeken emaiteko, hain hersi itxekitzeko.

Hain nabarmen hitzketean, hain ixilgaitz konpainietan.

Hain desordenatua zure azturetan, hain ergel zure erremanguetan.

Hain emana iatera ian edanera; hain gor Jainkoaren hitzetara.

Hain lasterkatsu pausatzera, hain berantkor trabaillatzera.

Hain erne elhetara, hain logale beilla sainduetara.

Hain kexatua akabatzen; hain airatua zinetan hari behar bidean.

Hain tonto zure orenen irakurtzean, hain epel meza erraitean, hain idor eta agor errezibitzean, hain laster errebelatua, hain gutitan zure baita osoki bildua.

Zeren hain usu kolerak zaramatzen, hain errazki bertzean higoitzen zaizkitzun, hain arinki iujeatzen tutzun, eta hain zorrotzki eranzuten derauezun.

Zeren hain zaren alegera ongi doatzunean, hain flako gaizki gertatzen zaitzunean.

Finean zeren hain bertzetan deliberatzen duzun hainitz ontasun egiteko, eta hain guti egiten duzun.

3. Zure eskas makur horiok, eta bertze horrelakoak konfesaturik, damu handi bat harturik zeren hain flako zaren, har ezazu gogo eta borondate sail bat beti zure bizitzearen oneratzeko, eta hoberenetik hoberenera ekartzeko.

Gero obediencia bethe, eta bihotz oso batez zeroni ene izenaren ohoretan ofrenda zakizkit bethiereko sakrifiziotzat zure bihotzeko aldarearen gainean, zure gorputza eta arima fidelki utziten ditutzula ene gomendioan; arren manera eta bide hartaz merezimendurekin hurbil ahal zaitzeken lainkoari Sakrifizio egitera, eta ene gorputzaren sakramendua zure Salbamendutan hartzera.

4. Ezen ezta ofrenda hobeagorik, ez eta bekatuak gatik satisfazione handiagorik, bere burua garbiki eta osoki Iesus-en gorputz preziosarekin batean lainkoari ofrendatzea baino meza erraitetan, edo errezibitzean.

Nihork egiten badu bere baitan dena, eta egiazko urrikimendutan badago, noiz ere hurbilduko baitzait barkamenduaren eta graziaren ardietsteko, bizi naiz dio launek, nola ezpaitut

nahi bekatorea hil dadin, aitzitik nahiago baitut bihur dadin ere gana, eta bizi dadin, enaiz geia-go orhoituko haren bekatuez, baina guziak barkaturen zaizko.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

Nola gure Salbatzailleak bere burua ofrendatu duen gurutzean, eta nola behar garen iarri haren borodatearen azpian.

Jesus-en hitzak

1. Nola neroni, eskuak gurutzean hedaturik eta gorputza billusgorriturik, borondate onez zure bekatuak gatik ofrendatu bainatzaio ene aitari, hala non ezpaita deus ere ene baitan azkendu eman eztudanik sakrifiziotzat haren baketzeko: molde berean zu ere egun oroz borondatezki ofrendatu behar zaizkit meza sainduan zure bihotzeko ahal eta afekzione ofrenda garbitzat eta saindutzat.

Zer nahiago dut zure ganik, ene borondatearen azpian osoki iartera enseia zaitezin baino?

Zer ere emaiten baiterautazu, zeroni emaiten ezpazaizkit, eztadukat deus; zeren enabilla zure emaitzaren, baina bai zu zerorren bilha.

2. Ezen, nola gauza guziak izana gatik, ezpaitzenduke aski, ni neroni ezpanauzu; orobat eman diazakedazun guzia eztuket on, zu zeroni emaiten ezpazaizkit.

Zaren guzia ofrezi eta eman zakizkit lainkoa gatik, eta zure ofrenda izanen da ene gogarakoa.

Huna, ni naizen guzia ofrendatu natzaio ene aitari, eman derautzut ere ene gorputza ianharitzat, eta ene odola edaritzat, arren ni guzia naizen zure, eta zu guzia geldi zaitezin neure.

Ordea zure baitan egoiten bazara, eta zure burua gogotik ekartzen ezpaduzu ene borondatera, ofrenda ezta bethea izanen, eta gure artean ezta batasun osorik eginen.

Beraz deusik dagizun baino lehen, aitzinetik behar duzu zure burua borondate osoz lainkoaren eskuetan ezarri, nahi baduzu libertaterik eta graziarik ardietsi.

Ezen hargatik hain gutiak argitzen dira, eta bere baitan libro egiten, zeren bere burua ezin osoki utz dezaketen.

Nik eman sententzia tink eta fermu dago: baldin nihork uko egiten ezpaderaue —bere dituen gauza guzietan, hura ezin daiteke ene— diszipulu.

Bada nahi baduzu ene diszipuluetarik bat iarri, ofrenda zakizkit zeroni zure afekzione guzietan.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

*Gure buruak eta ditugun guziak
behar diotzagula lainkoari ofrendatu,
eta guzientzat othoitz egin.*

Arima prestuaren hitzak

1. Jauna, zureak dire zeruan eta lurrean diren guziak.

Badut desira zuri neure buruaren emaiteko borondatezko ofrendatzat, eta bethiere egoiteko zure.

Jauna, ene bihotzaren sinpletasunean egun iartzen naiz zure sekulako serbitzari, zure obeditzeko, eta bethi neure buruaren sakrifiziatzeko zure laudoriotan.

Har nazazu othoi zure odol preziosaz egiten derautzudan ofrenda hunekin batean: hura egun presentatzen derautzut hemen daudezin Angeruen aitzinean ikusten eztitudalarik, ene eta fidel guzien salbamendutan gerta dadin gatik.

2. Jauna, zure bakezko aldare hunen gainera ekartzen derauzkitzut bekatu egiten hasi nintzen lehenbiziko egunetik oren hunetaraino zure eta Angeru sainduen begietan egin ditudan huts eta bekatu guziak: arren zuk zure karitatearen suaz erre detzatzun, ene gaizkiak borra eta hil detzatzun, ene koszienzia bere kutsu guzietarik garbi dezazun, eta bekatu eginez galdu dudan grazia bihur diazadazun gatik; guziak oro barkatzen derauzkidatzula, eta miserikordiozki hartzen nauzula zuri bakezko muzu emaitera.

3. Zer daidiket ene humiltzeaz bertzerik ene bekatuak gatik, hek konfesatzen eta nigar uzur hiltzen ditudala, eta ixilgabeko othoitz ez nagoztzula miserikordia eske?

Othoi, ene Jainkoa, enzun nazazu, eta urrikal nakizula zure aitzinean nagoen bezala.

Handiro higointzen zaizkit neure bekatuak, eztut bat ere geiago sekulan egin nahi: hetaz dut damu eta izanen ere bizi naizeino, prestik nagoela penitenzia, eta ahal bezanbat satisfazione egitera.

Barka diatzadatzu, ene Jainkoa, barka diatzadatzu egin ditudan bekatuak zure izenaren amorioa gatik: salba diazadazu zure odol preziosaz berrerosi duzun arima.

Huna, ni gomendatzen natzaio zure miseri-kordiari, zure eskuetan iarten naiz.

Egizu enekin zure ontasunaren arauera, ez ene gaixtotasunaren eta eskegabetasunen eredura.

4. Ofrendatzen derauzkitzut halaber nik ongi egin guziak, xoil aphurrak eta eskasak direlarik, arren zuk begitarte onez har detzatzun, zure gogara xuxen, santifika, eta bethi hoberena ekar detzatzun, eta azkenean ni alfer eta ezdeuseta-ko hori fin doatsu eta laudatzeko batetara gida nazazun gatik.

5. Ofrendatzen derauzkitzut oraino jende deboten desir on guziak, ene burasoen, ahai-deen, urkoen, adiskideen, haurrideen, minduri guzien, niri edo bertzeri zure amorioz ontasunik egin deraukutenen, beretzat edo bertzeentzat othoitzik edo mezarik ene gatik desiratu duten,

edo eskatu zaizkidan guzien beharrak, oraino bizi edo iadanik hil badire; arren guziak senti dezaten zu heltzen zaizkotela zure graziaz, faboritzen tutzula zure konsolazioneaz, perilletarik begiratzen, eta penetarik libratzen ditutzula, eta finean gaitz guzietarik atherarik atheraz gero hainitz esker on eta eder bozkariorekin eman diazazuten amorioa gatik.

6. Ofrendatzen derauzkitzut ere bakezko othoitzak eta sakrifizioak, beregainki zerbaitetan ofensatu, tristetu, gaizki aipatu, dainatu eta bidegabeztatu nautenak gatik: bai ere nik batzutan hitzez, eginez, neakiela edo eneakiela haserretu, asaldatu, damuztatu, edo eskandolisatu ditudan guziak gatik guziori orobat gure bekatuak eta elkarren arteko ofensak barka diatzagutzun amorea gatik.

Athera zazu, launa, gure bihotzetarik iduripen gaixto guziak, bekaitsteria, beltzuria, mutur-tasuna, haserredura, gudua, liskarra, eta zerk ere karitatea eta anaien arteko bakea zaurt, huts, guti, eta gibela baitezake.

Miserikordia launa, miserikordia egiezu miserikordia eske dagotzutenei, emezu beharrei grazia; eta egin gaitzatzu halakoak, non gerta gaitezin gai zure graziaz gozatzeko, eta sekulako biziaren ardietsteko. Biz hala.

HAMARGARREN KAPITULUA

*Eztela errazki gibelatu behar
errezibitzetik.*

Jesus maitearen hitzak

1. Maiz eta laster bihurtu behar zare grazia-
ren eta jainkozko miseriardiaren ithurburura,
ontasun eta bihotz berotasun guziko ithurrira,
zure pasione eta bizio guzietarik senda ahal zai-
tezken, eta deabruaren tentazione eta enganio
guzien kontra bortitzago eta erneago egin zaite-
zin gatik.

Etsaia, iakinik probetxu eta erremedio guziz
handia dagoela sakramendu sainduan, manera
eta okasione ahal guziz enseiatzen da fidelen eta
jainkotiarren gibelatzera eta trabatzera haren
errezibitzetik.

2. Ezen batzuk iarten direnean bere bihotza-
ren preparatzen komunione sakratuaren hartze-

ra, orduan Satanen akometamendu gaitzenak pairatzen tuzte.

Espiritu gaixto hura (loben liburuan datzan bezala) sartzen da Jainkoaren umeen artean, hekin nahasteko bere gaixtakeria usatuaz.

Hek egiten tu beldurtiegi eta dudatsu, hekin afekzione saindua gutitu, edo duten zinetstea gal arazi nahi bere gerlatiaz; ea aldiz edo moldez osoki utziko dutenz komunione saindua, edo ea epeldurik hurbilduko zaizkonz.

Ordea eztu nihork ansiarik behar haren artezia edo gogoetagarri guziez, zenbat ere itsusiak eta higointzekoak baitire: aitzitik burutara bihurtu eta aurtiki behar zaizko pitsten dituen fuinera-keriak.

Dohakabe hura mesprezatzekoa da eta trufatzekoa: alxatzen dituen bueltak eta eragintzak gatik ezta nihoiz ere gelditu behar gure Iesus maitearen gorputz preziosaren hartzetik.

3. Hainitzetan ere debozionerik izaiteko artha soberak, eta grina dudagarri iakin batek nola konfesatu behar den trabu emaiten dute.

Egizu zuhurren konseilluaren arabera, eta egoitzazu dudakeria eta narrio guzia, zeren lainkoaren grazia trabatzen du, eta bihotzeko debosioea ithotzen.

Etzaitezila gibela komunione sakratutik edozein tribulamendu, edo atsekabe aphurgatik: aitzitik zoaz ahalik lasterrena konfesatzera, eta bertzei barka diezezu gogotik.

Baina zuk nihor ofensatu baduzu, eska zaite humilki barkazino, eta lainkoak ere gogotik barkatuko derautzu.

4. Zer probetxu duzu berant konfesatzeaz, eta komunione sailduaren gibelatzeaz?

Garbi zaite lehen bai lehen, laster etxa zazu pozoina, lehia zaite erremedioaren hartzera, eta hobeki kausituko zare, denbora handiz luza bazeneza baino.

Egun gelditzen bazare aitzakia baten gatik, bihar naski estakuru handiago bat etorriko zaitzu, eta horrela egonez luzaro traba zindezke errezibitzetik, eta hartara gutiago gai egin zindezke.

Ahalik lasterrena iraitzazu presenteko pisutasuna eta nagitasuna; berdin ezta probetxurik luzeki egoitzeaz narriotan eta garritan, eta egunorozko paxeluak gatik lainkoaren misterioetarik apartatzeaz.

Aitzitik hainitz luzatzeak errezibitu gabe kalte handia egiten du, zeren loakartasun pisu bat ekartzen ohi baitu.

Ah dolorea! Epel eta largo batzuk konfesatzeko, luzamenduak gogotik hartzen tuzte, eta nahi dute komunione saindua gerotik gerora gibelatu, beldurrez obliga ditezin bere buruen hobeki begiratzera.

5. He! zein karitate aphurra eta debozione erbala duten hain errazki komunione sakratua utzten dutenek!

Zein doatsu eta Jainkoaren gogarako estimatzen den, nor ere hala bizi baita, eta halako garbitasunean bere konszientzia baitaduka, non prestik bailegoke egun oroz errezibitzera, eta gogotik ere errezibi bailezake, zilhegi baliz, eta ahal baleidi, nihork deusik kontra erraiten ezluela.

Batzutan nihor gelditzen bada errezibitzetik humiltasunaz, edo zenbait legezko traburen gatik, hura da laudatzekoa Sakramenduari ekartzeko dioen ohoriaz.

Ordea nagitasuna sartzen bazaio, berak atzartu behar du bere bihotza, bere baitan dena eginez, eta Jainkoa helduko zaio haren desirari dadukan borondate ona gatik, zeintara beregainki behatzen baitu.

6. Baina noiz ere beharrez trabatua baita, bethi iduki beza gogo ona eta intenzione saindua errezibitzeko, eta horrela eginik ezta sakramenduaren fruituaz gabetuko.

Ezen nahiz den arima debota egun eta oren guzietan hurbil diteke bere Salbatzailearen espiritualki hartzera probetxurekin, eta nihork trabatu paxelatu gabetik.

Guziarekin ere egun iakinetan eta manatuetan bere jaunaren gorputz maitea behar da bihotzeko erreberentzia batekin sakramenduan errezebitu, eta geiago behatu behar du Jainkoaren laudoriora eta ohorera bere konsolazionera baino.

Zeren arima debotak espiritualki errezibitzen du, eta ikusten ezten maneraz othuruntzatzen da, sakramendu sailduaz, noiz ere bere Salbatzailearen Inkarnazioneko misterioa eta Pasioa gogoan baitarabilla debozionerekin, eta haren amudioan irazekitzen baita.

7. Nor ere ezpaita preparatzen Besta etorri denean, edo kostumak erxtatzen duenean bai-zen, hura geienean preparatu gabe izanen da.

Doatsua, nork ere Jainkoari bere burua sakrifizio osotzat ekartzen baitio, meza erraiten, edo errezibitzen duen ordu guzietan.

Etzarela luze edo kexuegi meza erraiten duzunean, baina zarraizko bizi zarenekikoek dadukaten ohiko antze onari.

Eztitutzu bertzeak unhatu edo kexatu behar: aitzitik iarraiki behar zaizko bide arunteari, aitzinekoak ordenatu duten bezala, eta lehen behatu behar diozu bertzeen probetxuari, ezen ez zure debozioneari eta gogoari.

HAMEKAGARREN KAPITULUA

Aldareko sakramendua, eta eskiritura saindua xoil direla premiazkoak arima fidelarentzat.

lesustiarraren hitzak

1. O Iesus ene jaun guziz ezta, zein handi den zurekin zure baraskaritan othurunzaten den arima debotaren eztitasuna, non ezpaitzaio bertzerik emaiten iatera, zu baizen, o haren maite bakoitza, eta haren bihotzak desira detza-keien guzien gaintetik maitatzekoa.

Niri ere segur konsolazione litzaiket zure prezenzian barreneko afekzioez nigar isurtzea, eta Madalena debotarekin zure oinak nigarrez arregatzea.

Ordea non da halako debozionerik? non da nigar urite saindu hura?

Gerthuz zure begien, eta Angeru sainduen aitzinean ene bihotz guzia behar liteke erre eta ustu bozkarioz.

Ezen zu zeroni zaitut egiazki presentean hemen zure sakramenduan, iduri arrotzez estalia zaudelarik.

2. Berdin ene begiek ezin paira lezakete zuri zure lainkotasuneko argitasunean behatzea mundu guzia bera elegoke zure maiestatearen loriazko distiaduraren aitzinean.

Hortan bada behatzen diozu ene flakotasunari, zeren gerizatzen zaren sakramenduaren azpian.

Badut egiazki, eta adoratzen ere dut, Angeruek zeruan adoratzen dutena bera, nik ordea fediaz oraino, eta hek hura den bezala ikusten dute begitartez begitarte, eta estalki gaberik.

Huneraino kontentik egon behar naiz egiazko fedearen zuziaz, eta hark gidaturik ibilli behar dut sekulako argiaren eguna ilki dadin, eta figuren itzalak ioan ditezin artean.

Baina doatsutasuneko estatu konplia datorrenean, geldituko da sakramenduen usanza eta beharra.

Zeren doatsuek zeruko lorian eztute sakramenduzko erremedioren mengoarik: fingabeki

bozten dira Jainkoaren presenzian, haren loria begiz begi ikusten dute; hondogabeko Jainkota-sunaren argitik argira aldaturik dastatzen dute Jainkoaren semea haragi egina harte danik izan den, eta sekulakotz dagoen bezala.

3. Miragarri hautaz orhoiturik, nahiz den konsolazione espirituala pisu eta unhagarri ekiten zait; zeren zenbat ere bainago ene Jauna bere lorian ikusi gabe, ezdeustzat dadukat munduan ikusten eta enzuten dudan guzia.

Zu zaitut lekuko, ene Jainkoa, eztela nihor ere konsola eta sosega nazakeien gauzarik zu bai-zen, o sekulakotz miratzera, desiratzen dudan Jainkoa: hori ordea ezin daiteke gorputz hilkor hunetan nabillano.

Halakotz pazienza handitan, eta zure borondate sailduaren azpian iarri behar naiz ene desir guzietan.

Ezen, Jauna, zeruetako erresuman zurekin orai bozten diren sailduak ere, bizi zirenean fede eta pazienza handirekin begira zeudezin noiz etorriko zen zure loria.

Hek zinetsi dutena, nik zinetsten dut, hek izan duten esperantza nik badut, eta fidanza ere bai hek ardietsi duten lekura nik zure graziarekin batean ardietsiko dudala.

Bizkitartean ibilliko naiz fedeak argiturik, eta sailduen exenpluz bihotzturik.

Baditut oraino liburu sailduak konsolazionetzat eta bizitzeko mirailtzat eta guzien gainetik badut zure gorputz sakratua erremedio eta ihesleku beregainekotzat.

4. Zeren ezagutzen dut bi gauzaz premia handi dudala mundu hunetan, eta hek gabe ondikozko bizitze hau ezin neramakeiela.

Gorputzeko presondegiak nadukaino aitortzen dut behar dudala iatekoa eta argia.

Niri bada eri hori eman derautazu zur gorputz sakratua ene arimaren eta gorputzaren baskartzeko eta zure hitz saildua ene oinei argitzeko.

Bi gauza hauk ezpanitu ongi bizi nindeke, zeren zure hitza da arimako ogia, eta zure sakramenduada bizitzeko ogia.

Erran diteke halaber bi mahainak direla Eliza Sainduaren tresordegian alde batetik eta bertzetik ezarriak.

Bata da aldare sainduko mahaina, ogi sakratua, erran nahi da, Iesus-en gorputz preziosoa dadukana.

Bertzea da lege sainduaren mahaina, dotrina saindua dadukana, fede zuzena irakasten deraukuna, eta seguraturik gidatzen gaituena Beloren barreneraino, zeinetan baitago sainduen saindua.

Eskerrak derauzkitzut, ene Iesus Jauna, egundainoko argiaren argia zarena, zeren Profeta, Apostolu, eta bertze dotor zure serbitzari leialen eskuez zure dotrina sainduaren mahaina hedatu eta partitu deraukuzun.

5. Eskerrak derauzkitzut gizonen Kreatzaillea eta Libratzaillea, zeren zure karitatea guziei erakustea gatik, afari handi hura aphaindu duzun, zeinetan emaiten baituzu, ez figurazko bildotza, baina bai zure gorputz eta odol sakratua.

Alageratzen tutzu, Jauna, fidel guziak lankezia saindu hartaz, eta horditzen tutzu sendaga-

rrizko kalitzaz, zeinetan barrena baitaude parabisuko plazer guziak, eta non gurekin batean Angeru sailduak iaten eta edaten baitute, baina guk baino gozo doatsuago batez.

6. O zein handi eta ohorezko den Apezen ofizioa! Hei eman baitzaie esku guzien gaineko Jaiuaren hitz sakratuez konsekratzeko, espainez benedikatzeko, eskuez erabilteko, ahoz hartzeko, eta bertzei ere partitzeko.

O zein xahu behar diren Apezaren eskuak, ahoa ain garbi gorputza zein aratz, bihotza zein argi, hartan barrena garbitasun guziko ithurria hain maiz sartzen denaz gero.

Iesus-en sakramendua hain bertzetan hartzen duen Apezaren ahotik ezta ilki behar hitz ederrik eta onik baizen.

7. Iesus-en gorputzari behatzen ohi dioten begiak behar dira garbi, zuhur, eta ohorezko egon: zeruaren eta lurraren kreatoria maiz ukitzen duten eskuak behar dire xahuak eta zerura alxatuak izan.

Apezei beregainki erraiten zaie lege sainduan: zaretela saindu, zeren ni zuen Jainko Jauna bainaiz saindu.

8. Hel bekigu zure grazia, ene Jainko guziz botheretsua, arren apeztasuneko ofizioa hartu dugunok behar bezalako debozionez, garbitasun oso eta konszienza on batekin serbitzu egin diazazugun.

Eta ezin ibil bagaitezke behar dugun bezain bizitze garbirekin, guziarekin ere iguzu grazia merezi bezala nigar egiteko egin ditugun bekatuak gatik, eta hemendik hara zure serbitzatze-ko humilkiago, berokiago eta borondate hobea-gorekin.

HAMABIGARREN KAPITULUA

*Artha handirekin preparatu behar
dela Sakramendu Sainduaren
hartzera.*

Iesus maitearen hitzak

1. Ni naiz garbitasunaren maitaria, eta saindutasun guziaren emaillea.

Ni nabilla bihotz garbiaren bilha, eta hartanda ene pausagunea.

Prepara diazadazu afal leku handi bat hedaturik, eta zure baitan eginen dut ene Baskoko afaria ene diszipuluekin.

Nahi baduzu zure gana natorren, eta zure baitan nagoen, ken ezazu lemami zaharrak zure arimatik, eta garbi zazu zure bihotzeko ostatalekua.

Kanpora zazu mundu guzia eta bizioen abarrotza: iar zaite zure gelan, Eliza xoria teillatuan bakarrik dagoen bezala, eta han gogora tzatzu

zure eskasiak eta soberaniak zure arimaren damutan.

Ezen nork ere maite baitu, ahalik lekurik hoberena eta ederrena preparatzen dio bere maiteari, eta hortan ezagutzen da bere maitea etxera hartzen duenaren egiazko amorioa.

2. Badarik ere iakin ezazu ezin asko prepara zaitezkeiela zure obren bertutez, urthe oso bat eman bazeneza ere zure preparatzen, eta bertzerik gogoan ezpazendu ere.

Bainan orhoit zaite ene biotzberatasun eta grazia hutsez zilhegitzen zarela ene mahainera hurbiltzera, eskale bat irakar baledi bezala aberatzaren baraskaritara, deusik eluela hari ordain emaiteko, haren aitzinean humiltzea eta esker emaitze baizen.

Egizu zure baitan dena, ordea egizu gogotik eta erneki, ez kostumaz edo beharrez; baina bel-durtasun, erreberenzia, eta gogo pitztu batekin, har ezazu zure gana bere ontasunaz etorri nahi duen zure lainko jaun maitearen gorputza.

Ni naiz deitu zaitudana, nik manatu dut horrela egin dadin, nik askituko dut eskas zarena, zato eta har nazazu.

3. Debozionaeko grazia emaiten derautzudanean emoitzu eskerrak zure lainkoari, ez zeren hura merezi duzun, baina zeren niri urrikaldu zaizkidan.

Debozionerik ezpaduzu, aitzitik sentitzen baduzu idorra zarela, iar zaite othoitzetan, zaude hatsbeherapenez, bulka zazu athea, eta etzaitezila ixil zenbait xort edo papor lainkozko mahain harturik ardiets dezakezun artean.

Ene beharra duzu, eta nik eztut zure beharrik.

Etzara heldu niri saindutasun berririk emaitera, bai ordea ni heldu naiz zure hobetzera eta saindutzera.

Heldu zara ene ganik saindutasunaren ardietstera, zure buruaren enekin bat egitera, grazia berri baten hartzera, eta berrirozki oneratzeko gogoaren pitstera.

Eztezazula hunelako grazia mespreza; aitzitik prepara zazu zure bihotza artha ahal guziaz, eta erakarzu zure maitea zure baitara.

4. Ordea etzara errezibitu baino lehen xoilki debozionatean iarri behar, bainan hartan egon behar duzu errezibitu ondoan ere.

Ezta guardia gutiago eman behar gerokotz, lehen ongi preparatzeko behar zen baino.

Ezen errezibitu ondoko guardia ona da preparazionerik hoberena grazia handiago baten berriz ardietsteke.

Zeren hagitz barraiatzen da nihor berehala isurtzenegi bada kanpoko konsolazionetara.

Begira zaite hitz sobera egitetik, zaude ixilean eta goza zaite zure Jainkoaz.

Berdin zure baitan duzu mundu guziak ezin edeki edo eraman diazakezuna.

Horrelakoa ni naiz, non zaren guzia eman behar baitzaizkit, hala non etzaitezin geiago bizi zure baitan, baina bai ene baitan deusez ere grinnatu edo axolatu gabe.

HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

*Arima debotak bihotz guziaz
desiratu behar duela Jesus
maitearekin bat izaitea sakramendu
sainduan.*

Arimaren hitzak

1. Ene Jauna, nork eginen deraut grazia zure aurkitzeko bakarrik, zuri neure bihotz guziaren zabaltzeko eta zutan gozatzeko ene arimak desira duen bezala?

Hala non gaurgero nihork enazan mespreza, geiago kreaturetarik batek ere enazan geiago uki edo ikus, baina zu xoilki minza zakizkidan, eta ni ere minza nakizun, maitea maitearekin solhasetan, eta adiskidea adiskidearekin baras-karitan hari diren bezala.

Horren eske nago, hortaz dut desira: ene nahia da zurekin osoki bat izaitea, neure bihotzaren apartatzea kreatureta guzietarik, eta maiz

errezebituz, edo meza erranez ikastea zeruko eta sekulako gauzen dastatzen.

Ah! ene Jainko jauna, noiz izanen naiz guzia zurekin bat egina, zure baitan hondatua, eta neure buruaz osoki ahantsia?

Zu ene baitan zare, ni ere zure baitan naiz. Egizu arren horrela batetan egon gaitezin.

2. Gertuz zu zare ene maitea, milletarik hautatua; ene arimaren guthizia eta atsegina da zurekin egoitea biziko den egun guziez.

Egiaz zu zare ene bakegillea, zure baitan da bakerik handiena, eta egiazko sosegua, zure ganik kanpoan den guzia da neke-trabaillu, eta fin-gabeko lazeria.

Egiazki zu zare Jainko estalia; zure konseillua ezta gaixtoekin, bainan humillekin eta sinplekin da zure solhasa.

O Jauna, zein ezti den zure espiritua! plazer baitituzu zure umeak othurunzatu zerutik iautsirikako ogi miragarriki gozok, zure hekin ganako eztitasunaren irazuzteko.

Gertuz ezta nihor bertzetan hain jende handirik, non duen hurbil dakion Jainkorik, zu gure

Jainkoa zure fidel guzie heldzen eta laguntzen zaizkoten bezala; zeroni emaiten baitzaizkote iatera eta gozatzera, hekin bihotzaren egun oroz konsolatzeko eta zerura goititzeko.

3. Zeren zein da munduko jendeen artean Giristinoa bezain noblerik.

Edo zein da zeruaren azpiko kreatura guzietarik arima debota bezain maiterik? haren gana heldu baita Jainkoa, haren baskatzeko bere haragi loriosaz.

O zein erranezko grazia! o miragarrizko ontasuna eta ohorea! o neurrigabeko amorioa gizonari bereziki emaiten zaiona.

Ordea zer bihurtuko diot nik lainkoari hain grazia eta karitate handi hunen ordain?

Ezin demokeot haren gogarako den gauzarik ene bihotza baino, hura osoki emaiten diodala, eta harekin ahalik barrenera iuntatzen dudala.

Orduan neure barrenalde guziak iausiko dire bozkarioz ene arima Jainkoarekin alde guzietarik iunta dadinean.

Orduan erranen deraut: nahi baduzu izan enekin, nik ere nahi dut izan zurekin.

Eta ihardetsiko diot: plazer duzula, Jauna, enekin egon, nik gogotik nahi dut izan zurekin. Hau da ene desir guzia, ene bihotza dagoen zurekin bat egina.

HAMALAU GARREN KAPITULUA

*Arima debot batzuen guthizia
irakinaz Iesus-en gorputz sailduaren
aldera.*

Arimaren hitzak

1. Zenbat eta zein handi diren, Jauna zure beldur direnentzat gorderik dadutzatzun eztitasunak.

Zure sakramenduari debozione eta afekzione handirekin hurbiltzen zaizkon batzu gogora heldu zaizkidanean maizenik tontoturik nago.

Ahalkez gorritzen bainaiz ikusteaz hain epelik eta hotzik heldu naizela zure aldarera eta gorputz sailduaren mahainera: hain agorturik eta bihotzeko afekzione gaberik nagoela, enaizela osoki irazekia eta suakartua zure aitzinean, ene Jainkoa, eta enaizela gogo guziaz hainitz arima prestu bezain bortitzki zure gana eramana.

Orhoit naizenean hek zure errezebitzeko gut-hizia handiegiz, eta bihotzeko amorio sentikor

batez ezin geldi zitezkeiela nigar minik egitetik; baina zure gana, o ithurri bizia, bihotzeko eta are gorputzeko ahoa zabaldurik zeudezila, bere gosea eta egarsua bertzela ezin apazegatuz eta aseztu zure gorputz preziosa ahalik alegrianza eta gosete espiritualenaz errezebituz baizen.

2. O zein egiazko, zein bizia, eta irazekia den horrelakoen fedea! Seinale ageria da, zu, Jauna, bere bihotzaren erdian zaituztela.

Ezen egiazki ezagutzen dute bere Jauna ogi hautstean, zeinen ere bihotza hain biziro suakartzten baita, Iesus maitea hekin artean bidean ibilliz.

Horrelako afekzioa eta debozioa, hain amorio bizia eta irazekia hainitzetan urrun dira eneganik.

Urrikal nakizula, ene Iesus ona, bihotzbera eta amolsua: emozu zure eskale gaizoari zenbait aldiz bedere zure bihotzeko amoriotik guti bat dastatzera zure mahain sakratuan; arren zure baitan dadukadan fedea geiago bortitz dadin ene esperanza zure ontasunaren gainean aitzina eta finka dadin, ene karitatea alde guztiz irazeki-

rik eta zeruko ianharia gozaturik nihoiz ere iraungi eztadin.

3. Bada zure miserikordiak eman diazaket hanbat desiratzen dudan grazia eta zure plazer oneko eguna datorrenean begitarte amolsuaz bisita nazake bere amorioaren beroduran.

Ezen eztirakidalarik zure serbitzari bereziek dirakiten bezain desir handiz, badarik ere zure grazia lagundurik, hek duten desir irazekiaz gut-hizia dut nik ere, othoitzez nagotzula eta desiratzten dudala gai egin nazazun zure horrelako maitari bero guziekin partale gertatzeko, eta hekin konpainia sailduan sartzeko.

HAMABORTZGARREN KAPITULUA

*Debozione grazia ardietsten dela
humiltasunez, eta bere buruari uko
eginez.*

1. Behar duzu debozioneko grazia arduraki bilhatu, beroki eskatu, haren begira egon pazienziarekin eta fidanzarekin.

Grazia behar duzu eskerrekin errezibitu, humiltasunarekin begiratu.

Graziarekin batean hari behar duzu artha handirekin eta Jainkoa utzi behar duzu egitera noiz eta nola bisitatuko zaituen gainetik, bera datorren artean.

Guzien gainetik humildu behar zare eta apaldu, noiz ere baitakusazu debozione guti duzula, edo bat ere eztuzula; bainan etzare sobera bihotz flakatu behar, ez eta neurri gabeki tristetu.

Hainitzetan Jainkoak begi ideki batean emaiten du, denbora handiz ukatu zuena:

Batzutan ere othoitzaren ondoan emaiten du othoitz hastean eman nahi etzuen.

2. Grazia bethi berehala emaiten baliz, eta noiz nahi hel baledi, nekez hura iasan lezake gizonaren flakotasunak.

Hargatik esperanza on, eta pazienza humil batekin egon behar duzu debozioneko graziaren begira.

Bizkitartean emazu falta zerorren, eta zure bekatuen gainean noiz ere grazia ezpaitzaitu emaiten, edo zergatik eztakizula edekiten baitzaitzu.

Batzutan gauza apherura da grazia trabatzen, eta gordetzen duena; erran behar bada apherura dela, aitzitik erran behar ezpada handia dela zerk ere hain ontasun handia kentzen eta kanporatzen baitu.

Baldin ordea zure ganik kentzen baduzu trabu hura, dela apherura dela handia, eta osoki gelditzen bazare nausi, ardietsiko duzu zeren ere eske baitzinunde.

3. Ezen noiz ere bihotz guziaz emanen baitzaizko Jainkoari, eta horrelakorik edo halakorik ezpaituzu bilhatuko zure plazeraren eta nahia-
ren arauera; bainan osoki iarriko baitzare haren baitan, berehala edirenen zare harekin bat egi-
nik eta baketurik.

Berdin eztuzu nihon ere halako gozorik eta plazerik aurkituko, nolakoa hartuko baituzu Jainkoaren borondatea plazer duen bezala konpli dadinian.

Nork ere bada bihotz simple batez bere desira goiti Jainkoagana alxatuko baitu, eta hutstuko baita nahiz de gauza kreatuaren alderako amudio eta higoindura desordenatuaz, hura xoil izanen da gai eta baso graziaren eta debozioneke dohainaren ardietsteko.

Ezen gure jaunak emaiten du bere bendizioa, non ere kausitzen baitu untzi hutsturik.

Eta zenbatenaz zinkiago nihork eginen baite-raue behereko gauzei uko, eta bere baitan hiltzenago baita bere burua mesprezatur, hanbatenaz lasterago heldu da grazia, usuago sartzen da, eta bihotza gorago alxatzen da librorik.

4. Orduan ikusiko, frankia izanen du, miretsiko du bere baitan zabalduko zaio bihotza, zeren Jainkoaren eskua berekin duen, eta bera den guzia sekulakotz iarri den Jainkoaren eskuetan.

Horra nola benedikatuko den bihotz guziaz Jainkoaren bilha dabillana, eta bere arima ezta-dukana ezdeusetako.

Hunelako batek Sakramendu saindua hartzen duenean gai eta baso egiten da grazia berezi batez bat izaiteko Jainkoarekin, zeren ezpaitu konturik egiten bere oldezko debozioneaz eta konsolazioneaz, baina behatzen baitu Jainkoaren loriara eta ohorera debozione eta konsolazione guzien gainerik.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

*Gure beharrak behar diotzagula
agertu eta bere grazia eskatu behar
gaizkola.*

Arima debotaren hitzak

1. O ene Jauna guziz ezitia, guziz maitatzekoa, orai debozionerekin desiratzen dudana hartzera baduzaguzu ene flakotasuna, eta pairatzen dudan beharkia, zenbat gaitzetan eta bekatutan natzan eroririk, zenbatetan zapatzen, tintatzen, aldaratzen eta lizuntzen naizen: zure gana heldu naiz erremedio bilha, konsolazione eta arintza eske nagotzu.

Mintzo natzaio diren guziak dakizkienari, ene bihotz barreneko guziak dakuskienari, eta bera xoilki bere konsolazionez hel dakidanari.

Badakizu zer ontasunen beharra dudan guzien gainetik, eta zer pobre naizen bertutez.

2. Huna ni zure aitzinean nago pobre billusirik grazia eta miserikordia eske.

Baska zazu zure eskalegosea, irazeki zazu ene hotzetasuna zure amorioaren suaz, argi zazu ene itsutasuna zure prezentiaren argiaz.

Kirats diatzadatzu larriko atsegin guziak, indazu pazientzia bizitze hunetako gaitz eta kontrako guzietan; egizu behereko gauza kreatu guziak mespreza detzadan eta ahants dakizkidan.

Goiti diazadazu bihotza zure gana zerura, eta enazazula utz horra hara lurrean errebelatzera.

Zu xoilki orai danik ezti zakizkit sekulakotz; berdin zu xoilki zara ene jatekoa eta edatekoa, ene amorioa eta bozkarioa, ene dulzedura eta ontasun guzia.

3. Ai nazazun guzia zure prezenziaz irazeki, erre; eta zu baitara itzul, zurekin espiritu bat egin nadintzat barreneko batasunaren graziaz, eta amorio beroz urturik.

Enazazula utz zure ganik ioaitera barurik eta iharturik, bainan hari zaite enekin miserikordios-

ki, maiz eta maiz zure sainduekin miragarritzki hari izan zaren bezala.

Zer miretsteko lizate guzia sutzen baninz zuk eginik, eta ene baitan eskas banendi, dakidala zu zarela bethi bizi den eta behinere iraungitzen ezten sua, zu zarela bihotzak garbitzen dituen, eta adimendua argitzen duen amorioa?

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

*Jesus-en errezibitzeko amorio
irakinaz, eta afekzione bortitzaz.*

Jesus-tiarraren hitzak

1. O Jauna, beregaineko debozione, eta erretzen nauen amorio batez, ene bihotzeko afekzione eta indar guzietz desiratzen dut zure errezibitzera hainitz arima sailduak eta debozionetsuk errezibitzen zinituztenean desiratu zaituzten bezala, zeinak bere bizitze sailduaz zure gogarakoak izan baitira, eta xoil debozione beroa ekarri baiterautzute.

O ene Jainkoa, egundainoko amorioa, ene ontasun guzia, mugarri gabeko doatsutasuna, badut guthizia zure errezebitzeko egundaino zure sailduetarik nihork izan duen eta huneraino sentitu eta frogatu ahal duen desir handienaz eta erreberenzia humillenenaz.

2. Eta debozionezko sentimendu hek guziak merezi ezitudalarik badarik ere presentatzen derauzkitzut ene bihotzeko afekzionaek, arima prestuen desir suakartu zure gogarako hek guziak neronek banitu bezala.

Bai eta zer ere bihotz debot batek gogora, endellega, eta desira baitezake, hura guzia erreberenzia guziz handi, eta berodura xoil barrenera batez ekartzen derautzut eta ofrendatzen.

Eztut deus ere enetzat lekatu, ez soberatu nahi, aitzitik nahi derauzkitzut, bai neure burua, bai neure diren guziak gogotik eta borondatez sakrifiziatu.

Ene Jainko jauna, ene Kreatzaillea eta Salbatzaillea desiratzen dut egun zure errezebitzera Andre Dona Maria Birjina loriosa, zure ama guziz sainduak desiratu eta errezebitu zaituen bezalako afekziona, erreberenzia, laudorio, ohore, esker, merezimendu, amorio, fede, esperanza, eta garbitasun guziekin, zu gizon eginen zinela-ko misterioaren berria ekarri zioen Angeruari humilki eta debotki ihardetsi zioenean: Huna ni Jaunaren neskatoa egin bekiz zure hitzaren arauera.

3. Eta nola Jondone Joanni Batista, zure aitzindari doatsu, sailduen beregainkoa, zure presentian bozkarioturik jausika hari izan baitzen Espiritu Sainduak emanikako graziaz, oraino bere amaren sabelean zegoelarik; eta gero ikusi zuenean bere Iesus maiteak gizonen artean zebillala ibiltzen, hagitx humildurik gogo debotaz erraiten baitzuen: Esposaren adiskidea, xutik dagoena, eta hura enzuten duena, bozkarioz bozten da esposaren mintzoa eta hitzak aditurik hala nik ere guthizia saildua, eta desir handia dut amoriozko kar biziez erretzeko, eta zuri bihotz osoz neure buruaren presentatzeko.

Halakotz ofrendatzen derauzkitzut arima debot guzien alegrianzak, afekzione pitstuak, espirituzko eramaitzak, gainetikako argidunak, zerutik agertzen eta heldu zaizten ezagutza guziak, bai eta zeruan edo lurrean egundainoko kreatura guzien partez kantatu eta kantatuko zaizkitzun bertute eta laudorio guziak, ene salbamendua gatik, eta ene othoitzetan gomendatu diren guziak gatik, arren guziok bide bezalako

laudorio eta loria eman diazazugun sekula sekuloronekotz.

4. Ene Jainko jauna, har etzatzu ene botuak, eta zure ezin erranezko handitasuna gatik zuzen onez zor zaizkitzun fingabeki zure laudatzeko eta neurrigabeki benedikatzeko desirak.

Ene botu horiok bihurtzen derauzkitzut, eta bai egun, bai puntu oroz zuri hekin bihurtzeko desira dut, othoitzez nagotela hitzez eta bihoitzez zeruko espiritu eta munduko fidel guziei enekin batean zuri esker eta laudorio emaitiaz.

5. Lauda zaitzatela kantoin, komarka, jende, hitzkuntza, eta erdara guziek.

Barraia bezate laudorioz zure izen saindua, eta ezta dariona ahalik boztasun, eta debozione beroenaz.

Bai eta zeinek ere zure sakramendu handia erreberenziarekin eta debozionerekin ukitzen, edo fede oso batekin errezebitzen baitute, arren egin bitez bire gai zure aitzinean graziaren eta miserikoridaren edireiteko, eta begite othoitz ni bekatore horren gatik.

Finean debozione desiratu batasun gozoga-
rriarekin ardiets dezatenean, ongi konsolaturik
eta miragarriki othurunzaturik zeruko mahain
saindutik ilki ditezinean plazer dutela ni pobre
eta gaizo horrez orhoitu.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

*Eztuela nihork Sakramendu saindua
kuriroski sondatu behar, baina iarri
behar dela Iesus-en imitatzaile
humil bere sentimendua fede
sakratuaren azpian emanik.*

Iesus maitearen hitzak

1. Begiratu behar zare sakramendu hondar gabeko hunen kuriroski sondatzetik, eta hartaz galde alferrik egitetik, nahi ezpazare guzia dudetan ehorzi.

Nork ere sondatzen baitu Jainkoaren maiestea, hura lilluratuko du haren loriak.

Jainkoak geiago daidike, gizonak endellega dezakeien baino.

Paira diteke nihork egiten duen galde debota eta humilla, zein den egia iakin nahiz: bethi presetik dagoenean ikastera, eta dator sainduen sentimendu garbien ondoan ibilli nahi duenean.

2. Doatsua da sinpletasun galdeen bidegaitzak utzten dituen sinpletasuna, eta Jainkoaren manamenduen bide xidor ordokian, zelhaian, eta fermuan dabillana.

Hainitzek galdu dute deboziona, gauza goraegiak sondatu nahi izan dituztenean.

Galdegiten zaitzu ea fedea duzun, eta bizitze garbia deramazun, ez ordea ea Jainkoaren misterio gorak eta barrenak endellegatzen tutzun.

Baldin zu baino beherago diren gauzak endellegatzen ezpadituzu, nolatan iakinen tutzu zu baino gorago direnak?

Jar zaite Jainkoaren azpian eta humil diozozu fedeari zure sentimendua, orduan emanen zaitzu iakintasuneko argia, on eta behar izanen duzun arauera.

3. Batzuek tentamendu gaitzak izaiten tuzte fedeari eta sakramendu sainduari ukitzen zaizkon gauzen gainean, baina ezta hekin, bai ordea etsaiaren falta egin behar.

Eztuzula ansiarik ez iharduki zure gogoetekin, ez ihardets deabruak igortzen derauzkitzun

duden gainean, bainan emezu zinetste Jainkoaren hitzei, haren sainduei, eta profetei, gero etsai gaixtoa ioanen da zure ganik ihesi.

Hainitzetan hagitz on da Jainkoaren serbitzariak halako tentazionerik paira dezan.

Ezen deabruak ez ditu tentatzen fedegabekoa eta bekatoreak; dakiela hek bere eskuetan dadutzala, baina fidelak eta debotak hainitz moldez tentatzen tu eta penatzen.

4. Zabilta beraz fede simple eta dudagabeko batekin, hurbil zakizko sakramenduari erreberentzia humillarekin, eta zer ere ezin endellega baitezakezu, hura utzazu fidanzarekin Jainko guziz botheretsuaren eskuetan.

Jainkoak etzaitu enganatzen, bere buruaz sobera fida dena enganatzen ohi da.

Jainkoa dabilla humillekin, bere burua erakusten deraue humillei, adimendua emaiten deraue xipiei, endellegua, egia, barreneko mamia agertzen deraue arima garbiei, baina grazia estaltzen deraue kuriosei eta urguilluei.

Gizonaren arrazoina flakoa da, eta errebela diteke, ordea egiazko fedea ezin engana diteke.

5. Arrazoin guzia, bilhatze edo galdegite naturala behar zaio fedeari iarraiki, ez aitzindu, ez eta kontra iarri.

Ezen fedea eta amorioak hemen dute garaia, eta bide estali batzuez obratzen hari dire sakramendu saildu eta guzien gaineko hunetan.

Sekulako Jainkoak, neurrigabekoa, eta fingar-beki botheretsuak egiten tu gauza handiak eta ezin sondatuzkoak zeruan eta lurrian, eta haren obra miragarrien kausitzeko biderik ezta.

Halakoak balire Jainkoaren obrak, non gizonaren arrazoinak errazki endellega bailetza, elizate erran behar miragarriak eta ezin erranezkoak direla.

IESUS MARIA IOSEPH

Bortz sensuak dira ikustea, dastatzea, enzutea, usnatzea, ukitzea. A. 391

Mr. Pouvreau a S. Víctor